



Opoton zaharraren hitzak

AVEL.LÍ ARTÍS-GENER

itzulpena:
Jexuxmari Zalakain Garaikoetxea

BOOKTEGI



BOOKTEGI

Guztion liburuak, guztiontzat

booktegi.eus

AVEL.LÍ ARTÍS-GENER

Opoton zaharraren hitzak

Azteken espedizioa bascoen
lurraldera iritsi zeneko kronika

itzulpena:
Jexuxmari Zalakain Garaikoetxea

Luisa,
Txit noble eta nekaezinari,
maitasun osoarekin.

LEHENENGO ATALA

Orain baditut hogeia aldiz lau urte eta ia soilik hatzekin ikusten dut, hatz-mamiekin. Hitz egin nezake nire adin berbera duten beste askori buruz, Ate eta Leihorik Gabeko Etxean aspalditik dabiltzala ez balitz, hilda daudela esateko beste modu bat baita, eta ez dakigu Han ere beren urteen kontuak ateratzen dituzten edo ez. Xalkoko nire lehengusuak, Xalko baino harago, Xalkoren eta Tlalmanalkoren artean, lur-sail kaxkar bat daukanak, zerbait esatearren, nahiz eta berak lantzen duen, amatl paperezko orri-multzo hau dena eman dit, eta berari Nentakatl izeneko andre zintzo batek, antza denez ez zekielako zer egin, askotan gertatu ohi den bezala, eta aprobetxatu ahal izateko, beti mingarria baita holako gauza bat botatzea, gertatu zitzaigun guztia idazten jartzen naiz, oraindik memorian baitaukat. Esan dezaket memoria izan ezik dena galdu dudala eta arrazoi horrexegatik jartzen naiz idazten. Hara joan ginen guztietatik bizirik dagoen bakarra naiz eta ez da paperean idatzita geratuko harrotxoarena egiteagatik, baizik Jainkoaren egia ona delako.

Xalkoko nire lehengusuak eta beste batzuek, ez dut esan nahi lehengusu baizik lagun, askotan esan didate ona litzatekeela guri gertatutako guztia kontatzea, jakin badakidalako. Ez dut esan nahi eurek irakurri nahi dutela, buruz baitakite eta gauza askorik ez dakite idazteari eta irakurtzeari buruz eurak ez baitira sekula fraileekin egon ni bezala eta esango dudan guztia hitzez hitz dakite, hainbeste aldiz entzun baitidate hura azaltzen, eta orain pentsatzen dut ezen beharbada idazteko esan didatela, gauza haiek denak azalduz ostera astin ditzadan aurreztu ote dezaketen ikusteko. Hots, idazten entretenituta naukaten bitartean, oso zaila baita idaztea, ez ditudala zorabiatuko nire agure-kontuekin. Izan ere zaharra banaiz, hogeia aldiz lau urte baititut, nire aita Opoton Zaharraren kontaketa arabera, nahiz eta orain Opoton Zaharra ni naizen eta jada, aurrerago, ez den nire semea izango, semerik ez baitaukat. Izan nuen bat hemen, baina galdu egin zitzaidan, hain zen erkina, eta sekula ez dut jakin Aztlan Zaharrean besteren bat izan ote dudan, zeren semea egiteko buila guztiak eginak dauzkagu baina sekula ez dut ikusi neska hura, aurrerago azalduko dudanez.

Nik ospa egin nuen, eta nik dakidala, hark ez ditu sekula bere oinak lurralde hauetan ipini, bere garaian esango denez. Esango da baita ere Opoton izena datorkigula gure aitak bere baratzean mofeta bat zeukalako lotuta, soilik gu ezagutu eta maite gintuena, etxekoak, eta [ezezagunen bat] igarotzen zenean, bere txizarekin bustitzen zuen, eta hasi ziren Opoton hemendik, Opoton handik, eta Opoton izenarekin geratu ginen, eta guk hain duina bihurtu dugu ezen atzeneko -tzin¹ bat ez zatekeen txarto geratuko, aurrerago ikusiko denez.

Era horretara iristen zitzaizkigun izenak Aztlan Berrira² eta bestela, ni hildakoan, gutxi faltako da, egia esan, hogeia aldiz lau urte baitauzkat, inor ez da gogoratuko horretaz. Bizirik dirauen bakarra naiz eta besteek, artean bizirik, azaldu izan badute –eta horri buruz zalantza betetik nago, galdu egin da memoria. Norbaitekin mintzatzen naizen bakoitzean susmoa dut pentsatzen dutela nire

¹ Atzizki gurgarria

² Historiagile askok onartzen zuten ezen Aztlan izenak *lertxun-lekua* esan nahi zuela. Gaur egun onartzen da *leku zuria* esan nahi duela, *egunsentiaren tokiaren* sinbolotzat, hasiera, bizitzaren goizalba. Aztlan Berria orain Mexiko dena zen, eta Zaharra dagokionean ikusiko da.

burutik ateratako asmakizunak direla. Horregatik saiatzen naiz gero eta jende gutxiagorekin hitz egiten, ez baitut gustuko nitaz trufa daitezen, eta trufatzen dira bai horretarako haria eman gabe ere, izan ere gaur egun errespetu gutxi dago agureekiko eta auskalo nor poztuko litzatekeen aurpegia errautsezko sentituz. Jende fantasiotsu asko ezagutzen dut gauzak asmatzen dituen eta azaltzearen azalteaz sinisten amaitzen dutenak, esango bagenu bezala norbaitek hormaren kontra jarriko balitu, eurek ere ez luketela jakiterik izango egiatan gertatu ote diren edo gezurrez gertatu ote diren. Beste batzuek uste dute amestu egin dudala eta hauei soilik galdetzen diet ea noiz ikusi duten amets bat hainbeste ilargi irauten eta ea zer erantzuten duten. Bestalde, gutxi amesten duten horietakoa naiz eta ez zait inporta esatea, izan ere lotan ez dut nik agintzen, eta uste dut ulertzen didazuela. Nire ametsak hauskor eta laburrak dira eta gauza sinpleak amesten ditut: ura edaten dudala erreka batean, egur bat iltzatu eta ezpal bat sartzen zaidala eta min ematen dizula dirudi, edo fruta bat jaten dudala. Eta ez dena batera baizik [gauza bat] gau batean eta bestea beste batean eta kitto. Eta zuri, Kostik, burugogorra zarenez esaka eta esaka amets bat dela, esango dizut Aztlan Zaharreko gorabehera guztiak amestu ahal izateko bizi izan ditudanak baino Azao gehiago burutu beharko nituzkeela, banaka-banaka amestu beharko nituzkeela kontuan hartuz. Uste dut ezen, behin hau esan ondoren, fidakaitzenek ere sinistu beharko didatela. Nik azaldu nahi dudana egia da, benetan gertatu zen, eta egia borobila da Aztlan Zaharrera joan ginenetakoa naizela. “Aztlan Zaharra” esateak barregura ematen duela aparte, orain badakigunean nola esaten den. Baina enoratzen duenak zer. Baina hain gutxi eta zauriturik iritsi ginenez orain galdu egin da gure kasta. Gainera: urte askoan [zigortua] izango zatekeen hau aitatzea ausartuko zena, jakina baita ezen untxi bat daukazunean hanka azpian ezer gutxi egin lezakeela untxiak, esana gera bedi hitz egiteko modu figuratuan. Nik-neuk prestatu behar izan dut tinta, eta ohartzen naiz gure oiloen lumekin ere ondo idatz daitekeela, kontuan harturik fraileekin ikasi nuela erabiltzeko modua, esaten zidatarik: Tú, Joaquín, córtate esas plumas³, euren artean hitz egiteko modu dibertigarria baita, eta lumak amaitzen bazaizkit oilo gehiago dauzkat atarian, zeren “Joaquín” bromatzen horrekin hasi ginen eta Joaquinekin geratu nintzen, eta paperari dagokionez, nahikoa badaukat zeren Nentakatl izeneko emakume honek pila bat eman baitit, zeina erabiliz, fraideek gutaz, mexikeaz, idatzi duten guztia idatz baitaiteke. Prestatu ahala nire lehengusuari irakurriko diot eta beste lehengusuei, lagunei alegia, jakiteko zer iritzi duten eta ea ulertzen den, jabeturik idazteko kontu hau oso nekoso dela, lumak amatl papera urratzen baitu –eurek beste luma-mota bat darabilte– eta tinta barreiatu egiten da. Behar bada Maxtlik, hain trebea denak marrazten eta koloreak prestatzen, hobeago bat egingo zidakeen baina Koatintxanera [joan] zenetik ez dut ikusi eta ez dakit zer gertatu ote zaion, oso trebea baita marrazten eta koloreak prestatzen; azken boladan izaeraz oso aldatuta zegoen eta ez zen lehengo Maxtli eta oraindik ez dut ulertzen bat-batean Koatintxanera joateko bere grina, herri ezin kaxkarragoa baita, gu agurtu ere egin gabe, eta lehenik anaia hemendik, anaia handik eta gero badoa agur ere esan gabe. Uste dut irteera-eguna azalduz hasi beharko nukeela eta gero gauzak gertatu ziren bezala esaten jarraitu, batzuk besteen atzetik, eta nor daki oro har ulergarriagoa gertatuko ote litzaidakeen. Irudipena dut igarotako gauzak gauzak bezalakoak direla, baina horrela esanda ez da aski argi geratzen. Gauzak bezalakoak dira. Bidean zehar utzitako gauzak bezalakoak dira, bat hemen bestea han, eta [bideari] berrekiteko unea iristen denean memorian aurkitzen ditut handik pasatzen naizen heinean eta orain hobeto geratu zait. Ikusi eta

³ Gaztelaniaz jatorriz: “Zu, Joaquín, ebaki itzazu luma horiek”.

errekonozitu egiten ditut, alegia. Orain ikusteko dago zer esango duen Xalkoko nire lehengusuak, izenez Tiakauhyotl⁴, ia ezer ez den arren, eta puntu horretara iritsita hobe aurrera egiten badut, ezagutzen baitut nire jendea.

Aldiz ostearen irteera guztia azaltzen hasten banaiz aurrekoa ilun geratuko da geratuko. Ez da aurreko guztia ulertuko. Beraz atzerago jo beharko dut, agian nire semea jaio zen arte, goizegi galdu zena, ez Aztlan Zaharreko neskarena baizik nire andrearena, bere garaian azalduko baita. Dagokion bezalako hasiera izango litzateke baita ere Kuauhtxitxiken gauzetatik hastera, kontuan hartuz sinesten zailena dela eta, diogun, ezen, hori sinetsita hurrengoa biraka etorriko dela harri bat bezala, hots, txarrena pasatuta edukiko dugula. Uste dut hasiera ona litzatekeela ze-totxtli, ze-kalli delakoa, hasiera ona baita.

Orain hogeitau aldiz lau urte dauzkat baina ze-totxtli, ze-kallin solik bost aldiz lau neuzkan, hogeitau esateko modu bat, eta gero gehiago izaten jarraitu nuen. Nire aitaren, Opoton Zaharraren, kontuak, buzingilea ni bezala bera, bat zein bestea – eta leinu osoa– Tenotxtitlaneko Kanaberadian eta Palmadian finkatuak. Behin Aitztl⁵ eta biok gure etxearen atzeko partean eserita geunden oinak uretan, uretara begira dagoen partean, zeren bestea, aurrekoa, lurreko bidera ateratzen baitzen. Eguzkia Tlakopanen aldetik etzaten ari zen eta Aitztl eta biok gure Kainaberadiko eta Palmadiko joan-etorriaren beha geunden arratseko ordu hartan, kanoa guztiak beren herrietara joaten zirenean eta ez dakit [kanoen] kontu hori ondo esana geratzen den. Bera ofizioz zilargilea zen eta bi alditan utzi behar izan zuen bere zeregina Tlaxkallanekoen aurka guda egiteko, eta ezkondua zen. Etxe Handiko zilargilea zelarik armadatik bere kasara irteteko modua aurkitu zuen, izan ere jaun handi batek bere galtzarbearen azpian hartzen bazaitu dena lor daiteke, batik bat iraganean. Bere gerla-ekintzei buruz mintzatzen zen Arrano⁶ bat izan balitz bezala baina egia da sekula ez zuela gehitu luma bat bere luma-gandorrean eta ez nuke gezurrik esan nahi baina esango nuke ez zeramala ezta gandorrik ere. Esaten dut lehen, zeren gerora bai. Ez dakit kanoen kontu hori ondo esana geratzen den. Jende askori azkarregi jartzen diote izena eta gero handi egiten direnean beren izateko modua ez dator bat jarri dioten izenarekin eta izena betiko daukate, eta batzuetan barrez hiltzeko gogoia ematen dute. Hobeak dira behin hazita norberari jartzen dizkioten izenak, adibidez nire aitari jarri zioten Opoton, berehala gogorarazten baitizu pertsona. Opotonek mofeta gogorarazten du eta orduan dena geratzen da oso garbi esan nahi baitu pertsonak izenaren antza duela. Baina ni ez ninduen erakartzen gerla egiteak. Esango didazue buzingile ofizioak ez duela harro egotea ahalbidetzen, baina nik nahiago nuen nire bizimodu lasaia, aitarengandik, aitonarengandik eta aitonaren aitarengandik, jadanik denak hilda eurak, datorkizun ofizioarekin, zeren bat gerlaria izateak izarretan markatuta dagoela esan nahi du. Nik-neuk oso markatuta neukan baina ez nuen ezagutzen, eta ohartu nintzen ordua iritsia eta gizon batek desiratu ahal duen guztia daukazunean: kanoa, lanlekua eta emaztea. Eta non familia guztiak laguntzen dizun, horretarako baitaukagu. Etxe bat eta ortua, zeinak lanez akabatu ez eta gainera denborapasarako balio eta probetxua ateratzen dizun, gutxi, argi dago, baina ondo dator aurrera (segitzeko). Xilotl Aitztliren emaztea zen eta uste dut Akatlan aldetik zetorrela.

⁴ Kementsua.

⁵ Izen osoa *Aitztl kuauhtl* da, baina laburtzen dut irakurketa eta memorian gordetzea errazteko. Horixe egiten jarraituko dut izen oso luzeak topatzen ditudan bakoitzean.

⁶ Gerlari Arranoa, armada aztekaren jerarkia militar handia.

Azoka-egunetan astean zehar prestaturiko buztin guztia saltzen nuen eta ez nenbilen batere gaizki. Horregatik bada jarri naiz Aztlan Zaharrera joan gineneko gertakari guztiak azaltzen. Ez zihoakidan batere gaizki baina uste baduzue ulertarazi nahi dizuedala potxteka⁷ batek beste kakao-ale gordeta neuzkala esan nahi du hitz pobreekin azaltzen dudala neure burua, mukiz betetako indioilar baten antzera, oso gauza gutxi esaten baitituzte zorigaiztokook. Buztin egositako ontzi dezente saltzen ziren eta buztina goxatzea eta forma ematea gauza erraza dirudi ikusten duzunean, baina jarri zaitezte eta nekosoena buztina egostea da eta nire trasteak ez zeuden oso gaizki. Eta ez da gure buztina oso ona dela; Oxakako beltza, urrutiago ez joatearren, askoz hobea da eta ez da hainbeste pitzatzen labe barruan, eta zenbaiteraino bero egon behar duen soilik ikasten da urteak eta urteak buztingile den aitaren ondoan egonda. Egurak dena lehortzen duela jakitea bezala. Eta ezin duela izan berdeegia ere. Haiek, Aztlan Zaharrean, tornua daukate, azalduko dut aurrerago zer den, zeinak lanari meritua kentzen dion arren, askoz hobeto amaituta uzten du, beraz ez dakizu inoiz zer den onena. Orain oso ezberdinak egiten dituzte eta ez dira hain politak ikusgarriak ko. Beste era batera egosten dituzte, eta dena aldatuta dago. Azkarrago egin eta egosten dituzte, baina nire aitak esango zukeen badirela uneak non batek ez duen bere burua ukitzen eta arrazoi osoa edukiko zukeen. Orain kasik ez dira hiru hankako ontziak ateratzen eta besteekin iruzur egiten dute margotzeko orduan. Nire adiskideak ietl erretzen zuen kainabera barruan kiribildutako orriarekin eta guk egiten irakatsi genien zeren, bestela, nondik etorriko zitzaien ietl sekula ikusi ezean, galdera modura botatzen dut. Baina nik ez dut sekula erretzen, esaten baitute denborarekin ez dela oso osasungarria eta asko ezagutzen ditut soilik ikusiak izateko erretzen dutenak. Uste dute horrela jaunak imitatzen dituztela. Eta probetxurik gabe erretzen duen gauza batean darabilte kakaoa, labeko egurra ezberdina baita. Esan zidan Tlaxkallanen kontra beste gerla bat egiten bazen –eta bazetorren garaia, eurei gatza falta zitzaien aroa– alde egingo zuela, eta zortea bazuen preso bakar bat egiteko betiko itzuliko zela duintasunez beteta, eta orduan zilargile ofizioa utziko zuela, murrizta haren iritziz, baina nik ezagutzen ditut aski ondo dihoakien beste batzuk. Eta ez da kontua norberak landatu duena ateratzea, diogun horrela.

Nik esan nion ezen egia bada plazerra eta ospea dakarrela aldi berean azare arriskutsuz beteta dago eta berak preso bat har zezakeen bezalaxe bera bilaka zitekeen preso. Eta Tlaxkallango Tenplu Handiaren erpinean hiltzekotan Ate eta Leihorik Gabeko Etxera joango zela zuzenean, non ondo begiratuta, ez zen ez zilargile ez gerlari izango. Lehen oso sinestunak ginen baina gertatu zaizkigun gauzen ondoren eta ikusi dugunarekin ez gara hainbeste, eta Xipe-Totek Gure Jaun Xehetuak barka nazala. Aitzitik ietl erretzen zuen bere kainaberarekin baina nik sekula ez dut erretzen; begiak negarrarazten ditu eta ez da ona osasunerako. Orduan Tenplu Handiko adarrek jo zuten eta nik eta nire adiskideek esku bat lurrean ipini eta muin eman genion, Gure Jaun Handiak, Mintzo Den Hark,⁸ belarriak zulatu behar zituen tigrearen hezurarekin eta bere odol baliotsua Lau Haizeetara zipriztindu, eta zati hau dena bikain atera zait. Aitzitik esan zidan egun

⁷ Merkataria, adiera zabalean. Batik bat bidaiariak ziren eta herrialde osoa zeharkatzen zuten zerbitzari-andana handiak lagunduta. Aldi berean gobernatzeko zeregina zeukaten, informatiboa-edo, gure gaur egungo hiztegi zatarrean espioitza esango genukeena.

⁸ Hitzez hitz, *Uei Tlatoami*, Mintzo den Handia. Hasieratik asimilatu behar da teokraziaren ideia, non Jainko-Jauna mintzo den bakarra den eta gainerakoek entzun eta soilik hitza erabil dezaketen Hark zuzenean galde egiten dienean.

haietako batean teponaztle⁹ jo eta gerlara deituko zutela, eta nik esan nion on egin ziezaiola gerlara bazihoan, nik nire buztinarekin jarraituko nuela, eta mespretxuz egin zidan irribarre, non daukazu aurpegia galdetzeko bezala egiten zuen keinu harekin eta Tlateloloko¹⁰ merkatu atzeko kale baterantz abiatu zen, non ezpain berde eta hagin gorriko neskak zeuden. Gaur egun ez daude kale hartan eta ez dauzkate ez ezpainak berde ez eta haginak gorri, baizik herri osoan zehar sakabanaturik daude, eta ez dira osasunerako onak ere, eta nik uste dut Xilotl ilargi bakoitzeko hartaz hartazko hartaz gaixorik zegoela, esan dezagun.

Orduan nire etxean sartu nintzen baina lehenago nire kanoa ondo lotuta zegoen begiratu nuen, eta hala zegoen, nik-neronek asmatutako korapiloekin lotzen bainuen beti, hots, soilik ni nekiela egiten: sokak bi itzuli ematen zituen katebegian eta bigarren katebegian sartzen zen eta, estutuz estu geratzen zen. Nire andrea keixaka zegoen bere alfonbra gainean eta egun haietan intziri handiak egiten zituen bere koskorra intziri egitekoa baitzen eta hura jasandako edonork egingo zukeen intziri. Badakizue nolakoak diren gure Aztlango andreak: beren koskorra gaizki etorri arren sekula ez dira keixatzen. Hark, etxeakoak, gaizki pasatzen zuen bere lehen koskorra baitzen, pasatzen zailena baita, denetan azkena bezalaxe, diotenez okerren pasatzekoa baita. Alfonbratik altxa eta afaria platanondo freskoko orritan bilduta eman zidan, gure Kainaberadi eta Palmadira egunero Kuauhnahuaketik ekartzen zituztenak eurak, eta ez dut gogoratzen gau hartan euria egin zuenik, izan ere nik aipatu nahi nuen egunean euri asko egin zuen eta iruditzen zait arrats hartan ez zuela euririk egin.

Horregatik umea izan ez bagenu bezala da, handik gutxira zendu baitzen. Niri afaria eman ostean nire emaztea ohantzera joan zen, baina euria egin zuen aipatutako gauean emaginaren bila joan behar izan nuen eta orduan jaio zen nire oinordekoa, ezer gutxi hartu zuen oinordetzan zeren zeukan presa pixka bakarra alferrik galtzekoa baitzen. Oso ondo gogoan daukat ni-neu izan nintzelako zilbor-hestea esekitzera joan nintzena –ez neukan lagun gerlaririk zeregin hori eginarazteko eta gaizki ikusia legoke ni ateratzea esanaz Aitztlil gerlari bat zela– eta, kontuan hartuta hainbeste euri botatzen zuela, ez nuen nire etxetik gehiegi urrundu nahi, busti-busti geratua bainintzen. Denak tematu ziren esaten baratzean lurperatu behar nuela nire kokonetlen zilbor-zatia, handitzean bera ere gerlaria izan zedin. Oso lasai nengoen ni: Totxkatlen abaroan jaioa zen, babesle handia baita, eta edon edon edonor izan edonoiz bilakatzen zelarik adineko, denetan zortekoa izango zen. Esan nahi dut jadanik izar batean idatzita dagoenean. Baina badiot, handi izango zenean, eta sekula ez zen handia izan, zendu egin baitzen artean ttiki-ttikia zelarik.

Niri bost hura gerlari izatea zein ez izatea. Behar bada gehiago estimatuko nukeen buztingile izatea ni, bere aita, naizen bezala, baina Aitztlil hainbeste tematu zen, nik ez nekien nola kontra egin, eta orduan baratzean lurperatu nuen, euri gehiegi egiten zuen arren. Andrea bakarrik utzia genuen etxeakoekin zeren jakina baita erditzeko unea iristen denean ez duela gizonik egon behar etxe barruan, eta hori zen lehen. Aldiz orain edozein tokitan sartzen dira, eta esango zenukete soilik gonak ematea falta zaiela. Barrutik kanpoko [buila] guztia entzuten nuen nik eta

⁹Tinbal horizontala hustutako zuhaitz-enborrarekin egina. Goiko partean bi mihi daude tresnaren luzeera ia guztia hartzen dutenak. Makila batzuekin mihi gainean jotzen da eta hainbat doinu ateratzen dira, kolpea zirrikitutik hurbil edo urrun dagoen.

¹⁰ Tenotxtitlan Handiko auzo bat, garai hartan munduko hiririk zabalena eta populatuena. Tlatelolko, herri independentea izan zena, Tenotxtitlanen hazkundera hurrupatuta geratu zen.

zihuapahtli infusio bat eman zioten, erditzen laguntzen duen sustraia, baina alferrik izan zen. Badira ulertzen ez diren gauzak, saiatu arren. Ordura arte ez ziren jabetu nire emaztea ze-mikiliztli bat zenik eta, beraz, sustraiak ez zion onik egiten. Emaginak beste edabe bat prestatu zuen beste kikara batean –egia esan, etxean ez geneukan horren gabeziarik– baina aski sustrairik [gabe]: tlakitzin baten buztan-zati egosiarekin egiten den edaria. Gaur egungo edabeetara hainbeste zaletu zaretenez, erremedio atzerritarrak izanik nola nahi duzue onik egitea hemengo jendeari, idatzita gera bedi galdera moduan, asko kostatuko zaiuze lurreko botika zaharren [efikazian] sinistea, eta nola tlakitzinaren isatsa ze-mikiliztli pertsoneri ondo dagozkien egosita. Esana gera bedi egia, orain ez diozue kasurik egiten ez eta zuen jaiotza-eguneko zeinuei ere, eta badakizue ez dudala hitz egiteagatik hitz egiten.

Oso pozik zeuden denak nire semearen jaiotzarekin, eta irizten zioten nire antza zeukala eta gerlari on eta kementsua izango zela, osasuntsua baina ez dakit. Diot nik nola ahal zuten asmatu, galdera bezala jarrita, konplimendu bat ez izatera, zeren nire semearengan ikus zezaketena haragi gorriko pilotatxo bat baino ezin zen izan, zeuzkan zulo txo guztietatik jariatzen zena. Zulo batetik zukua sartzen zen eta beste guztietatik botatzen zuen. Biharamunean, ontzi batzuk egiten nenbilela, buru-zorabio bat sentitu nuen, jainkoek lurrikara bidaltzen digutenean sentitzen den bezalakoa. Iritzi nion [lanlekua?, etxea?] gainera zetorkidala baina nire barruko lurrikara baino ez zen, uste dut ulertuko dela.

Pixka bat olgatzera atera nintzen eta ateri zegoen sekula ez duelako goizean euririk egiten ur-boladatan gaudenean, arratsalde osoan egiten baitu euri. Xilotlen ahizpa Tlakopan aldera bizi zen eta haren senarra, Okua izenekoa, Aztlan Zaharrera etorri ez zirenetakoa da. Tlatelolokora joan nintzen eta nire adiskide Kuauhtxitxiken etxe aurretik igarotzean pentsatu nuen ondo legokeela hura agurtzera sartzea, gainera heziketa onekoa da, eta sartu egin nintzen. Okua hau sekula ez dut orduko Kuauhtxitxik bezain adiskide azkarrik izan, arotza zena eta Tlatelolkon bizi zena, non soldaduz beteriko kaserna bat dagoen, justu gaur ere kaserna bat dagoen toki berberean, era honetara ere esan baitaiteke.

[Kuauhtxitxikek] esan zidan oraindik bere asmakizunean ari zela lanean eta oso aurreratua zeukala haren eraikuntza. Gauzak asmatzen pasatzen zuen bizitza eta zurez egiten zituen, ofizioz zurgina baitzen. Denok estaltzen genuen geure etxeen sarrera arpilerarekin baina hark zurezko benetako ate bat zeukan, zur landatukoa, berez itxi eta arotzaren trebezia erakusten zuena. Ez dut uste gure Kainaberadi eta Palmadi osoan hain gauza txoraa zegoenik inon, ez eta barrez leherrarazten zuenik ere. Dirudienaz atearen atzean harriak zeuden lotuta, zeinek jaitxi eta aipatutako atea ixten zuten, baina ezin dut egiten dudana baino hobeto azaldu nire ofizioa buztingilea baitzen eta ez zurgina, eta, diogunez, bakoitzak bere gauzak ezen. Aztlan Zaharrean ikusi nituen Kuauhtxitxiren ateak bezalakook, baina ez berez ixten zirenak, eta ez dut uste gure Kainaberadi eta Palmadian beste gauza hain txororik zegoenik.

Lakuaren biurgune batean ari zen lanean, Tezkokotik gertu, eta egunero joan ohi zen lanera pixka bat, eta mundu guztiak eta hari buruz mintzatzen entzuten zuen mundu guztiak barre egiten zuela zuelarik, esaten den moduan ezkutuan egiten zuen. Badakizue nolakoak garen lurralde hauetan, bertan bizi garen erdia beste erdiaz trufatzen igarotzen dugula bizitza eta alde trufatzaileak talde trufatua baino askoz hobeto pasatzen duela, diogun. Ematen du hari buruz eta haren kanoari buruz beti esaten ari dela “san noiakauh”¹¹. Egun haietan Kuauhtxitxik oso

¹¹ Horren antzik handiena duena da “*inoiz ikusiko gaituk*” mehatxuzkoa. Inpresioa dut ez dudala aski ongi miatu pasarte hau.

kanoa arraroa egiten ari zen eta hura ikustera gonbidatu ninduen, ez nuela trufarik egingo hitz emango nuen baldintzapean, eta eman nion hitza eta sekula ez dut isekarik egin, motiborik ere ez dut sekula izan, salbu trufa egiteko gogoia ematen zizula, hain baitzen arraroa kanoa hura.

Nire kanoan abiatu ginen, besteak bezalakoa zena bera, hori bai, zuhaitz-zati on bakar batetik eginga, Xotximilko aldeko mutil baten obra, zeinen izena uste dut gogoan daukadala. Erribera ondoan egiten genuen arraun eta laster iritsi ginen bertara, eta orain behar dut gauzak ondo azalduak azaltzen jakin eta ez dakit lortuko dudan, eta aski pozik nago orain arte idatzitakoaz, ez bainuen uste hain laua izango zenik zeregin hau. Zeren orain dena berrirakurri dut eta oso ondo ulertzen da, baina hala iruditzen zait. Orduan, ikusi nuen lehen aldian, oraindik ez nuen ezagutzen Kuauhtxitxiken kanoa; orain buruz dakit, hainbat aldiz igo bainaiz bertara. Batzuetan egunak eta egunak eman ditut bertara igo gabe gainean bainengoen lehendik, eta hau esaten dut nire lagunei barrea eragiteko. Hots, ilargiak eta ilargiak egon naiz handik jaitsi gabe, zinez bertan bizi nintzela ematen baitzuen, zeren ondo begiratuta, bertan bizi nintzen. Oso kanoa handia zen, gureak baino hamar edo hogeit hamar berrogei aldiz handiagoa, eta gauzak dagokion bezala kontatzen jarrita esan beharra daukat ez zuela egiatan kanoa bat ematen. Norbaitek esan izan balu “honek etxe bat zirudik” beste batek esango zukeen: “Agian bai, etxea izango ziteke”. Etxe bat izan zitekeen edo beste zera arraroren bat. Baina ziur naiz kanoa bat zela eta bestalde hasieratik esan eta ziurtatu zidan Kuauhtxitxikek. Esan zidan:

—Opoton, goazemak nire kanoa ikustera.

Eta gero, Tezkokotik hurbil geundenean, berriro errepikatu zidan:

—Hau, Opaton anaia, nire kanoa duk. Oraindik ez zaukaat erabat amaituta baina egiten hasi nintzen egunean baino gutxiago falta da.

Asko gustatu zitzaizkidan bere hitz zuhurak eta ikusten lehenetarikoa izan nintzen, gorago esanda geratu den bezala, denetan lehena ez izatera. Oso ondo landutako zurezko obra zen, lan egiteko moduan ikusten baita zurginaren, zilargilearen edo buztin-gilearen trebezia. Beheko partean, hau da azpian, zurezko eserleku moduko batzuk zeuden arraunlari-entzatzat, eta arraunak kanpora ateratzen ziren zulo batzuetatik, beheko partea goikoa bezalakoa baitzen, estalia. Dena estalita beheko zuloak izan ezik, eta goiko zirrikitu batzuk, zeinak oraintxe esango dudan zertarako balioko zuten. Goiko aldea zur lau-ko estali bat zen, ondo findua, horretan ikusten baita zurginaren, zilargilearen edo buztin-gilearen abilezia, eta bazegoen eskailera bat behean ere bazegoena, izan igotzeko zein jaisteko, bestela ez bailitzateke eskailera bat. Kubiarta gainean eta hobeto esanda aurreko parte aldera, izan aurrean edo hobeto esanda aurre-aurrean, etxe baten antzeko bat zegoen kanoa erosiko zuen jaunarentzat, hauxe baitzen Kuauhtxitxiken ideia: kanoa jaun aberats bati saldu eta bera ere aberats bihurtzea eta bere etxetik ezin izango zituen beheko partean izango ziren arraunlariak ikusi, parte estalia diogun. Bi aldiz hogeit hamar arraunlari-entzako tokia zegoen, alde banatan hogeina, arraun egiteko bi zuloekin, eta Kuauhtxitxikek zioen bere kanoa arin joan zitekeela, zeren bi aldiz hogeit hamar arraunlari bakar bat baino bi aldiz hogeit hamar arinago doaz, zioen. Ez nuen oso ongi ulertu, [saiaitzen] nintzen arren eta orain hobeto azal banezake da geroago aski ondo ulertu nuelako, eta hainbeste beldur eragiten zidana azaltzen aurreratzen ari naiz, eta ikusten dut ez zela hainbesterako. Hasteko pentsatu nuen ez ote zen nire adiskide Kuauhtxitxiken amarru bat, adatsak aurpegira erortzen zaizkizunean bezalakoa, baina aurrerago konturatu ginen arrazoi osoa zeukala eta kanoa berak pentsatutakoa bezalakoa zela eta zioen modura zebilela, ura ebakiz, hari so egin arren batek ulertzen amaitzen ez zuen modura.

Kanoak arinagoak eta besoak sendoagoak zeuzkateneke ere ez zuketene sekula harrapatzerik izango. Nik soilik esan nion zuraje hark denak oso astun egingo zuela kanoa, eta berak erantzun zidan zama arraunlari guztien artean bananduko zela eta bakoitzari huskeria txikitxo bat egokituko zitzaioela.

Makina bat barre egin nuen ateraldi harekin, eta Kuauhtxitxik haserretu egin zen eta bota zidan emana niola kanoaz ez trufatzeko hitza, zeinari erantzun nion ez nintzela kanoaz trufatzen ari bere buruaz baizik eta horretaz ez ginela mintzo izan, eta pentsatu nuen “ondo esana, Opoton!”, eta errieta egin zidan sobera eta nire kanoa osoa arrabioz beteta egin genuen itzulerako bidaia.

Beti gertatu izan zait nire elkarrizketen ondoren besteen aldetik haserrearek egotea, eta are erantsi zuen nik ez nuela sekula ezer onik egingo ergela eta temosoa bainaiz gauzak ez ulertze aldera, eta egia osoa da eta gaizki daramat. Gauza jakina da sekula ez dudala balio izan eztabaidatzeko eta beti isildu behar izaten dut hitzak bukatzen zaizkidalako; gauzarik onenak behin joanda direnean pentsatzen ditut, hots, balio ez dutenean. Nik esan nahiko nukeena ateratzen ez zaidanez haserretu egiten naiz eta haserreare ziztu bizian kutsatzen da.

Aldiz, Aitztlík beti kontrara dabil, eta denek zuri diogunean zuria delako, berak beltz, nola benetan beltza dela pentsatzen duen, hala soilik esatearren diogunean, eta beltzak konbentzitu gaituenean eta denok diogunean beltz beltz beltz orduan berak dio berde, eta osteratu gu konbentzitzera guk berde esan arte. Hori dena esana geratzen da nire adiskide Aitztlíren memoria laidoztatzeko batere gogorik gabe, baizik soilik egia osoa delako. Oiloen kontu hark frogatzen du: inoiz ez ginen hainbeste izan hari kontra egiteko, zeren egia baita batek daramanean besteek ere badaramatela, eta askotan isilarazi gintuen denak. Nire emazteak ere esaten zidan, baina hark hitz erdiekin zeren, zuzenean sekula ez zen ausartuko. Cuitx nonen nipaktsaktsintli¹². Emaztea, ez dago esan beharrik, oihu bakar batekin eta ez oso sendoz isilaraz nezakeen. Guk ia inoiz ez dugu oihurik egiten, gerlako irrintziak izan ezik, beste gauza bat baitira, eta hemen ipinita geratzen bada ez da fede txarragatik Aztlan Zaharrarekin kontrastatzeko baizik, han asko altxatzen baitute ahotsa, Opoton buztingile deritzanak berehala azalduko duen bezala.

¹² Hitzez hitzeko itzulpenak apenas adierazten du esanahia: Gutxi-asko hauxe esan nahi du “agian ez ote naiz aski?” (“Zu isilarazteko”, kasu honetan).

BIGARREN ATALA

Nik-neuk ikusitako gauzak konta nitzake, ongi ala gaizki, auskalo, baina asko kostatzen zait ni aurrean egon gabe gertatu diren gauzak kontatzea, badakidan arren benetan gertatu direla. Burutu behar dudana ahalegin-legea da zeren herriaren eta urteen jakinduriak dio borrokarik txarrena egiten ez dena dela. Eta badakizu zertan ari naizen, Okuik. Badakizu norantz noan. Ezpain adiskideak mintzo ziren, eta pozten nintzen gauza haiek entzutean eta ziur nago ez zutela gezurrik esaten, zeren idatzi berri dudana hiru aldiz irakurri dut eta ezin dut [katramila] ebatzi. Ikusiko dut aurrerago denbora librerik daukadan berridazteko eta behar bada orduan lortuko dut. Aldiz, idazki honetan sartu behar dira, historiaren parte baitira gertatu zirenean ni aurrean ez nengoen arren. Haustura. Haustura esaten zitzaion. Ketzalkoatl onak¹³ gizonak, zuhaitzak, hodeiak, abereak eta dena egin zuenean, ni ez nengoen lekuko modura eta, hala ere, inork ezin zezakeen esan gizonik, zuhaitzik, hodeirik, abererik eta oro ez dagoenik. Kanoa handiarena nik neuk ikusi nuen, lehen gazte baintuen begiak eta ezerk ez zidan ihes egiten. Baina ni ez nengoen Gure Jaun Handiari, Mintzo Den Hari, erakutsi ziotenean. Nola egongo nintzen han, jartzen dut galdera gisara. Ez dut uste buztingile batek sekula ikusi zuenik, ez ezein beste ofizio edo eremuko inork, zeren igarotzen zenean errespetuz makurtzen baikenuen burua eta burua jaitsita, beraz, nola ikus genezakeen?, galdetzen dut berriro, eta galdera bezala geratzen da, baina ez diot inori galdetzen.

Soilik behin, nire bizitza osoan, lehen aldiz sartu nintzen Etxe Handian, eta ez Jauna ikusteko ez antzeko beste ezertarako. Gero beste behin joan nintzen eta orduan bai Jauna ikusteko izan zen, eta aurrerago esango du Opotonek berak, ordua denean. Lehen aldikotz auzi bat neukan auzo batekin eta Telpilkallira joan behar izan genuen, Etxe Handiko beheko gela batean zegoen, hain zuzen, eta horregatixe sartu nintzen. Jainkoak ematen badit kemena eta osasuna, azalduko dut ordua iristen denean. Matontli babu hutsa zen eta bere gain hartu behar izan zuen, zeren jakina baita adarrak, fruituz kargaturik, auzoaren baratzerara sartzen diren arren, adarrak eta fruta zuhaitzaren jabearenak direla. Ulertzen oso erraza da eta Gizonen legeak beti azaldu izan du, baina Matontlik soilik kolpeka ulertu zuen eta erresumindu egin zen nirekin betiko, hain mendekuzalea baita jendea, eta nik, hala ere, ez nion sekula kolperik eman, eta sekula ez zituen ukitu nire sapoteak¹⁴. Hark, Gure Jaun Handiak, horrela nahi izatera, haren aurpegira begiratu ahal zenuen, baina ez dut gogoratzen inoiz nahi izan zuenik. Lehengoaz ari naiz, gure jaun Natural eta Benetakoez, eta ez oraingoez, izan ere. Azihtli bazter-nahastaile bat zen eta gau eta egun Itsasora joanez irabazten zuen bizitza eta, bueltan, arraina ekartzen zuen Etxe Handirako. Pentsatuko zuen, ezen arraina ekartzen zuenez Etxe Handirako, ez zitzaiola ezer gertatuko, eta behin betertzez begiratzen ausartu zen, disimuluz, eta Jaunarekin zegoen tlakotxkalkatl bat konturatu eta txiki-txiki egin zuten. Ibiltzeko gogorik gabe, arraina ekartzeko edo Jaunari betertzez begiratzeko gogorik gabe, utzi zuten, hain txikituta geratu baitzen.

¹³ Ketzalkoatl Jainko Ongiemailea da, biziaren eta gizonaren sortzailea. Tonakatekuhtli eta Tonakzihuatlen semea eta Huitzilopotxtliren anaia da.

¹⁴ *Sapotazeak. Achras sapota.*

Orduan Kuauhtxitxik Lau Atxiloko Arrano¹⁵ bati erakutsi zion kanoa, eta hark beharrezkoak ziren bi aldiz hogei arraunlari eman zizkion, berak bakarrik auskalo nondik atera zitzakeen. Jende asko zebilen Etxe Handira arraina emateko zeregin hartan eta batzuek Itsasotik eramaten zuten eta beste batzuek arraina duten lakuetatik edo ibaietatik, era guztietara onak izaten baitira, baina oso aldi luzean soilik arraina jan nuen eta oso nekatuta, oso aspertuta nengoen, eta aski ikusiko baituzue azaltzen dudanean. Gure Kainaberadi eta Palmadiko lakutik ibilarazi zuten [kanoa], eta hegan egiten zuela diote.

Kontatzen ari naizen zati handi bat nik-neuk ikusi nuen. Nire pitxarrak egiten nituen egun batean, gorriz margotu eta nire asmameneko marrazkiak beltzez apaintzen nituelarik, jadanik egiten ez direnak eurak, agudo igarotzen ikusi nuen. Gorriz marraztua zuten Mintzo Den Hari efektua egiteko eta aski ondo egingo zion. Niri-neuri ere asko gustatu zitzaidan. Eta hori nik lehenagotik ikusia nuela, oraindik margotu gabe zegoela, esan ahal baitut Jaunak baino lehen ikusi nuela, inmodestia–gabezia¹⁶ barkatu nahi banaute.

Munduko ezkerretik eskubira zihoan eta gizon guztiak aldi berean arraun egiteko modua aurkitu zuten, eta ez dakit nork asmatu zuen, edo baldin badakit ez daukat gogoan, baina, dena delarik, oso ideia ona izan zen: beheko partean gizon bat ipini zuten huehuatl¹⁷ batekin, pasillo erdian eta atzeko alderantz, eta huehuetleak jotzen zuen danbada bakoitzeko arraunlariak arraunak eragiten zituzten, arraun-kolpea adierazteko modua baita. Behin batzuek, bestean bestetzuek. Modu zorrotzean ondo banatuta, ez nahasteko. Eta oso polita geratu zen, gorriz margotuta marrazki zuriekin, hain arin zihoan arren.

Orain pentsatuko duzue tamatxihua¹⁸ bat naizela, osteria ikusi ez ditudan gauzez hitz egin behar baitut, hala ere benetan gertatu zirenak eurak. Egundari gure Kainaberadi eta Palmadian oso gauza arraroak gertatzen ari ziren. Iragarpenak metatzen ari ziren eta gure [apaizak] lanez gainezka zeuden zantzu guztiak interpretatu nahi bazituzten. Gau askotan, urte oso bateko gau guztietan, esaterako, isats luzeko izar bat igaro zen baina ez aldian behin gauzez ikusten diren kometen antzekoa –nik soilik bat¹⁹ ikusi dut nire bizitza osoan eta begira, aski luzea izan da–, baizik suzko isatsa sutan, Eguzkia bezain ditziratsu eta itsugarria. Ekialdetik zetorren gauerdian eta eguna argitzen zuela ematen zuen, aldiz, eguna argitzen zenean alde egiten zuen²⁰. Urte osoa iraun eta urteko hamahiru Etxeetan atera zen. Jendeak garrak ikusten zituenean oihu eta negar egiten zuen zerbait txarraren seinale baitzen, eta hori neronek ikusi nuen, Opaton izeneko buztingileak, eta asko durduzatu nintzen. Orduan beste abisu ikaragarri bat iritsi zen eta izan zen Gure Jaun Huitzilopotxtliren Tenplua berez su hartu eta erabat kiskali zenean eta nik galdera hau ipintzen dut, alegia, noiz ikusi ote duzuen tenplu bat osorik erretzen, baina ez dut galdetuko baibaitakit sekula ez duzuela ikusi. Horretaz ere lekuko izan nintzen eta gogoan dut nola apaizek oihu egiten zion herriari gar ikaragarri haiek itzaltzera joateko, eta joan egiten ginen eta gure ontzi urez beteak husten genituen eta are gehiago dena berotzen zen botatzen

¹⁵ Gudatalde aztekaren kargua.

¹⁶ Hitzez hitz.

¹⁷ Perkusiozko tresna bat. Tinbal bertikal bat da, enbor-zati hustu batekin egina, eta eskuekin edo makila batzuekin jotzen da.

¹⁸ Bere buruaz trufatzen da: gutxi gorabehera guk sasijakintsu darabilgun adieraz autokalifikatzen da.

¹⁹ Halley kometa, ziur.

²⁰ Nire adiskide Antonio Riberak eta Marius Llegetek atal honetaz pentsatu beharko lukete.

genuen ura txapapotea balitz bezala, Itsasoak hondartzara isurtzen duen olioeko lokatza. Hirugarren seinalea izan zen Xiuhtekuhtli Suaren Jainkoaren tenpluan jausi zen tximista, eta egia izanik nik ez nuela behatu pare bat aste Tlalmanalkoko familia ikustera joana bainintzen, haurra gaixorik eta Kueitl berriro hazizurriak jota zegoela eta egun batzuz lagundu niela, nioen, adiskide askok kontatu zidaten. Egun haietan suak bereak eta bost egiten zituen behin eta berriro, eta gu guztiok, mexikeok, hain urduri eta ulertu ezinik nola Suaren Jainkoak tenplua erretzen uzten zuen edo berak erretzen zuen. Ez zuen euririk egiten eta trumoirik ere ez zegoen eta, hala ere, ondo asko erre zen Tzomolko. Beste egun batean gure Tenotxtitlan Handiko lakua uhin handitan jaiki zen, ez esateko moduan, jakinik oso izaera lasaikoa dela. Urak, aurreko eguneko sua bezain harro, etxe batzuk urperatu eta beste batzuk eraitsi zituen, eta zati hau dena oso ondo geratzen ari zait. Hau bai ikusi nuela neronek, Opoton deituriko buztingile honek, eta min egin zidan nire baratzea hondatu egin baitzen eta nire arto-uzta alferrik galdu, justu urte hartan hain ona zetorrena. Nire baratzetik ateratako artaburuak oso mardulak zirenean, onenak baztertu, zuritu eta aleak ereiten nituen. Orduan hurrengo uzta murriz ateratzen zitzaidan, hau da urte batzuetan ona zen eta beste batzuetan txarra eta nik oso gauza eroa²¹ asmatu nuen, ez bururik ez buztanik ez zeukana, mundu guztiari barrea eragiten ziona eta ni-neu ere, hainbat urteren buruan kontatzean, barrez leherrarazten nauena, aski ondo zihoakidan arren: loratu baino lehen mozten nuen nire artoaren bizarra, eta esan dezaket ezen orduz geroztik nire uztak Kainaberadi eta Palmadiko onenak zirela. Leku guztietatik etorri ohi ziren artaburuak ikustera eta galdetzen zidaten:

—Opoton, nola moldatzen haiz?

Eta nik esaten nien bizarra loratu aurretik moztuz, eta haiek barre eta barre eta nik-neuk berdin, eta beste iragarpen bat izan zen gauetan garrasi egiten zuen andre baten ahotsa, era beldurgarrian, ez baitzegoen emakumerik, baizik ahotsa besterik ez, eta esaten zuen:

—Ai, nire haurrak! Nora goaz?

Eta beste gau batzuetan negar egiten zuen, hitz ez gutxiago liluragarriekin.

—Nire haurrok, jadanik galduta gaude!

Beste seinale bat izan zen uretako ehiztari batzuek kurriloen tamainako baina lur-koloreko txori bat harrapatu zutela, kopetaren erdi-erdian, edo begien gainean esan dezakegu, obsidiana garbiko ispilu baten antzekoa zeukana, eta barka diezadatela nire hitz egiteko modu zabarra. Gure Jaun Handiari, Mintzo Den Hari, eramane zioten, eta bera kezkatu egin zen, izan ere ikuskizun hark nahigabetu egiten baitzuen, izan ere. Kurriloa ikusi gabe geratu nintzen, aurrerago esango den bezala. Gure Jaun Handiak gauza asko islatuta ikusi zituen kurriloaren ispilu hartan, miraila esateko beste modu bat baita, adibidez gizon batzuk adarrik gabeko oreinen gainean zetoze, orain bai baitakit zer motatako oreinak diren, nerone igo baino haietara, eta harengana zetozen, Mintzo Den Harengana, eta bera kezkatu egin zen ikuskizun hark nahigabetu egiten baitzuen. Kurriloa ikusi gabe geratu nintzen Gure Jaun Handiak berehala aska zezatela eskatu baitzuen eta Ekialdera abiatu zen, Sortaldera alegia, egun haietako gauza profetikoek gehien seinalatzen zuten tokira. Sarri, gauetan, egurra mozten entzuten zen, orakuluen lege ikaragarria baita. Gure Jaun Handia, Mintzo Den Hura, apaizekin batzartu eta denak batera jainkoen oharraz aztertzen hasten ziren, baina ni ez nengoen batzar haietan. Nola egon zitekeen han buztingile bat, gera bedi galdera modura. Barrez akabatzen nau. Baina gizon batek sinistu behar dituen pertsonak azaltzen zizkidaten. Hartara ulertuko duzue ezen Gure Jaun Handiak Kuauhtxitxikek

²¹ Orain hibridazioa esaten da.

egindako kanoa ikusi zuenean aurreko iragarpen guztiak kanoarekin lotu zituela, kanoak adierazten zuenarekin, kanoak esan nahi zuenarekin, esanah. Ni Opoton naiz, Zaharra deritzan Opotonen semea, baina hura, egia aurretik, sekula ez zen iritsi ni orain naizen beste zahar izatera. Kanoa beste seinale bat izango balitz bezala, diogun. Ez dakit gero ez ote zen izan Kuauhtxitxi Etxe Handira deitu zutela, han (bizi) baitzen Jauna, eta kanoarekin sar zitekeen edo, hobeto esanda, kanoatik jaitsi barik, eta oinez ere irits zitekeen eta, behin barruan, kanoatik jaisten ziren bertan zihoazenak. Iruditzen zait ezen egun batzuk beranduago Kuauhtxitxi aurkitu nuela eta uste dut oraindik ez zekiela ezer. Arratsalde hartan euri asko bota zuen, Tlalok²² jostariaren zaparrada ederra, eta ilaran neuzkan lapiko guztiak busti zitzaizkidan eta euriak desegin egin zituen, izan ere lurra demasa baita egosi aurretik, baina behin egosita, ez urak ez suak ezin diote ezer egin, eta lanari berrekin behar izan nion, eta horretan bai naizela nagia. Diogun ezen lehen aldiz gertatzen denean, ez diola axolarik, baina bigarrenean bai. Tlakotxkalkatlek²³ berak deitu zion Kuauhtxitxiki, eta esan zion ezen Gure Jaun Handiak, Mintzo Den Hark, ikusi egin nahi zuela. Badakust nola dardaratu eta izutuko zen, eta uste dut Kuauhtxitxi izan zela Jainkoa aurrez aurre ikusi zuen lehen zurgina. Mintzo Den Hark luze hitz egin zuen eta bere galtzarbepean²⁴ ipini zuen. Jaun izendatu eta haren izenari begirunezko –tzin erantsi zion, eta orduz geroztik Kuauhtxitxi Kuauhtxitxitzin izan da. Orduan nire adiskide arotza jaun bat zen, eta beste lurraldetako esklabuak zeuzkan eta etxe propioa eraiki zioten kanoa eraiki zuen toki berean eta lehen Tlatelolkon zeukan etxea jada ez da existitzen, aldiz soldaduz betetako koartel bat dago eta pixka bat gorago nire koinata Xilotl bizi zen, Notxtliren arabera bide txarretik zihoana, nahiz eta sekula inork ez zion ezer aurkitu ahal izan. Alderantziz: nire begietara oso neska ona izan zen beti, eta esana gera bedi ez bera familiakoa zelako, ez izatera ere berdin esango baitzuen Opotonek. Jakina da jendea marmarka hasten denean ez dagoela geldizterik. Kanoa handiari Mac-Ta izena jarri zioten, maien lurraldetik datorren hitz polita dena, eta gure hizkuntzan Tlaelkuani²⁵ izango zen, zuen guztien barkamenarekin, gaur egun milikeriatan zabilatzatenez.

Kontseilua batzartu zenean, apaizek eta jaunek Mintzo Den Hari esan zioten orakuluek egunerokotasunaren haragoko gauzak seinalatzen zituztela, arrazoiz harandikoak esan dezagun. Azken hori, Kuauhtxitxikek niri esana, berari ere esan zioten. Orduan jauna bazenez [Etxe Handiko] gauzak azaltzen zizkigun, nabarmentzeko, han betidanik egon izan balitz bezala. Horretan Aitztliren antza dauka, baina hura ez da zurgina fortuna gutxiko zilargilea baizik. Lanparak gaizki erretzen du. Keinada handiak egiten ditu eta astundu egiten du idazketa, izatez ere gutxi ikusten dudalarik. Behar bada bihar, egunez, zati hau dena zuzendu ahal izango dut. Badaukat Azao bat eta erdi baino adin gehiago eta begiak nekatuta hainbat gauza ikusirik, hemen eta beste lurraldetan, eta zuei azaltzeagatik ni, Tenotxtitlan Handiko Kainaberadi eta Palmadiko Opoton hau, idazten hasi da. Orain idazlearena egiten ari naiz, baina nire benetako ofizioa buztingilea da. Herriak Jainkoen oharrei kasu handia egiten zien garaiez mintzatzen ari natzaizue; gero, pasa beharra izan ditugun hainbat gauzen ondoren, ez gara hainbeste fio. Edo fiatzen bagara, ezkutuan fiatzen gara, fiatzeko modu eskasa dena. Gauza

²² Uraren jainkoa, Eurien, Tximistaren, Kazkabarraren, eta abarren jauna. Tlalok Tlamakazki kultu aztekako jainko garrantzitsuenetakoa da.

²³ Mexiken armadako kapitain jenerala. Opoton, pertsona bati buruz mintzo da zehazki orain, ez karguari buruz.

²⁴ Hitzez hitzeko itzulpena. Lengoaia figuratuan babesa esan nahi du.

²⁵ Sarreraren aipatu da

jakina da ezen dortoka tripaz gora iraultzen duzunean dortokak pentsatu edo egiten duen oro alferrik izango dela. Lehen, aldiz, izen atzerritarra jartzeko banitateagatik Mac-Ta deritzan kanoa handiari dagokiona gertatu zen, Kuauhtxitxik izeneko nire adiskide zurgin batek egindako kanoa izanik, bere garaian azalduko dudanez. Mintzo Den Hark bost kanoa gehiago egiteko agindu zion, bost kanoa, ni saiatu arren ez dakit nola idazten jarri, denak berdinak izan behar zuten-eta. Antza denez orakuluek zioten laster etortzekoa zela gure Ketzalkoatl ona, gure Suge Lumadun maitea, aspaldidanik, duela urte pila-pila bat alde egina. Sekula inork ezin izan du zenbat ziren jakin, historietan jarri dituzten apaizek izan ezik. Denok genekien ezen izar bihurtu baino lehen, gaur egun Izarraren Gailurra²⁶ deritzan mendi-tontor elurtuan, esan zuela itzuli egingo zela gure lurretan betiko nagusitzeko. Aipatu al dut dortokarena? Itzuliko zela agindu zuen, eta haren ahotsa Aztlan osoan zehar entzuten zen oraindik. Kurriiloaren ispiluko oreinek ongi asko adierazten zuten Hura itzuli egingo zela eta denek ulertu genuen. Ni esatera nihoana zen Gure Jaun Handiak, Mintzo Den Hark, bost kanoa gehiago egiteko agindu ziola Kuauhtxitxiki, denak berdinak, jadanik eginda zeukanaren berdin-berdinak, ikusten baitzen oso gustukoa zuela eta sei eduki nahi zituela. Alde haietatik gure lakua zeharkatu eta ostera zeharkatzen zuen [Gure Jauna] aurreko aldean zutik zuela, aurreko aldean egin zuen etxe moduko baten barruan, proa zeritzana bera, izan ere horrela baitzuen izena ura ebakitzen duen aldeak, gero jakin genuenez. Noiol-loiistaia²⁷. Kolore biziko luma handiak zeramatzan, eta une honetan ez ditut behar bezala gogoratzen. Beste bost kanoa eraikitzeke eskatu zionean, guk oraindik ez genekien zer egin nahi zuen haiekin. Nik esaten nuen gerlako tresnak izango zirela, zeren kanoa bakar bat kanoa zen, baina sei kanoa batera, gerlako tresnak. Horixe zen nire pentsatzeko modua eta ez duzue esango asko erratu nintzenik, diot nik. Orain, argi dago. Baina lehen denak jazartzen zitzaizkidan eta zioten nire ximplekeria handia zela, izan ere gure Kainaberadi eta Palmadiaren inguruan zeuden herri guztiak lagunak baitziren, aldiz Mac-Ta hartan egin ziren aldaketa guztiak gerla-aldaketak ziren: egurrak hemendik, egurrak handik.

Horma bat altxatu genuen, bi pisuko altuera zeukana, edo diogun bat eta erdikoa, gehiegi ez esateagatik, eta zirrikituak zeuzkan horman zehar. Eta nik nioen:

—Zertarako dira zirrikituak, azkonak atzetik jaurtitzeko ez bada?

Inork ez zekien horri erantzuten, esateko modua baita ez zekitela zer esan. Ez eta Aitzitlek berak ere, niri kontra egiteko beti hain zalea bera, ez zekien zer esan. Tlamaiokatlek, flauta batere gaizki jotzen ez zuen nire lagun batek, zioen behar bada ehizera joateko beharko zituela, baina bat hara doanenean zamarik gabe joaten arduratzen da, arin joaten saiatzen dela, ez etxe oso bat edo sei arrastatuz. Horrela pentsatzen nuen nik. Tlamaiokatl ni baino pixka bat handiagoa zen, baina adinean. Gertatu zena zen —tzin lortu ahala zapartatu egin zela. Edo alferrik galdu zen eta nik sekula ez nion esan Kuauhtxitxiktzin, lehendik adiskideak ginelako, eta zergatik hasiko ginen gure artean erreberentziazko kontuekin, diot nik.

Ni bezalakoa zen bitartean —ez buztिंगilea baizik zurgina— nola esango dizut nik jende-klase hortakoa, oso azkarra zen eta pila bat gauza asmatzen zituen, adibidez kanoa handi bat eta bakarrik ixten zen ate bat, aurrerago azalduko dudana jainkoek ez badidate orain daukadan kemena ebasten. Lehenengo [kanoa] bere kabuz egin zuen, dena asmatuta eta bere burutik aterata eta egunero lan egiten zuen pixka bat grinatsu, Tezkokotik gertu, lakuak egiten zuen bihurgune batean

²⁶ Zitlaltepētāl deritzana, *Pico de Orizaba* izenez ezagutuagoa. Mexikoko sumendirik garaiena da (5.740 m).

²⁷ “Begiak poztu zitzaizkidan”, gutxi gorabehera.

eraikitzen baitzuen, gerora etxea egin zioten toki berean. Baina jaun bihurtu zenean ez zekien gauzak nola atera bere eskuetatik, orduan laguntzaile asko, zurgin zein esklabu, zeuzkan arren. Badio esaerak adimena pobreen txaboletan bizi dela. Jaunek, dena daukatelarik, gure adimenaz eta gure egiten jakiteaz fiatzen dira, errespetu guztiarekin esana gera bedi. Bestela, noiz ikusi duzue jaun handi bat bere lapikoak egiten, galdera bezala jarrita. Nola jarri ere ez zuten jakingo, zeren [erraza] dirudien arren, aski kostatzen da, batik bat egostea. Behar bada jadanik ondo bizi zelako, gehiegi saiatu gabe, gauzak ez zitzaizkion eskutik lehen bezala ateratzen. Aurpegia pixka bat mugitu ahala errautsez betetzen zaigu. Beste kanoa handiak egiteko ez dakit zenbat ilargi itxaron zuen eta dirudienez Gure Jaun Handiak maiz errieta egiten zion, azkarrago nahi baitzituen kanoak, eta berak, beraz, gehiegi pentsatzen zuen. Kuauhtxitxikek ez zekien nola atera lana bere atzamarretatik, eta zurginaren eta Mintzo Den Haren arteko harremana arantzaz eta arrabioz beteta zegoen. Era guztietako laguntzaileak zituenean, zuhaitz-enborrak nonahitik eta zuzenagoak ekartzen zizkiotenean, bera ez izanik ekarri behar zituena, orduan, beraz, ezin zuen bere lana burutu. Asko arriskatzen zuen, izan ere dena kendu ahal baitzioten: –tzin delakoa, etxea eta zerbitzariak. Eta ez dakit nola ez zen konturatzen, kezka handia pasarazten baitzidan.

Xilotli ezin izan zioten ezer txarrik frogatu. Eta orain datorkit gogora egun haietako batean lakua gurutzatu eta nire kanoa Tlakopa inguruan lotu nuela, eta polliki-polliki, Nauhkalpaneraino hurbildu nintzen, han sortzen ziren fruta batzuk erostearren, eta sos gutxiren truke eskuratzen nituen eta aurreztearren pena merezi zuen bidaia, izan ere holako gauzengatik izan ez balitz ez dakit zer egin genezakeen pobreok, nire andreak guraria baitzeukan. Halaxe diot zeren itzuleran [pasatzen utzi] behar izan nion ziztu bizian zetorren Mac-Ta-ri, eta pixka bategatik nire kanoa kolpatu eta auskalo nola itzuliko nintzen Tlakopandik, erosi nuen frutarekin, nire kanoa zapartatu izan balit. Arraun guztiak mazehualiztlin²⁸ dantzari guztien oinak bezala ari ziren, eta ez zen huehuetlen danbada entzuten, arraunen kolpea ura jotzean burrunbatsua eta sendoa baitzen, esana gera bedi modu figuratuan. Arrandiro zihoan Mac-Ta kanoa, Gure Jaun Handia, Mintzo Den Hura jadanik zendua bezain arrandiro, eta Ketzalkoatl onak gordetzen jakin dezala beti bere babestokian, hainbeste egin baitzuen hark hura berraurkitzeko, esango genukeenez.

²⁸ Dantza erritualen izen generikoa.

HIRUGARREN ATALA

Mac-Taren aurrean xotxiketzalpapalotl bat ipini zuten, benetan ikusgarria zena, hain ondo marraztua eta kolore zehatzekin; lan bikaina, luma finekoa esango genuke, ondo uztartuta dena. Gogoan dudala uste dut azken finean opaniztli eta tititl artean prestatu zituela Kuauhtxitxikek beste bost kanoak, eta haiek antolatzeke pasa zituen lan guztiak kontatzen hasiko banintz, ziur egon zati on baterako [izango] genukeela. Ez dut azalduko zeren irrigarria izango zen hildakoak lotsatzeko lanetan hasiko banintz.

Oroitzapen oneko Motekuooma Zaharrak konkistatu zituen bost herrien izenekin bataiatu zituzten, eta oraintxe emango ditut bere ordena naturalean: Koaixtlahuakan, Kuauhtintxan, Kuauhnahuak, Xotximilko eta Kuetlaxtlan. Horiexek izan ziren bost kanoei ipinitako izenak, eta Mac-Ta gehituz, sei ziren. Atxolli etorri zenean, Otompako nire biloba, nire ondoan buztिंगile ofizioa ikasi nahi zuena, joanak ziren izozteak eta bata bestearen alboan lotuta zeuzkaten Etxe Handiaren pean. Zaintzaileak ipinita zeuzkaten gau eta egun, zabarkeriarik gabe esanda, uneoro zaintzen zituztela. Su Berriaren²⁹ garaian izan zen, ospatu genuen azkena, zeren gero ez geneukan Mundua amaituko zen beldurrik gu guztiontzat amatituta zegoelako. Ez nago oso seguru; nire urteekin oso zaila da gogoratzea Azao bat baino harago gertatzen diren gauzak. Gure Jaun Handia, Mintzo Den Hura, hain zen jeloskorra bere kanoekin, gau ta egun zaintzarazten baitzituen. Oihuak egin zituztenean ziur nago Atxolli Otompatik jaitsia zela ordurako, nire alboan baitzegoen, Plaza Handian, Tlaloken Tenpluaren ondoan, lehen Pregoia entzun genuenean. Tlakatekak berak egin zuen, Gerla Kontseiluko kapitainak, eta adarrak eta tinbalak jotzen zituzten, eta isiltasuna egiten zenean, dena geratzen baitzen gerla huts bat bezala, soilik Tlakatekaren ahotsa entzuten zen, eta Tlakatekak, mintzo ederrarekin mintzatuz, zioen, Gure Jaun Handia, Mintzo Den Hura, gure Aztlanera emaitza ona ekarri ahal zion ekimen handi bati ekitera zihoala; egiten ari zen erreklutamendua Ketzalkoatl Jainko Onaren bila, zeinaren itzulera orakulu guztien arabera berehalakoa baitzen, aterako ziren boluntarioak batzeko zela. Zioen ezen batuko ziren denek ohoreak eta etekinak jasoko zituztela zeren, Jainko Onari aurea hartu eta ongi etorria ematera joanez gero, bera pozik egongo zelako, eta soberan eskertuko zuelako gure [berezko, aurretiazko] menpekotasuna.

Hori esan zuen, hori azaldu zuen, baina hitz ederrez, ez nireak bezalako zabarrekin, nahiz eta Atxolli hanka zabalik jesarrita zegoen eta txoratuta, eta sabela ukitu behar izan nion bularra aurrera atera zezan, izan ere gauza gutxi aurkituko duzue sabela erortzen uztea baino ezer itsusiagorik. Sabel irten bat ikusten duzunean, pentsatzen duzu: “Hara hemen pello baten sabela” eta, ohiz, asmatu egiten duzu.

²⁹ Mende aztekak berrogeita hamabi urte zeuzkan, eta uste zen mundua aldi hauetako batean amaituko zela. Hara iritsita, dena isiltasunean geratzen zen egun batzuetan eta argi guztiak itzaltzen ziren. Mende-bukaerako gauean apaizak mendira joan ohi ziren hiritik bi legoara eta han pizten zuten Su Berria –pizten ez lortzea munduaren bukaera zatekeen— eta tortxekin jaitsi eta etxez etxe banatzen zuten eta bizitza berriro hasten zen festa-giroan. Opatonen kronologia osoa zehatza da. Orain gure aroko 1489. urteko Su Berriaz ari da, Ahuizotlen erregealdian ospatutakoaz hain juxtu.

Ni, Opoton, ezizenez Buztingilea, lehendik ikusia neukan haragizko eta hezurrezko Tlakateka bat, baina Atxollik ez. Sekula ez zuen hezur eta haragizko Tlakateka bat ikusi, naturala, eta ezin zuen sinetsi eta, txoratuta zegoela eta Otompatik etorri berria zelarik, sabela erortzen uzten zuen. Batzuek, batik bat gogoa zeukatenek, pixa egiten zuten Tlakatekak bere hitzaldi ederra egiten zuen bitartean, lehen inork ez baitzuen ezkututzen egiteko [gogoa] zeukala. Eztul, doministiku, aharrausi egitea edo zotina izatea bezala baitzen. Orain, ez. Orain urrutiratu eta txoko bat bilatzen dugu, eta emakumeek, nolabait esateko, toki txokoratuagoa. Gizon eta emakumeoi txilibitua ateratzeak lotsa emago baligu bezala. Batzuek diote irabazi egin dugula eta beste batzuek galdu, bietara esaten baitute eta, Opotonen kontakizunaren arabera, orain gezurra esaten dugu, disimuluan baikabiltza, disimuluan, gauza naturala ezkututzen dugu. Natura ezkututzen irakatsi digute eta, aurrerago, batek bere emazteari titiburu bat laztandu nahi dionean, gauza zilegia eta onestoa dena, biek ezkutuan egitera jo beharko dute. Izan ere orain dena bihurtu baita bekatu eta antza denez oraingo jainkoen zeregina gu zelatatzea baita, nik diot agian gutaz fiatzen ez direlako. Askok diote gure gauza naturalak lotsatzekoak direla eta uste dut ulertu didazuela. Baina lehen, ni gazte nintzelarik, mundu guztiak egiten zuen pixa gogoa zeukanean, eta ez bazuen, ez. Aldiz, Aitzkli aurkitu genuenean pozez saltoka zebilen. Bere izena Tlakatekari emana zeukan Aitzklik, eta harro asko erakutsi zigun seinalearen zigilua, izenaren truke ematen baitzuten. Buztinezko bere zigiluarekin harro, sei koloreko maskor bat aurkitu izan balu bezala.

Atxollik ere bere izena emateko gogoa zeukan, askok ematen zutelako, gomendagarria delako eta halako kilima bat egiten duelako izena emateak, eta batek inurri bihurtu nahi du eta taldera gehitu [antenak?] astinduz. Nik-neronek ere pentsatu nuen, ezen azken buru, agian onuragarriagoa zitekeela bolada batean gerlari izatea buztingile izatea baino, gizonen izaera baita noizean behin aldatzea, eta Su Berriaren ondoren nire negozioa beherantz zihoan pixka bat eta gerrara joan gabe gerlari izateak ere erakartzen ninduen, kontuan hartuz Ketzalkoatli modu baketsuan eta ez gerla-hotsez joango gintziazkiola ongietorria ematera, lagun-giroan, bihotza zuri, eta pixa eginda nengoen ez erabakia hartu nuen. Sekula ez dut erabaki bat hartzen lehenago ez badut pixarik egiten, eta ez etorri orain esaten zaharren maniak direla, gaztetan ere egiten bainuen, pixa oso erraz egiten nuen aroan hain juxtu. Ezkondu baino lehen egin nuen. Eta ni, Opoton buztingilea, gerlari izan nintzen nire iloba Atxolli Otompakoarekin batera, izan ere egun haietan niregana etorria baitzen nire ofizioa ikastera eta sekula ikasi gabe geratu zen, aurrerago esango denez Ketzalkoatlek historia harilkatzen joateko indarra ematen badit.

Eta nire adiskide Aitzklirekin, ofizioz zilargilea bera, zeinarekin beti borrokatzen ginen oso adiskide izanik. Eta pilaka gizonek eman zuten izena Tlakatekaren hitzaldia oso jakintsua eta ondo mamitua baitzen, ez zabarra eta baldarra gorago esan dudana bezalakoa, baizik hitz egokiak eta pizgarriak bilatuz eskandalurik gabe, dena oso ondo azalduta aurpegitik bihotzera, zeina gero eta zuriago ipintzen baitoa hitz bikainekin. Nik, Opotonek, bizkarretik behera irristatzen diren hotzikara horietakoak sentitzen nituen baina barrutik, eta pentsatzen nuen Jainko ona aurkitzekotan esango zidala:

—Kaixo, Opoton?

Berak denok ezagutzen baikaitu. Eta pentsatzen nuen nik esango niola:

—Jauna, Jaun Goikoa, Jaun Handia! Zure zerbitzarien artean xumeena naiz.

Eta beldur handia ematen zidan, baina ez izu-beldurra, esan dezagun, baizik bestelakoa, sekulan ez baitzen egin gure Aztlanen antzeko erreklutamendurik.

Telpotxallira³⁰ eraman gintuzten. Eta orduz geroztik egunero trebatzen gintuzten armak erabiltzen eta ezkutuekin babesten. Egiaren karietara mintzo behar badut paperean ipini beharko dut ezen askoz ere lasaiagoa zela buztinezko trasteak egitea soldadu izaten ikastea baino. Baina guri, autxkauhtin³¹ delakooi, mundua ezagutzeko sekula aukerarik ez geneukanoi, aukera parega bezala aurkezen zitzaigun. Gauza berriek zaharrek baino gehiago erakartzen gaituzte beti. Aurrerantzean ez nuen nire emaztea ukitu: debekatu egin ziguten. Ez nik, ez izena emandako inork ezin zuen nire emaztea ukitu. Gainera, etxera iristen nintzenean, ariketak zirela-eta leher eginda, ez nukeen gogorik ere izango. Buztin-pila manta hezeekin estalita utzi eta onitlatzihuizekak³², labea itzalita uzten nuen. Ulertzen baituzue nire hitz egiteko modua.

Otompako nire izeba, nire koinataren ama, hola esan behar baita, izeba, nire semearen bataio-egunean etorri zen, hain azkar galdu zenaz ari naiz, eta Pezohtli jarri zioten izen, oso tripazorroa baitzen, beti Utzkilitlen bularretik esekita, horixe baitzen nire emaztearen izena aurrerago ondo azalduko dudanez, zeren edoskitzen ez zegoenean basatiki marruka hasten baitzen. Are bazegoen jende egoskorra, zioena Pezohtlik nire antza zeukala eta bataio-egunaren ondoren berriro alde egin eta sekula ez dut berrikusi, ez bainaiz Otompara joan. Otompa berberera, barkamenez esanda. Diote ezen oso herri polita zela lehen, baina dakidanagatik, ez zegoen ez ibairik, ez lakurik aldamenen, beraz esango didazue zer zeukan politetik. Nire izebaren izena Nentakatl zen, baina ez pentsa orain idazten nabilen paper-orri hauek duela gutxi oparitu dizkidan emakumea denik, baizik beste Nentakatl bat, Otompako nire izeba, ibairik ez daukan herria izanik ez. Otompa deritzan bere herrira iritsi ahala hil zen, izan ere denok maite baitugu gure herrietan hiltzea eta ez hortik zehar, purepetxa³³ delakoek bezala.

Nik, Kainaberadi eta Palmadiko Opotonek, Ketzalkoatlen bila joango zirenen artean eman nuen izena eta soilik Mintzo Den Hark edo Apaizek jakin zezaketen aurkituko genuenetz, ez bazen Jainkoak denak frogan jarri gintuela. Eta Telpotxallira joan nintzen beste guztiekin batera eta armak erabiltzen eta ezkutuarekin neure burua babesten ikasi nuen eta, aurrerago, bagenekien arren, arraunean ikasi genuen baina kanoa handiei zegokien arraun luzeekin, orain azalduko ditudanak eurak, eta huehuetlaren erritmoaren arabera. Hura bai zela berria. Bazen gizon bat huehuetla jotzen zuena eta tinbal-kolpe bakoitzera arraunekin jo behar genuen ura. Diote kanoak hegan zihoazela, baina barruan gindoazenek ez genuen deus ikusten. Arraunen zuloak baino ez zeuden, beraz, izatekotan arraunak ziren kanpooka ikusten zutenak. Ez zoaz ondo, Opoton. Nitlatilpatllatoa³⁴. Bakoitzak bere ofizioa, diogunez. Baina behin hasita nagoelarik, ez naiz hasiko atzeraka. Kuauhtxitxiken azken ideia lema deitzen genion zerbait zen, kanoaren atzeko partean jartzen zena, gero jakin genuenez txopa deritzanean, eta arraun sendo bat bezalakoa zen, zabala, gotorra, trinkoa, irmoa, astuna, zeina alde batera edo bestera lerratuz gero, kanoa berez zihoan eta ez zen beharrezkoa arraunlariak tematzea. Eskuinera biratu behar izanez gero, lemak eskuinerantz egiten zuen, baina norberaren atzetik. Eta ezkerrarekin berdin baina alderantziz. Hura maneiatzan zuenari lemazain esaten zioten eta oso ondo asmatua iritzi nion beti zeren granadak ematen dituen zuhaitzari granadondo

³⁰ Gerlako Eskola.

³¹ Apalak, jerarkia sozialik gabeko jendea.

³² “Nik nahi nuen bezalaxe, nagiak aholkatzen zidan bezalaxe”.

³³ Gaur egun Michoacan Estatua okupatzen duen herria. Opoton oso erasokor ageri da jende haren aurka, bai orain bai beste batzuetan.

³⁴ “Gutxi eta zabarki egiten dut”, gutxi gorabehera.

esaten baitzaio. Eta zura lantzen duenari, zurgin³⁵. Hots gizon batek egiten duen lana zurarekin bat datorrela. Eta lemarekin. Orduan jai haundiak egin ziren.

Hiru egunetan eta beren gauetan gelditu gabe egin zen dantza Tenplu Handiaren pean, eta laugarren egunera iritsita hamazazpi pertsona tlatxkalteka eskaini zitzaizkien Jainkoei, eta oso polita izan zen gure bidaia faboratzeko izan zela kontuan hartuz eta oso polita. Sei kanoak era guztietako koloretako luma-gandorrez apainduta zeuden eta seiek, ura ebakitzeko aldean, hots brankan, bere xotxiketzalpapalotla zeramaten, bakoitzak berea, kanoaren izenaren sinboloarekin, Mac-Tak izan ezik, oso desberdina baitzen.

Dena zen Jainkoei eskatzea bidaia ona eman ziezaguten, batik bat Huitzilapotxtliri eta batik bat Tlalol Tlamakazkiri. Denek zeramatzaten banderak Suge Gandordunarekin, Ketzalkoatl onak bat-batean ezagutu gintzan. Benetan gauza ederra zen eta gure nahierara ateratzen zen dena.

Orain esango dut nolakoa zen kanoen antolaketa. Behean bi hogeiko arraunlari zeuden eta haien lerroen artean bi estatuko zabaleroa geratzen zen, gutxi gorabehera bospasei besokada zituen. Espazio horretan arraun egiten ez zuten arraunlariak zeuden eserita, beste hitz batzuekin esanda, gainerakoak nekatzen zirenean arraun egin behar zutenak, haien ordezkoa hartuz alegia, hori baita Opotonek esan nahi zuena. Lau aldiz hogeik zeuden, eta beraz baziren sei aldiz hogeik, beheko aldean, gehi huehuetla jotzen zuen gizona eta haren ordezkoa egiten zuten beste biak, zeren nola nahi duzue gizon bakar batek huehuetla egunetan jotzea, galdera bezala esanda, ordezkorik gabe, eta jadanik baziren gizon asko. Batzuk hormaren alboan zeuden, han zeuden zirrikituetatik arkuak jaurtitzeko prest eta euren artean hiru estatuko zabaleroa zegoen, baina ordua da esan dezadan gerla-antolaketa ez zegoela gure Jainkoa ikusteko unean pentsatuta, baizik bidean bertara iristen utziko ez ziguten etsaiak topatzen bagenituen, eta gero Kapitainaren etxea zegoen, bera bezain handia, are pixka bat hadiagoa ere bai, kontua ez baitzen gure Kapitaina makurraraztea, duintasunez sekula ez baita makurtzen.

Atzeko partean etxe are handiago bat zegoen, eta hornidurak eta ura, hornidura ez dena, gordetzen zen tokia zen, eta azkonak, are gutxiago direnak hornidura. Atzeko etxearen teilatu gainean lemazaina zegoen, lemazainarentzak libre geratzen zen toki batean, baina behean ere bazegoen, lemazainarentzat libre geratzen zen espazio batean, teilatu gainetik norbaitek esan izanez gero zein zen hartu behar zen bidea, kontuan hartuz behetik ez zela ikusten, txopa izeneko etxe handiagoaren atzean zokoratuta geratzen baitzen. Uste dut denok batera Aztlango laurogei hogeiko gizon ginela kanoa bakoitzean eta, hala ere bizkor zihoazen, huehuetla jotzen zuen gizonak nahi beste bizkor.

Xalkoko nire lehengusuak dio ez dela deus ulertzen kanoen antolakuntzari buruz azaltzen ari naizen guztia, baina ez dakit nola berregin. Egia esan eta errespetatua izate aldera, ni ez naiz idazlea. Hasieran buztingilea izan nintzen, gero gerlaria, gero berriro buztingilea, gero zaharra eta orain, nitlatilpatlatoa, idazlea alegia, beste ofizioa, han goian, Ate eta Leihorik Gabeko Etxean burutuko baitut. Eta hau dena idazten nahastu banaiz da gure leinu azteka galtzen ari delako, eta gure ahalmena hain handia zeneko oroitzapena gera dadila nahi dudalako.

Kanoa bakoitzeko hogeita hamar aldiz hogeik gerlariak sei aldiz ziren, eta hori bada Aztlango gerlari-segida handi samarra, egia esate aldera ni jadanik iristen ez naizen segida. Milakako kontu hori gauza ona da ulertzen bada. Denok geunden prest Ketzalkoatl bilatu joateko, ongietorria eman eta betiko jaundu behar zituen

³⁵ Euskaraz ezinezkoa den hitz-jokoa dago hemen, jatorrizko testuan, katalanez, -er bukaeran: timoner (lemazain), magraner (granadondo), fuster (zurgin) (l.o.)

lurrak eskaintzeko. Buruzagiek esango zioten, jakina. Eta izena eman zuteneko askok geratu behar izan zuten ez zelako hainbeste jende behar eta gainera oso ondo aukeratzen zuten eta kanoak ez ziren Plaza Handia bezain handiak, diot nik, non edonor kabitzen den. Egia esan neurri onekoak ziren kanoa izateko, baina ulertu beharko duzue ez zela hara joateko asmoa zuten beste jende sartzen eta, beraz, oso ondo aukeratu zituzten joan ginenok.

Hornidurak jaso eta kanoetan sartzen pila bat egun eman genuen eta jende guztia azkonak egiten jarri zituzten. Kitxalli hilabetea zen eta Opotonek jadanik gogoratzen ez direnei esan nahi die, Mixkoatlen izenean egiten diren azkonak onak izan ohi direla. Eta hala izan ziren. Emakumeek zurtoinak zorrozten zituzten eta gizonek obsidianazko muturrak eta beste batzuek montatu, muturra lotu eta atzeko lumak ezartzen zituzten zeinak, orain konturatzen naiz, lema bezalakoak dira, eta badakust nondik atera zuen ideia Kuauhtxitxikek, nahiz eta bera burgoitu eta burgoitu ideia berea zela.

Gogoan ez daukadan batek buztana lau lumez osatu beharrean hiruz osatzea pentsatu zuen eta, gerora, jende askok kopiatu zigun hobekuntza bat izan zen. Aztlan Zaharrean asko erakarri zuen atentzioa eta ez ninduke harrituko gaur egun ere gureak bezalako azkoank erabiltzen dituztela jakiteak. Pila handia eginarazi ziguten eta kanoen atzean, txopan alegia, zeuden etxe handietan gorde genituen, kanoetako bakoitzak berea baitzeukan, eta ez da beharrezkoa Opotonek esatea haiek egiten genituen bitartean belarriak debozior odoleztatzen genituela eta kopetako pultsuak, hemen, buruak igel batek bezala arnasa hartzen duen tokian, odolez bustitzen. Guretako zuziak ere pilaka metatu genituen, etsaiaren eremuan sua eragin nahi genuenean botatzen genituen haietakoak. Eta guretako zerbatanak, beren lur egositako bolatxoekin, garai haietan mundu guztia baitzen pixka bat buztingile. Arratsalde batean kanoetara igoarazi gintuzten, bakoitza berera, zeren ordena antolatuta baitzegoen jadanik eta gutako bakoitzak baibaitzekien zein zen bere kanoa, modu figuratuan aipatuz, jakina baita denak Jaunarenak zirela. Niri eta nire iloba Atxolliri, Otompakoa zen mutiko hari, Kuauhtintxan izenekoa egokitu zitzaigun, baina niri beheko partean, beti izan bainaiz arraunlari aparta, esana gera bedi harrotzeko asmorik gabe baizik Jainkoaren egia onaren ohorez.

Ontzi barruan lo egin genuen, modu polita baita gainean esateko, eta afari ederra eman ziguten oktli³⁶ tantarik gabe ordea, gutako inork ez baitzituen hiru eta erdi aldiz hogeitaz urte eta tamalli³⁷ ugari eman ziguten, gaziak eta gozoak, baina klasea eta proportzio egokia joan zait burutik eta berdina dio, hona bidaiak, eta ez jateko gauzak, azaltzera etorri bainaiz.

Biharamuna argitu zenean doi, dantza ugari egin ziren. Huitzilopotxli jainkoaren estatua handi bat egin zuten odolez nahastutako ogia erabiliz eta dena lorez estalia eta amatl paperezko zerrendez betea eta ulliko³⁸ borobilak, eta hainbat xehetasunez azaltzen badut da badakidalako gauza hauetaz jadanik ez zaretela gogoratzen, dena erori lurreratu txikitu baitzaigu, eta denak gehiegi lanpetuta zoazte, zuziz, intzentsuz eta ur bedeinkatuz. Ez dizuet gaitzespenik egingo, jende on hori. Baina niri ere ez egin gogoraratzeko dizuedanean nola zen garai bateko debozioa. Eta dantzariak mazelualiztli eder bat egin zuten estatuaren pean.

³⁶ Gaur egun *pulque* esaten dena da, gazteleratua eta espaineratua. *Neutle* edo *oktli* delakoa aldaera mexikarreko agabearen bihotzetik ateratako urezti hartzitutako edaria da. Seinalatutako jaietan baizik ezin zen edan.

³⁷ Arto-orearekin egindako janaria, haragi eta espezie minez edo konfituraz nahastua, lurrinetan egosia.

³⁸ Kautxua. Hortik dator *hule* hitza.

Ikusten denez Gure Jaun Handiak, Mintzo Den Hark, eginak zituen elkarrizketa luzeak Tlakatekarekin eta beste kapitainekin, une luzeak eman baitzituzten Tekiauhkauhkallin itxita eta euren artean hitz egiten zuten, jaunen arteko hizketaldi haietakoak non ez ni ez nire lagun Aiztli ez geunden. Ez Kuauhtxitxik ere, nik dakidala. Jaun Handien arteko elkarrizketak ziren eta bidaiako kontuez eta abar aritzen ziren eta herria batuta zegoen guri agur esatearren. Nire emazteak besoetan zeraman Pezohtli, aski ikusi bainituen karelera igo nintzenean, kanoa gainera esateko modu fina delarik, eta ikusi nituen azken aldia izan zen, umea galdu egin baitzen behar bada bere aita kanpoan zela ikusita malenkoniaz, eta itzulitakoan esan zidaten niri.

Orduan itsas-adar bat jo zuten, soinu oso luzea egin zuena, eta dardar jartzen gintuen, bagindoazen seinalea baitzen. Kuauhtxitxik ez zetorren gurekin ez ezein beste kanoatan, gelditu zirenetakoa izan baitzen, agian beste kanoa batzuk egiteko, pentsatzen genuen guk. Gure Jaun bakarrak Gerlako Jaunak ziren, eta Eguzkia atera zenean oraindik zertxobait geratzen zen bidaiari ekiteko eta nik ez nuen lehen txandan arraun egin. Kanoaren zama gu guztion artean banatzen zen eta bakoitzari soilik zertxobait zegokion.

Ontzidia, hots kanoa guztiak batuta, hegan zihoan lakutik, eta gure Kainaberadi eta Palmadia atzean geratzen zen. Lakua estutzen denean eskuinaldera jo izan bagenu Xaltokan uhartean bukatuko genuen, Tzompankoren ondoren dagoena baita, Xaltokan³⁹ deitzen den lakuaren zatia bera. Txikonauhtla tontorraren aurrean Tepexpan aldera jo genuen eta, behin iritsirik, Tezko herria geneukan eskuinaldean⁴⁰, Ekialdera zoazenean daukazu eskua baita. Lagundu nahi ziguten kanoa txiki asko atera ziren Kainaberadi eta Palmaditik, nik esango nuke gehiago kuriositateagatik adiskidetasunagatik baino, baina gure abiadurarik ezin eraman zuten aztera geratzen joan ziren.

Tepexpango hondartzara iritsi ginenean jaitsiarazi egin gintuzten eta, orain kontatzen ari naizelarik zuei erokeria iritzi arren, kanoak uretatik atera eta hondartzara eramatea agindu ziguten. Ez genuen ulertzen, beraz, zergatik uretaratu genituen.

Harri zaharrek diote gure arbaso arbasoenen gorpuzkinak⁴¹ lurperatuta daudela Tepexpanen, eta lau aldiz hogeiz gizon behar ziren kanoak lurretik eramateko, hain ziren astunak, uretik kanpo pisu handia baitzeukaten eta uretan ondo mantentzen ziren izan ere urak gorantz bultzatzen baititu gauza batzuk, harriak ez, baizik kanoak edo igeri egiten duen jendea. Esan ohi da pisua izanez gero pisuak bultzatzen duela. Uretatik kanpo pisu bikoitza zuten aipatutako kanoek, edo behar bada bi edo hiru aldiz gehiago uretik kanpo. Enbor batzuk jartzen genizkien azpian zeharka eta lau gizon enbor bakoitzeko. Hogeiz bat enbor eta lau aldiz hogeiz gizon enbor bakoitzeko behar zuen enbor bakoitzak uretatik kanpo⁴² eta ez batzuk eutsi eta beste batzuk ikusi, baizik denak berdin jokatuz, pisua denon artean banatuz. Ziur Kuauhtxitxikek ez zuela sekula aurreikusi bere kanoak uretan nahiz uretatik kanpo joango zirela, ahuizotla⁴³ bezala, izan ere orduan arinago egingo zituzkeen, uretatik ibiltzeko modukoak. Izan ere uretan hegan egiten zuten. Beste gizon batzuek ordeko enborrak garraiatzen zituzten eta lehenengoak nekatzen zirenean

³⁹ Dena dago nahastuta. Eskuina sistematikoki nahasten du ezkerrearekin, eta nahasmendua seinalatzen dut, desegiten saiatu gabe.

⁴⁰ Oso atzera geratua zen, eta handik ezin zuten ikusi.

⁴¹ Hau da: 1947an giza hondakinak aurkitu ziren han, eta hamabi mila urtekoak zirela ebatzi zuten.

⁴² Soilik laurogeiz gizon? Oso jende indartsua izango zen.

⁴³ Mustelido anfibioa, *Lutra felina*.

besteak pasatzen ziren azpira eta zeregin luzea entretenitua astuna akigarria zen, batik bat garai haietan guk ez genuelako ezagutzen errodatzeko gurpila. Kuauhtxitxikek edo beste norbaitek asmatu izan balu, ez zitzaien ezer kostatuko, dena errazago izan zatekeen. Aztlan Zaharrean asmatua zeukaten baina esan behar dut guk ez genuela errodatzeko gurpila ezagutzen baina gurpil borobila bageneukan. Gure ezkutuak beti izan dira borobilak eta baita Tenplu Handiaren alboan zegoen Eguzkiaren Harri Handia, jadanik kendu dutena. Aztlan Zaharrean ikusi genituen lehenengoz errodatzeko gurpilak eta miresgarri iritzi genien eta geroztik beti erabili izan ditugu, lehenago ez baikenituen ikusi.

Otompatik hurbileraino garraiatu genituen [kanoak], garai batean otomiena izan zen herria bera, baina gure garaian jada geurea zen. Han oihanak daude eta belaze batean utzi genituen, soropilean alegia, eta guk zuhaitzen azpian atsedena hartu eta bazkaldu egin genuen, bagenuen premia-eta. Atxolli Otompakoa zen baina ez zioten baimenik eman, herritik hurbil geunden arren, handik aski ongi ikusten baikenuen.

Kolore gorriko maxtlatl⁴⁴ bat eta luma-gandor hori eta berdea generamatzan denok eta horrela ezagutzen genuen elkar bidaia egin behar genuenok. Oraindik gordetzen dut maxtlatl hura eta sekula ez dut janzen orain barrea eragiten baitu, eta luma-gandorra modu itsusian kendu zidaten, esango dugu unea iristen denean. [Ezkutuak] hori-beltzak ziren denak: hondoa horia eta beltza gure Jainko Keetzalkoatl onaren sinboloa, dena lumaz brodatua. Kolore horia ez dut gustuko eta beti diot kolore hori ondo legokeela galduta gustu txarreko jendeak lagundu ezean. Askok nahiago zuketena Ketzalkoatlaren lumak urdinak izatea, urdina eta horia ondo baitatoz elkarren ondoan, baina hala koloreztatuta eman zizkiguten eta diot nik ez zela egokia besterik gabe kolorez aldatzen hastea.

⁴⁴ Gizonen sexua estaltzeko ohialezko banda bat. Gerria inguratzen zuen, eta bi hegialak aurretik eta atzetik zintzilik zeuden, arra bete eta erdi hor nonbait.

LAUGARREN ATALA

Esaerak dio Tenplura hurbiltzean sufritzen dugula, esateko modua alegia gizon zoriontsua soilik behartuta hurbiltzen dela Tenplura, hots Jainkoez soilik behar ditugunean penstatzen dugula. Gaur egun maiz entzuten diren hitz hauek lehen ez ziren entzuten, gutxienez Aztlango alde hauetan. Baina ez zen hau Opotonek esan nahi zuena. Asko keixu ziren, azeri-ahots moduko batekin, eta zioten kanoak garraiatzeko lehen eguna astunegia izan zela, egia esan barrez hiltzen duen gauza da. Zinez dibertigarria zen lehen egunaz kexatzea juxtu beste hamazazpi geratzen zirenean, beste hamazazpi egun natural kanoak garraiatzen, eta ez [zelaian] lehen egunean bezala, baizik mendiak igo eta jaitsiz. Diogun, beraz, ez geundela gudukatzen lurralde adiskideak zeharkatzen baikenituen soilik eta pentsatzekoa da nola joango zitzaigukeen Opotonek dioen bezala ez izatera, tramankulu haien guztien zamarekin eta etsaiaren kontra borrokatuz, izan ere –Jainkoek barka nazatela– hobe baitzatekeen kanoak edonon utzi eta armak hartzea.

Baina lehenik esan behar dizuet nola zen gure formazio-martxa, ondo gogoan baitaukat. Denen aurrean banderaduna generaman, gure Jaun on Ketzalkoatlén sinboloarekin eta gero Gure Jaun Handiaren, Mintzo Den Haren, bandera eta zigilua zeramatzenak, Ahuizotlena alegia, eta nik uste dut horregatik zihoazela hain pozik. Jarraian Buruzagiak Ketzalkoatl-Totek-Tlamakazkirekin, eta gero kapitainak eta beste apaizak. Jarraian gerlari-talde bat, Opoton tartean, Kainaberadi eta Palmadiko buztingilea zena, eta atzean kanoa bat eta gerlariak, kanoa bat eta gerlariak, kanoa bat eta gerlariak, eta denak berdin, sei kanoa eta bertan zihoazen guztiak osatu arte, zeinek, Jainkoaren egia onaren probetxurako esanda, oso kopuru handia⁴⁵osatzen baikenuen. Kanoen kontura barre-sabelkada egiten genuen, oihanetik pasatzean hain astunak eta, aldiz, uretan hain arinak zirelarik. Azkenean atzeragoardiako pelotoiak eta musikariek ixten zuten ilara. Ikustekoa zen ilara luze hura, hain txukuna, dena lumaz apainduta eta hain kolore politekin, ugariak eta distiratsuak, hots, deigarriak eurak. Galdu ditugun gauzak ondo uler ditzazuen Tenontxtitlan Handiko Kainaberadiko eta Palmadiko Opotonek esango dizue nola lan egiten zen lehen, eta nola Jaunak, Jainkoen aholkua sekula falta ez zitzaionak, dena aurreikusi eta konpontzen zuela, eta poza ematen zuela konstatatzeak, niri orain ematen didan bezala, idazten dudan guztia oso ondo geratzen baitzait dena xirripa bezala isurtzen delako, eta esana nizuen dena jartzea zela, eta ez nuen sekula gezurrik esan. Eta izango ez balitz tinta paper gainean hainbeste zabaltzen zaidalako, hainbeste aurreratuko nukeen, jadanik historia osoa kontatua neukakeen. Nioen bide osoa irekita eta seinalatuta zegoela, zeren gutariko beste batzuk, espedizio handia atera aurretik, ohiangabetu eta sasiz libratzera atera baitziren, aski zabalduz kanoak handik igarotzeko, eta zuhaitz asko moztu zituzten kanoen paserako neurri onean geratzearren. Atsedean hartu gaua pasatu akanpatzea aurreikusi zuten tokian metatuta zegoen egurra, hau da, moztu zituzten zuhaitzen adarrak eta hartara ziurtatuta geneuzkan kanpamenduko suak, kosta egiten baita kanpamendutzat jotzea surik gabeko zerbait. Eta zuhaitzak ez ziren arinkeriaz moztu: ondo moztuta eta bidean zehar ondo metatuta utzi zituzten [enborrak] eta kanoak garraiatzeko erabiltzen genituen. Esan nahi dut ezen armak erabiltzeko auzian gu tematuta geunden

⁴⁵ Espedizioa, hiru mila eta zazpiehun lagunekoa zen.

bitartean Gure Jaun Handiak, Mintzo Den Hark, jendea aterarazia zuen bidea prestatzera, berak baibaitzekien norantz gindoazen. Zuek ulertzea nahi dut Gure Jaunak dena buruan zeukala bere jendeak, gu alegia, alferrikako lanak sufri ez genitzan, eta hori dena bart ongi hausnartu nuenez idazten jarri naizen honetan parrastan ateratzen zait, martxa ona baitaramat. Lastima Maxtlik tinta egokia ezin prestatu izana, berak egiten dakien tinta on haietako bat, eta agian une honetan itzulera kontatzen arituko nintzaizueke.

Esana izan da gerla-talde bat kontserbatzeko modurik onena debalde ez nekatzea dela, baizik alderantziz: soldaduei alferrikako lan guztiak aurreztu behar zaizkie eta horrela hobeto baliatzen dira. [Kapitain handi guztiek?] zekiten hori. Gure atsedenerako aurkitu zituzten tokiak ere kontu handiz aukeratuak izan ziren, izan ere Jauna benetan Jauna denean, eta hori gertatzen zen gure Ahuizotlekin, Jainkoak gorde dezala bere babesean, toki onak aukeratzen ditu bere soldaduen atsedenerako, ibai eta lakuen aldamenean, freskatzeko ur-faltarik izan ez dezaten. Eta aldameneko herri guztietatik guri jaten ematen etor daitezen agintzen du, kontua ez baita horniduren gordailutik ateratzen hastea eta gero zer jango dugu, gera dadila galdera modura. Zer jango dugu nabigatzen gaudenean, diot nik, hori ere galdera bezala ipinita. Gordeta geneuzkan hornidurak maxtlal gorririk ez baizik txuria zeukaten gizon batzuek garraiatzen zituzten, eta horrek adierazten zuen ez zirela gurekin etorriko, beraz ez zirela gerlariak ea horrela ulertzen didazuen. Bazetozen eta ez zetozen, kanoetan tokirik ez zeukan jendea zen, hara. Eta gero gure Tenotxtitlan Handiko Kainaberadi eta Palmadira itzuli ziren. Baina ibilaldian zehar arraunlariak arraunak generamatzan, lantzen ordez. Hurrengo egunean Jainkoen Hiria egon zen tokian geratu ginen, Teotihuakanen⁴⁶, dena erorita zegoen arren zutik geratzen zen Ketzalkoatlen Tenpluko patioa, eta Gure Jaunak ere aurreikusita zeukan dantzari eta apaiz eta irudi sakratu asko baitzeuden gure zain, eta hiri suntsitua ez esateko moduan berbizitu zen.

Hantxe egin genuen Huitzihuatla, gure Gatzaren Jainkosaren festa, dantza, hitzaldi eta ohikoak ziren sakrifizioak, Jainkoek eskertzen zituztenak. Texkatl⁴⁷ gainean oso neska eder bat etzan genuen, Jainkosa bezala jantzita, eta geroago barbaro deitu gintuzten, irain handia dena, gure sakrifizioengatik, baina Aztlan Zaharreean gauza txarragoak ikusi genituen eta sekula ez genien barbaro deitu, aurrerago azalduko denez. Zeinu guztiak aldekoak zirenez ondo arauturiko martxa jarraitu genuen eta nik esango nuke hurrengo geldialdia Tepeapokoatlen izan zela, Apaneko zelaietatik gertu, mexiken, horrela deitzen gaituzte, lurralde osoko oktli onena egiten den tokia bera. Orain esan beharra daukat ezen lehen Apango lurra otomien lurra zela, bakezko jende ona bera, baina haien arbasoak Ketzalkoatlekin borrokatu ziren eta ondo zigortuak izan ziren, barranko baten sakonera jaurti eta harri bihurturik geratu baitziren han, eta han daude oraindik eta jende askok ikusi ditu, nire asmakizuna ez dela adierazteko froga gisa esana gera bedi. Zilargile gehienak Azkapotzalko herrian bizi ziren, lakuaren beste aldean, baina aldiz nire adiskide Aitztlil Tlatelolkon zegoen, aurrerago ikusiko dugunez. Horixe da historiak dioena, gure harri zaharretan idatzia eta gurasoengandik seme-alabengana transmititua behar diren Azao guztietan zehar. Gero igo ginen Kuauhtepekera, mendi-zerra basati baten goialdean kokatuta dagoen herrira, eta ez zegoen igo beste erremediorik, bidea handik igarotzen baitzen.

Kuauhtepeken, deus ez. Baina bidearen zatirik miresgarriena Kuauhtepeketik Huauhtxinankorakoa izan zen, zeren lurreko puntu hartatik jaisten hasten baita, diogun jaitsiera egiten duela, eta zuhaitzez ondo hornitutako oihan bat dago, eta

⁴⁷ Sakrifizioko harria.

herriko biztanleak izaera oneko eta izateko modu oneko jendea da, oso ondo tratatu baikintuzten, oparo, esaten ausartuko nintzateke.

Nola zuen izena sekula gogoratu izan ez dudan neska batek izara bat eta harri berdeko zintzilikario bat eman zizkidan. Ez dakit oraindik bizirik dagoen baina Opotonek esango luke seguru asko ezetz, eta nik harekiko dudan oroitzapen ona aipatuta geratzea nahi dut. Oina bihurritu nuenean Ozelomitxin izeneko hezurdagile batengana eraman ninduen, eta hark oina konpondu eta jadanik ahaztuta dauzkadan ostoa batzuen zukua ipini zidan, behar bada nire lehengusu Xalkok gogoratuko du eta esango dit, biharko egunerako prest egoteak gehiago balio baitu eta ez esan ergela ez denik neskaren eta landarearen izenak ez gogoratzea, bi gauza sendagarriak eurak, eta aldiz, Ozelomitxinena gogoratzea, gizajoa, berak ere sendatu baininduen.

Dagoeneko ahaztuta dauzkat gauak igarotzen genituen tokiak, eta memoria traidorea dela antzematen dut, izan ere gauza batzuetan lagundu eta beste batzuetan abandonatu egiten baitzaitu. Mendietatik barrena genbiltzanean soilik gure urrats konpasatuak entzuten ziren, denak batera ibilarazten baikintuzten dantzan baikeunde bezala. Gero Koatzintlanen gelditu ginen, herri handia baita hura, itxura onekoa eta oso polita mendi-zerraren aldetik pendizean behera kokatua. Lur haiek oso aberatsak dira eta eguraldi ona egiten du, eta beranduago Tihuatlanera iritsi ginen, non seguru aski oina bihurritu nuen eta orduan horrek esan nahiko zukeen neska hura ez zela Huauhtxinankokoa izango, Tihuatlangoa baizik. Uste dut beste behin ere bihurritu nuela zeren lehen bihurrituaren ondoren [oinak] oso ukituta geratzen baitira eta zu jabetu gabe bihurritzen dira. Eta horrela neska berriro Huauhtxinankan utz dezaket, nondik sekula ez nukeen atera behar izango. Oso ziur dakidana da hurrengo geldialdia Totxpanen izan zela, non Pantepek izeneko ibai handi bat dagoen, hain baita zabala.

Totxpan lurralde beroa da eta horrela deitzen dute, egiten duen beroagatik, lur beroko izenak argi asko uzten baitu. Bi egun oso eta beren gauak igaro genituen bertan, atsedenean, gauza jakina baita gerla-talde bat kontserbatzeko modurik onena alferrik ez nekatzea dela. Totxpan herri bakar bat da, baina esango zenukete bi diruditela, ibaiaren bi aldeetan baitauzka etxeak, eta hain da zabala ezen bi herri direla ematen baitu, bat hemen eta bestea han. Baina Jainkoaren izen onean esan beharra daukat herri bat dela, Totxpan izenekoa, horixe baita haren izena. Hirugarren egunean Totxpaneko eta inguruetako dantzariak etorri ziren, gure Kainaberadi eta Palmadi zirudien kanoa-pila bat, eta ibai guztia gu ikustera etorritako kanoaz inurritzen ari zen, eta inurritzearena oraingo nire asmakizuna da, han benetan inurritegi baten mugimendua baitzegoen eta lema eta lemazain esaten badugu zergatik ezin esan genezake inurritegi eta inurritu, galdetzen du Opotonek. Pantepec ibaia hain da zabala ezen esan beharko genuke hura gure Kainaberadi eta Palmadiaren zati bat zela, zuhaitzengatik ez balitz, oso ezberdinak baitira, eta han behekoa lur beroa delako. Azoka eguneko Tenotxtitlan Handiaren zati bat zirudien, horixe ematen zuen. Dantzen ostean uretara bultzatu genituen kanoak eta lan erraza zen, asko baikinen hura egiten, eta prest zeuden erripa txiki batzuk ibaiaren alboan, Pantepec deritzana oso zabala baita, zeina baliatzen dudan berresateko gure Jaun Handiak, Mintzo Den Hark, denetan pentsatzen zuela. Sei kanoak oso ongi abiatu ziren, beldur ginen arren galduta edukiko zutela urarekiko ohitura, baina, ordea, oso ondo flotatu zuten eta oso pozik zeuden, oso pozik berriro uretatik joatearren. Ez al dut ondo azaltzen, Tiautxkauan, galdera bezala gera bedi.

Gurekin zetozen zurginek beroarekin mugitutako zur batzuk konpondu behar izan zituzten, lurralde beroan baikeunden eta horregatik deitzen zaio lur beroa, bertan egiten duen bero handiagatik. Beti geratu ginen ibaiaren alde honetan edo, beste

era batera esanda, sekula ez genuen gurutzatu. Totxpangoen Tenplua ibaiaren bestaldean zegoen eta aski ongi ikusten genuen, herri koskorra eta ondo antolatua zela ikusten genuen bezalaxe. Kostako jendea jatorra da, txantxetara eta barrera emana eta Totxpango jendea kostako jendea da, gero jakin genuena Itsasoaren alboan dagoelako, gu geunden tokitik ikusten ez genuen arren, eta geroago ikusi baikeuen. Baina Totxpango jendeak bazekien eta horregatik zen kostako jende jostaria eta zirtolaria.

Kanoak uretara botatzea oso erraza izan zen eta denok egin genuen lana bihotza zuri eta sesiorik gabe, enborrez eta buztinez egin zituzten maldetan behera jaisten utziz, dena oso ondo pentsatuta, ematen baitzuen kanoak pozik jaisten zirela uretara. Oso polita zen sei kanoak ostera uretan ilaran ipinita ikustea hamazazpi egunez garraiatu ondoren, zeinak, hemen paperean instant batean igaro baitira, baina aldiz mendian gora eta mendian behera auskalo zenbat iraun zuen. Lotu egin genituen Pantepek ibaiak haruntza eramanez ez zitzan. Ez dut esan nahi hitz hauekin ibaiak indar ikaragarria zeukanik, izatez laua eta baketsua baita, baina Kapitainek dena ziurtatu behar dute, zeren hori baitagokie behar oblig. Gau hartan lurrian etzan ginen zurginei esker, eta apaizek berek pattarra banatu ziguten baina inor ez zen mozkortu ez baitzegoen baimenduta. Orain esan behar dut Atxolli oso aztoratuta etorri zela gure kanpamendura Kuakuhtintxanen kanpamentura alegia, eta azaldu zigun Totxpango batek, sandaliak egiten zituen batek, uste dut, orain ezin dut gogoratu haren izena, esan ziola Laku Handia oso hurbil zegoela, gu geunden alboan, aldameneari alegia. Atxolli Optompako nire ilobak, uste zuen konturatu gabe geure Kainaberadi eta Palmadian geundela oster, mendietatik ibiliaren ibiliz, igoz eta jaitsiz, itzuli izan bagina bezala.

Momentuz bere aztoramendua kutsatu zigun, esana gera bedi egiaren ohoretan, eta biok Kuauhnahuaken kanpamendura joan ginen, Aitzitli bertan zegoelako, baina, beti gertatu ohi zenez, denetaz jabetuta zegoen eta esan genion guztia barreari emateko baino ez zuen erabili, osaba eta iloba algara eta iseka, esan dezagun, eta biharamunean eguna argitu zuenean kanoen gainera igoarazi gintuen ordena handiz, ordena ugaria baitzen, gure bihotzak hitz goxoekin bigundu baitzituzten eta jendea kanoak batuta zegoen eta horri esker ordenaz igo ahal izan ginen.

Bakoitzak [ezagutzen zuen] berari zegokion lekua. Kapitainak denaz arduratzen ziren eta zigorra astintzen zieten borrokatu edo ordena hausten zutenei, eta niri ez zidaten batere kolperik eman, asko maite baininduten eta ardura handia ipini bainuen aldi bakoitzean ez borrokatzen. Ezagutzen ditut asko urrats bakoitzean estropezu egiten dutenak eta gogoia ematen dizu galdetzeko nola demontre konpontzen diren munduan ibiltzeko, estropezuka, eta kolpeka, oinekin ez ezik hitzarekin, eta egiten dituzten gauzeekin. Egun hartan oso aratzen zegoen zerua eta ez zegoen batere hodeirik, lauzpabost klasetakoak baitira puztuen eta luzangen artean, eta oso ondo zetorkigun haize freskoa jotzen zuen Ekialdetik, esana baitago lurralde hura oso beroa dela. Pantepek ibaia, hori baita han dagoen ibaiaren izena, kizkurturik zetorren aireak korrontearen kontra hartzen baitzuen, eta kizkurrarazi egiten zion, eskua garondotik ile kontra pasatzen duzunean bezalaxe. Kanoak kulunka gozoan zeuden, nire hamaka bezala. Nik neukana behin oso urrun⁴⁸ joan zen nire adiskide potxteka batek eman zidan, handik ekarri eta buztinaren truke saldu zidan eta nere bizitzan egin nuen negozio on bakarrenetakoa izan zen, zeren nire ongizatearen eta batzuek didaten inbidia truke obradore guztia eman bainezakeen. Nire etxeko patioan lotu eta atsedena

⁴⁸ Gutxienez lukatan penintsularen muturreraino, Karibeko herriekin, hamaka-sortzaileekin, noizbehinkako harremanak baitzeuzkan.

hartzeko etzaten nintzen eta batzuetan nekatzeko, nire emaztea igoarazten bainuen. Kanoak, beraz, nire hamaka bezala kulunkatzen ziren, nagi, nire emaztea, izenez Utzkilitl, ez zegoenean, zeren ikutzen zuena zikindu egiten baitzuen, hitz figuratua erabiliz eta zauritzeko batere asmorik gabe esana. Esaten nizuen jende haietakoa zen, urrats bakoitzean estropezu egiten dutenetakoa, baina ez nuke nahi zuek uste izatea ez zela andre ona edo ez nuela maite. Alderantziz. Eta hura gabe ez genukeen Pezohtli izango, hamaka gainean egin baikeuen kulunka gozoan, izan ere sare sendotua bezalakoa zen, eta agian horregatik beti topatu genuen arrain atrapatuaren aurpegia zeukala.

Beraz, denok kanoa gainean geundelarik, beraz haien baitan eta bakoitza bere tokian, kanoa txikiak erretiratu zituzten eta Totxpango jendeak eta maxtlatl txuriko garraiolariek agur egiten ziguten, haiek lurrean geratuko baitziren. Abiatu genituen, beraz, kanoak, eta bazirudien arraunlari guztiek huehuatl bakarrari obeditzen ziotela, hain zen ederra geure erritmoa. Pantepek ibaia gero eta zabalagoa egiten da eta bat-batean harrotu egin zen lurrikara edo enbata balitz bezala, eta biak batera gertatzen direla dirudi, oraintxe bertan asmatu dut. Kanoetako zurajeak karrank egiten zuen eta azpian geneukan ur guztia hain aztoratuta zegoen, aztoratuta zirudien. Orduan ez genekien zer gertatzen zen baina orain azaldu ahal dizuet, ez baita kontua pentsa dezazuen, Opoton honek ez dakiela zer dioen. Oso ondo dakit nahasten naizela eta hobeto esanda uste dut ez naizela gehiegi nahasten. Pantepek ibaia Itsasoan hiltzen da eta hari esaten zion Atxollik Laku Handia. Iritsiak ginen urbietara, alegia ur geza gazi bihurtzen hasten den tokira, eta ibaia hiltzen delarik bere konbultsioak egiten ditu, zati hau dena oso ondo ipinita geratu da. Horregatik astintzen zen hainbeste azpian geneukan mugimendua. Ketzalkoatl gorazarre-kantuak egiten hasi ginen, beti animoa pizten baitute, eta jada Itsasoan geundenez eta askok ez zutenez lehenago ikusi, Opotonek berak bezala, modestiarik gabe esanda, utzi ziguten banan-banan kapitainaren etxera sartzen, hura ikusi ahal izateko. Eta sartu eta agurtu egiten genuen eta oso kapitain ona zen, bere garaian esango den bezala.

Jadanik Itsasoa ezagutzen dutenek barre egingo dute nire azalpen kaxkarren kontura, baina, ordez, ezagutzen zutenek, ba, ulertuko dute gutxi gorabehera. Alde guztietatik ikusten da ura, alboetatik eta azpitik, salbu gainetik euririk egiten ez duenean. Eta urrutira doa, ikusterik ez duzun haraino, ikusmena ura baino lehenago amaitzen baitzaizu, eta ura borobila da. Gorpila ez genuela-eta esan dudana ezabatuko dut gero. Ume totonaken jostailuzko txakurtxoek gurpil birakariak dauzkate eta lurretik lasterkarazten dituzte eta gurpilak biraka doaz. Baina nik gurpil handia esan nahi nuen, Aztlan Zaharreko jendeak daukana bezalakoa, unea iritsita aipatuko dena. Itsasoko ura distiranta da baina ez laua gure lakukoa bezala baizik zimur handikoa, batzuk Itsasoz haranditik honantza parekatuta, denak batera ibiliz eta bakoitzak bere lekua gordez, eta sekula ez dira amaitzen, uhinak baitira, hots zimurrak, eta egunez eta gauez daude sekula gelditu gabe. Itsasoa oso handia da eta ez duzu haren amaiera ikusten eta oro har borobila da kanpotik; ura borobil mantentzen da eta ez da alboetatik erortzen, oso gauza ikusgarria, zeren dena gazia da eta kolore urdina du, segun. Baibaitira egunak non dena beltza eta puztua den, beldurra eragiteko eran, eta berdea edo urdina deneko berbera da, zabarkeriagatik barkamenez esana.

Aldiz arraunek ateratzen duten aparra beti da zuria, eta berdin kanoen isatsak, zeren Itsaso barruan kanoek atzerago berez desegiten den isats zuria daukate, eta ez du arrasto bezala balio zeren inor ez zen fidatuko, desegin egiten baitira, eta kanoek elkarrekin joan beharra daukate ez badute galdu nahi. Arraunek ez dute ura beti batera ukitzen, uhinen azpian soto sakonak baitaude, eta arraun batzuk iristen diren arren, beste batzuk airean geratzen dira ura ukitu gabe, hau da pilota

jaurti eta zuloa asmatzen ez duzunean bezala, esana gera bedi alderatzeko figura gisa.

Miragarria da baita ere Eguzkia egunoro Itsatsotik ateratzen dela ikustea eta bertan sartzen dela ilunabarra iristen denean, ilunpea alegia. Itsasoak ipekakuanak⁴⁹ duen isatsaren antza ere badu, baina gero ohitu eta pasa egiten da. Gauean berdin handia jarraitzen du eta agian beldur handiegia eragiten du, eta orduan Ilargia ateratzen da eta sartu ere bai, baina inoiz zeruaren tontorrean geratzen da, erdi pizturik erdi amataturik, lurrian bezala. Itsaso barruan era guztietako arrainak daude, kolore guztietakoak. Handiak, txikiak eta ertainak. Batzuek txoriek bezala egiten dute hegan: uretatik irten, zuzen-zuzen joaten dira tarte handi batean azkon busti bat bezala, eta ondo datorkien uhin bat harrapatu ahala sartzen dira berriro. Beste batzuk gizon beltzaran samar bat bezain handiak dira eta kanoen alboetan eta atzeko aldean doaz korrika egun oso batean edo agian bitan, ordurarte ez baikenituen sekula ikusi, eta ikusberak eta jostariak dira, haurrak bezala. Goian, zirkuluak eginez hegan egin eta aldian behin kanoetara jaitsi eta harrapatzen uzten duten txoriak ere baditu Itsasoak, baina barrutik arrain ustelaren zaporea daukate, eta ez dira oso onak. Horrelakoxeak dira gosez hiltzen egon arren inork amaitu ezingo zituen txori haiek. Aldiz oso onak dira arrain guztiak eta era guztietakoak daude, igelak izan ezik.

⁴⁹ Rubiazeak, *Cephalis ipecacuana*. Haren sustraia oso okeragile arrunt eta eraginkorra da.

BOSGARREN ATALA

Beti Itsasotik ibili ohi ginen, gau ta egun, ez baitzegoen ibiltzeko beste modurik. Lurretik zoazela diozu utz iezadazu eseri eta atsedean hartzen pixka bat, baina Itsasotik joanez, esango nuke galdetuz, nola har dezakezu atsedea? Izan ere hainbeste ur baitzegoen alde batetik nahiz bestetik, aurretik zein atzetik, eta ez zitzaion amaierarik ikusten eta, ordea, ematen zuen ez zeukala. Ni, Kainaberadi eta Palmadiko Opoton, beti arraunlari ona izan naizenez, nire kanoako kapitainak, izenez Alo eta kanoa Kuauhtintxan, oso gizon ona izanik eta ni bere beste soldaduak oro baino askoz gehiago mimatu eta errespetatzen ninduenak, lemazain izendatu ninduen, hots, lemaren arduradun, hau da, lema kanoen atzeko partean generaman tramankulu bat zen eta gobernatzen zuen erara birarazten zuen kanoa, kontuan hartuz Kapitainaren aginduak betetzen zirela, eta kanoaren atzeko aldean ipinita generaman egur sendo bat zen. Hainbat lemazain ginen, eta ni, Kainaberadi eta Palmadiko Opoton, haietako bat izan nintzen, nahiz eta Alo nire familiakoa ez izan, ez lehengusu ez beste ezer, soilik adiskidea, eta orain azaldu nahi dut zergatik Alok begiz jo ninduen, eta hori gertatu zen konturatu zenean oso abila nintzela arraunarekin eta pentsatu zuen: “Opoton honek oso ondo gobernatzen du arrauna eta dirudienek dena zaintzen du, oso bizia da eta talentuduna, lemazain ona izango da”. Eta orduan deitu eta esan zidan:

—Opoton: nahi diat hi beheko arraunak utzi eta lemazain izatea.

Eta nire erantzuna:

—Bai, Alo Kapitaina. Zure zerbitzarien artean apalena naiz eta zuk agintzen didazun guztia egingo dut Ketzalkoatlentz aintzaz.

Orduan jabetu zen ondo hitz egin ez ezik ondo hezia nintzela, eta lemazain egin ninduen, lan astuna bera, egia esan, arrisku eta erantzukizun handikoa. Lemazain bezala beti Ekialderantz jo behar nuen, Levanterantz, eta Eki ona soilik goizean ikusi ohi da, Eguzkia uretatik irteten denean, eta lemazainak harantz bideratu behar du kanoa azkon bat balitz bezala, balio beza konparazio zabarrak, eta pultsua irmo eduki behar da, indartsu besoa eta une oro gogoratu nondik irten den Eguzkia, eta zure ordeztu den lemazainari argi azaldu ahal diozu, ezinezkoa baita gizon bakar batek egunak eta egunak pasatzea lema utzi gabe, eta ez diot galdera modura. Gauza frogatua baita ura izaera bihurrikoa dela eta bidea aldatu ohi du, eta aurrerago egiaztatzen duzunean konturatzen zara dena pikutara zihoala.

Baina ez duzu deus esan behar, zure eginkizuna txukun bete baino ez, zeren bestela kapitainak konturatuta esago zizun:

—Eta, beraz, Opoton, ze lemazain klase haiz hi?

Lemazaintzan eskarmentu handikoa naizenez, gomendatuko nuke ezen leman daudenek Ketzalkoatl Jainko Onari otoitz egin diezaiotela uneoro, hitz egin alegia, zaindu zaitzan eta desbideratzen ez utzi, nik une oro egiten nuen lez. Eginkizun zaila da [itsasbidea gordetzea] aurrean daukazuna beti ur berbera baita, ur gezurtia-edo, eta hodeiekin ere ezin zara fiatu, Tlaloken nahierara baitoaz, eta sekula ez dira geldi geratzen. Eta, gainera, Eguzkiarena dago, zeruko bere ibilbidean ez baitu lerro zuzena jarraitzen, albo batera okertuta baizik, gure harri zaharretan esanda dagoen bezala.

Beraz nik aholkatuko nuke lemazain berriek beren lana egiten dutenean ongi ireki ditzatela begiak, memoria ona izan dezatela, eta eguna argia baldin bada eta beste kanoek alboan nabigatzen badute, beha dezatela haien itsasbidea ondo

mantentzen duten eta ardura daitezela ez desbideratzen, zeren denen bideak batuta egiten baita bide bakarra, ona dena.

Beste batzuetan lema gauzez zaintzea egokitzen zitzaidan, ulertuta egongo baitzarete kanoek gau ta egun nabigatzen zutela, kontuan hartuz Itsasoan ez dagoela tokirik gelditzeko eta bidea egiten joan beharra dagoela uneoro. Orduan izarren bidez gidatzen nintzen, oraintxe azalduta geratuko den eran. Eta kanoa orok tortxa bat piztuta zeramatenez atzeko aldean, ulertzen duen jendearen artean txopa deitua bera, beranduago jakin genuenez, aurrean zihoazen kanoen arabera gida zintezke. Izarrak ziren hobekien zihoazenak; zeudenean, jakina. Batzuetan ez daude, eta holako kasuetan egin daitekeen gauzarik zuzenena da Ketzalkoatl Jainko Onari gomendatu eta begiak itxita joatea, esateko modu bat. Alok esaten zidan zeintzuk ziren onak, hura oso aditua baitzen, gure kapitain guztiak bezala. Jainkoez, Haruntzagokoez eta denetaz ezagupen-maila handia zeukan jendea zen, Kalzemak⁵⁰ eta Telpotxkalitik paseak baitziren eta ikasten zituzten hainbat gauza, orain jakintsu deitzen baditut inor ez ofenditu izanaren kontzientzia garbiarekin geratzen naiz. Gerlaren artea menderatzen zuten, eta kementsuak ziren Jainkoen eta Gure Jaun Handiaren, Mintzo Den Haren, alegia Ahuizotlen, zerbitzura, res publicaren erregimena ezagutzen zuten eta jende moldatua zen eta, horretaz guztiaz, Jauna haiekin fiatzten zen eta eurak ziren Jauna, Jauna ez zegoenean, gauza hau, egia esan, paperean jartzeko zaila da, nire buru barruan hain garbi dagoen arren. Ilunabarrean besteak baino gehiago argitzen duen izar bat seinalatzen zidan, Ketzalkoatl berbera dena. Edo, hobeto esanda, Ketzalkoatlek aukeratu duena gau hartan bizitzeko, eta batzuetan da bat eta besteetan beste bat. Gau batzuetan honuntzago dago eta beste batzuetan harago, baina arratsaldean beti atzean geneukan, eta goizaldean aurrean eta berak adierazten zigun norantzkoan abiatu behar genuen. Gaua aurrerago, beste izar batzuekin gidatzen ginen, izan ere Itsasoan Lurrean beste daude, edo agian gehiago, eta elkarrekin edo batera jartzen dira, bi eratara esan ahal baita, eta animalia edo gauzei buruzko marrazkiak osaten dituzte eta ezagutzen erraza da kapitainak behar bezala azaldu badizu. Ilargiko Untxia⁵¹ adibidez. Oraintxe bertan, hainbetse urte igaro direnean, oraindik zeruari begiratzen diot gau izartsuetan eta dena ezabatzen zait eta begien aurrean daukadan laino artean puntutxo batzuk distiratzten dira, eta lehen gidatzen ninduten eta Alok erakusten zizkidan marrazki berberak dira eta, begiratu zein ezjakina naizen, honelatsu pentsatzen dut: “Eta, beraz, Opoton, berriro nabigatzen”? Ketzalkoatl Jainkoa bere lurralde zaharretara joana zen, Aztlan Zaharrera, Ekialdean daudenak eurak, eta antza denez pentsatzen genuen, hark egindako bide berbera eginez gero, aurkitu egingo genuela Hura etorri ondoren. Horixe izango zen Gure Jaun Handiaren, Mintzo Den Haren, pentsamendua, agindu zuenean gerla-taldea Itsasorantz abia zedila. Eta badakit oso gauza ausarta eta mespretxugarria dela Jainkoaren pentsamenduak asmatu nahi izatea, baina Opotonek oraintxe aipatzen du, badakienean zer gertatu zen.

Nik, Opotonek, ez nuke irrerereberentzia den, edo dirudien, zerbait esan nahi, baina beti susmatu nuen ezen Itsasoa hain handia eta batik bat zabala izanik, ez genuela sekula elkar aurkituko. Hau irakurtzen duenak, norbait hau irakurtzera iristen bada, pentsatuko du: “Opoton honek zurezkoa du aurpegia!”. Baina, aldiz, nik badakit nahi dutena aurki dezaketela Jainkoek, nonahitik doalarik, baita urruti

⁵⁰ Eskola Nagusia.

⁵¹ Ilargiaren orbanetan, untxiaren antzeko silueta bat ikusten zuten. Bada igerkizun mexikar zahar bat ezin eskuratuzko gauzak aipatzen dituen, eta ilargiko untxiarekin alderatzen ditu.

izatera ere, zeren Haien begirada ez da gurea bezain motza. Baina, oro har, horixe da Opotonek gauetan pentsatzen zuena eta gero ikusiko duzue ez zebilela hain oker.

Aldiz, lema zaintzen nuenean ardura handia neukan ez desbideratzeko eta begiak zabal-zabalik neramatzan, gauza bat baita zure baitan pentsatzen duzuna eta beste bat, oso ezberdina, agindu dizutena ez egitea. Orain adieraziko dut ez nintzela mintzo nire pentsamenduetariko bakar batekin, emakumezkoen gauza baita besteak lanpetzea zure burutazioekin, bakoitzak bakar-bakarrik pasa behar baititu bereak. Zeren Ketzalkoatl ikusi ezin genuen arren, Berak ederki zelatatzen gintuen gu. Egia lehen mailan, sekula ez ginen iritsi hura ikustera eta ni banintzen haren beldur. Eta orain ere badakit Berak ipini zigun frogia handia izan zela eta oraindik irauten duela, eta Bere Borondateak aski da esan arte iraungo du, eta guri ez dagokigu hura presatzea. Agian gure Jaun Handiak, Mintzo Den Hark, ere ez zekien zein handia den Itsasoa. Baina ez bere jakinduriaren ahulezia zelako, baizik aski ongi informatu ez zutelako horretara behartuta zeudenek. Apaizek edo behar bada izarrek berek esango zioten, baina gauza asko daude, ondo azaltzen dizkizuten arren, harrapatu ezin dituzunak. Nik, Opotonek, diotsuet:

—Kea Darion Tontorra oso mendi altua da.

Zuek, demagun, ez duzue sekula ikusi eta pentsatuko duzue oso mendi altua dela, oso-oso altua. Baina sekula ez duzue ulertuko zenbaterainoko altuera daukan, ikusi arte, orduan ulertuko baituzue zein altua den eta oso-oso altua dela. Itsasoarekin, berdin. Handia, oso handia dela esango dizuet, eta pentsatuko duzue gure Kainaberadi eta Palmadiko lakua baino bizpahiru aldiz, edo agian lauzpabost aldiz handiagoa dela. Bada askoz ere handiagoa da eta esango banu hogeiko hogeiko aldiz handiagoa dela, ez nuke neurria puztuko. Ezin dut aditzera eman Itsasoaren benetako handitasuna lehenago bukatzen baitzaizkit hitzak. Eta behar bada haxe da idazten hasten diren buztingileen gaitza, eta uste dut ulertzen didazuela.

Atxolli ez zen lemazaina, soilik gerlaria, artean gerrarik egin gabea zen arren. Ni, aldiz, lema neraman eta Alo eta Tlakateka anaiak ziren, benetan odoleko anaiak, aita eta ama berekoak. Pintol gure Kuauhtintxan kanoako lemazain batek azaldu zidan, zorabiatuta ez zegoen egun batean. Berak bazekien, nahiz eta gure Kapitaina, izenez Alo, eta Tlakateka, Kapitain eta Tlakateka bezala tratatazen ziren, eta ez anaiak bezala, behintzat norbaiten aurrean zeudenean zeren, agian, bakarrik zeudenean auskalo zer egiten zuten. Odol berekoak eta bihotzez noble zirela aski ongi ikusi genuen Ketzalkoatlaren etsai idolatrekiko liskarretan, Hark nahas ditzala.

Izar ugari zeuden eta gau batzuetan beste batzuetan baino gehiago. Batzuetan bat ere ez, dena oso ilun. Itsasoa, Tlalok Tlamakazkiri dagokiona, gure aurka biratzen zen batzuetan. Gure herri mexikaren historia, Zazpi Aitzuloetatik irten ginenetik, Jainkoen arteko borrokez beteta dago. Soilik horrek jendeak ulertzen ez dituen gauzetariko asko azaltzen ditu. Guk ezin genuen ulertu zergatik Tlalokek astintzen zituen urak hainbeste, batzuetan astintzen zituen eran, izan ere Aztlan Zaharrerantz gindoazenean eurite ikaragarriak bidali zizkigun, eta are tximistak, fede txarrez beterikoak, kanoen oso alboan zapartatzen zirenak eta ez zituen erretzen, Hark lehendik bustita zeuzkalako eta egur bustia erretzen zaila da. Urez betetzen zitzaizkigun kanoak eta lan handia zen haiek hustutzea, gero eta gehiago ateratzen genuelarik are gehiago sartzen baitzen, eta uste dut azkarragoa zatekeela beteta utzi eta aterrunean hustea eta Hark, Tlalokek, ikusiko zuen Bere lana alferrikakoa zela eta bakean utziko zuen zeren kanoak urez beteta daudenean jada ez da beste tantarik sartzen. Sufrikario handiak sufritu genituen eta denak itota bukatuko genuela zirudien, eta agian gehiago balioko zukeen. Egun

batzuetan ur gehiago geneukan barruan kanpoan baino, eta hori ez da egia, baina esanda dago barre pixka bat egiteko, eta Itsasoko ekaitzak durduzagarriak dira eta uhinak hain indartsu datoz, kalterik egiten ez duten kanoak, ikusirik Ketzalkoatlen bila baino ez doazela, iraultzen baitituzte kasik. Aurrerago Tlalok Tlamakazkik eta Ketzalkoatlek bakeak egin eta dena Ketzalkoatlen bake santuan geratzen zen, bera baitzen liskarrean irabazlea. Orduan osteria irteten ziren izarrak gaua bazen, eta Eguzkia egunez, eta argi asko ikusten zen Huitzilopotxtli dena gobernatzen zuenak bere legea ezartzen zuela.

Beha ezazue gutxika-gutxika idazten ari naizela eta, hala ere, azaltzen dudana azkar igarotzen da. Itsasoan geundenean idatzita daramadana baino gehiago iraun zuen. Gauzak astiro zihoazen, esan dezagun eskale zamatu bat bezala zebilela, konparaziora, eta lau aldiz hogeitau gau egon ginen Itsasoaren gainean, eta lau aldiz hogeitau gehi egun bat, guk egindako kontuen arabera, eta lau aldiz hogeitau egunak oso osorik Itsasotik irteten gabe. Ezin da atera ez bada toki batera edo bestera iritsita, ez baitago erdibiderik. Ikusia genuen txori batzuk ezin dutela Itsasoko toki batzuetara iritsi, kontuan hartuz oso barruan daudela eta eurek bada ez. Arrainak bai, haiek han bizi baitira. Itsasoaren zati batzuk denetatik oso urrun daude eta egunak eta egunak dira Itsasoa besterik ikusi gabe eta soilik bi gauza egin ditzakezu, hau da, arraunean egin eta ez egin. Arraunean egin eta ez egin, besterik ez, zuri bukatu egiten baitzaizu egin ahal duzuna eta Itsasoak iraun egiten du. Eta sekula amaitzen ez den ura ikusi, gutxi jan eta are gutxiago edan eta mila lauhun eta lauoregi eta bederatzigarren urtea zen Aztlan Zaharreko kontaketa arabera, izan ere eurek esaten dute mila lauhun eta lauoregi eta bederatzigarren urtea guk ze-tekpatl diogunean, ñabardura batekin, alegia, ze-tekpatl hori ulertzen dela eta mila lauhun eta lauoregi eta bederatzigarren urteak korapilo esan nahi duela. Ez dute kontatzen etxeekin ez untxiekin ez sugeekin ez kainaberekin ez tigreekin ez gure gauza jakintsuren batekin. Eurek soka antzeko bat daukate, korapiloekin, eta ulertzen dutenean beste korapilo bat egiteko ordua iritsi dela egin egiten dute eta orduan esaten dute mila lauhun eta lauoregi. Horri zenbaki esaten diote, eta soka osoari egutegi. Euren arabera mila lauhun eta lauoregi eta bederatzi zenbaki bat da, baina ez daukate behategirik apaizentzat eta ez dakite haiek egiten dutena egiten, zeinek egun osoak igarotzen baitituzte Eguzkiari harrien zirrikituetatik eta egur gurutzatuen artean behaka, eta badakite gertatuko den guztia eta noiz gauden beste urte batean. Esaten nabilen hau dena, aldiz, aurrerago datorren beste zati bati dagokio eta hitz ederrekin esana geratuko da, ordua iristen denean. Haientzat datorren urtea, egutegi deritzan soka haren korapilo berri bat da, eta Tlaloken euriak kanoak urez betetzen zizkigunean denok ateratzen hasten ginen, itota ez bukatzeko, eta bidaia ez hondatzeko ximplekeria batengatik. Lema gobernatzea bazegokidan ez nuen uzten euria indartsua izan arren, eta gainerakoek pegarrekin jasotzen zuten ur geza, esana geratu behar baitu ezen Itsasoko ura gazia den arren Itsasoko euriaren ura gozo askoa dela, eta gero bihurtzen da gazi, eta horregatik pegarrekin jaso beharra dago, hau da, beranduegi izan baino lehen, ez dadila gazi bihurtu eta edateko hutsala izan.

Bidaia hartan ikusi genituen gauza arraro guztiak azaltzen hasiko banintz, sekula ez nuke bukatuko eta zerrenda irakurriko bazenute Opaton erotu zela esango zenukete. Itsasoko ura gazi askoa da eta pixka bat garratza ere bai, hainbeste ezen ez baituzu ulertzen nolatan arrainak ohitu diren kutsua hartu gabe. Egundak batzuetan ez zen deus ikusten, lainoak dena estalita. Beste kanoak ere ez ziren ikusten, oso alboan nabigatzen zuten arren ez galtzeko. Ez eguzki ez izar gidaririk ez geneukanez Ketzalkoatlen gurarira generamatzen kanoak, inork ez baitzuen

Itsasoaren benetako neurri handia ezagutzen eta hornidurak laster bukatuko zitzaizkigun arrainak ez baleude.

Zortea izan genuen sareei buruz esandakoaz. Kontua zen uretara bota eta pixka bat zabaltzea, eta era guztietako arrainez betetzen zitzaizkigun, eta nahiho lan geneukan haiek igotzeko, oso astunak baitziren jasotzerakoan. Eta beste bost kanoek, orain aipatuko ditudanak hain juxtu, gauza bera egiten zuten, eta sei kanoa ginen arren arrantza-kontuetan, sekula ez zen ikusi arrainen bukaera eta itzulerako nahi beste geratzen zitzaigun oraindik. Eta, orduan, Aztlango gizonek ikasi genuen Itsasoko arraina ez dela sekula agortzen, nahiz eta garbi esanda gera bedi arrain-jana aski nekagarria dela.

Hainbeste borroka gatzagatik, eta han soberan zegoen. Askotan galdetu nion neure buruari zer gertatuko ote zen Tlaxkalakoekin, honen berri⁵² izaterakoan. Gatza soberan dago. Agian gehiegi ere bai, nire gusturako. Eta urarekin erabat nahastuta dator beti, eta urak, edateko ona ez izateaz gain, batik bat gaitz egiten du. Itsasoko ura edaten genuenean gorputza kanoatik kanpo pasatzen genuen egun erdia, txarra baita eta zuku gaiztoz betetzen zaitu. Beste batzuek beste gorputz erdia kanpo atera behar zuten eta Buruzagiak ere botaka zebiltzan. Eta ez euren ahuleziagatik, baizik Itsasoko uraren indarragatik. Ohiturak hainbeste aldatu direlarik kosta egingo zaizue sinistea lehengo gauzak ez zirela gaurkoak bezalakoak. Garai haietan, Buruzagiek esaten zigutena oso gustura betetzen genuen eta inori ez zitzaion bururatzen epaitzea eta gutxiago ihardestea. Legea zen. Horretarako jaio eta hezi ziren, pentsatzeko eta nola. Beti genekien zer egin eta ondo bereizten genuen zer zegoen ondo eta zer ez. Buruzagia Ahotsa zen. Mintzo Zen Hura zen, izan ez arren. Anitza izan zitekeen, baina beti Ahots berbera. Ezberdina izan zein ez, Ahots bakarra da eta ez baduzue ulertu nahi ez da nire erruagatik, ni bidaiak azaltzera etorri bainaiz eta ez Ahotsak. Horregatik sinistu ahal izan genuen berehala Aztlan Zaharreko sinismenak-eta, eurak Hiru Pertsona berdin eta ezberdinei buruz mintzatzen zitzaizkigunean. Orain jada ez: orain mundu guztiak egiten du nahi duena, eta batik bat egitea nahi ez dutena. Esaten dizutenean, hau ez egin, aditzera ematen da ez dela egiten baina isil-gordeka egiten da. Harrapatzen bazaituzte, mixtlatepetla isuri zaizun plantak egin eta kitto⁵³. Barkamenez esanda, pozik ez bazaude ere egongo bazina bezala jokatu. Gauza asko ikasi ditugu, horretan arrazoa baitute, eta gezurra esatea garrantzitsuenetarikoa izan da. Denok nekatuta geunden hainbat egun eta hainbat gau Itsaso gainean egoteagatik, baina inor ez zen ausartuko ez eta beste batekin komentatzera ere. Norberaren baitan negar hautsia bezalako zerbait geratzen zen, diogun ametsetako angustia bezalako, garrasi egin nahi eta ez zaizula ahotsa ateratzen, eta dena figura bezala jarria geratzen da ez bainaiz ametsez mintzatzen ari. Gerta zitzaigukeen guztitik txarrena hiltzea izango zen, alegia. Eta Jainko Ketzalkoatlén bila egiten diren bidaietan hiltzen direnak beste inor baino lehen iristen dira Aterik eta Leihorik Gabeko Etxera. Maiz esan zigun hori Alok, eta orduan oso urrun ikusi genuen lurra.

Apaizek esana zuten lur berdea Txori Sakratuaren lumak bezalako izango zela. Eta ikusten genuen lurra uharte berdeak ziren, batzuk handiak eta bestetzuk txikiak, horrela izan ohi baita, sekula ez baitira denak neurri berekoak, aldiz ezberdinak, nola. Ikusiak genituen oso urrutitik eta ez da beharrezkoa esatea

⁵² *Mexiken* eta tlaxkalteken arteko aldikako gerlek, azkenekoek izan ohi zuten gatz-faltan zeukaten oinarria. Aurrerago, gerla bideratuak izan ziren, sakrifizio edo esklabutzarako atxilotuen trukera begira.

⁵³ Ez du itzulpenik, ez eta hurbilekorik ere. Ekidinezin, fatalitate edo antzeko ideia bezala jaso behar da.

arraunlariak gogotik saiatu zirela arraunean, sekula baino gehiago, eta atsegina zen. Egia edozeren aurretik doala eta argi esana gera bedi Atxolli, nire Otompako iloba, Kainaberadi eta Palmadira nire buztingile-ofizioa ikasteko etorria, inoiz ikasi ez zuen arren zeren buztinezko bolatxoak egin eta egostea, gure zerbatanekin jaurti ahal izateko, beraz, inork ez baitzukeen esango hori buztingile-ofizioan aritzea zenik, uharteak ikusten lehenetarikoa izan zen. Kanoaren goiko aldean zegoen, hots, arraun ez egiteko txandan eta bere begi gazteek oso urrutitik bistaratu zituzten eta indartsu oihukatu zuen, eta denok jarri ginen edertasun hari begira eta batzuek zioten baietz eta beste batzuek ezetz, baina ezetz ziotenek baietz izateko desioarekin zen, uste dut ulertuko didazuela. Gertuago izan ginelarik, poztasunez egin genuen negar, zeren poztasunez negarrarazten baitzuen Itsasoaren beste aldean lurra zegoela ikusteak. Batzuek Buruzagiei baimena eskatu eta igeri eginez joan ziren, baimena jaso ahala egin baitzuten salto Itsasora. Lehen uhartera gerturaturik, arraunlariak arraunak altxa zituzten eta kanoak beste pixka batean ibili ziren zeramaten bulkadari esker. Apaizak Jainkoen gorespenak kantatzen hasi ziren, baina, kontuan hartuz nahuatlatolliz abesten zutela, apenas ulertzen genien⁵⁴. Denok zulatu genituen belarriak errespetuz, zeren hainbeste egun eta gero lurra ikusteak emozioa eragiten baitu, are gehiago pentsatzen duzunean ez duzula sekula osteria lurrik ikusiko biratu eta itzulera-bidaia ekin arte, hots pentsatzen duzula alde haietatik ez dagoela lurrik. Igeri egiten zihoazenez ez zuten odolik atera eta Jainkoak batzuk zigortu nahi izan zituen ikasbidea ematearren, bere garaian esango dugunez. Ketzalkoatl Jainko Onak indar eman diezadala uharteak ez diren uharteen⁵⁵ kontu hori ondo azaltzeko, natura oso zirtolaria baita eta batek oso erne ibili beharra dauka haren bromak ulertzeko. Ikusiak genituen oso urrutitik eta ez da beharrezkoa esatea arraunlariak gogotik saiatu zirela arraunean, sekula baino gehiago. Izan ez direnetako uharteak ziren, kolpe bakarrez esatearren, eta bertara iristen ziren igerilariak hosto berde batzuekin nahasten ziren, eta era guztietako mugimenduak, itotzekoa izan ezik, galarazten zizkieten. Hosto berde klase bat zen, adats-sortaren antzean meheak eta itsasgarriak baina berdeak, mugimenduak eragozten zizkietenak. Opotonek dioenarekin azalduta geratzen da ezen gauza ez nobleak, adibidez gezurra, Itsasoko landareetan ere badirela. Trinko metatu dira ur gainean eta uharteak dirudite, baina izan ez dira, eta ona da Opotonek leialki ohartaraztea norbait inoiz kasu bereborean egotekotan, eta Opotonek aholkatzen duena da ez fidatzea eta lehenago arraunekin ukitzea, kanoa barrutik, eta ez jaistea arraunak bigunean jotzen badu, laster ezagutzen baita.

Soinuarekin eta ukitu bigunarekin. Argi zegoen Ketzalkoatlaren etsairen batek ipinia zuela amarru hura, eta gaur, hainbeste urtetako eskarmentuarekin ausartzen naiz esatera Aztlan Zaharraren afera zela. Hala Buruzagiak nola gu-geu atsekabeturik geratu ginen eta lurrera iristeagatik poztasun guztia ez iristeagatik tristezia bihurtu zen. Itsasoko belarrek gutariko hiru gizon irentsi zituen eta, ziur, norbaitek gure gerla-taldeari ipinitako amarrua izan zen, izan ere gerla-taldea izen polita da, esan nahi duena sei kanoetako edo gehiagoko multzoa. Eta itzulerako bidaia gutariko inork ez zuen pentsatu uharte berdeetan jaistea. Gutxi izan eta bakarrik falta zen inor itotzea, diot nik. Egia beti bere tokian, itzulerako bidaia inork ez zuen jaisteko asmorik izan. Gero, eskarmentuarekin, lurra ikusten genuen bakoitzean, lehenik eta behin arraunekin ukitzen genuen, kuit itlauh iktine mi

⁵⁴ Apaizen hizkuntza kultoa. Beste pasarte batean *“gure latina”* dio.

⁵⁵ Eman diezaiogun laguntza, eta esan Sargazoen itsasora iritsiak zirela.

koiotl⁵⁶, hondoratzen zenetz behatzeko. Tollokan aldera laku ez oso handiak daude, hosto ttikiak ematen duten landare berdez beteta denak, eta inguruko ez den jende guztia ito egiten da belaze bat dela uste izan eta bertatik ibili nahi baitute. Aldiz bertoko jendeak badaki eta sekula ez da arriskatzen.

Tollokanekoak Aztlan Zaharrera etorri izan balira ez ziren amarruan eroriko, beren lurraldeko lakuak gogoratuko baizituzketen eta. Tatxilotl adibidez, Tollokanen aldekoa zena, ez zen ito. Tatxitlotl hau nire emaztea gaisorik zegoenean igarkizunak esaten zituen hura da. Asmatu beharra zegoen zer zen mendi beltzetik atera eta mendi zurian hiltzen den gauza bat, eta igarkizun ona da hau. Hobe etsitzen baduzue. Zorria da, mendi beltzean, buruan, jaio eta mendi zurian, azazkalean, hiltzen dena. Eta igerkizun ona da. Eta zer da pinu baten azpiko ispilua, eta da begia bekokiaren azpian, bekokia pinu baten adarra bezalakoa baita eta begiak ispilua dirudi. Beste asko ere badakizkit. Atsotitzak esan eta dena [atsotitzekin] azaltzen duen jendea ere bada. Ur-tantak harria zulatzen duela esatea atsotitz-modukoa da, adierazten duena ezen helmugara eramaten duen burugogorkeria. Bidaia egiten ari ginela tanta zulatzaileak ginen, esana gera bedi antigualeko azalpenarekin elkar ulertzeko. Hauxe da atsotitzen zeregina: azaltzen den gauza argi uztea. Aldiz igarkizunek soilik entretenitu egiten dute eta, behin esanda, berahala ikusten da bestea azkarra edo ergela den. “Belearen mezularia” igarkizuna da. Diote ezen behin batean bere iturrian biluzik bainatzen ari ziren bi neska ikusi zituela Ketzalkoatlek, eta bere bi ipotxetako bat bidali zizkien, bele zeritzanak haien antza handia zeukatelako, eta belea han geratu zen. Eta beste bat bidali zuen, eta beste bat, eta haiek ere bertan geratu ziren, diot nik agian neska biluziak ikustearren. Horregatik, bat mandatu bat egitera bidali eta gehiegi luzatzen denean, “belearen mezularia dirudizu” diogu. Aurrerago, denbora librea daukadanean, azalduko dut hobeto. Orain ezin naiz gehiago nahastu eta hobe izango da Tlatxilotlen arazo hura eta izan ez diren baina uharteak diruditen uharte berdeen pasadizoa azaltzen bukatzea.

Oraindik egunak eta egunak eman genituen Itsaso gainean. Batzuetan euria egin zuen, eta beste batzuetan ez. Egun batzuetan hainbat bero egiten zuen, Totxpanera itzuliak ginela ematen zuen, lur beroa baita hura. Itsaso beroan bageunde bezala, esana gera bedi lagunei barre eginarazteko. Beste egun batzuetan Amakemekanen, Emakume Zuriaren eta Kea Darion Tontorraren azpian, bageunde bezainbeste hotz geneukan. Azaldu dizuedana gertatu zenean jadanik ez zegoen gerlaririk ontzi gainean. Denok igo eta jaisten ziren, denek betetzen baizituzten arrauneko txandak. Hasierako eran, hau da arraunean gutxi batzuk ginenean, gehiegi nekatzen ginen. Horrela erabaki zuen Alok eta beste kanoetakoek gauza bera egin zuten. Denok geunden pozik. Argi dago ezin genuela hasierako egunetako indarrarekin arraun egin, izan ere huehuetlekoek ere nekatuta baitzeuden, ez baituzue pentsatu behar zera lasaia dela egun osoan huehuetla jotzen aritzea. Eta arraunlari berriek arraunean besteek bezainbeste ez bazekiten, lehen egunetan izan zen, zeren laster ikasi zuten eta denok zeuzkaten gihar ederrak ariketagatik. Egun batean, eta Opotonek ondo gogoan du, benetako lurra ikusi genuen. Ostera Atxolli izan zen oihu egiten lehena, eta oso lotsaturik zegoen bera, eta denok barre-algaraka hasi ginen eta bera, lotsatuta.

—Lur berdea, ez da, Atxolli?, botatzen zioten denek.

Eta bera tematuta eta azkenean beste batzuek ere esan zuten lurra, lurra, eta orduan egia izan zen, Itsasoaren bestaldean ere lurra baitago, Ketzalkoatl egotera etorritako lurra gure idazkietan idatzita geratu zenez.

⁵⁶ Hitzez hitz: “Gordinagoa jaten du azeriak”. “Berdeago heltzen dira” hura dakar gogora.

Eta benetako lurra zen, kokrodiloaren azalarekin egina, jainkoek erabiltzen zuten bezala. Ez uharte txiki dohakabeak baizik benetako mendi-zerrak zeuzkan lurra, mendi. Berdeak, urdinak eta moreak, batzuk gertuago, eta beste batzuk harago, jainkoek agindu bezala. Lehen begiratuan Itsaso arrasean doazen hodeiak ziruditen, batzuek mendiak baitirudite, itxura osoa baitaukate, itxura oneko gailurrak eta ibarrak. Mundu guztia arraunari eman eta eman hasi zen eta orduan ez zegoen txandarik, are arraun egiteko eskubidea borrokatzen zen, honelakoxea zen hara iristeko grina. Izan ere etxera iristen ari garenean geure baitan arinago joatera bultzatzen gaituen harratxoa sentitzen dugun bezala, eta alderaketako figura bezala esana geratzen da, zeren, aurrerago esango dugun bezala, ez gindoazen etxerantz. Ezagutzen ditut asko azken zatia hain arin egin dutenak, eta etxeko ate ondora iritsirik, arnasestuak ahal duten tokian zurkaiztera eraman dituenak, eta ez da igerkizuna baizik gure begien aurrean geneukan lurra bezain egia borobila.

SEIGARREN ATALA

Kainaberadi eta Palmadiko Opoton behartuta dago orain kanoen antolaketa, haien izenak eta kartsutasunez Ketzalkoatlén zein Tlalok Tlamakazki eurien, uraren, ekaitzen, ibaien eta Itsasoaren eta hango arriskuen Jaunaren faborearekin, gobernatzen zituzten Buruzagien izenak ematera, askotarikoak eta oraintxe azalduko dizkizudenak baitira.

Kanoak sei ziren, denak itxura ederrekoak eta martxa dotorekoak Itsas gainean, gauza biak soberan frogatuak, nire lagun baten obra, ofizioz zurgina bera, izenez Kuauhtxitxik, lehenik Kainaberadi eta Palmadian finkatua eta gero Tetxukoren alboan, jada Kuauhctxitxiktzin zuenean izena. Kanoa kapitaina Mac-Ta izenekoa zen eta gure Tlakatekak gidatzen zuen, Gure Jaun Handiaren, Mintzo Den Haren familiakoa zen hark. Hura, lehena. Bigarrena, Koaixtlahuakan zen eta Oiametl haren kapitaina. Ondoren nirea zetorren, izenez Kuauhtintxan, eta Alok zeraman, Tlakatekaren odoleko anaiak, Pinotlek esan zidan eran, eta gerlari kementsu eta oso nire laguna zena [Alo, alegia]. Jarraian laugarren kanoa, izenez Kuauhnahuak, eta Nakxitlek gobernatzen zuen, denbora izango da ondo azaltzeko. Xotximilko zen sei kanoetako beste bat eta gidatzen zuen kapitaina Maiotl, eta seietatik seigarrena Kuetlaxtlan, hots, Papalomitxinek gobernatzen zuena. Haiek ziren Aztlan Zaharreko lurrera iritsi ziren benetako sei kanoak, eta soilik joan behar ginenok joan ginen. Hogeï kanoatan ere ez zen sartuko gero joan zirela zion jende guztia. Bada igarkizun bat esaten ari naizen hau oso ondo azalduta uzten duena, baina orain ez datorkit gogora, eta dena delarik, ie iuhki itotx delakoak antz handia du⁵⁷. Bestelakoan, ez dakit nola egin ulergarriago.

Benetako lurra aurkitu genuenean hogeï aldiz lau egun eta dagozkien lau gauak nabigatuak genituen eta azken tartean, Totxpaneko kostaren eta Itsasoaren artean, sutsu eragin genituen arraunak, behealdia baitzen, hitz egiteko modura gera bedi. Mac-Ta zihoan aurrealde ikusgarrian, beste aurrealdean, ikusten ez den horretan, Ketzalkoatl Jainko Ona baikeneraman, eta jarraian beste bost kanoa eta denak pozik zihoazen. Aztlan Zaharreko lurralde ikusgarria geneukan geure begien aurrean, nondik Azao asko aurretik Ketzalkoatl Jainko Ona atera baitzen, eta haren bila gindoazen Gure Jaun Handiaren, Mintzo Den Haren aginduz, eta horregatik geunden hain pozik.

Esan beharra daukat Aztlan Zaharreko kostaldeak ez daukala Berrikoaren antzik. Zaharrekoa oso zakarra eta pitzatua da eta berehala ikusten da dena hondatu zaiela. Toki on bat aurkitu genuen, non Itsasoa mendien artean estutzen zen, eta egokitzen hartua izan zen.

Hiru uharte zeuden, bi txiki eta handi bat, eta benetako uharteak ziren, ez gauza eskas hura, irteten diren belarrez betea, eta hargatik handienari bira eman eta ez zen batere populatua ikusten. Uharten atzealdeko ura oso bare zegoen gure zain balego bezala, eta baretzat hartua izan zen, eta gure Kapitainek bertan ainguratzea erabaki zuten. Hondartza ez aski handi bat zegoen eta harago era guztietako zuhaitzak, lur ona zela ikusten baitzen. Ez kanoarik eta lur populatua adierazten zuen beste ezer ez zegoen, eta urak estatu bat eta erdiko altura zeukan, toki batean lotu genituen sei kanoak elkarren ondoan, hondoa ikusten zelarik arraunekin neurtu edo mugatu baikenuen, bi moduak egokiak baitira hondoa ezagutzeko, eta kanoa bakoitzetik hogeï gizon egin genuen salto uretara

⁵⁷ Behar bada bai. Hitzez hitz esana: *Mozkor bakoitzak bere untxia du.*

eta ura oso hotz zegoen, eta igeri joan ginen hondartzaraino, kanoak ezin baitziren hurbildu hondoa ez jotzearren, eta batek daki Kuauhtxitxik izeneko zurgin baten lana desegingo ote zen. Hondartzaraino joan ginen igeri eta iritsi zirenen arteko lehenetarikoa izan zen Opoton, esana gera bedi gainerakoak mintzeko asmorik gabe, eurek ahal zutena egiten baitzuten asko ez izan arren... Lurra populatua zenetz begiratu behar genuen eta, hala egotekotan, Ketzalkoatlén jendea ote zen ziurtatu, laster jabetu baikinenez ezetz, orri honetan bertan behar den bezala azalduko dudanez, sartzen bazait. Horretan geunden eta xotxiketzalpapalotla generaman gure Jainkoaren enblemarekin batera, pixka bat busti zitzaiguna bera, aurkitu ahala ezagut gintzan. Deskubrimendurako egoki antolatuta gindoazen, lur berriak aurkitzen direnerako behar den bezala, eta lurreko elikagaiak aurkitzeko agindua geneukan, arrainez lepo baikeunden, eta edateko ur ona, gatzik gabekoa ba ote zegoen begiratzekoa. Pegar bat hartu eta lurretan barrena Ekialderantz ibiltzen hasi ginenetatik lehenetarikoa izan nintzen, eta kanoak utzi genitueneko ubideari jarraitzen genion, lurrak barrurantz egin eta gero ibai bihurtzen baitzen, Totxpanen bezala baina alderantziz. Zati txiki batean besterik ez zen Pantepek bezalakoa, berehala ur fresko eta oneko oso ibai estua egiten baitzen, gauzak beti Ketzalkoatlén laudorioz esanak gera bitez.

Uste dut batzuk pegarrak jasotzera itzuli zirela, baina agian bageneramatzan, eta hola bazen ez ziren itzuliko, izan ere zati hau. Zuhaitzean ez dago frutarik; soilik loreak, eta ez zuen bero gehiegirik egiten, auskalo berehala freskatuko ote zuen, esana gera bedi zabarkeriagatik barkamenez. Guretakoak izan ezik, era guztietako zuhaitzak dauzkete.

Herrialde ona zirudien eta ibaiaren ibilbideari jarraiki abiatu ginen, baina ibaian gora, ez baikenuen Itasora itzuli nahi, Itsasotik gentozelarik. Ibaia jaisten zen bitartean gu gorantz gindoazen eta orain ere ez bada ulertzen, bila ezazue kronista bat. Guretakoak bezalako untxi bat topatu genuen, agian handiagoa ere bai, eta harrapatu nahi genuen baina berak ez: guretakoek bezala hanka egiten zuen. Gutariko norbaitek harri batez akabatu zuen eta hil behar ote genuenetz eztabaidatu genuen eta orduko hura Aztlan go jendeak Aztlan Zaharrean eztabaidatzen zuen lehen eguna izan zen, gutxienez guk genekiela. Untxia harrapatu eta gutariko bat, orain ez dut gogoan nor zen eta, ondo begiratu, berdin dio, Tlakatekari erakustera joan zen. Untxia gure animalia bat da, guk edonon daukaguna, baita Ilargian ere, eta arakatzen ari ginen lurralde haietan bat aurkitzea zantzu aski argia zen.

Baina lehenago esan beharra daukat nola erabili genituen hitz txarrak hasieratik, zeren jadanik idatzi dut deskubritu, eta aldiz maiz esan dugu hitz hori, eta hitz itsusia zen zeren deskubritu esan nahi du estalita dagoena desestali, eta Aztlan Zaharra ez zegoen estalita, eta hain presatua ez egotera gure senak hitz egokia esanaraziko baitzigun, hots, enkontrua, ezer ez baitzegoen estalita eta auskalo nondik atera genuen deskubritu, diogun. Eta beti esaten genuen Deskubrimendua eta Tlakalteka Deskubritzailea, eta luzera, Jainko Onaren zigorra jaso genuen, Hark ez baititu arinkeriak barkatzen. Horrela ipinita nire pentsamendua dirudi, Opotonena, baina egia esan nire adiskide Aitzliren hitzak dira beti, hura ere Aztlan Zaharrera etorri baitzen, beste kanoa batean etorri arren. Garai hartan zuzena iruditu zitzaidanez eta orain bertan ere berdin, horrela esana eta deklaratu gera bedi.

Ketzalkoatlén mezulari bat zen eta lastima izan zen akabatua izana. Eta errua bizirik harrapatzen ez uztearena izan zen, noski, gure lurraldekoek ere berdin jokatzen baitute. Ibaiaren uharka ibaia bera baino zabalagoa da eta ondo ibil zitekeen. Baziren gureak bezalako harri borobilak ere, diotenez urak birakarazi eta borobildu egiten baitu. Hauxe da diotena: urak birakarazi eta borobildu egiten

direla, baina Opotonek sekula ez du biraka doazenean ikusteko zortetik izan, atsegin askoz ikusiko zituzkeen arren, geldi-geldi ikusi ordeztu, eta banaka batzuk badira, hain lodiak eta borobilak, egia esan gustuko nukeen inoiz biraka doazenean ikustea.

Gero ibaiak bihurgune moduko zerbait egiten du, hau da, eskuinerantz jotzen duela, eta orduan jende-pila bat ikusi genuen belauniko ibaiaren alboan. Ez zeuden bainatzen, uretatik kanpo zeuden eta albo batean. Badakizue guk beti isilean ibili izan garela, lurreko animalien gertakariak ikusi genuen gauza on bat baita, eta horregatik ez ziren gutaz ohartarazi oso berandu arte. Tzanatlak⁵⁸ bezala berrikeria ari ziren emakume batzuk ziren eta egiten zuten builak berak galarazten ziren gu entzutea. Beren gorputzetako koskorrengatik ikusi ahal zen emakumeak zirela, han burutik oinetaraino estalita baitoaz Tigre Gerlariak bezala edo Gure Jaun Birrindu, Xipe-Totek, zilargile eta orfebreen Jainkoaren, biak onak baitira ofizioa adierazteko, figurarekin piramidera igotzen direnak bezala. Nik diodan bezala jantzita doaz emakume haiek, baina haien arropak zuria edo gorria edo urdina dira, kolore fuertekoak denak, zuria izan ezik, eta gonak beltzak. Ez dute ez huipila⁵⁹ eramaten ez antzeko beste ezer, eta burua era askotara korapilatzen duten oihal batekin estalita daramate, ez guk maxtlatla bezala, era bakarrean lotzen duguna. Gizon mexike guztiak haien atzean geratu ziren, ilaran, nola egiten zuten kalakan entzuten, baina esaten zutenetik ezer ulertu gabe, atzerriko hizkuntzan ari baitziren euren artean mintzatzean. Ibai barrutik izaren antzeko oihal batzuk atera eta laharretan zein belarretan uzten zuten zabaldua, hori baita haien arropa garbitzeko era edo, gera bedi egoki esanda, euren lehortzeko modua. Nik pentsatu nuen behar bada euren eskaintzak egiteko izarak prestatzen zuten bitartean harrapatu genituela, guri ongiatorria ematearren, izaera garbiko lurraldeetan egiten den lez. Eta, itxura guztien arabera, kasu honetan goizegi iritsi ginela. Denek zeukaten buruko oihala kokots azpian korapilatuta, hainbat eratarik, eta hozkirria egiten zuten eta gu aztekek bezala jantzita geundelarik, hots, biluzik, eta soilik maxtlatla, luma-gandorra eta tilmatlak⁶⁰ generamatzen, gutako batek, izenez Tlautzkillik, uste dudanez Xilotepetlen ingurukoa zenak eta kazola batzuk zorretan zeuzkanak nirekin eta sekula ordaindu ez zizkidanak askotan erreklamatu arren, beti ez-entzunarena eginez, holakoa baita jende asko ordaintzeko orduan, gutako batek, izenez Tlautzkillik, diot, doministiku egin zuen, eta fresko pixka bat egiten zuten eta gu arroparik gabe genbiltanez, diot, doministiku egin zuen.

Emakume haietako batek esan zuen:

—Susús.

Eta, egiari zor, biratu gabe esan zuen, are, pixka bat geroago itzuli zen nork egin zuen doministiku jakiteko, pentsatuko baitzuen Tlautzkilliren doministikua euren zela, hizkuntz ezberdintasunik ez dagoenez doministiku edo ez tul egiteko orduan, eta denak ilaran ikusi gintuen eta oiho egin zuen, haren oihoak gainerako emakume guztiak birarazi zituen eta haiek ere oiho egin eta braustadaz altxatu ziren oiho eta deiadar egiteari utzi gabe, biak egiten baitzituzten, ez dakit egiatan bat besteari atzetik edo aldi berean. Eta denak lasterka hasi ziren ibaiaren alboan zegoen eta pixka bat aldapatsua zen bidean zehar, deiadar eta oiho eginez

⁵⁸ *Quiscalus macrurus*, zozoaren antzeko txoria. Giza ahotsa dirudien garrasia egiten du.

⁵⁹ Mahukarik gabeko ator modukoa.

⁶⁰ Oihal errektangeluarra, gorputzaren inguruan jartzen zena gerritik pixka bat behearaino estaliz. Eskuineko galtzarbetik pasa eta korapilo handi batez lotzen zen ezkerreko besaburuaren gainean.

indar osoz, emakume indartsuak baitira, eta haiek orduz geroztik Sususak deitu genituen, izan ere ez oihurik ez deiadarrik egiten ez badute, susús esan ohi dute, are gehiago norbaitek doministiku egitean.

Bidean zehar igo ziren, bertan dagoen muino batean gora, hatsa galdu gabe, buila ederrean baizik. Guk diogunean, osasuna edo ea behingoz hiltzen zaren, laguna denean eta barre eginarazi nahi diogunean, eurek, norbaitek doministiku egiten duenean, haiek susús esaten dute.

Guk mexikeok geldi geratu ginen, ea hausnartzen genuen ongietorri bitxi hari buruz. Gero, izarak batu, egia esan ohiak onekoak, agian gureak bezain ongi eginak, eta otarrak jaso genituen, trebeki gurutzaturiko zumitzekin eginak, eta ibaiaren alboan utzi zituzten arraun txiki batzuk ere jaso genituen, hala ere ez genekien zertarako balio zuten arraun haiek, han kanoarik ez baitago, eta eraman egin genituen Tlakatekari erakusteko, esan ziezagula berak azturu txarrekoa ziren edo zer, eta ikus zezan nolakoak ziren aipatutako Sususak. Hain handia izan zenez haien zalaparta, aipatutako Sususak bakezko edo gerlazko pertsonak zirenetz jakin gabe geratu ginen. Eta oharturik haietako inor ez zela gizona, edo gizonik ez zegoela haien artean, pentsatu genuen agian amazonen lurraldera iritsiak ginela, non andrazkoek legea eta gerla egin eta arrak urtean behin ikusten dituzten, arreske egon eta naturak eskatzen dietena eginez, hots, txorta egiten dute, eta bitartean. Eta gero gizonak hil edo bota egiten dituzte, binaka larrutan egin ondoren, beste ezer ez baitute nahi eta bederatzi ilargitan mutiko bat jaiotzen bada akabatu egiten dute, neskatoa jaioz gero, ordea, gorde, eta hartara doazen gizonak beste tribu batekoak dira, eta soilik urtean behin joan ohi dira berea egitera, behin eginda aski izan ohi baita, ondo eginez gero, gainerakoa bizioa izanik, dibertigarria baina zera. Amazonen lurraldea herrialde bitxia da eta asko mintzo ohi da hartaz baina sekula ez dute esaten non dagoen, eta zuk pentsatzen duzu bertara iristen diren gizonak nolatan azal dezaketen non dagoen larrujotzearen ondoren hiltzen badituzte, esana gera bedi galdera modura. Izan ere ez bada egia denak akabatzen dituztela eta banaka batzuk etorri eta azaldu egiten dutela, agian pena mereziko luke hartu eta alditxo bat pasatzera joatea. Orduan pentsatzen genuen agian iritsiak ginela eta aurrerago azalduko da erraturik geundela. Pentsatzen genuen ezen Sususak amazonak izanez gero gure aztekaizaera di-da batean amaitu zitekeela, eta esan ohi genuen egun haietan umea egiteko gogotan bazeuden, barregarria litzatekeela gu guztiontzat hain bidaia luzea egitea Sususarekin larruadia jotzeko eta ez Ketzalkoatl ez beste ezer ez aurkitzeko. Eta zer esango luke Gure Jaun Handiak, Mintzo Den Hark, jabetzen zenean? Horretan geunden gure Tlakaltekekaren bila gindoazela.

Eta are esan ohi genuen, hain azkar alde egin zutelarik, ez zigutela denborarik eman ezer ikusteko, ez zela ongietorriarik egon eta ez zutela Ketzalkoatl enblema ezagutu. Hark denak pentsarazten zigun lurralde hura amazonena zela, herrialde bereziko emakumeak baitira haiek, gogoia dutenean hurbiltzen zaizkien gizonak hiltzen dituztenak, are gehiago ikusita ez zutela gure nahuatla hitz egiten. Arreta handiz begiratu zituen Tlakatekak eraman genizkion gauzak, eta ohartu zen lurralde populatua zela hura, eta poztu egin zen. Aurreko untxiak asko hunkitu zuen eta bihotza zuri zeukan. Sususen bila joan ginen bitartean beste batzuek hondartza arakatu zuten eta haga batzuk aurkitu zituzten hondartzan josita, nahi ta nahi ez gizonen ondorioa zena. Gizon edo andreena, sekula ez abereena. Eta sare-zati bat aurkitu genuen, hura ere gizonen lana. Otarrek gure txikihuiten antz handia zeukaten, baina ez zituzten modu finean egite, tolteka erarik gabe, alegia. Izarak ez, baina otarrak, untxia, sarea eta hagak, arraun txikiak izan ezik, gure gauzak zirela esan zitekeen. Sususen izateko era ere ez zen. Arraunek kezkatzen gintuzten, uste baikenuen, ezen armak izatera, aipatutako Sususek ez zituzketela

jaurtiko, aldiz arraun-kolpez erasango gintuzketen, segun eta nola ukitu min handia egin baitizukete.

—Gu zauritzeko asmoz jaurti izan balituzkete, gure buruen kontra ekingo zuketen —esan zuen, uste dut Huauhtlik zen batek.

Denek ikusi genuen arrazoia zeukala, lehenik Tlakatekak, goretsia izan dadila Ketzalkoatl. Beraz, berak ere iritzi zion ezen lurralde hura, Aztlan Zaharra ez izatera, oso gertu geundela, inok ez baititu bere armak botatzen koldar bat ez bada eta izarak ez zeuden margotuta. Sususen sustoak berak generamatzan sinboloak ikusteko eta ezagutzeko kemenik gabe utzi zituen. Batek hain aztoratuta alde egiten duenean ez dauka ezertarako astirik eta gauzak oro lauso dager, nahasturik nola. Ordurako denak jaitsiak ziren kanoetatik eta han-hemenka zebiltzan, gehiegi aldendu gabe konparaziora, dena zelatatuz. Koaixtlahuakaneko kapitaina, izenez Oiametl, gure oroitzapen ona daukan pertsona bera, izan zen Sususen bila abiatu genuen irteera hasi zuena. Gizon kementsua zen Oiatmel, erabakitsua eta pertsona ona. Laster ibaiak bihurgunea egiten duen tokira iritsi ginen eta oso erraza izan zen Sususen arrastoari jarraitzea gure ehiztari trebeen amarruak erabili gabe, oso markatuta utzi baitzituzten beren ihesaldiaren bidea, otar, izara, zera irristakorreko zati eta arraun berriekin. Dena bota zuten hiesaldia arinagoa izateko eta, barkamenez esana izan bedi, aiseago oihu eta deiadar egiteko.

Zuhaitz eta sasi artean igotzen zen bidea, lur osoa sastraka bezala, eta lau bihurturik, euren artean Vilanovadalosa esaten zuten herria zegoen, zeinean gureak bezalako etxe zuriak zeuden, antza soilik kolorean zeukaten arren. Asko harritu gintuen herri hartan tenplurik ez zegoela ohartzeak. Etxeen artean plaza moduko bat dago, ez gureak bezain handia, jakina, baina aski onargarria haien gauza izateko. Oro har aski kaskarrak dira beren gauzak, batik bat gureen aldean. Vilanovadalosako herri osoa Ahuixotl izeneko Gure Jaun Handiaren, Mintzo Den Haren Etxe Handian sar zitekeen, eta hitz egiteko modu bat da hau. Plazan batu ziren gizon guztiak, baina ez gerra-itxuraz, bake-itxuraz baizik. Antza denez beren igarkizunek esan zien gu bagentozela eta etortzen ikusi gintuztenean, goiko aldean dorre zulatu batekin daukaten etxe batetik, eta zuloetan euren bihotzekin gauzatutako kuia moduko batzuk, hots kanpaiak, eta ipinita dauzkaten sokekin aipatutako kuiak edo kanpaiak birarazten dituzte eta haiek gerra-tresnak ez ote ziren errezeloa eman zigun, ez zelarik orde, bakezkoa baizik, eta biratzean eltzagortzeko moduko zaratotsa egiten dute, eta deseginda sentiarazten zaituztete, lur jota. Plazaren beste aldean geneuzkan guk geure belarriak eta, hala ere, txistu egiten ziguten, etxe zulatuaren ondoan bageunde bezala.

Jatorrizko jendea ez zen aztoratzen halako builarekin, ohituta baitaude, esana gera bedi, beraz, eurei bost. Aipatutako Vilanovadalosa gure lauhtepek bezalatsukoa da, eta orduz geroztik holaxe izendatu genuen, lauhtepek Berria, eta betiko izan zen luahtepek Berria. Tribu hartako gizonak ere estalita ibili ohi dira, baina ez dira gu bezain beltzaranak, kolore esnetsuagoa daukate, kolorgea-edo, eta haietako askok ile luzeak daukate bizarrean, ikusteko oso bitxia, eta beste batzuek, oster, ile horia, oneko gizonaren zentzumenen iraingarri.

Iritsi da ordua ohitzen joan zaitezten entzutera nola zuen belarriak gauza bitxiez betetzen diren, eta Opoton ez da mintzo bizarren kontu horiez, zeinetara aski ongi ohitu zareten, baizik irakurtzen joango zareten beste gauza askori buruz, asko jarriko baititut orain arte bezala egiari laudorio egin nahi badiot. Eta aski sofritzen du Opoton gaixoak, eta zuek haren hitz guztiak sinistuko dituzuen fio da, izan ere hark aditzera emandako gauza batzuk aski nabarmen baitauzkazue. Etxeak ere zulatuta daude, emakumezkoak, oihu egin nahi dutenean, bertatik irten daitezen xedez eta efektuz. Pentsatu genuen kuia haiek, kanpaiak alegia, euren agurtzeko

modua zela eta orduan Oiametlek gure adarrak jotzeko agindua eman zigun, huehuetlak eta teponaztlak, eta denok garrasi egin genezan, putz egin behar zutenek izan ezik. Geure gerla-irrintziak bota genituen, eta ziur nago geure zalapartak euren kanpaiek, hots kuiek, egin ziguten efektu berbera egin ziela.

Orain gure antolaketa eta Vilanovadalousakoena aipatu behar dut, plazako mutur banatan kokatuta baixeunden, talde bakoitzak bere zaratarekin. Denok isildu ginenean, Oiametl plazako erdigunera bakar-bakarrik hurbildu eta xotxiketzalpapalotla astindu zuen harrotasunez eta Sususen gizon asko ezkutatzera ihes egin zuten, eta soilik bospasei nagusietakoak geratu ziren, gauza jakina baita lurraldetik lurraldera oso bestelakoak direla ohiturak. Gelditu zirenen artean bazen bat erabat beltzez jantzitakoa, zeina, harekiko errespetuzko adierazpenen arabera, nabari zen euren kalpixkia⁶¹ zela, zeren alde batetik ez zeukan beldur fixik eta bestetik nabari zen kasu egiten ziotela denek. Plazaren erdi-erdian topatu zutenean, Oiatmetlek duintasunez beteta, errespetuz eta heziketa onez, belaunikatu, lurra eskuin eskuarekin ukitu eta ahora eraman zuen. Azkar asko jabetu ginen hura ez zela haien ohituretako bat, baina esan beharra dago Sususen kalpixkiak zegokion bezala jokatzeko jakin zuela eta gure Oiametl jatorraren keinua kopia zuen. Orduan atzerritarrak esan zigun:

—Sant Iago, galdera modura, eta Oiatmetlek erantzun gisara:

—Ketzalkoatl, galdera bezala hura ere, eta hala geratzen da idatzita.

Une hartan lauhtepek Berriko jende guztiak barreari ekin zion eta guk-geuk ere bai, Aztlangook, pentsatu baikenuen agian barre eginez ulertuko gintuztela, edo huraxe zela harremanak abiarazteko euren modua.

Barre egin ondoren denok batera geratu ginen zer egin jakin gabe eta eurak gauzak esan eta hura esan eta esan bere atzerriko hizkuntzan, eta guk geure nahuatlez erantzuten genien eta, barkamenez esana gera bedi, ez batzuek ez bestetuek ez genuen elkar ulertzen. Oiametlek ozenago egin zuen oihu, eta esan zien gose ginela eta errepikatu zien hezkuntza onak eskatutako hiru alditan, formalki. Eta jabeturik ez zutela ulertzen, gure Kapitainak pentsatu zuen hobe zitekeela keinuz esatea, eta kontuan harturik bera Ahotsa zela, ñam-ñam egin zien. Orduan Vilanovadalousako tribuko jende guztiak, hori baitzen tribuaren izena, korrika hasi eta bakar-bakarrik utzi gintuen gu mexikeok, plazaren erdi-erdian.

Eta ez zen izan korrika atera zirela eskatutako janarien bila, baizik beldurrezko ihesaldia, laster ikusi eta entzun genuenez emakumezkoen garrasiez, euren oihuekin zulo oihulari guztiak, plaza eta gure belarriak betetzen baitzituzten.

Gero, beltzez jantzitako beste gizon bat atera zen zulatutako etxetik, hura ere kalpixkiaren gisakoa zen, eta bustitzeko makila batekin urrutitik zipriztindu gintuen, eta ondoren bere etxean sartu eta atea itxi zuen⁶².

Orduan Oiametlek agindu zigun Aztlango gizon guztiak lehen egon ginen plazako muturrera joan gitezela, eta bera bakar-bakarrik mantendu zen erdi-erdian, Gure Jaun Handiaren, Mintzo Den Haren Kapitainei zegokien bezala, baliente eta ausart, eta orain esan dezaket ezen gauzak idazten ez jakitearen beldurak barrez leherrarazten nauela. Guk esana bete eta bera bakarrik geratu zen, baliente eta ausart, eta Ketzalkoatlaren sinboloaren urrezko zintzilikarioa kendu eta, belaunikatuz, lurrean utzi zuen, ondoren altxatu eta guregana, zain geunden Atzlango gerlariengana, etorri zen. Eta, denok batuta geratu ginen, jakin nahirik

⁶¹ Buruzagi zibila. Agian Vilanova d'Arousako alkatea izango zen. Edo kapilaua.

⁶² Hau izzango zen kapilaua.

zer egingo zuen jende atzerritar eta popoloka⁶³ hark, eta azkenean beren etxeetatik irteten hasi ziren eta emakumezkoak beren oihu egiteko etxeetatik jaitsiz, guk mexikeok oihu-leku deitutako haietatik, eta arretaz eta azeri-urratsez gure eskaintzara gerturatu ziren, hau da gure Kapitainak bertan utzitako urrezko zintzilikarioa baitzen. Miresmenez begiratzen zioten eta eskuz esku pasatzen zuten eta Sususek bular gainean jarri eta harro kulunkatzen ziren, nabarmen baitzegoen gustukoa zutela. Orduan haien kalpixkiak esku-keinu bat eginez hurbiltzeko esan zigun, eta gu bertaratu egin ginen. Ostera galdetu zien Oiametlek Ketzalkoatl ezagutzen ote zuten eta kalpixkiak erantzun zuen:

—Esta terra es Galecia; eiquí fálase galego.⁶⁴

Oso ondo ulertzen zen esaten zuena, aldiz ez genuen deus konprenitzen. Eta, esana gera bedi egiaren ohoretan, Opotonek zehazki ipini ditzake hitz hauek ondo ezagutzen baitu Fala Galega, aurrerago azalduko denez. Izan ere Fala Galega Aztlan Zaharreko atzerritar haiek darabilten mintzoa baita, une egokian azalduko denez. Orduan Oiametlek, Ahotsa baitzen, esan zien lurralde haietara iritsiak ginela Ketzalkoatl bilatu genbiltzalako, eta galdetu zien ea leku haietatik ikusia zuten, ezagutzen edo aipatzen entzun ote zuten, eta gu Gure Jaun Handiak, Mintzo Den Hark, hots Ahuizotlek, bidalitako jendea ginela, eta lurreko Jaunik handiena zela hura. Atzerritarrek ez gintuzen oso ondo ulertzen eta euren kalpixkiak esan zigun:

—As Espanhas son mäs alá, más lonxe.⁶⁵

Eta Ekialdea erakusten zigun eskuaz. Haientzat Vilanovadalosako, eta guretzat, mexikeontzat, lauhtepek Berria deituriko herri hartako Fala Galega zerabilen batek galdetu zien haietako bati:

—Iles son reices, ou demos, ou ca couse?⁶⁶

Gainerako galegoek ezetz zioten buruarekin, ez zekitela esateko modua baita, eta euren artean rrrrrrrr eta fffffff egiten zuten, barre handia eragiten zuen gauza zena, ekandu azterritar haiek oso bitxiak baitziren. Mintzo direnean kantuka ari direla dirudi, haien modua oso ezta baita, baina rrrrz eta fffrz betetako kantua daukate, eta aldiz, nabari zen pertsona onak zirela. Opotonek izandako lehen ugazaba —Jaun eta Jainkoak izan ezik nire bizitza osoan izan nuen bat eta bakarra— Fala Galegakoa zen, ezagutzen ez dudana herri batekoa, asko baitira, eta harekin ikasi nuen hizkuntza, bikain gogoratzen dudana, batik bat biraoak. Baina ugazabarena geroago azaldu beharko dut, bestela nahastu egingo baikara. Eta min egingo lidake, abiadura ona baitaukat orain. “Ñam-ñam” errepikatu genuenean, sabela igurtzi eta ez genien hainbeste beldurrik ematen, eta orduan lurreko janariak ekarri ziguten, ez gehiegi ere, pentsatzen baitzuten gu ginela denak. Adierazi genien Aztlangook askoz gehiago ginela eta Itsasorantz seinalatzen genuen, eta orain latsa ematen dit gogoratzea Opoton zintzoak oso paper dotorea izan zuela, izan ere bere kabuz hasi baitzen keinuz azaltzen Itsasotik etorriak ginela, eta denak niri begira paratu ziren, bertoko jendea, eta Aztlangoak, eta denak barrezka hasi ziren nire kontura, eta pentsatuko zuten biluzik nenbilela, izan ere gorputz osoa gorritu baitzitzaidan maxtlatla bezain. Gero gauza gehiago ekarri ziguten, eta haien artean lurreko oiloak, argalak baina onak, gureak

⁶³ Herri *popoloka* Mixeen azpitribu bat da eta *mexikeak* haien hizkuntzaz mintzo ziren, iparramerikarrek *it sounds greek to me* esaten duten zentzu berean. Maiz *popoloka* hitza erabiltzen zuten, barbaroaren sinonimotzat.

⁶⁴ *Lurralde hau Galiza da eta hemen galegoz hitz egiten dugu*. Jatorrizkoan galego zaharrean, elkarriketan zehar eta hitz soltetan bezala. (Itz.o.)

⁶⁵ *Espainiak harago daude, urrutirago*.

⁶⁶ *Zer dira hauek? Errege, demonio edo zer?*

bezalako untxiak, baina ez genituen hartu nahi izan, ez baita polita haiek jatea, baizik bekatua, haien ogia, kanpo aldetik handiak eta barruko aldetik zuloz beteak egiten baitituzte, zuloek handia egiteko meritua kentzen dutelarik, baita lurreko zakurrak ere, kasta onekoak, bi klasetakoak baitituzte eurek. Batzuek gureak dirudite, aldiz gizenagoak eta iletsuagoak dira, azeria bezain, eta glau-glau egiten dute bertoko jendeak bezala, eta kosk egiten dizute hanketan aztoratzen bazara uxatzeko orduan harrikada eder bat botatzerakoan, eta beste batzuk handiagoak eta basatiagoak dira, usnakariak izanik sudurra beti lurraren kontra baitoaz, nik neukan lagun bat bezala, izenez hura, eta zurrunga egiten dute soldaduek lotan bezala, eta oihi Sususek bezala, zeinen izenak ez ditut idatziko, ahalke.

Gainerakoak, hozka egiten dutenak, ez dira jateko onak, salbu gose handitan. Janarien aferan geundelarik, Fala Galegako jende bitxi asko sartu zen herriko plazara, Gure Jaun Handiak, Mintzo Den Hark kurriloaren ispiluan ikusi bezala, adarrik gabeko oreinetan igota, nik bere garaian azaldu dudana, eta bestela berriro azalduko dut. Haiseran pentsatu genuen oreina eta galegoa gauza beldurgarri bakarrak zirela, eta janariak lurrean utzi eta korrika abiatu ginen plazako beste muturrerantz, arkuak prest, denak prest oreinak eta bertoko galegoak akabatzeko, eta ni-neu, gaizki dagokit esatea, oso gertu egon nintzen oreinetako bati nire zerbatanarekin begi bat husteko. Baina bertoko galegoek oihi egin eta ikusarazi ziguten lau galego eta lau kabala zirela, eta handik jaitsiz, kabalak laztantzen uzten zuten, errespetua ematen duten arren, eta egia esan aski aztoraturik zeuden geure laztanekin, gu-geu bezala, bai batzuk eta bai bestetarik motibo berberagatik, hots, sekula elkar ikusi ez ginenon mesfidantzagatik. Galizako gauzetaz nire lehengusu Xalko baino hagitzez jabetuago nengoen, bera ez baita inoiz bertan egon. Orduan ez dezala edozer gauza esan, diot nik. Beren oktliak edanarazi ziguten, odola bezain gorria eta barrutik gureak baino azkarrago erretzen duena, eta hasiera batean odola ez ote zen errezeloa eduki genuen, baina kontuan harturik haiek edan egiten zutela, guk ere, mexikeok, edan egin genuen.

Bagenuen premia berotzeko, barrutik bederen kanpotik ezin genuelarik, kontuan harturik Galizako lurraldea hotza dela eta gu arropaz eskas geunden, aurrerago esango den bezala.

Oktliak edan ondoren kabaletara igotzen ausartu ginen, orain gure artean zaldi deituak eurak, eta ez dut ezkutatuko hasieran beldur ematen ez zidatenik, zeren beldurra eman baitzidaten, eta beldurrik ez bazen, hala zirudien, kosk egiten baitzuen azteken barruan. Zaldien altura handia da, aski ongi dakizuenez, eta ero-eroan mugitzen dira, eta ni ez nintzen erori, eta uste dut aski zela.

Bertoko galegoen artoa ezberdina da eta ogi handi bat egiten dute harekin, kanpo aldetik lehorra eta barruko aldetik biguna, zeinak ogi izena ematen dion zapore motela baitu. Euren izara batzuk ere oparitu zizkiguten eta, aldiz, Sususa bakar bat ere ez, eta egia esan haien premia aipatutako oktliarena eta izarena baino askoz handiago zen.

Dena zen gu ukitu eta Sant Iago! Sant Iago! esatea eta, aldiz, Oiametlek erretiratzeko agindua eman zigun, eta eurek askotan besarkatu eta belarriak, belarritakoak, beheko ezpainetako zintzilikarioak ukitzen zizkiguten, behekoak ere bai, zilegi bekita adiera zabar hau, eta ikusi nahi zuten pitxiak gure-gureak ziren edo ipini egiten genituen, ez dakit ulertzen den. Lehen ikusi genituen zaldien kontu hura bezalaxe. Itsasorantz jaisten hasi orduko herri guztia gure atzetik abiatu zen, eta poz-pozik, hondartzaraino jarraitu zuten.

Zamariarena egin eta gure gauza guztiak garraiatzen zizkiguten beren besoetan eta gustura betetzen zuten zeregina, eta jan behar ez diren zakur haiek ere gure atzetik zetozen. Eta gure kanoak zeuden tokira iritsita, bostak gorri ederki

margotuta, eta gainerako gure aztekak denak han, Aztlangoak, Sant Iago!, Sant Iago! oihukatzen hasi ziren inoiz baino ozenago, eta belauniko jarri eta harrituta ukitzen gintuzten, eta lauhtepek Berri edo Vilanovadalosarantz alde egin zuten aski asaldatuta, eta gu herri mexikekook aski harriturik geratu ginen haien joera aldakorrarekin, ederki asko purepetxak ziruditela esango baitzenukete.

Ilundurik, suak piztu genituen, eta enborrak eta belarrak erabiliz etxola batzuk egin genituen Buruzagientzat, zeinek Kontseilua deitu eta modu airoso horretaz estreinatu zituzten aipatutako txabolak. Eta kontseilu hura Aztlan Zaharreko lurraldean, Fala Galegakoa edo Aztlan Zaharreko Galeziakoa deiturikoan, Sususen lurralde bezala hobeto ezagutuan, mexikeok egindako lehena izan zen.

Gerlari-espioiak bidali genituen inguruko alorretara, beha zezaten ea bertoko galego atzerritarrek lurreko beste tribu batzuekin komunikatzeko suak pizten zituzten, hau da, Aztlango jendearen etorreraren berri emateko, baina ez zituzten piztu, ikusita baikenuen adiskideak zirela.

Gauean hainbat aldiz entzun genuen kuien, hau da kanpaien, hotsa, zeinek ez baitzuten lehen bezain kartsu jotzen, baizik era neurritsuan, eta ez zen alarma-hotsa ongiaren itxurapean aurkezten baitzen. Deboziaz hil genituen eman zizkiguten abereak eta euren odola Lau Haizetara ziprztindu genuen, egosita jan, eta gozoak zirela jakiteko aukera eduki genuen. Mazehualiztli ederra egin genuen jainkoen ohoretan, eskertu egin behar baikenien Aztlan Zakarreko Lur Irmoko Galizan egindako lehen egunean dena hain ondo joan izana. Guk, mexikeok, mirarigarritasunezko hainbat gauza eta hain gauza ezberdinez hitz egin beharra geneukan ezen loa izutu zitzaigun. Tlautzkilliren doministikua gogoratzen genuen bakoitzean barre-algaraka lehertzen ginen, batik bat Sususek izandako izu latzaren kontura, eta Tlautzkilli izan zen doministiku egin zuena, gu, Aztlango jendea, ibaiaren ertzean geundela, ibaiaren arrasean eta Sususen atzean eta Sususen arrasean, guk Sususak deituak eurak.

Tabatan jolastu ginen eta hainbat alditan irabazi nuen, baina huskeria bat, zeren barre egiteko baizik ez ginen jolasten, esaten dizuten hori, potroso, potroso halakoa, eta gure lehen gaua zelarik lurrean gustura lo egin genuen. Hondarra biguna zen eta beroki onak geneuzkan eta batzuek kanoetara joan nahi izan zuten lo egitera, haien gainean alegia, ohituta zeudelarik eta haien falta hartuko baitzuten lurrean geratzekotan. Bihotza zuri egin genuen lo, baina egunsenti aldera eta berokiak bagenituen arren hotza sentitu eta esnatu egin ginen eta ostera barrezka hasi ginen atzerritarren gauzekin, bertoko galegoen gauzekin alegia.

Aiztlik, beti bezala, jende-zirkulu bat zeukan inguruan hari entzuten eta barre-algaraka hasten ziren nire adiskide Aiztlik atzerritarrak, hots bertoko galegoak, imitatzen zituenean, ahotsa aldatu eta zioenean *ca couse*, *ca couse*⁶⁷, haien modua baitzen gu aztekak miresteke, sorpresa eta abar. Malakotlek ere barre asko eragin zigun, gure nahuatlez mintzatzen hasi baitzen ffffff eta rrrrrr asko eta asko nahastuz eta, esana izan bedi egiaren ohoretan, pixa eginarazten zigun hainbesteko barreak.

Biharamunean lurraz jabetu ginen Gure Jaun Handiaren, Mintzo Den Haren izenean eta zeremonia xume bezain erreberentziaz betea izan zen, non Gure Jaun Handia han izatekotan, harro sentituko bailitzateke. Generaman margolari batek, gurekin zetorren batek alegia, ederki asko marraztu zuen gertatutako guztia, lurra zapaldu genuenetik Fala Galegako jendearen agurrera arte eta dena argi zegoen, xehetasunik galdu gabe, gauza guztiak ederki asko ipinita, Sususak eta euren Kalpixkiak, etxe zulatua eta bizar luzeak, zaldiak eta Kalpixkia bere ziprztintzeko

⁶⁷ *Ze gauza, ze gauza*; “zer da hau” esateko.

makila eta guzti. Ondo marraztuta geratu zen Gure Jaun Handiak, Mintzo Den Hark, harremana ikus zezan hari bidaltzeko aukera izango zen une beretik. Gure Jaun Bideratzailearen estatua bat egin eta hondartzan utzi genuen kokatuta, gu han egon izanaren eta Aztlan Berriaren izenean jabetza hartu genuenaren kaudimen, horixe baita aztekon lurradearen benetako izena, Aztlan Berria. Eta oraindik da baina ez hainbeste. Nire ustean hori paperean idatzita jarri beharra dago, bestela nire historia hutsa izango baitzen, izan ere jabetza-hartze hura ez genuela egin behar izan, gurea ez zelako eta lurraldeak irabaztera ere joan ez ginelako, baizik Ketzalkoatl harrera egitera eta kitto. Eta egia borobila da ekintza okerra izan zela, denbora izango baitut zuei azaltzeko nola jaso genuen eskarmentuzko zigor gogorra, gauza txarra baita bidaiei norabidea aldatzea, eta badakizue zer esan nahi dudan. Alde batera, noski, bere tokian ondo azalduta geratuko dela Ketzalkoatl laguntzarekin.

Ketzalkoatl Onaren arrastorik ez genuen topatu. Ematen zuen ez zutela sekula hari buruz hitz egiten entzun, zeren bertako galegoak Sant lagorekin eta San lagorekin tematzen baitziren, aurrerago ikusiko baitugu zer zen, eta orain paperean jarri izan banu dena hankaz gora geratuko litzateke, nahasmendu handiz.

Hori guztihori dela-eta gure Buruzagiek lurraren eskubi aldera jarraitu eta Itsasoratzeko erabakia hartu zuten, harik eta Ekialderantz bidea aurkitu arte. Lehen aldiz lurra ukitu genuen aipatutako badiari Sususen Badia jarri genion izen eta geroztik beti hola esan izan da, bai gure mapetan bai gure kontakizun marraztuetan ere. Aipatutako Sususen Badiaren hondartzan piramide ez oso handia egin genuen batutako harri guztiekin eta, denen buru, Gure Jaun Bideratzailearen estatua ezarri genuen bertan gera zedin lehen esan dudan bezala.

Biharamunen Aztlango jende guztia ontziratu eta gure sei kanoak berriro abiatu ziren aurreko beste nabigazioaren era onean, bakoitza bere tokian eta ni, Opaton, nire kanoa izenez Kuauhtintxanen leman, zeinak martxa airosoa zeukan, eta Itsasoa bare egonik nekerik gabe egiten genuen arraun gure Tenotxitlan Handiko Kainaberadi eta Palmadiaren uretan baikeunde bezala, zeina Itsaso Handiaren beste aldean dagoen, jadanik esan izan dugun moduan.

ZAZPIGARREN ATALA

Itsasoa Aztlan Zaharretik sartu-irten bezala dabil –eta barka diezadatela nire hitz egiteko modu zabarra– zalantzan balego bezala, zer egin jakin gabe, joan edo joan ez artean zalantzan dagoen gizona lez. Erabat deigarria zen ikustea zein apurtuta dagoen kostalde hura, dena Itsasoak janda, benetan pena ematen baitu, eta, beraz, iritsi da ordua esateko zergatik lurralde hari Aztlan Zaharra deitzen genion eta, batik bat, zer pentsarazten zigun hala zela.

Gure nahue leinuaren historia azaldu beharko dut eta lotsarazi egiten nau egin beharrak, izan ere gauza hauek zuek denok bihotzez jakin beharko zenituzketen gauzak baitira eta, aldiz, aski ahaztuta daukazue. Kalmekak eta telpotxallirik gabe geratu garen une honetan eta jada inork ez digunean azaltzen Zazpi Kobazuloetatik atera ondoko Peregrinazioa. Opotonek badaki era honetako gauzak jende gutxiri egiten diola probetxu gaur egun; baina, ordea, sentitzen du egiteko premia dagoela, eta dio, entzun ondo, azteka horiek, zeren gu, azteka, mexitzin, mexike edo tenotxka garenok Aztlandik baikatoz, gure hizkuntzan Herrialde Zuria esan nahi duelarik, hots, Egunsentiko eta Lehen Garaietako tokia. Zazpi Kobazuloena ez zait aterako, badakust, eta hobe legoke kontakizunarekin neukan bezala jarraitzea, aski ongi baitzihoan, eta hura azal zezala gerlarietako batek, Huitzilat deituak, Sususa bat eraman baitzuen orduan, ezkutatuta aurkitu zutenean.

ZAZPIGARREN ATALA (BIS)

Zazpi Kobazuloetatik sortu ziren zazpi tribu nahuatlak, zeinak hauexek ziren ordena naturalean: xotximilkak, tekpanekak, txalkotekak, kolhueak, tlahuikak, tlaxkaltekak, eta gu, aztekak, izenez aztekak. Zazpi Tribuak munduaren ezker aldera abiatu ziren, hots Hegoaldera, eta bideak Azaoak eta Azaoak iraun zuen. Huitzilopotxtlik seinalatu zigun lurraldea aurkitu behar genuen eta soilik gure Jaunek eta Apaizek zekiten beti beherantz zegoela, beti zuzen munduaren ezker aldera, hots, Hegoaldera, eta gauza jakina da bidean askotan borrokatu ginela geure artean eta, azken buru, Tribu bakoitzak bere aldetik jo zuela. Baina nahuatl-odolik garbiena guk-geuk daramagu, azteka garenok, eta askotan frogatu genuen aski.

Bi mende⁶⁸ ziren orain Anahuak esaten dioten –batik bat hitz egiteagatik hitz egiteko ohitura madarikatua dagoelako hain zuzen– Ibarreko Kainaberadian eta Palmadian finkatu ginela. Eta Kainaberadia eta Palmadia, beraz, gure Aztlan Berria izan zen, kontuan harturik lehenengoa Zazpi Kobazuloetakoa izan zela. Huitzilopotxtliren baimenez haren anaia Ketzalkoatl, Eguzkia, lurreko Ekialdetik zetorrena, lurralde haietako jabe egin zen. Hala ere, Tiatxkahuan, ez etorri niri orain esaten historiak ez duela deus balio, handi samar geratzen zaigula, zuk-zeuk ez baitakizu tutik horretaz, edo ez dela ulertzen. Era guztietako amarruak egin zitzaizkion hemen, non ematen baitzuen berak zeukala gure txikikerien errua, eta gu izan ginen, aztekak izenez tenotxkak, Haren fedearekin erabat leial jokatu genuen bakarrak. Ondotxo dakizuna da, azkenean iritsi zela gure Jaun onak kitto esan zuen eguna, eta zerutik alde egin zuen itzuliko zela esanaz, baina ez da oraino itzuli, eta gero eta zalantzakorragoa da inoiz itzuliko ote den. Ez baita gizonon zeregina Jainkoen erabakiak epaitzea.

Gure lurraz jabetzeko etorriko zela esan zuen eta ez zela gehiago mugituko, eta orduan Tontor Elurtura igo zen, orduz geroztik Izarraren Tontorra deitutako hartara, eta izar bihurtu zen, alde egin eta jakin badakigu sekula ez dela itzuli, areago beste Jainko batzuk iritsi dira, Bera direnak baina izena aldatuta daukatenak, aurrerago esango denez, izenak eta ohiturak hain aldatuta ez baitu Bera denik ematen, eta guk esaten genuen Aztlan Zaharra Aztlanetatik zaharrena zela, hots Bera etorri zen lekua. Eta Lehengo Toki hura zen guk bilatzen genuena, eta ez iezadazu esan ez dudala ondo azaldu. Gertatzen zena zen Ekia beti harago dagoela eta benetako Ekialdea eskuratu ezin daitekeen gauza horietako bat da. Aztlan Zaharrera iritsita txitximekek Tenakoianen egin zuten berbera egin izan beharko genukeen: gu birzenbatu eta haiek zenbatu eta hala Aztlan Zaharra Nepohualko deituko zen, askoz ere hobea izango zatekeena. Kontua da ez genuela egin eta historiarako Aztlan Zaharra geratu zen Nepohualkoren orde, hagitzez hobea izango zatekeena, orain jadanik aldatu ezin duguna.⁶⁹

Gauza hauek denak behin azalduta lasaiago sentitzen naiz eta gai naiz gure bidaiari buruzko gauza haiek denak kontatzeko, zoritxarrez Konkista deitua bera, uste bainuen ezen nire lan guztiekin Galeziako lur hartan, asko eta hertsagarriak eurak, Opotontzin izendatuko nindutela, baina ahaleginak egin arren ez nuen lortu edo, diogun, ez nuen aski zorterik izan.

⁶⁸ Euren bi mende, guretako bat.

⁶⁹ Pasarte hau dena oso iluna da eta hitzez hitz itzulita uzten dut.

Itsasoaren sartu-irtenak itsasarteak sortzen ditu, kala handi batzuk, eta beste batzuk ez dira hain handiak, eta ura oso laua eta zelaia da han, lurra populatua da eta etxeak sendoak, aski ondo eraikitzen baitute bertoko jende galegoa izateko. Ezerk ez dauka gure gauzen neurria, egia beti aurretik, denak neurri meharra du ordea, espazioa errekaridatzen baitaukate, arra beteak, kanak hemendik eta handik. Jende popolokarengandik ere ezin da asko espero, noski, gu orain hogeitazaz bizi ginen bezala bizi baitira.

Beraz, gerlarietako batek Sususa bat eraman zuen bere kanoara, izenez Mac-Ta kapitaina bera, maien lurraldetik datorkigun izena baita, eta atzeko aldean ezkutatuta zeukan, saeta-sail batzuen artean, emazte-gose baitzegoen gutako denak bezala, baina berak hura pasaraztea erabaki zuen eta dena berarentzat nahi zuen. Ez ezazue pentsa Sususa negarrez ari zenik ez ezer; oso pozik zegoen gurekin etortzeagatik edo, gauzak dagokien bezala esateko, bere Huitzilatl izeneko gerlariarekin. Azkar jabetu ginen aipatutako Huitzilatl hura maiz ezkututzen zela, eta zen aipatutako Sususarekin gozatzeko. Kanoa bezalako toki estu batean, handia zena baina leku bezala txikia bera, halako gauza ezin zitekeen ezkutatuta eduki luzaroan, eta laster konturatu zen Tlakateka. Neska hura deitu eta Huitzilatl zigortua izan zuen, baina ez oso zigor handiarekin gizon sendoa zelarik jaso baitzezakeen hura baino zigor handiagoa. Behar bada ahuldua zegoen Sususarekin txortan ibiltzeagatik baina ordura arte ez zegoen legerik Mac-Ta izeneko kanoa gainean Sususak edukitzea debekatzen zuenik. Dona Ximena zen haren izena eta polita zen bere erara. Nire gustorako zuriegia zen eta haren adatsak ixtli-sorta⁷⁰ baten antzekoak ziren eta hasieran oso arraro ematen zuen hura ikusteak, baina aurrerago ohitu egin ginen eta oso neska fina zen. Gorputza ondo eratuta zeukan, emakumeak izan behar dituen gauza guztiekin, eta berak neurri onekoak eta bere tokian zeuzkan, eta frogatu ahal izan genuen gu bezala jantzten hasi zenean, beraz oso azkar. Ez zeuzkan dindilizka, baizik ondo atezatuta barrutik.

Odol oneko andrea zen, familia onekoa, lurralde hartako kazike baten alaba, baina ez Galeziakoa baizik harago zegoen beste batekoa, esan beharra baitago lurra, dena populatuta zegoela. Kalpixkiak, bere aitak alegia, ez zion ezkontzen utzi nahi agian tlakotlia edo kasta txarreko edo holako zerbait izango zen mutil batekin, eta haiek oso eratsuak dira eta herrira eraman zuten, Vilanovadalosa edo lauhtepe Berrira, alegia, haren izeko batekin bizi zedin, saiatu saiatzen naizen arren ez naiz gogoratzen haren izenaz, kontua baita bertako jende galegoaren izenak antzekoak direla euren artean. Orain hasten bazarete esaten nola den posible kazikeren alaba batek behe mailako batekin ezkondu nahi izatea, esango dizuet, ezen, gauza kondenatuak izan arren, holako gauzak gertatzen direla Aztlan Zaharrean. Aipatutako Dona Ximena Sususa hura izaeraz kuxkuxeroa zen eta gertutik ikusi nahi zuen Aztlango jende azteka, ez baikenion inolako beldurrik ematen eta izatez kuxkuxeroa baitzen.

Lahar batzuen atzetik kanoak espiatzera joan zen, haiek hemen bezainbeste ugariak baitira han, eta han aurkitu zuen Huitzilatlak, eta zigortu egin zuten. Bazirudienez, umetan Dona Ximenak artoa ehotzeko mortero baten beso bat miazkatu zuen eta goiko lerroko hortz bat falta zitzaion, baina horrek ez zuen itsusten, alderantziz, bihurri eta atsegin, baina berak ez zekien, eta irribarre edo hitz egiten zuenean ahoa estaltzen zuen eskuaz, baina gero desohitu egin zen, eta zulo hark ez zion atsekabetzen, ez asko ez gutxi. Lehen egunetik hasi zen gure hitzak esaten, adibidez bai eta ez nahuatlez, eta uste dut gehiagotan esaten zuela baietz, ezetz baino, eta ulertzen didauze zer esan nahi dudan, nahiz eta Dona

⁷⁰ Amarilidazeak *Agave rigida* i *Ag. heteracanta*. Haien zuntzekin *espartzua* egiten da.

Ximena Sususa ez mintzeko asmoz ipinita dagoen, oso emakume ona baitzen. Eta gure hizkuntzako pila bat gauza ikasi zituen eta, gu ohartu baino lehen, tenotxkak bezain ondo mintzatzen zen. Baina Opotonek paperean ipintzen ez dakien kutsu batekin egiten zuen, baina ez zen arazorik oratzeko. Ez. Dena ulertzen zitzaion eta berak ere bai guri, batik bat Tlakatekari, zeinak kokonetl bat egin zion baina beranduago, holako gauza bat egiteko behar diren hamahiru aldiz hogeit egunetan eta ez dena jarraian, naturak bere denbora behar baitu, eta dio, utz iezadazue nire zeregina gutxika-gutxika eta era ziurrean egiten. Hasieran gutxi eta estropezuka mintzazten zen gure hizkuntzan, nekarazten baikintuen hainbeste barre egiteak, baina gero gure hizkuntza bihurtu zen Aztlan Zaharreko jendearekin hitz egin behar genuenean haien mintzaira edo mintzairatan, batzuk baitauzkate, denak atzerrikoak eta korapilatsuak, eta Dona Ximenak denak zekizkien. Eta beti esaten zien Tlakatekak haiei esatea agintzen zuena, eta iaioa eta airosoa zen bere zereginen konplimenduan eta nahuatlez ere esaten zigun, hasieran baldar samar eta gero bikain, Fala Galegako atzerritarrek adierazi nahi zigutena, eta beti gure alde agertzen zen, izaeraz leiala baitzen eta aski maite gintuen eta guk hura, oso neska jatorra zelako. Arin asko konturatu zen Ketzalkoatlenganako fedea ona zela, eta trebetasun handiz predikatzen zituen gure fedeari buruzko gauzak. Tlakatekak nahi zuenean mezuren bat marraz ziezaen, batzuetan zerbait zehaztu behar baita edo gorde behar diren gauzak azpimarratu, orduan Doña Ximenak paper batean idatzi eta besteek beren begiak haren gainetik pasatzen zituztenean ondo asko ulertzen zuten esaten zitzaiena, eta orduan ikusi nuen lehen aldiz idazteko negozioa, eta ona zela ulertu nuen, eta ateratzen zaizuna eta nahi duzuna esan ahal duzula, ateratzen bazaizu. Esan beharra daukat horretan atzeratuago zebiltzala Aztlangoak Aztlan Zaharrekoak baino, idaztea marraztea baino errazagoa baita eta ez duzu dohain berezirik behar horretarako, mundu guztiak idazten baitu eta idatzitako hitzen bidez elkar ulertzen dute, ez baitago zertan oihu egin, eta Dona Ximenak asko lagundu zigun, noblea eta leiala izateaz gain asko maite baikintuen. Aski ezagutzen ninduen eta Opoton esaten zidan, eta deitzen ninduean atsegin nuen entzutea, sentitzen baitzen nola. Gure aurrean zegoenean Dona Ximena esaten genion eta entzuten ez gintuenean Sususa, baina bihotz onez, batere intentzio txarrik gabe, oso neska ona izanik ez baitzuen holakorik merezi izango, eta Sususa afektu handiz esandako zera zen.

Azaldu genionean Sususa izena ipini geniela eta Tlautzkilliren domonistikuaren kontu hura dena, barkamenez esana gera bedi, gogotik egin zuen barre eta maiz mintzatzen zen bera hartaz, eta barre egin behar hark toteldu eta barrearen barrez negar egiten zuen beste bertoko Sususa galegoen ihesaldian pentsatzerakoan, gauzak diren bezala esan nahi baditut.

Hark azaldu zigun, alegia, lurraldekoei galego esaten zietela lurraldea Aztlan Zaharreko Galezia zelako, eta aski handia eta hainbat tribuz populatua zegoela, bakoitza bere Jaunekin, eta Fala Galegaz gain bazirela beste hainbat mintzaira, ez galegoak, zabalduena gaztelania zela, nik-neuk orain aski ongi hitz egiten dudana, han ikasi nuen arren.⁷¹ Jaun Handi bat ere bazuten, izenez Mintzo Den Hura, baina euren, haien erakoa, eta hark Andere Handi bat zeukan, hots, Mintzo Den Hura, hots biek mintzaten zirela esan nahi baitu. Asko harritzen gintuen horrek, sekula ikusi gabeak baikinien bi egotea jabetzan eta, justiziaren ohoretan esana gera bedi, Aztlan Zaharrean oso maiz gertatu ohi zaie bi izatea aldi berean mintzatzen, eta batzuetan gehiago ere bai, eta nik esango nuke agian horrexegatik kostatzen zaiela hainbeste elkar ulertzea, ohitura populoka baita. Orduan, gu bertara iritsita, haietako Gure Jaun Handiak oso lanpetuta zeuden, gerla bizia

⁷¹ Hitzez hitz esaten du, eta ulertezina da.

baitzeukaten gure erako hamazazpi Azaoz geroztik haien lurraldean finkatu eta parte handi baten jabe egindako tribu kanpotar batzuen aurka, eta sekula ez genuen asmatu Ketzalkoatlen jendea zenetz, uxatu egin baitzituzten guk haiekin harremana eduki baino lehen. Eta galdetzen genienean bertoko galegoei ezin ziguten behar den bezala erantzun, esana baita bere lekuan galegoa izaeraz oharkabea dela, eta ez dut esango ezjakina oharkabea baizik, eta sekula ezin zara jabetu aipatutako tribu haiei dagokien ezertaz, gu Aztlan Zaharrera iritsi ginenean haiek kanporatzen tematuta baitzeuden.

Ffffffkako era hura soilik haserre zeudenean entzun nien lurraldeko zaldunei, barkamenez hitz eginda. Eta hala gertatzen zen, guk Aztlangook, Fala Galega esan genuen, lehen aldiz hasi ginela ffffffka. Rrrrrrr hura ere ez genuen erabiltzen, han asko erabili arren eta guretzat oso zaila izan. Gure lurraldeetan soilik purepetxek erabiltzen zuten eta iseka egiten genien rrrrrr ahoskatuz, beraz horregatik, lehen urteetan, esan nahi baitut Aztlan Zaharrean egondako lehen boladan, eta hemengo lehen urteetan, soilik rrrrrrr eta ffffff entzuten zen.

Gure nabigazioak jarraitzen zuenez ona zirudien itsasarte handi bat topatu genuen behin, eta ontzat hartua izan zen. Itsasotik gertu aski neurri oneko etxe batzuk ikusten ziren eta sartu egin ginen, ez etxeetara itsasertzera baizik, ostera janarien premian baikeunden, izan ere lauhtepek Berriko jendeak emandakoak ez baitzigun bizitza osoan iraungo. Euria gogotik ari zuen egun bat zen eta lehenago ere esan arren errepikatu beharra daukat Aztlan Zaharreko Galezian, izenez soilik Galezia, egon ginen denbora guztian, euritealdia izan zela eta, lehenago esan ez badut, ohoratua izan dadila Koatlíkue.

Hondartzatik gertu lotu genituen kanoak eta inor ez zen ikusten han. Soilik haien txakurrak zaunkaka, kontuan harturik hori dela haien jokatzeko manera arrunta, glau-glau eginez, ez baitira mutuak gure txakurrak bezala baizik oso zaratatsuak eta, ahal izatera, hankak hozkatzen dizkizute. Onena harri-zati bat jaurti edo makilakada bat ematea da. Desontziratu eta herrirantz abiatu ginen, estandarte guztiak haizetara Ketzalkoatlen berri zeukan jendea ote zen, eta maxtlatla haginekin kentzen badizute ez dizute ibiltzen utziko, saiatu arren. Gu ikusi ahala atera ziren beren etxeetatik, oso pozik, hori bai. Esan beharra daukat Dona Ximena gure oihalekin jantzita zihoala eta gu jende aztekaren erara atondu zuela arropa, biziki erakartzen baitzuen gureetako zintzilikarioak ipintzea, eta gure erara jantzita zebilen, baina gureetako andreen erara, paperean jarri ahal bada, arrangurarik gabe, baieztapen hau, kontuan harturik gure andreek sekula ez dutela adats gorririk eduki. Emakume-kontuetan zaildua zen gutako batek lagundu zion apainketa-kontuetan, izan ere bera, ez dakit nola egin ulergarriago.

Dona Ximenak ez zuen nahi lur hartako jatorrizko jendeak biluzik ikus zezan, eta gerlako marraz margotu zituen aurpegian eta bularretan eta, lumak ondo egokiturik aipatu dizuedan hark lagunduta, apenas nabaritzen zitzaion ilaje gorria. Gu guztion artean emakume bakarra zelarik bereziki mimatzen genuen, eta bera, konturaturik, pozik zegoen, zeren esan ahal da emakumezkoak berdinak direla edonon, leinua leinu. Ohartzen zen denek geundela haren irrikan baina, jakina, ezin zen eskuzabal izan Aztlan Zaharrera joan ginen guztiokin, asko baikinen eta beti oso lanpetuta eta berak hesteak botako zituen, Opotonek esana gera bedi adiskideei barre eginaraztearren.

Bera jakitun zelarik, Fala Galegaz mintzatu zen haien Tekutlirekin, haxe baita hizkuntzari ematen dioten izena euren artean mintzo direnean, eta pozik eta harrituta geratu ziren ikusi zutenean guk hizkuntza bageneukala.⁷² Gizon,

⁷² Onartzen oso zaila da Ximena jator honek bizpahiru egunetan *nahuatl* hizkuntza ikasi izana.

emakume zein ume asko zeuden, baina denak jantzita eta oso bertoko galegoen erara, eta Puebladeldean herriko etxe handira lagundu ziguten, eta toki hartan dauzka kontseiluak bertoko jende galegoak bere kalpixkiekin eta tekutleekin. Puebladeldean ere badago beltzez jantzitako kazike bat, eta kasu asko egiten zion mundu guztiak, eta hark galde egin zigun:

—Sant Iago?

Haien modu egoskorra baitzen nondik gentozen antzemateko.

Egia esana izan bedi, haiei bost gu haien lurraldera zertara joanak ginen jakitea; kuxkuxeatu egin nahi zuten gure jatorria, besterik ez. Nabaria zen jende ezjakina zela, eta ez ginen gehiegi harritzen gure Aztlan haiek behin eta berriro San Iago esatea. Jende galegoa ez zen oso naturalki prestatua agertzen gauza batzuk ulertzeko, eta haien tekutliak euren Etxe Handian sarrarazi gintuen, Buruzagiak eta gu-geu, bi aldiz hogeitasei kanoetatik aukeratuak, han ere baitzetorren Aiztli, eurak obsidiana moduko zera zuria daraman jendea baita, esana geratu den bezala zuria dena, baina urdina, berdea edo horia ere bada, beira deritzana, eta harekin era guztietako ontziak eta trasteak egiten dituzte, baina txingar gainean ezarriz gero apurtu egiten dira, beraz gaizki egosiak daude, eta urezko harri baten gisakoa da. Aurretiaz esana du Opotonek jende galegoen ohiturak ez zirela gureak bezalakoak eta ohartarazi zaituztet. Orain, beraz, esango dut ezen euren jateko moduak ere ez daukala gurearen antzik. Antza du ahora eraman eta murtxikatzeko moduan, diogun. Baina haiek ez dira lurlean jesartzen, kukubilko, era askotako aulkietan baizik, gure etxeko Jaunak bezala, baina eurak horrela jesartzen dira jaunak izan ez arren. Denek, txiroek zein aberatsek, ikpalliak dauzkate. Eta jakak ere ez dituzte alfonbra baten gainean ipintzen, mahai deituriko egur altuetan baizik, orain hirian ikusten ditudan bezalakoak, baina hura izan zen guk Aztlangook ikusten genituen lehen aldia. Nik galdetzen dizuet zertan daukaten antza mixeek eta Maiabekoez eta erantzungo didazue, ezertan ere ez, eta egia izango da, Jainkoaren egia borobila. Orduan esango dizuet haiek eta guk ez dugula inongo antzik eta, gu alfonbratan esertzen garen bitartean, eurak ikpallietan esertzen zirela, eta hala esana gera bedi benetako gauza delarik. Eta Opotonek esango dizue egiaz eta fedez gure ohitura batzuek ere sustraiak bota zituztela euren artean, gu, Aztlangook, lurralde haietan egon ginen bitartean. Eta egunen batean haien ohiturak ere landagunera iritsiko dira eta ez gara haietatik libratuko, Opotonek baibaitaki zertan ari den.

Horrekin okltia edan, idunekoa eta zintzilikarioak egin eta ez diete balio handirik ematen. Aldiz, guk aztekak oso gustokoak genituen eta gure Tlakatekak pieza batzuk edukitzeko gogoia zeukan eta bakarren bat eskatu zien, nik uste Gure Jaun Handi, Mintzo Den Harengan ipinita pentsamendua, hari erakusteko gogoz, esan dezagun.

Beirazko oso traste polita eman zioten, bi adar dituen, bat lodia eta bestea ere bai, baina soilik hasieran, gero estutu egiten baita, eta beste tribu batzuk bizi diren toki batzuetan okltia edateko darabilte, izenez porroia. Gure Tlakateka bertoko listari batekin lotu eta lepotik zintzilik jarrita oso harro zebilen, aurrerago esango dugunez. Azaldu ziguten nola iritsi zen porroia lurralde haietara, baina ez du interes handirik eta orain burutik joan zait. Opariari erantzutearren Tlakatekak urrezko zintzilikario bat eman zien txalkhihuitl⁷³ batzuk ezarrita zeuzkana eta hain pozik geratu ziren ezin zuten disimulatu eta nabaria zen. Dona Ximena ez zegoen oso pozik eta pila bat gauza esaten zizkien Fala Galegan, horixe baita haien hizkuntza, eta haiek bero erantzuten zuten, eta gero eta sutsuago agertzen ziren

⁷³ Esmeralda arrunta, Jade-tipoko silikato bat da.

eta gu Aztlan Zaharreko txakurrek egiten duten eran glau-glau entzun eta entzun. Baina ikusten zen atseginez eman zutela porroia.

Orduan Tlakateka bakeak egiten hasi zen eta Dona Ximenaren hitzekin gauza adiskidetsu gozoak esaten hasi zitzairen, azalduz ezen gu aztekak, Gure Jaun Handiaren, Mintzo Den Haren aginduz iritsi ginela lur haietara, eta hura, segur, munduko jaunik handiena zela, eta Dona Ximenak ulertarazi nahi zienean besoa altxatzen zuen Gure Jaun Handiaren altura adierazteko, eta auskalo zer imajinatzen zuen baina, exajeratu pila bat exajeratzen zuen besoarekin, ondo luzatuta, eta hanka-puntetan. Argi dago hark, Dona Ximenak, sekula ez zuela ikusi, eta joan zaitezte jakitera nola imajinatzen zuen. Igarotako neke guztiak kontatu zizkien, eta oraindik jasan gabe genituenak, Ketzalkoatl bilatzeko hark emandako mandatu batengatik zela. Esan zien Ketzalkoatlenganako fedea benetako bakarra zela, aurrerago azalduko zienez, Ketzalkoatlek egina baitzuen mundua gizonak eta landareak eta animaliak eta izarrak, eta Bera nahikoa izan zela dena bakar-bakarrik egiteko, beste inoren laguntzarik gabe, zerren egia izanik gizonak, animaliak eta landareak era askotakoak izan zitezkeen arren –eta begi-bistan zegoen hura–, Eguzkia Ilargia Itsasoa eta Mundua eta den-dena Haren obra ziren. Baliteke Dona Ximenak hizkuntza gutxi izatea edo haiek aski ergelak izatea, baina nabarmen zegoen ez zutela argi ulertzen, izaera egoskorreko jendea zen arren, eta nire irudiko esandakoetatik ezerk ez zien probetxurik egiten eta gero adiskideen artean komentatu genuen eta denak ados geunden ezen gure hitzetatik bakar bat ere ez zitzaizela ulergarri egin beren jatorrizko galegoen burmuinetan. Nik, Kainaberadi eta Palmadiko Opotonek, gutxi azal nezakeen gure fedez, eta are gutxiago atzerriko hizkuntzan, baina haien jarrera zela medio ulertzen nuen ezerk ez ziela probetxurik egiten. Hasieran pentsatu izan genuen haien jarrera hura, erdi burlati erdi ergela, haien izaera naturala zela, bestela nolatan pentsa genezakeen gure Jainkoari buruzko azalpenak barrearazi egiten ziela, jartzen du Opotonek galdera modura.

Zeren haien egoskorkeriak, bertoko jende galegoarenak hain zuzen, Sant lagoren jendea ote ginen behin eta berriro guri galdetu beharra zekarren eta Tlakateak azkenean esan zien beharbada baietz, kontuan harturik gauzen izenak aldatzeko ohitura zeukatela bertoko galegoek. Zeren beharbada, gu Ketzalkoatl jendea ginela azaltzen genien bitartean eurek Sant lagorekin tematuta ibiltzeak pentsarazten zuten, kontuan harturik gauzen izenak aldatzeko zeukaten jarrera, agian Ketzalkoatl Sant lango deitzen ziotela, totxtliari untxi⁷⁴ esaten dioten bezalaxe. Tlakatekak galdetzen zien ea Ketzalkoatlenganako fedea zeukaten eta buruarekin ukatzen zuten, haiek bai eta ez buruarekin egiten baitute guk-geuk bezala, alde batera edo bestera astinduz ez esateko eta gora eta behera bai esateko, denak ez baitira diferentziak izango euren eta gure artean eta gauza batzuetan gure antzekoak dira, aipatu dudan honetan adibidez eta aurrerago esango ditudan beste batzuetan, Ketzalkoatlek ez badit bere faborea kentzen.

Aztlan Zaharreko Galeziako jatorrizko jendeak ez zuen Huitzilopotxtli ezagutzen, ez Tlalok Tlamakazki, ez Xipe-Topek, ez Koatlikue, Zihuakoatl ere deitua, Huitzilopotxtli Jaunaren ama zintzoa, bi eratara deitzen baikenion. Guk esaten genuen izen bakoitzeko eurek ezetz esan eta barre egiten zuten, ezetz esan eta barre, alegia guk egiten dugun ber gisara, zerren soilik barre edo ezetz eginez gero ez ginatekeen konturatuko jende atzeritarra zela. Lotsagabe egiten zuten barre gure Jainkoen kontura, Haiek nahas ditzatela, eta Tlakateka eta gu guztiok aski haserre geunden eta edukazioz disimulatzen genuen. Bertoko galego batek galdetu zigun ea gu Nor-Mandoak ote ginen, ez baikinen, eta apenas konturatzen

⁷⁴ Jatorrizko testuan conejo esaten da.

ziren gure Tlakatekaren pazientzia agortzen ari zela. Baina guk bai, eta Nor-Mandoen kontu harekin aski izan genuen. Tekutle galegoetako batek esan zion Dona Ximenari guri adierazteko eurek beste fede bat zeukatela eta asko maite zituztela euren jainkoak, haiekin zintzoak baitziren, eta oraingoz ez zutela beste batzuei buruz mintzatu nahi, aldiz irreberentzia irizten zitzaien eta hauexek izan ziren Dona Ximenaren hitzak, Dona Ximenak esanak alegia, Sususa izeneko bertoko galegoa zela bera, eta berak azaldu zigun aipatutako jende atzeritarraren glau-glau hura.

Lotsagabekeria hutsa zen hura, eta orduan Aztlango jendeak ulertu zuen Galeziako lurra ezin zela izan Aztlan Zaharra, argi asko ikusten baikenuen. Gure Tlakatekak afera harekin bukatu nahi zuen, eta esan zien, oso ondo, oraingoz ez eurak ez gu ez ginela Jainkoei buruz mintzatuko, kontuan harturik hainbesterainokoa zela bertoko galegoen egoskorkeria, baina guk, Aztlangook, eskubide osoa geneukala Ketzalkoatl bilatzeko, gu mandatu bat geneukan jendea baikinen eta munduko Jaunik handienaren agindua ezin zela desobeditua izan, eta horixe esan genien. Eta, haien gustukoa izan zein ez, gure Jaun ona bilatzeko ahaleginean jarraituko genuela, hori ezin baitu inongo gizonen lege naturalik galarazi, inork ezin baitu galarazi herri batek bere Jainkoa bilatzea. Eta eurek inoiz beren Sant Iago gure lurretan bilatu nahi bazuten, zabal-zabalik zegoela atea, eta aurrerago ikusi genuenagatik, serioski hartu zuten hori.

Orduan bertoko galegoen kalpixki batek esan zigun eurek ez zutela sinisten Gure Jaun Handia lurreko jaunik handiena zenik, eta benetan hala bazen, zergatik onartzen zuen gu, haren zerbitzari eta menekook, hain trauskil ibiltzea, erdi biluzik eta popoloka, haiek berek ez zeudela aski ziur benetan gu gizaki edo abere ote ginen. Horixe esan zuen haien kalpixkiak, zeinaren izenik ez dut orain gogmutan, ez eta gogorik ere, alderantziz baizik, gure desioa bete bazen deseginda egongo da dagoeneko haren leinu osoa. Zeren jende galegoak, beren egoskorkerian, ezin du ulertu gu haiek bezain xehatuta ez ibiltzea, izan ere. Eta Opotonek dena ipinita uzten du esan zuten moduan ikus dezazuen nolakoa zen haien lotsagabekeria, min egiten digun arren. Zeren min egiten dizutenean arantzak ez dituzu konpontzen hitz eginez, erauziz baizik.

Eta esan zuen baietz, noski hitz egingo genuela Jainkoei buruz, guk nahi zein nahi ez, hark ezin baitzion eutsi gure Kesalkuas edo dena delakoaz pentsatzen zuena esateko zeukan gogoari, irizten ziola halako zera bat zela, Opotonek ezin du idatzi. Tlakatekak eta gu guztiok, eta entzuten didazuen guztiok, badaukazue nahikoa eta sobera. Orduan Tlakatekak agindu zien:

—Oraintxe bertan, momentu honetantxe, Gure Jaun Handiaren, Mintzo Den Haren meneko zaretela aitortzen duzue.

Izan ere haien lotsagabekeria hain zen zorrotza, ezen gure Tlakatekaren hitz jakintsuak gorabehera, gutaz trufatzen jarraitzen zuten. Haien kalpixkiak, guretzat bertoko galegoa zenak, esan zuen halako erabakia ezin zutela arinkeriaz hartu eta euren artean hausnartu behar zutela eta biharamunean emango zigitela euren erantzuna. Eta aitzakia hutsa zen trapitxeoa luzatzeko esaten dena eta guk berehala ulertu genuen. Orduan Tlakatekak esan zuen:

—Ez nago zuei kontsulta egiten, ez nago zuei proposatzen zeuen artean mintzatuz erabaki ahal duzuen. Agindu bat ematen dizuet, Gure Jaun Handiaren, Mintzo Den Haren izenean agindu bat ematen ari natzaizue, eta zuek, Aztlan Zaharreko jende galegoak, obeditu besterik ezin duzue egin.

Baina bertoko jende galegoa egoskorra eta idolatra zen eta ez zuten amorerik ematen. Orduan Tlakatekak eskuin eskua haien kalpixkiaren bizkarrean ipini, Fala Galegako gizona zelarik, eta agindu zion atxilotutzat kontsideratzea.

Gion ezjakina, popoloka eta idolatra izan ordez (?) izan balitz, belaunikatu eta esango zion gure Tlakatekari:

—Nire Aita Ohoretsua, une honetatik zure atxilotua naiz. Egin ezazu nitaz zure gogokoa, jainkoen edo zure Jaunaren ongizaterako.

Horrela mintzatuko zen bera eta gainerako beste edonor baina ondo hitz egin ordez ezpata luze eta zorrotza atera, euren zilarrarekin egiten dutenatarikoa, ondo eginak jende hark egina izateko eta aldean esekita eraman ohi dute auskalo nondik atera duten larruzko poltsa baten barruan, eta gerla-jarrera erakutsiz paratu zen eta barre-algara sorrarazten zuen bertoko galego zut gorri eta zurrinak. Fala Galegoko gainerakoak aztoratuta geratu ziren eta une luze batean ez zuten zer egin jakin. Baina guk bai, bagenekienez, ezpata-kolpeka egin genien eraso, zeren hain itxura ederra ez duten arren ondo kolpatuta uzten zaituzte, eta jabetu zirenean ez zegoen denborarik, Jainkoak beti baitaude goiztiarren alde. Ez zegoen aski tarterik gure arkuekin jaurtitzeko eta hala ere gogotik txikitu genituen ezpata-kolpeka. Eta merezita zeukaten, zeren barkatu ahal genien idolatria eta egoskorkeria, bakoitza den bezalakoa baita, baina ez edukazio-falta, batek baldin badauka behintzat eutsi egin behar baitio kaka egiteko gogoari bezala, ez baitzara egun osoan egongo. Azaltzago geratu ziren gutxiek ez zuten azaltzen, aldiz eroen pare egiten zuten oihu eta, hango builan, Dona Ximenaren ahosta besterik ez genuen entzuten:

—Dale! Dale!⁷⁵

Eta hain gustukoa izan genuen daledale hura, ezen oraindik erabiltzen baitugu bertoko jende galegoaren eta beste edozeinen bizkar iseka egiteko. Oihu egiten zutenak oihu eta guzti eraman genituen hango sokekin lotuta, eta egia esan ez daude batere gaizki eginda hain jende paganoak eginak izateko. Gureen antz handia daukate baina eurek beste era bateko ixtliekin egiten dituzte eta, gauzak bere tokian, aski ondo geratzen zaizkie eta berehala frogatu ahal izan genuen soka onak zirela eta bere garaian esana geratuko da zenbat aldiz erabili behar izan genituen.

Tlakatekak Dona Ximenari agindu zion idatziz esana uzteko, haien errebeldiaren ondorioz, haien lurraz jabetzen ginela Gure Jaun Handiaren, Mintzo Den Haren izenean, eta orduz geroztik Puebladeldeango herriak urtero menperakuntzaren zerga bezala eman behar zizkigun gauzen zerrenda diktatu zuen. Gauza hauek:

—Lau aldiz hogeiz izara; hamar aldiz hogeiz bertoko oilo; hiru karga gatz; arrain freskoko bat eta arrain lehorreko beste bat eta bi zaldi, tamameak⁷⁶ baino hobeto moldatzen baitira gauzak batetik bestera garraiatu behar direnean.

Mahai gainean utzi genuen zerrenda, hankaz gora ez zegoen gauza bakarra baitzen, eta erreskate modura han beirazko zen guztia eta hautsi ez zena hartu genuen, beira berez hauskorra baita, izan ere gaizik egosirik oso erraz apurtzen da. Ez dago esan beharrik ezen preso geneukan kalpixkiari urrezko zintzilikarioa eta txaltxihuitla kendu eta gure Tlakaltekari itzuli genizkiola, zeinak, edozein moduz, porroia gorde zuen. Beira oso hauskorra da zalapartarekin eta hango sokekin ondo lotuta eraman genituen, aski onak baitira.

Orduan dorre zulatutako etxera sartu eta herriko tenplua zela ulertu genuen, bertoko galegoen erara atondua, jakina, zeren barrutik iluna baita beren erlijioa bezala, misteriotsua alegia, eta ikusten da beren jainkoei ez dietela sakrifiziorik eskaintzen, eta behar bada horrexegatik dauzkate hain abandonatuta bertoko galego haiek guztiak. Hainbestekoak dira euren erlijioen ezberdintasunak

⁷⁵ Jatorrizko testuan gaztelaniaz. Holako zerbait esan nahi du: “Txikitu ezazu, txikitu”.

⁷⁶ Garraiolariak.

[gurearekiko alegia], ez baitakit nola azaldu diferentziak. Harrotasun handia daukate, eta jainkoen irudiak euren irudira egiten dituzte eta ez dakite horrelako gauzek jainkoak ofenditzen dituztela eta bertoko galegoak bezalakoak dira, hezur eta haragi, eta auskalo zerez egiten dituzten, haragiaren antzekoa baita, baina gogorra.

Tlakatekak esan zigun, ezen beste noizpait astia izanda itzuli eta tenplua desegingo geniela, eta harri berberak erabiliz beste bat eraikiko genuela, gure erara, eta lortuko zuela gure Ketzalkoatl-Totek-Tlamakazkik gure Jainkoen fedearen bidetik abiaraztea, premiarik baibaitzeukaten.

Gure itsaontzietarako itzulera-bidean han eginda zeukaten gurtza-leku batetik igaro ginen, haiek cruceiro deitua bera, eta desegin egin genien cruceiro hartan Ketzalkoatlaren estatua txiki bat ezarri genuen, oso polita begietara, eta Kuauhnhuak deituriko kanoan zihoan mutiko batek, izenez Makoatl, egin zuen, oso trebea eta abila zen harri-taila ofizioan, eta han harri ona daukate eta berak egin zuen Jainkoaren irudia.⁷⁷ Aurrerago gehiago egin zituen eta Opotonek ondo esan dezake aipatutako Macoatl hark ez zuela sekula gerrarik egiten, estatuak egiten ematen zuela bizitza, eta lehenago abila bazen are abilago bihurtu zela, dida batean egiten baitzituen, eta harria landu eta azkar moldatzen zuela, ikusgarria baitzen hura lanean ikustea, zeren lurreko lanabesek, eskarpek eta mailuek adibidez, asko laguntzen baitzioten, eta laster ikasi zuen haien maneia, eta bazirudien sekula ez zuela beste tresna batzuekin lan egin, nik-neuk ikasi nuen bezala buztinari tornuarekin forma ematen, bere garaian egoki azalduko delarik. Izan ere lurralde galegoak gauza onak dauzka eta huts bat izango zen Opotonek ez bazuen argiro azaltzen. Andrazkoen gauza baita soilik gauza txarrak azaltzea. Tlakatekak debekatu egin zigun etxeetako ezer ukitzea, eta Sususak gutxiago, eta agindu zigun, aurrerago, Ketzalkoatlaren laguntzarekin, ordurarte sekula huts egin ez ziguna bera, bat edo batzuk emango zizkiola gutako bakoitzari denon artean kentzeko-edo arraza hark daukan zera txuriska eta gorritzta hura, orain baibaitakigu egia dela gurea beti irabazle ateratzen delako eta Tlakatekak asmatu zuen edo Jainkoek errebelatu zioten.

Beiraren erreskatea banatu zuen gu guztion artean eta niri ontzi bat egokitu zitzaidan, zeina begiratu eta berbegiratzen saiatu nintzen arren, sekula ez nuen antzeman nola zegoen egina, eta gero apurtu egin zitzaidan, beiraren defektua baita oso hauskorra izatea, laster apurtzen dela alegia. Erreskatearen metatik Tlakatekak bere zatia eta Gure Jaun Handiarentzat, Mintzo Den Harentzat bostena apartatu zuen, eta dena ondo ezarrita geratu zen amatlezko paper-orri batzuetan,

⁷⁷ Alde batera utziz Makoatlek estatua han bertan egin ote zuen —oso probabilitate gutxikoa, oso abila izan arren—, esan beharra daukat ezen Amadeo de Bustos y Estevez jaunak, Vigo hiriko kronista izanak, 1884ko otsailaren 21ean (*Anales Gallegos*, 719. boletina) herriko etxean honako honen existentzia erregistratu zuela: *“una estatuilla alta de cuatro palmos, de piedra caliza toscamente labrada, que representa a un guerrero normando, tocado con largo penacho al parecer de plumas, rostro cubierto por una máscara, escudo en la mano izquierda y emblemas raros en la diestra, que quedó catalogada en el Archivo General Vigués con el número de orden 327 de la serie A y fue colocada en un adecuado pedestal”*. Bustos y Estevez jaunaren deskripzioak gutxienez bi gauza adierazten ditu argi asko: bere ezgaitasuna kronista-lanerako (*¡emblemas raros!*) eta estatuatxoaren izaera normandoaren erabateko falta. Gaitzetsi ahal zaio 1884an zibilizazio amerikar prehispanikoak ez ezagutzea. Errealitatean Ketzalkoatl jainko *tenotxkaren* errepresentazio tradizioanalari buruzko deskripzio hurbil-hurbila egiten du.

Gure Jaun Handiak, Mintzo Den Hark, hara eman ahal izateko beta izango genuen bezain pronto ikusteko aukera izan zezan.

Modu ordenatuan kanoetara gindoazelarik, atxilotuak eta erreskatea hartuta, hots ikaragarri handia entzun zen, sustoz lurrera ia ipurdiz erorraziti gintuena. Tlaloken trumoi bakan bat bezalakoa izan zen, baina Jainkoen trumoi guztiez aldi berean osatua, labur eta burrunbatsua. Gure jokokoa bezalako pilota moduko bat erori zen gure artera, baina ez ullaizkoa, baizik harrizkoa, harriz eta intentzio gaiztoz betea, diogun. Kiltomilli hil zuen, zeinaren arreba Maxtliren laguna zela esan nizuen hura, baina ez Maxtli margolaria baizik beste Maxtli bat, eta pilota hartu eta oso bero zegoen eta eskuak erre zizkigun baina ez oso sakon. Beste inoiz gehiago erre naiz eta ez naiz kexatu, hara beraz, zergatik kexatu behar nintzen orduan, diot nik. Behin, nire labetik lapikoak ateratzen ari nintzela, harria irristatu eta besoak eta bularra erre nituen, baina Pozkatanek pozahuilizpathliz eta iztakpathizko⁷⁸ zuku bat egin zidan eta azkar asko sendatu nintzen, eta oraindik batere kalterik, aldiz onik, egiten ez ziguten beste pilota batzuk bota zizkigun, barre egiteko gogoa ematen baitzigun, eta zarata, gero eta gutxiago izutzen gintuena. Sekulako zulo handia egin zuten kanoetako batean baina egur batzuekin indartu genuen eta are sendoago geratu zen. Ordenaz ontziratu eta Itsasora abiatu ginen, trumoiak trumoi. Herri hura Puebladeldea zen, ezer esan nahi ez duelarik, Fala Galegakoak hola deitzen duten arren. Guk, Aztlango jendeak, Harrera Txarreko Herria deitu genuen eta huraxe da gure mapetan geratu den izena.

Ez genituen sakrifikatu bost atxilotuak, zeren Aztlandik atera ginenean, orduko presa haiek zirela tarteko edo auskalo zergatik, beharbada inork ez zuelako kontuan hartu, ez genuen texkatlik⁷⁹ hartu eta bestalde urrutiko lurraldeetako jendea sakrifikatzeko debekuak zeuden, aurrerago azalduko dugun bezala, gogoratzen banaiz, noski. Eta hobeto horrela, izan ere asko lagundu baitziguten, eta gure Tlakatekak, zuhurra zelarik, pentsatu zuen balio handiagoa zeukatela bertoko sei galego bizirik, hilik baino, eta asko atera zuen haiengandik, aurrerago azalduko dut hori, ondo azaldu ere, izan ere orain pentsatzen dut ezen, ondo begiratuta, behar bada gutako inork ez zekien nola sakrifikatzen zen kanoa baten gainean.

⁷⁸ Landare eta sustrai medizinalak. Ezin izan ditut botanikako ezein traktatutan aurkitu. Sahagúnek soilik izenak ematen ditu nahuatlez.

⁷⁹ Tlakateak hamargarren atalean egiten duen diskurtsoan hobeto zehaztuta daude sakrifizioak egiteko harria hartu ez izanaren motiboak.

ZORTZIGARREN ATALA

Opotonek dakienez, bertoko jende galegoa tribu txikitan batuta bizi zen, eta behar bada oraindik bizi da horrela, eta horretan nabaritzen da herri bezala duten bulkada eskasa. Aipatutako tribuak ez dira izaeraz handiak, txikiak baizik, eta dakigunez, herri bakoitza ikusirik, bere lege propioa zeukan, eta ez zion kasu handirik egiten, ezer ez ez esateagatik, aldameneko tribuak egiten edo adosten zuenari, eta horrela nabari da herri-bulkada eskasa. Herri deitzen dira, hango ohitura baita herritzat jotzea bertan Fala Galegako bost edo sei aldiz hogeitaz lagun bizitzeko etxe-kopuru txikia izan arren, asko jota. Eta etxeak ez daude taldetan banatuta, baizik oso sakabanatuta, eta sekula ez dakizu herri honetakoak edo alboan dagoenekoak ote diren. Nik uste eurak ere ez lirateke gai izango zein tributakoak diren esateko, eta Dona Ximenak berak ere ez zekien zehazten, eta ez bera erabakimen gutxiko emakumea zelako, paperean idatzita gera bedi adiskideen gozamenerako. Galegoek maien antza daukate buru-kontuetan, batik bat handia baitaukate. Baina zuriak dira eta arrosa kolore-antzekoak eta askok kolore urdin urtukoak dauzkate begiak, aski arraro egiten du ikusteak, eta hori dena oinordekotzan datorkie, diogun, beren Tribu Handiaren oinordekotza da, oraintxe azalduko dudanez. Gu aztekak garen bezala eta era askotako aztekak dauden bezala, eurak era galegoko zeltak dira, aski ondo azaldu baitziguten unea iritsita.

Galegoek sinismen handia daukate euren zantzuetan eta horrekin esana geratzen da zein sakonak diren euren sentimenduak. Baina jende atzerakoia da fedekontuetan eta gauean egurra mozten entzuten dutenean ez dira atsekabetzen eta, aldiz, guri batere larritasunik eragin ez dizkiguten txorakeriekin aztoratzen dira. Bertoko galegoek txakur-mota etxerakoia daukate, dotoreagoak eurak, eta gure tigreen antza daukate erabat, [gure tigreak baino] txikiagoak aukeran, eta arratoiak hiltzeko egin dituzte, eta katu deitzen diete, eta asko beltzak dira, eta Aztlanen ez geneuzkan. Beraz, katuekin neke ikaragarriak pasatzen dituzte, zeinak, egia esan, guri bost. Aldiz, popolokak, nonoalkak eta txontalak⁸⁰ bezala mintzatzen dira, eta hasieran ez zaie deus ulertzen. Ume popoloka bat ezagutu nuen zeinari Tetatamatxiuhki⁸¹ esaten zioten, harrak bezala luzatuz eta uzurtuz ibiltzen zelako, harrak neurtzen balebiltza bezala alegia, hots, zerbaiten neurria harraka hartuz. Baina esan beharra daukat ezen Tetatamatxiuhki hura ez zela gurekin etorri Aztlan Zaharrera, eta hobe horrela, izan ere ibili beharra zegoenean belearen mezularia bezainbeste atzeratuko baitzen, guk diogun bezala. Halarik ere, landako galegoa irekia eta serioa da, soziablea eta balientea bere erara, baina sekula ez zaitu xaxatzen. Soilik eraso egiten diozunean egingo dizu eraso eta Opton ez dago orain kalpixkiei buruz hitz egiten, bertoko galegoei buruz baizik, orokorrean. Bertoko galegoak guk bezalaxe ezagutzen du eraikitze ofizioa, eta traza ona du gauza publikoetan, ez ordea gerran. Ordena zuzena dauka baita ere euren merkatuetan, eta haien saltokiak txukun elkartuta daude, naturalki ondo ordenatuta. Behar bada handia daukatelako dira egoskorak buruari dagozkion gauzetan eta, aldiz, eskuekin oso trebeak dira. Ofizio onak daukate: zurginak eta

⁸⁰ Alderatu seigarren ataleko zazpigarren oharrarekin. Oraingoan Opotonek bi izen gehiago gehitu ditu berak ezagutzen ez dituen hizkuntzak mintzo diren tribuen zerrendara.

⁸¹ Harraka neurtu; har baten neurrira alegia

buztingileak, zilargileak eta jostunak dira eta oinetako onak egiten dituzte, ez gureak bezain arinak, baina zapal eta bero uzten dituzte oinak, ez dakit nola ibili daitezkeen, ez bada txikitatik ohituta daudelako, Maiabeko herri haiek bezala, non ume jaioberrien buruak deformatu eta hazten direnean jadanik deformatuta dauzkaten, baina euren hurrekin osteras hasi beharra dago, zeren sekula ez dira buru zapalarekin jaiotzen, belaunaldi asko pasa arren. Eta onak dira beren jainkoen zerbitzurako, asko baitauzkate. Handiak, gutxi: hiruzpalau, baina txikiak, pila bat. Txikietatik, urteko bana daukate egunean, edo agian gehiago ere bai, egun batzuetan bizpahiru baitauzkate. Jainkoak, gauza guztietarako dauzkate, garrantzizkoak etab., adibidez bat ezkontzetarako, bat haginetao minerako, eta begietarako, umeak edukitzeko eta ez edukitzeko. Nik uste esan dudana azken horretarako debozioa ez zen oso zabaldua, alde guztietatik jaiotzen baitzaizkie haurrak, ezkontzan eta bestela. Egokiera da orain Opatonek esateko jaiotzei dagozkien arazo hauetan Fala Galegakoak, gu Aztlango jende azteka baino askoz ere atzeratuagoak zeudela, zeren eurei haatik jaiotzen zaizkie haurrak, nahi gabe ere bai, eta andrea gizonarekin ihauskatu ahala haurra inori abisurik eman gabe etortzen zen, soilik haien nahierara, ezer ez baitzieten esaten apaizei, eta beren kasa ibili ohi ziren eta haiei bost jaioberriak halakotik bazeukan edo ez zeukan. Aldiz gure artean apaizek neska tenplura eramaten zuten, eta lau egunez denetatik galdetuz prestatzen zuten, eta itzultzen zizutenean eta guk ezagutu, erabakita zegoen zer jaioko zen, mutiko bat ala neskato bat, eta noiz munduratuko zen, eta kontu zehatza zeramaten.⁸² Horregatik gure herria hain handia egin zen bi Azaotan apaizek bazekitelako alde aurretik nola egiten zen mutiko bat edo neskato bat eta ondo zihoakien. Baina ofizio ugariak jateko gauzetakoei dagozkienak dira, biziki gustatzen baitzaie eta fedez saiatzen baitira, adibidez frijituta saltzen duten arraina frijitzea, gaztak, jaki bitxia eta prestatzen luzea, zeren lehen-lehenengoz animaliak behar baitira, adibidez ahuntzak edo behiak, ume egindakoak, eta haiei jaioberrientzat izan behar zuen esnea kendu eta gaztak egitea, zeinak gustu onik ez duten, aldiz haren usaina handia da, eta ofiziorik ugariena arrantza da eta esan daiteke hortik bizi dela Aztlan Zaharreko Galeziako jende galego bertokoa, nora Opaton joan zen. Kainaberadi eta Palmadiko beste hainbat jende bezala baina diferentzia batekin, alegia eurek, galego atzeritarrek, Itsasoan egiten dutela arrantza eta hainbat era dauzkatela,

⁸² Pasarte hau irakurri eta itzultzen ari nintzela, behin eta berriro egin eta berregin behar izan nuen, zalantza beteta. Edo iseka monumentala egiten zidaten sententzioarekin. Adiskide ginekologo batekin kontsultatu nuen –txostena nondik atera nuen esan gabe– eta ikertzaile modernoek holako informazioak inongo erreserbarik gabe onartzen dituztela jabetzeko aukera izan nuen. Orain bertan Mexikon badaude ikertzaile batzuk lanean, oso espezializatuak eta oso ondo ezagutzen dutenak genetika aztekaren erritu eta zientzia, eta egiazat ematen dute herri hark predeterminazio genetikoak lortu zuela. Diote ezagutza horri esker premia beliko edo bakezkoen arabera indartu ahal zutela herria. Hastapenean, Erromesaldiaren bukaeran, Mexikoko Ibarrean finkatu zirenean, lau edo bostehun lagun ziren, eta mende baten buruan lurralde handi baten jabe egin zen herri azteka. Hori onartuta ere, zaila da onartzea mende bakar batean neurri hartako eztanda demografikoa gertatu izana. Badirudi konkistatzaile espainiarrak haien nahierako kontrolaren berri izan zutela, baina naturaren kontrako delitutzat hartu eta dena desegin zuten. (Alderatu pilularen aurkako gaur egungo erreakzio batzuekin). Lastima izan da eta ikertzaile modernoek zerotik hasi behar izan dute. Lorpenen ehuneko ikaragarri handia aipatzen dute. Constantino Rábago irakasleari dagokio txostena.

bakarren bat oso burutsua, egia esate aldera esana gera bedi, eta haien aparailu batzuk kopia genizkien, haiek sareak kopia zizkiguten bezala, eta bakean.

Munduko ezker aldera nabigatu genuen eta neurri oneko itsasarte bat topatu genuen, ur gazikoa baina barea, besteak baino herri koxkortuagoa baitzegoen han, Muros izenekoa, hormak esan nahi baitu, eta hain buru gutxiko izena da, lastima ematen du, zeren ikusten ari zareten eta aurrerantzean ikusiko duzuenarekin, izenen kontu honekin, bertoko jende galegoak ez dauka batere txinpartarik. Eta gertatzen zen Murosen jatorria zuen bertoko jende galego guztia, hormak esan nahi baitu, gerla-jarreran zegoela, gure kontra ernai hain zuzen, Aztlango azteken aurka alegia, Ketzalkoatlén bila joanak baikin txarrik egiteko intentziorik gabe. Denak gerla-zorian gugatik, guri, intentzio on guztiarekin joanak ginen aztekoi eraso egiteko asmo txarrekin, esana gera bedi egiaren ohoretan.

Aurrera eta atzera korritzen zuten hondartza zaldi gainean, eta animaliak gerrarako jantzita zeramatzen, zapataren takoian mutur zorrotzeko izar bat itsatsita, zaldiak zulatu eta arinago joanarazteko daramatena. Bertoko jende galegoak asmatutako zera ikaragarria da hau, baibaitakite zaldia arinago joango dela zulatuta ez hiltzearen. Horregatik kaktzopintli esaten genien eta haiek, gure nahuatl hizkuntza ezagutzen ez zutenek, kaktzopintli esan nahi zuten guk bezala, eta gachupín irteten zitzaien, eta gu kaktzopintli esaka eta esaka eta haiek behin eta berriro gachupin ulertzen, eta gachupín geratu zaie, eta egia esate aldera, eurek bilatu zuten.⁸³

Muroseko jende galegoak geratu gabe pilotak botatzen zizkigun trumoi bat zeukaten, kalte handirik egiten ez zigutena, salbu zulo batzuk kanoetan, eta gainera estaltzeko errazak, hau da, konponerrazak egurrekin josiz, zeinak ahuldu baino indartu egiten zuten, eta zurgin onak generamatzen, zeinen izenak denboraren joanean ihes egin dizkidaten, eta horrek adierazten du pilotek kalte baino gehiago on egiten zigutela. Kanoak ilaran jartzen genituenean trumoiak zalantza zeukan, ez baitzekien zeinen kontra destatu, eta egin gabe geratu ohi zen, ez baitzekien zein kanoaren kontra pilota beroa bota jaurti jo, esana gera bedi modu ulerkorragoan, ez zuen prestatu eta jaurtitzen, baina zalantzak ez zuen luze irauten eta, aurrerago, pilotak nahierara botatzen zituenek, zipritin handiak barreiatzen zituzten kanoen inguruan jotzen asmatzen ez zuten bakoitzean.

Tlakatekak, Mac-Ta gainetik, atxilo zeuzkan bertoko sei galego kaktzopintleak erakusten zizkieten, eta horrek, baretu orde, gehiago sutzen zituen, eta ondorioz pilota-jasa areagotzen zen, kontuan hartu gabe bertoko jende galegoa hil zezaketela.

Opotonek Jainkoaren egia ona esan behar dizue, eta dio sekula ez zuela ulertu zer gertatzen zitzaien, eta orain ere ez, hainbeste urte joan direnean, eta gainera, hainbat bertoko galegoekin mintzatu naizenean, saiatu arren ezin dut ulertu zer zeukaten gure aurka, Aztlango jende aztekaren aurka, haien jokaera aski arraroa baitzen. Galdera modura jarri beharra daukat zer dela-eta hartu behar gintuzten gerra-hotsez Murosekoek eta aurreragoko beste herri batzuek, Ketzalkoatlén graziaz gero aipatuko ditugunek, guk kalterik egin nahi ez bagenien, gera bedi galdera bezala. Ez genien egin nahi eta ez genien bat ere egin, Ketzalkoatlén besterik ez baikenuen bilatzen, eta hori ez da ezer txarrik, diot nik, aldiz kontrara, diot nik. Landatik zoazela galtzen bazara, behin edo behin guztioi gertatu zaiguna, eta

⁸³ Askok eztabaidatu da *gachupín* izenaren jatorriaz. Eta bertsio hau, Opoton kronistarena, zuhurrena dirudi. *Cac* koturnoa da eta *tzopintli* zulaturen gerundio aktiboa. Oraindik, *Gachupín*, mexikarrek espainolei ematen dieten apelatibo despektiboa da orokorrean.

aurkitzen duzun lehenari galde egiten badiozu norantz dagoen Tlalpitzahua, ez da edukazio onekoa besteak, ez dakit esan beharrean edo ez nago ziur edo ni ez naiz sekula egon edo harantza, beti zuzen jota esatea, dagozkion hitzak baitira, diot nik, zure aurka kolpeka hastera. Beraz horixe da Fala Galegako jendeak, bertoko galegoak edo kaktzopintleak deituak, egin ziguna. Ez genien ezer hartu nahi, ez eta Sususak ere, haien premia handia eduki arren eta gero kritikatzeko ziguten sodomiarrena, etsai bezala eraso eginez, eta nik uste horregatik erabaki zela guk irmo erasotzea, eskarmentua eman eta hurbileko lurretatik Ketzalkoatlén bila doan jendeari gaizki tratatzeko ohitura txarra kendu beharra baitzegoen. Eta agian gu haserre ikusita Muroseko jendeak eta beste jende atzerritarrak pentsatuko zuten aztekek Sant Iagoren jendea ginela, diot nik. Muroseko jendeak, izen horrek hormak esan nahi baitu, merezita zeukan gure jarrera, eta egia beti bere tokian, euren izan ziren lehenak konkista aipatzen, guri oraindik burutik pasa ez zitzaigularik.

Sentitu zuten beren lurrak inbaditzen zizkietela, eta hori bai dela, beti, gauza itsusia, inork ez baitu eskubiderik ongi etorria ez zaren lurra zapaltzeko, eta zapaltzen baduzu eta hark aurre egin eta zuk ere aurre egin eta gupil zoroa bilakatzen da. Itsas-adar guztiak ez dira egokiak putz egin jo doinu egiteko, ez eta itsas-triku guztiak, orain ez baitakit nola doan.

Jende galego hark ezin zuen irudikatu Aztlan gerlan. Gure Jaun Handiak, Mintzo Den Hark, izenez Ahuizotl, ez zituen sei kanoa bidaliko, sei kanoako baino eskoadra handiagoak, ez baitakit nola konponduko zen Kuauhtxitxi gajoa. Izan ere Gure Jaun Handiak, izenez Ahuizotl, bere herria gerra-hotsez mugitzen zuenean jende-multzo handia ikusten zen eta ez Aztlan Zaharrera, izenez Galezia zenekora, joan ginen gizon-dozena gutxi haiek. Galeziakoak eta Haragoko Espainietako beste tribu atzerritarrek ez zuten ikusiko sei kanoatako armada, baizik sei kanoatako multzoak eta multzoak edo agian gehiago ere bai, Itsasoa eta mendi guztiak gerlariz lepo geratuko baitziren eta ez ziren ikusiko bertan dauden landare-pilak, eta ulertuko zuten Aztlan zela gerra- eta konkista-hotsez zihoana. Gerlari aztekek bistatik galduko ziren han eta hemen, Itsasoko ura bezala, nondik Aztlan Zaharrera iritsi ziren Sususen Badiako herri batera, izenez Vilanovadalosa, hots, lauhtepek Berria, aurrerago azalduko dudanez. Argi zegoen euren artean arratoiak banatu zituztela gure aurka altxatzeko enkarguz eta, ondorioz, jendea gure aurka altxatuta aurkitzen genuen. Hondartzara iritsita eta jende galegoa gure gezen ituan geneukalarik kanoak trabeska ipintzeko agindua jaso zen, haien luzera hondartzaren lerroan, alegia. Horrela. Eta adarrak joko zutenean geziak samaldaka jaurtitzeko galegoen eta zaldien aurka. Jaso ikaragarria egin genuen, arraunlariek ere jaurtitzen baitzituzten, eta handik gutxira bertoko galego guztiek korrika alde egin zuten, hildakoek eta zaurituek izan ezik, zeinek ematen zuten arantzurde batek ukitu zituela, esana gera bedi konparazioko figura gisa.

Orduan hondartzara jaitsi eta eurak alde eginak ziren, Murosen atzeko aldean dauden mendi batzuen gora joanak baitziren, zeinak handi samarrak diren handiegiak izan gabe, eta bertoko galegoen artetik asko zalditan zihoazen, hots kaktzopintli erakoak ziren eta orduan gure Tlakatekak, gure oroitzapen onekoa bera, eta Gure Jaun Handiaren, Mintzo Den Haren familiakoak, izenez Alo, Murosetik, mendian gora, hots hormetan gora, ihes zihoazen bertako galegoei jarraitzeko agindua eman zuen, eta eskura-eskura geneuzkalarik are azakarrago jo zuten, eta gu, Aztlanguok, haien atzetik ahitu gabe. Jazarri egiten genituen mendian gora zihoazela, hots beste mendi bat, herrialdean ugari baitaude, eta gureak bezain ongi eginak, harkaitz, harri, aldapa, ageri diren laharak eta belarrak, dena lurreko mendi naturalez beteta. Tontorrean edo hobe esanda mendi baten tontorrean, erpina zelaia zen. Galegoak korrika zihoazen zelaitik, eta

gu haien atzetik, eta ia harrapaturik geneuzkala beren zaldiak bat-batean gelditurik, zeinak azkar geratu eta bizi-bizi biratzen baitira, aztekei begira ipini eta gainera oldartu zitzaizkigun eta, egiaren ohoretan, Kainaberadi eta Palmadiko Opotonek esango du aipatutako zaldi haiek sekulako triskantza egin zutela Aztlango jendearen artean. Abere astunak eta intentzio gaiztokoak baitira, eta errukirik gabe zapaltzen dituzte gerlari aztekak eta, haiek, kaktzopintleek, min emateko lantza luzeak daramatzate, gureak bezain luzeak edo behar bada ez hainbeste, baina oso zorrotzak, kalte egiteko zizta haiek zilarrez eginak, edo euren egosketaz, izenez altzairua, zeinarekin egiten dituzten euren ezpatak, zaurigarri eta hilgarriak haiek ere, eta bertan errematatzen dute zaldien erasoz erortzen den jendea, izan ere oinez joango bagina auskalo nola konponduko ziren. Erretiratu egin behar izan genuen orduan, gauza itsusi popoloka dena, eta bertan utzi behar izan genituen Aztlango hogeika gerlari batzuk, ondo hilak, lastima ematen zutenak, jende paganoa borrokatuz eroriak baitziren eta ez genekien hala ere Zerurantz joanak ote ziren, Aztlan Zaharreko zerua baikeneukan goian, gurea ez dena. Agian hiruzpalau aldiz hogeia hildako, zaurituak gurekin etorri baitziren eta gure apaizek ondo asko zaindu zituzten zeramatzaen edabeez, ondo doazen lurreko edabeez, eta historia hau gehiegi ez luzatzearen paperean ipintzen ez ditudanak eurak, aski irauten baitu jadanik.

Gure Tlakatekak ulertu zuen jende galegoaren, kaktzopintlien, ihes-egite hura gerrako amarrua zela edo, beste era batera esanda, guri ipinitako iruzurra izan zela, izan ere zelaia den mendi-tontorreraino jarraiarazi egin baitziguten zaldientzako lekua egin eta trostan jarriz gu desegiteko, horixe egin zutelarik, eta Aztlango hainbat gerlari hil zituzten, eta Murosekoek ikusi zuten hil egiten zirela eta, beraz, agian ez ginela Sant Iago, eta horixe izan zen txarrena, geroago, beste herri batzuetakoek oster sinistu zuten arren, aurrerago esana izango denez Koatlikue onak ez badit arnasa kentzen.

Mendi-zerratik eta magaletik zaldiek ez dute hainbeste balio, toki asko behar izaten duen jendea baita kanoek bezala abiadura hartzeko, zeinak lehen sei-zazpi arraun-kolperen ondoren bakarrik hasten baitira benetan abiadura hartzen, edo agian gehiago ere bai Opoton Itsasoari buruz mintzo denean. Horregatik eramán gintuzten tontorreraino, hura zabala baita eta eurek bazekiten, bertokoak direlako eta han nahierara oldartu eta hainbeste kalte egin ahal izan ziguten, non ni-neu ere Kainaberadi eta Palmadiko Opoton, zaurituta izan nintzen, zulo handia egin baitzidaten hankan, goiko aldean eta gutxigatik ez ninduten betiko kaltetu eta maxtlatlek estaltzen duen guztia altzairuzko ezpatarekin desegin, ernaltzeko gauzak alegia, baina berehala jarri nintzen ondo hurrengo egunean han bainintzen berriro.

Azken buru ilundua zelarik, kanoen gainean batu ginen eta zaurituak sendatuak izan ziren, esan beharra baitago ez zitzaigula era guztietako edozelango sendagairik falta, eta Aztlangoek bagenuen jendea haiek guri ipini eta emateko, batzuk ipintzekoak eta bestetzuk ematekoak baitziren, barkamenez esana izan bedi.

Kaktzopintli bat oldartu zen nire aurka ezpatarekin eta ebaki ederra egin zidan hankan, izterrondotik oso gertu, gaiztotuta baitzegoen erabat, Opoton onaren aurka basakeriaz beteta.

Eta nik ez nion ezer egin eta ikusi ere sekula ikusi gabea neukan, beraz benetan nahiko nuke harengandik jakin zer zeukan nire aurka. Horregatik Tlakateka, Alo eta Oiametl kontseiluan batu ziren eta gauza ona izan zen hiruko batzarra egitea, sekula ez baita ikusi hiru hankako aulki bat erren. Lau dituztenean gertatzen da bat besteak baino laburragoa izatea, eta hortik dator aulkiaren errentasuna. Soilik bi balituzte, argi da biek joko zutela lurra, baina ez luzaroan, luzera erori egingo

baitzen. Gero eta hanka gehiago kendu, gutxiago iraun. Hanka bakarreko aulkia gauza eroa da, begiratu hutsarekin jausten baitira eta horregatixe egin zuten hiruko batzarra, inoiz erren izan ez zedin. Garrantzi handia zeukan zerbait erabaki zuten gero ikusi genuenagatik, baina historia guztia orain azalduko banu erren geratuko nintzateke eta esango zenukete Opotonek bere borroka egin zezakeela aulkiekin. Esango dut ordua iritsita, izan ere gaur esaten badut dena desegingo zait, eta esango da bere unean, aurrerago. Gauzak desitxuratu gabe esan dezakedana da gau hartan ilunpean jaitsi eta zentinela asko ipini genituela eta gerlari-talde bat sokekin joan zela, hura baita azaldu ezin dudana. Atxolli, nire Otompako iloba eta Aitztlí, zilargile laguna, joan zirenetakoak dira, eta galdetu nienean norantz zihoazen ez zekitelako esan zidaten eta jakin zutenean ez ziren itzuli, beraz enteratu gabe geratu nintzen. Beranduago osterara ikusi nituenean, haiek bezain ongi nekien nik ere, eta ez nien berriro galdetu. Bihar edo etzi zelarik, biharamunean alegia, osterara itzuli ziren bertako galegoak hondartzara, bakoitza bere zaldiaren gainean, eta gure geziak jaurtitzen hasi ginen haien aurka. Orduan, gezi-jasa trinkoa zelarik, aurrekoan bezala erretiratu ziren, hau da aurreko egunean bezala, atzo esan dezagun, eta kanoetatik jaitsi eta jarraitu egin genien, Aztlango jendea ergela eta iruzur bat sumatzeko ezgauza balitz bezala, komeni zitzaigulako galegoek sinistea, aurrerago jakin genuenagatik.

Ostera mendian gora igo ziren Aztlango jende aztekarengandik ihesi bezala eta Opotonek esan behar du bera ere erratu zela, uste izanik Aztlango jendea ergela zela. Nik uste nuen, gora iritsirik, bertan dagoen zela batera, gure aurka oldartuko zirela bat-batean jira eginez, zauritu eta hilko gintuztela eta agian hanka batean zaurituko ninduten berriro, oraindik sendatu gabea zelarik erren bainebilen pixka bat. Hori dena pentsatu nuen. Baina nik ez nekien aurreko gauaz geroztik gure Tlakatekak gure jendea posizionatuta zeukala arbola artean, ondo ezkutatuta zela dagoen tokian, eta zaldia iritsirik gure jendeak ondo tenkaturiko sokak tiratu eta zaldiek estropezu egin zutela, hura gerlako amarrua baitzen, zozoak ginela sinetsarazi eta engainatzen duena engainatu bihurtuz, eta zaldia eta gainean zeramatzen kaktzopintleak jausi egin ziren, eta orduan unea baliatu genuen azkar-azkar garbitzeko. Zaldia eta bertoko galegoak, lurrera erorita ez baitute ezertarako balio. Eta bizirik geratu zirenak ondo lotuta lotu genituen zaldia erorrazteko soka berberekin, orain esan ahal baitut zertarako ziren soka haiek, Atxolli eta Aitztlí tiratzeko arduradunak izan ziren, gau osoa zuhaitz eta sastraken artean ezkutaturik, tigreen antzera zaratarik atera gabe, soka-mutur bat motzondo batean lotu eta beste muturrari eutsiz, zaldia galegoz beteta pasako zirenean sendo tenkatuz.

Eta zeregina garbia gertatu zen, oso garbia, etoi izateagatik ondo zetorkiena, izan ere non ikusi da gerra amarruen bitartez egitea, galdera bezala gera bedi, jende populok eta balio gutxikoen artean ez bada. Jende gaizto hauei, eurek ulertzen dituzten hitzekin, ekintzekin alegia, baizik ezin zaie erantzun. Gero galdetuko diot nire Xalkoko lehengusuari soka eta zaldien kontu hau dena ondo ulertu ote den.

Muroseko Etxe Handian banatu ziren atxilotuak, bertoko kaktzopintleak alegia, eta gutako askori bana egokitu zitzaigun. Portaera ona izan genuen guztioi bana egokitu zitzaigun. Eta batek zauri bat bazeukan hanka batean, horrek esan nahi zuen zegokion bezala jokatu zuela Gure Jaun Handiaren eta gure Jainkoen zerbitzuan, nahiz eta gutxi falta izan betiko kaltetuta gertatzeko. Nire atxilotua, Kainaberadi eta Palmadiko Opoton Buztingilearen esklabua zena, Estebandasilva izeneko bat zen, eta esklabu bezala hartu nuen, eta esan beharra daukat, egia ohoretan, askotan ez nekiela zer egin harekin, sekula ez bainuen halakorik izan. Aurrerago, ohitu egin nintzen, ez erabat ordea, eta sekula ez nintzen harekin haserretu, aurrerago azalduko denez, hobe baita gauza batzuk unea iritsita

azaltzea, soken kontuarekin egin berri dudanez. Askotan desiratu nuen Estebandasilva texkatlera etzatera joatea, baina debekatuta zegoen. Gutako askori berdin gertatu zitzaigun gure bertoko galego esklabuekin. Denok ikusiak daukazue hil ez baino kalte handia egiten duten inurri potolo eta pozoitsuak. Bada gauza berbera gertatzen zitzaigun bertoko esklabu galegoekin, kaktzopintli erakoak eurak, hau da izan genituenean, eta Aitztlirena nirea baino ilehoriagoa zen, baina bertoko galegoa zen baita ere, Zirino izenekoa. Atxollirena bera baino askoz handiagoa zen eta zaldizko kaktzopintlia zen, Donato zuen izena ordea. Jende galegoaren izen guztiak antzekoak dira: ez dute deus esan nahi, izenak besterik ez dira. Argi dago orain jarriko banintz esklabuen izen guztiak eta norenak diren esaten, eguna egingo zitzaigula. Eta gure Aztlan Berriko egonaldian izandako gorabeherak azaltzera etorri naizenez, eta ez esklabu galegoen izenak, nahiago dut pasatzen uztea eta bihar-etzi ondo banago berriro idazten jarriko naiz. Gaur nekatuta nago eta zahar-eztula daukat, diogunez.

BEDERETZIGARREN ATALA

Vilanovadalosa, guretzat lauhtepek Berria, deituriko hirirantz itzuli behar izan genuen, Muros oroitzapen txarrekoa baino leku erosoagoa baitzen. Muroseko herria, aipatutako oroitzapen txarrekoa, Xikomamitlan⁸⁴ bezala erregistratuta geratu zen gure mapetan, huraxe baitzirudien. Eta hain pozik gindoazen, ia ez ginen kanoetan sartzen. Kuauhtxitxik izeneko zurgin batek eraiki zituen eta gerrariak garraiatzeko egin ere, eta ez gerrariak eta atxilotuak, horixe baitzen Muroseko borrokaren ondoren zihoan jendea. Nik, Kainaberadi eta Palmadiko Opotonek, Estebandasilva izeneko esklabu bat neukan eta ondo irabazita neukan gerra-merituz, hala ere buruhausteak ematen zizkidan erruz, eta askotan, errespetu osoz, galdetu nion nire buruari gerra-merituekiko sari zuzena ote zen esklabu hura. Aztlango beste gerrari askok ere esklabuak lortu zituzten, nahiz eta ez ziren Estebandasilva izenez, hori nirearen izena baitzen, eta Murosetik irtetean, izenez Xikomamitlan esana, horixe baitzen, kanoek bi bidaia egin behar izan zituzten Sususen Badia deitutakora.

Esklabuak Aztlango jendearen aurka jazarri ez zitezen bi bidaiatan banatu ziren, baita Aztlango euren nagusiak ere, gu esateko modua baita.

Murosetik munduko ezker aldera jaisten bada, eta Hegoaldera idatziko dut gaur egungo ipurdi-garbitzaileei iskin egiteko, egun osoko ibilaldia dago Vilanovadalosara Arrazoi horrengatik kanpatu genuen Muroseko hondartzan, hondartza lasaia delako bertoko galekoak ez daudenean, kanoak joan-etorrian zebiltzan bitartean. Aztlan Zaharreko Galeziako bertoko galegoak, Murosekoak alegia, ez ziren asko hurbildu eta Moiotlek egiten zuen tlakatekarena, Xotximilko kanoaren kapitainak, zeina Murosen geratu zen badaezpada ere, izan ere gerratan erne ibili beharra dago, eta kontua ez da bat-batean kanoarik gabe geratzea. Xikonamitlangoko etxeetan gordeta zegoen leihar guztia jaso genuen eta Moiotlek, orduan Ahotsa zenak, agindu zuen esklabuek guri laguntzea, eta gelditu gabe egiten genituen bidaiak, inurriek bezala, leiharra garraiatuz eta erreskatatuz. Nire Estebanek errieta egiten zidan uneoro eta leiharrezko gauzak otarren barruan behar bezala, bere ordena naturalean, jartzen ez nituela iruditzen zitzaionean, esaten zidan:

—Aixéitate⁸⁵.

Hainbestetan esan ohi zidan ezen nire kideetatik askok Aixéitate jauna deitzen zidaten eta, denei barre eginarazten bazien, niri ez zidan batere graziairik egiten, egokitu zitzaidan esklabu-klasea gogorarazten baitzidan. Opoton hain tematuta zebilelarik leiharra jasotzen ez zen konturatzen bere Estebanek nahi zuen guztia harrapatzen zuela Muros-Xikonamitlango etxeetatik. Patrikak idunekoz eta lurraldeko beste hainbat gauzez beteta zeramatzan, eta aipatutako patrikak poltsa moduko batzuk dira arropari itsatsita doazenak, eta barregarriak gertatzen dira. Ohartu nintzenean, lapurtu egin zituela eta lapur bat zela esan nion, eta soilik guk, Aztlangook, geneukala gauzak jasotzeko eskubidea, eta ez eurek, bertoko galego atxilotuek, nahi beste kaktzopintle izan arren.

Gustura baino gehiago indarrez Moiotlen aurrera eramanez nuen eta esan nion Tlakatekari Esteban lapurra egokitu zitzaidala eta ea zer egiten genuen. Estebanek

⁸⁴ Itzulpenik gabeko hitz-jokoa da, infernuaren ideia ematen du.

⁸⁵ *Bizkor*, galegoz.

aldromena, aldromena, aldromena⁸⁶ besterik ez zuen esaten eta aldromenatik ez zegoen ateratzerik. Eta ziurtatzen zuen idunekoez bazituela denantes, hori baita Aztlan Zaharreko jende galego bertokoek lehenago esateko modua, eta gezur hutsa edo aldromena zen, horrela ere esan baitaiteke, bertako galegoek eramaten ez dituztelako: eraman, lurraldeko Sususek eramaten dituzte ipinita, guk, Aztlangook, egiten dugun ez bezala. Hots, toki batean gizonak eta beste toki batean emakumezkoek. Aztlango gizonak eta Galeziako emakumezkoek, hobeto esanda. Eta Moiotlek esan zion, berriro lapurtzen bazuen zigortu egingo zuela, eta Dona Ximenak berak haren hizkuntzan errepikatu zion, ezjakinarena egin ez zezan, eta idunekoez Opotoni eman zizkieten eta nik gorde egin nituen egunen batean denbora banuen nire emazteari, izenez Utzkilitl, erakusteko, fidakaitza izanik oso kapaza baitzen imajinatze sekula ez nintzela Aztlan Zaharrera joan eta dena nire asmakizuna zela, eta aipatutako idunekoez, beraz, frogatzen zake. A propos sekula ez dut jakin nora joan ziren aipatutako iduneko haiek, berehala galdu baintuen, eta orain idazten ari naizelarik pentsatzen dut behar bada Estebandasilvak hartuko zizkidala, izaeraz lapurtzuloa baitzen, eta egun batzuk geroago beste antzeko batzuk ekartzen ikusi bainuen. Texkata eta hueiolotla jan izan banu bezalaxe, Klotilderekin bakarrik geratu nintzen lehen egunean ezin izan nuen zakila zutitu, eta uste dut hain zurbil eta kolorez ikusteak egin zidan inpresioagatik izan zela. Aurrerago pasatu egin zitzaidan, naturak baibaitaki zurtasuna eta koloregabatasuna gaitzitzen, baina berak uste osoa zeukan lehen egunean nik texkata eta hueiolotla⁸⁷ janda nengoela. Baina, jakina, soilik lau gezi bota ahal zaizkio tigrearri, esanak dioenez.

Azkenean Aitztlak eta nik lasai mintzatu ahal izan ginen eta oso pozik zegoen Erromesaldiaren Errege izendatu nindutelako, eta asko ezagutzen nuen badakit ez zegoela amiñi bat inbidia haren hitzetan. Esan zidan bera ere asko korritua zela baina ez ni bezainbeste. Jasotzeko besterik ez zegoenean, hondar gainean etzan, hondartza ez baitzegon urez beteta, eta atsedean hartu genuen han ipinita zeuden zuhaitz batzuen azpian, jan eta bertako oktli pixka bat edan genuen, haiek, Murosen, alegia horretan, asko baitzeukaten. Eta ez genuen uste zeukatenik, izan ere saskietan gordetzen baitute eta, jakina, saski bat ezin da oktli edo beste zerbait likidoz bete, zuloetatik alde egiten baitu. Baina haien saskiak ezberdinak dira, palleiro deituak, eta han oktli ipini daiteke, ura ere bai, edo beste likidoren bat, eta ez da erortzen. Palleiro bat gordetzea gustatuko zitzaidakeen, nola eginga zegoen lasaia ikusteagatik, eta broma ederra egin ahalko nien Aztlan Zaharrera joan ez ziren nire Aztlango adiskideei, baina neukana galdu nuen eta ez dit min gehiegi ematen, kanoen barruan ez baitzegoen jada lekuri eta auskalo zer esango zuten gure Kapitainek palleiroz betetzen hasten baginen, diot nik.

Aitztlaren bertoko galegoak Zirino zuen izena, zeinak atzerritarren hizkuntzan si eta no⁸⁸ esan nahi baitu, eta barrea ekartzen du. Zeren behingoz zerbait esan nahi zuen izena aurkitu orduko, txorakeria zela ohartu ginen. Zirino hura ilehoria zen, nire Esteban baino ilehoriagoa, baina ez hura bezainbeste gezurtero eta lapurra, eta ez zizkion hainbeste buruhauste ematen. Denak maxtlatlez eta tilmaliz jantzita geneuzkan, baina ez maxtlatl gorri gureak bezala, baizik zuriz, zama Tenotxitlanetik Totxpanera –lur beroa huraxe– garraiatzen lagundu ziguten haiena bezalakoz, lehen begi-kolpez bereizi ahal izateko, eta gauza inozo askoa zen, zeren haien haragiaren kolorea oso diferentea baita eta berdin adatsak eta

⁸⁶ *Aldrómena* hitzak antz fonetiko andia dauka nahuatleko hitz batekin, eta Opotonek sotilki jotzen du horrekin.

⁸⁷ Argi dago: Klotilde honek ezin zuen besterik pentsatu izan.

⁸⁸ Gaztelaniaz, jatorrizko testuan.

bizarra ez mozteko modua, eta baita begien kolorea ere. Baina hala erabakita izan zen eta kitto, ez baita gure Buruzagiek erabakitakoa kritikatzeko unea, are gutxiago hainbeste Azao igaro direnean eta erremediorik ez dagoenean.

Eta Aitztliren Zirino hark agindutako guztia egiten zuen, onartu zuelarik bere aita natural beneratua zela, gerrako legediaz, eta ez zen bihurri eta iruzurtia nire Esteban bezala, Xipe-Totekek nahas dezala. Horretaz guztiaz mintzatu ginen Aitzli eta biok Muroseko hondartzatik gertu dauzkaten zuhaitz batzuen gerizpean etzanda geundelarik, eta nik esan nion, bi-biok Aztlan Zaharrean izanik, eta hain luzarotik adiskide izanda, hobe litzakeela gure elkarrizketak modu egokian erabiliko bagenitu uneoro liskartu eta berak beti nire kontra ibili ordez, eta ados egon zen eta eguna bukaturik Muroseko hondartzan, egokiro Xikonamitlin deituan, sekula baino adiskideago bilakatu ginen, hots, inoiz baino adiskideago ginela.

Aitztli, ofizioz zilargile zen nire laguna zena, oso pozik zegoen Aztlan Zaharrera etorri eta Zirino deituriko esklabu bat edukitzeaz, baina probetxu eta garaipen gehiago nahi zituen, Opotonek, berriz, hari entzun arren aiamo kuautlatlatstsa pentsatzen zuen, baina esan zion pazientzia izateko, dena iritsiko zela eta Aztlan Zaharrean gure zereginak abiatu itxarotekoa zela Ketzalkoatl aurkitzea eta, handik aurrera, are hobeto joango zela dena. Nire hitzek bihotza zuri jarri zioten eta nirea ere halaxe zegoen, zuri. Estebanek esan zidan leiharrek jaso ordez hobe zela xugada de bois bat eskuratzea, eta nik ez nekielarik zer zen, nire paretik kentzearren, baietz esan nion, eta hark, agintzen duen bere nagusiaren ahotsa bezala ulertu zuen, eta handik gutxira abere-pare erraldoi eta lazgarritz itzuli zen, esne gaztagileko behien familiakoak eurak, eta soilik ikusirik arnasa galdu nuen, hura nirea zela pentsatuz. Zeren Maiotlek ikusi izan banindu xugada de boisekin kanoara igotzen, ziur nago ni txikitzeke aginduko zuela. Aitztlik uste zuen Huitzilopotxtiliri sakrifikatu behar zirela abere haiek bertoko jende galegoaren, kaktzopintlien, aurka geneukan gerran laguntza lortzeko. Xugadei gizonezkoen pilotak kentzen dizkiete, eta gure zakurrak bezala gizentzen dira eta orduan bihurtzen dira xugada de bois, ordura arte behi gaztagileak estaltzen dituztenak baitira, behiak estaltzeko beren punta zorrotzarekin. Orduan, biharamuna zelarik, lasai asko iritsi ziren bost kanoak, eta denak ontziratu ginen, haietara igo ginela esateko beste modu bat baita.

Bertoko galego atzeritarrek, Itsasoko gauzak aski ongi ezagutzen dituztenek, miresmenez begiratzen zituzten gure kanoak, eta ez zuten disimulatzen euren ezustea, handia baitzen. Eta ezin zuten onartu gure kanoak handiagoak zirela barrutik kanpotik baino, eta denak igoarazi genituen, nire Esteban, Aitztliren Zirino, Atxolliren Donato eta beste galego guztiak, eta gogotik eragin zituzten arraunak, ondo baitakite eta izatez sendoak baitira. Lau aldiz hogei urte ditudan arren, oraindik gogoan ditudan bertoko galego atxilotu guztien izenak emango ditut orain, eta nabigazio on lasaia egin genuen eta mendietan piztuta zeuden suteek Sususen Badiaraino eta Vilanovadalosa, hau da antz handia zeukalako lauhtepek Berria deiturikorako bidea erakusten ziguten. Badiaren sarreran dauden irlak hauexek dira: Lonjo, Salvora eta Darosa, eta ezer esan nahi ez duten izenak dira, eta hala ere piztuta zeuzkaten suteak.

Vilanovadalosan alaitasun handia izan zen Aztlangoak eta Aztlan Zaharreko bertoko galegoak berriro elkartuta ikusi gintuztenean. Kalpixki atzeritarrek Murosetik atxilo geneuzkan galegoak askatzea nahi zuen, baina Dona Ximenak, hitz on-onekin, jakinarazi zien gaiztoak izan zirela eta horixe zela haien zigorra. Orduan galdetu zuen gutako zein zen Sant Iago, eta begi-ertzez begiratzen zion gure Ketzalkoatl-Totek-Tlamakazkiri, segur aski hura zelakoan, edo behar bada haren antza zeukalako.

Baina gutako inor ez zenez aipatutako Sant Iago, esan genien erakutsiko geniola aurrerago, eta kalpixki tanokak sinistu egin zuen. Tlakatekak Vilanovadalosako hondartza handian denok batzeko agindu zuen, eta Opotonek denok dioenean Aztlango jendea eta bertoko galego atxilotuak esan nahi du, hitz egin nahi zigula-eta. Lurrean eseri ginen, gure erara, pozgarria baitzen ikustea Ketzalkoatl-en bila gindoazenak hainbeste izatea, zeren Aztlango gerrari batzuk galdu genituen arren, orain geneuzkan galegoak gehiago ziren, Ketzalkoatl bilatu nahi zuen jende-multzo handiagoa. Gure Ketzalkoatl-en ohoretako piramide txikiaren aurrean zortzi ikpalli zeuden ilaran eta orain esango dudana ordena honetan eserita, eskubitik ezkerrera: Papalomitxim, Nakxitzl, Moiotl, gure Ketzalkoatl-Totek-Tlamakazki, Tlakateka, Dona Ximena, Alo eta Oiametl, zortzi alegia, uste dut denak aipatu ditudala. Orduan Ketzalkoatl-Totek-Tlamakazki Dona Ximenaren hizkuntzan hitz egin zien, eta hitz egin ziela diot bere hitzak gehiago zeudelako bertoko galegoengana bideratuak guregana baino, dena bi aldiz ulertzen baikenuen, aldiz galegoek soilik behin, bigarrenetan. Nire lehengusuak badio ez dela ulertzen, beti egiten duen lez, bada idatz dezala berak. Irakurtzen diodan guztiaz trufatzen da, Xalkon hain ondo idatziko balute bezala.

Bederatzigarren hilabetea, Tlatsotximako delakoan, gertatu zitzaigun guztia idatzi behar dut orain. Jadanik bertan sartuak geunden, Huitzilopoktli onaren festarako bi egun geratzen zirenean⁸⁹. Egun hartan oso goiz altxatu nintzen, argitu baino lehen, eta Aitztliren etxean sartu nintzen, ofizioz zilargile zen laguna izanik bera, eta buila handia zegoen ordurakoa. Xilotlek eta [bere amak], Aitztliren amaginarrebak alegia, horrela esan behar baita, amaginarreba, prestatuta zeuzkaten jateko paketeak, eta zeregin hori, huskeria ematen duena [gau osoan] erne mantendu zituen, gau oso bat jateko gauzak prestatzen, instant batean desagertzen direnak eta, aldiz, egosten gau oso bat kentzen dizutenak. Aitztliren etxe osoa zurituta zegoen, molliren⁹⁰ usainez betea, egun hartan denak irteten baikinena Uei Teokallirako lore bila⁹¹, eta irteerak berriketari eta bromazale bihurtzen gintuen. Poza burutik beherakoak bezain kutsakorra da, izan ere batzuek doministiku egiten dutenean beste guztiak gauza bera egiten hasten dira, lehenago iristeko norgehiagokan baleude bezala. Behin egokitu zitzaidan doministiku baten erruz gerta daitekeen gauza pila konprobatzea eta, pena merezi duenez, azalduko dut aurrerago. Uste dut ezetz. Uste dut azaldu dudala. Nik esango nuke alegia.

⁸⁹ Pasarte honek ez dauka zerikusirik kronistak esaten ari zenarekin. Askoz lehenagoko hilabete bateko pasarte bati dagokio.

⁹⁰ Txokolatearen (produktu mexikarra bera) gustu gozoa zabaltzen duen saltsa, espezie ugarirekin, batik bat espezie minekin, oso ondua.

⁹¹ Tenplu handia (*Uei*, handia; *teo*, jainkoa; *kalli*, etxea).

HAMARGARREN ATALA

Beraz, gure Ketzalkoalt-Totek-Tlamakazki, Aztlan Zaharrera eramán genuen apaizik gorenena, gure Jainkoari eta fedeari buruz mintzatu zitzaien, jende galego idolatrak ulertu ahal zezan. Eta orain nik, Kainaberadi eta Palmadiko Opotonek, haren hitzak azaltzea lortzen badu badut banu, dena delakoa, gauza handia litzateke. Edozein moduz hasieran Tlakateka mintzatu zitzaien, eta ez zen gauza erraza Ketzalkoatlén fedean abiaraztea, izan ere hura bere sinismenetan itxita geratu eta beste zerbaitez hitz egiten duen jendearen ahotsik entzun nahi ez duen jende temosoa baitzen.

Tlakatekak esan zien ez genuela hartutako ezein preso sakrifikatuko, ez eta aurrerantzean Aztlan Zaharrean egingo genuen beste inor, ez orduan ez sekula, hau da ez orain ez inoiz, gure Jainko Huitzilipotxtliren agindua baitzen lurralde urrunetako barbaroak ez sakrifikatzea eta, horregatik, texkatlik ere ez generamala, bat edo beharko genituenak egitea hain erraza izanagatik, harri oneko lurraldea baita hura, eta lantzeko jende prestua ere baibaigenuen harriak landu eta leuntzeko, behar den bezala lautuz.

Eta orduan hitz egin zien Ketzalkoatl-Totek-Tlamakazkik, eta bere ahots ederrarekin, oso ederra baitzeukan ahotsa, esan zien bera zela haren haragitzea eta aldi beran Jainkoaren apaiza, eta Ketzalkoatl zela gizateriaren ongile betikoa eta Bere odolarekin Gizona egin ondoren elikatzeke modua bilatu zuela, eta inurriek artoa lur azpian ezkutatuta zeukatelarik Bera inurri bihurtu, habian sartu, artoa hartu eta gizonei eman ziela ereiteko, eta oraingoz txukun geratzen ari zait. Harria eta jadea zizelkatu eta leuntzeko artea erakutsi zien, eta kolore anitzeko, hots ezberdineko, ehunak ehuntzen, quetzalen eta beste hegazti distiratsuen lumekin mosaikoak egiten, Aztlan Zaharrean baino askoz hegazti gehiago baitauzkagu. Baina hori ez ezik zientzia erakutsi zion Gizonari eta denbora nola neurtzen den, izarrak nola egiten duten bira Zeruan zehar, lurra borobila zela ulertarazi zien, hots, Eguzkia, Ilargia eta izar guztiak, egutegia erakutsi zien eta nola hori dena amatl paperezko edo animalien larru lehor eta onduko orrietan jartzen den, ondoren datozenek ulertu eta gogora dezaten. Esan zien, beraz, nola Ketzalkoatl barruan daramagun bizitza osoaren zentroa zela, eta Tallango errege, hots tolteken lurraldeko Jaun Handia, eta tamaina handiko arimaren Gizona zela, hau da, arima handikoa, eta Bera predikatzen ari zen dotrina apaltasunekoa zela eta denak aratz izatea nahi zuela. Gero azaldu zien Gure Jainkoa Eguzkia zela eta gizonei zegokiela hura elikatzea, soilik gizonen bihotzak jaten zituela⁹². Hauekin eta Opotonek paperean ipintzen ez dakien beste arrazoi batzuekin, Ketzalkoatl-Totek-Tlamakazkik ulertarazi zien zein ederra zen Aztlango jendearentzat sakrifikatuta hiltzea, ezer ez baita Jainkoaren bazka izatearen parekoa. Aztlan Zaharreko Galeziako bertoko galegoek ondo entzuten zioten, baina Opotonek badaki horren eta ondo ulertzen zutela esatearen aldean tarte handia dagoela. Nik nire galego Estebani begiratu eta banekien ez zuela zipitzik ulertzen apaizak esaten ari zenetik, eta ezulertuarena egiten zuen begiekin harat-honat, Ketzalkoatl-Totek-Tlamakazkiren hitzetatik gutxienez ehun legoatara. Esan zien baita ere Gure Jaun Handia, Mintzo Den Hura, lurreko jaun gorena zela, harengan mamitzen baitziren Eguzkia eta Aztlan aldi berean, eta haren boterea neurririk gabea zela eta gure lurrak Galezia edo hogeitaz Galezia batera baino infinituki

⁹² Hau, Ketzalkoatlén kultuaren interpretazio azteketako bat da.

handiagoak zirela, eta bertoko galego guztiak mirestuta zeuden⁹³. Orduan denak batera mazehualiztli egitea agindu zuen Tlakatekak, eta galego guztiak fede onez hasi ziren, eta hasieran asko kostatzen zitzairen gure pausoa eramatea, baina gero hobeto egin zuten, dantza-kontuetan jende trebea baita.

Aurrerago martxan abiatu ginen baina kanoarik gabe, hots, modu ulergarriagoan esateko, oinez. Bidea egiteko era ona zen, bertoko galegoak zenbatuz talde ederra egiten baikenuen. Bertoko galego bakoitza bere txumalli eta arkuarekin zihoan, eta Aztlango bakoitzak bere esklabua jagoten zuen, katzopintli erakoa izan zein ez, eta gainera, gure armadako karga guztia gurdietan generaman, egiteko tresna erraza baitzen pixka bat pentsatuz gero: gauza laua da, eskudelekin, eta beheko aldean gurpilak eta aurrean zaldia dauzka, beraz aipatutako zaldi hark dena garraiatzen du eta aztekak atsedenean ibili ohi dira. Aurrean, zaldiaren orde, xugada bat ere ipini daiteke, baina mantsoago ibili ohi da. Gora gezi-mordoak, arkuak, txarroak eta janariak igotzen dira eta dena aurrera doa zaldiaren eraginez. Kanoak ondo lotuta utzi genituen Vilanovadalosako hondartzan, bertoko galegoek kanoak uzteko eginda zeukaten leku batean, eta oso egokia zen.

Eurek bereak lotzen dituzte han, gureak ez bezalakoak baitira, eta ezin dira nahastu. Han dagoen ibaia Ulla da, batere esanahirik gabeko izena bera, eta hasieran, hau da, bukaeran, lurralde beroko Pantepek bezain handia da, edo gehiago, baina geroago asko estutzen da. Ibaian gora doanak topatzen duen lehen herria Villagarcía deritzana da eta ondo hartu gintuzten, Sant Iago, Sant Iago oihukatuz, han egiten den eran. Beste herria Cadil da, eta hark ere ez du ezer esan nahi, baina ez zeuden han, bertan zeuden itxurak egin arren. Hobeto azaltzen ez badut ezin izango dut aurrera egin. Hormaz inguratutako herri bat da eta egokiagoa zatekeen Cadil orde, Muros deitzea, baina ez zen horrela, esana baitago bertoko galegoen tema benetako tema dela. Urreratu ahala beren armak destatu zizkiguten, beste era batera zaurigarri eta hilgarri⁹⁴ direnak, eta orduan inguratu egin behar izan genuen setiatzeko. Haien lantzak, altzairuzko puntadunak, hormetatik irteten ikusten ziren eta ilundu zuenean eta ikusirik aurrera joatekotan nahitaez aipatuako Cadildik igaro behar genuela, bestela Ekialdeko bidea ixten zitzaigulako, nola edo hala herrian sartzea erabaki zen. Bigarren aldian hormetan gora gindoazelarik jadanik ez zizkiguten harriak, ur irakina edo haien geziak jaurtitzen, eta hala hormak saltatu eta jada ez zeuden han. Soilik lantzak lurrean iltzatuta utzi zituzten eta, kanpotik ikusita, ematen zuen bertan zeudela. Den-denak, gizon, emazteak eta ume galegoak mendietarantz alde eginak zeuden, eta herri barruan ezertarako balio ez duen zaharren bat besterik ez zuten utzi, ezertan baliatu ezin dituzun horietakoak. Holakoxeak dira bertoko galegoak, ukitu ere ez genituen egin. Soilik lantzak hartu genizkien, eta gero oso baliagarri izan zitzaizkigun. Cadil herrian egin genuen lo, haren izenak ez du ezer esan ahi, baina aldiz etxe bikainak dauzkate, non aterpean lo egiten den, eta benetan behar zen, zeren Aztlan Zaharreko Galezian beti euria egiten baitu eta gauean hotza. Biharamunean Ullan gora abiatu ginen, eta Ullak ulli ematen du, baina jende hark ez du ulli ezagutzen, beraz Ulla esaten dute besterik gabe. Haiena izateko herri polita den batetik pasa ginen, Totxtepetlen antz pixka bat duena baina izenez Torresdeoste dena, eta hark bai esan nahi duela Mendebaldeko dorreak, zuzen esanda. Rianso baino lehen dagoena da, Rianso azkena baita Padron baino lehen. Padron herri handia eta ondo egina da,

⁹³ Eta ni ere banago, galegoa izan gabe. Dona Ximenak egin zuen berbaldi haren itzulpena entzun nahiko nuke.

⁹⁴ Lehen *miqui* esan zuen, hilkor, eta orain *omic*, aldi berean hilgarri eta heriotzaren menpeko. Jakina, arma hiltzaile eta hilgarriak dira aldi berean.

eta orain ondo eta luzaroan hitz egingo dut hari buruz. Bi ibaien artean dago, Ulla eta bestea, del Arzobispo deritzana. Artzapezpikuarena ez da oso handia, nahiz eta Sarela, haren parientea, aski saiatzen den hura handitzen, baina Artzapezpikuarena ere Ullaren parientea da. Padron orain Padron deitzen da, ezer esan nahi ez duen arren, ez diotelarik izena aldatu, eta lehen Iria Flavia zen, are gutxiago esan nahi duena⁹⁵. Antza denez beste Aztlan bateko batzuk joan ziren lehen eta Iria Flavia ipini zioten, haien Fala Galegako hitza, dirudienez. Herri aski handia da, eta pozik egon ginen artoa daukatelako, gurea bezalakoa.

Oso seinale ona izan zen hura eta Aztlango jendea pozik zegoen, baina Opotonek esan beharra dauka garai hartan jada ez ginela gehiegi fidatzen seinaleekin eta gure ogitik jan genuen denek, eta karea ere bazeukatenez pasta egin zen, ona, gure herrikoa bezain ona, egia beti aurretik, gure herriko ogiaren zapore berbera baitzeukan.

Ondo hartu gintuzten Padronen, kalpixkiak eta herriak, eta lastima ona izan zen. Padrongo Sususa galegoak politak baitira, eta gerra-hotsez hartu nahi izan bagintuzte haietako batzuk izango genituzkeen, premia gorrian baikenduen. Baina bake-giroan hartu gintuzten eta ezin izan genituen hartu, gerra antigualeko legeekin egiten baita eta ezin dira desegin nahierara. Herria handia da eta ofizio onak daukate. Buztingile bat ikusi nuen etxe-atarian traste azko zeuzkana, eta haren obradorea kuxkuxeatzera sartu nintzen eta gauza eder askoak ikusi nituen: jakin nuen nola ahal duten beren lapikoak eta kazolak hain borobilak egin. Tornua deitutako gauza bat daukate, orain inor harritzen ez duena, baina lehen gauza berria zena. Bi plater dira, bat handia azpiko aldean eta bestea txikia goiko aldean, eta oinutsik beheko platera birarazten dute, ikpalli batean eseri eta oinak libre baitauzkate, eta beheko platera goikoarekin estekatuta dagoenez, goikoak ere biratzen du, eta ez dakit zein zihoan azkarrena. Goiko plateraren gainean buztin-pilota ipintzen dute oraindik biratzen ez duelarik, eta orduan bi platerak azkar biratzen hasten dira, eta atzamarrekin nahi duten forma ematen diote hain azkar birarazten duen buztin-zatiari. Egiten saiatu nintzen, esan bainion buztिंगileari ni ere banintzela, eta berak Fala Galegako gauzak esan zizkidan, oso ondo ulertu ez nituenak. Berak niri galdezka eta galdezka ziharduelarik, nire buztina erori eta okertu egiten zitzaidan baina galegoa ez zen konturatzen, gure Aztlan nolakoa zen niri galdezka distrahituta, akola esan baino ez baitzuen egiten Mendebaldera begira, nondik gu gentozen, eta ahal nuen bezain ongi, gauza handirik ez, azaldu nion nire nahuatlean, garai hartan ez bainekien aski ongi Fala Galega, eta buztिंगilearen etxean nik ez neukan hitzik⁹⁶. Sant Iagorena agian bi aldiz hogeitan galdetu zidan aipatutako jatorrizko buztिंगile galegoak. Jende ona da Aztlan Zaharreko Galeziako galego jatorrizkoa. Denak ez, jakina. Klotilde eta Esteban gogotik oparituko nituzke.

⁹⁵ Opotonen erudizio hau kronikako gauzarik susmagarriena da.

⁹⁶ Interpretea, alegia.

HAMAIKAGARREN ATALA

Oso adeitsua izan zen Padrongo kalpixki zintzoek egin ziguten harrera; sekula inork ez gintuen hainbat mainatu, inork ez zigun inoiz hain zubi egokiak egin gurutzatzeko⁹⁷. Opotonek ez zuen egirik esango aipatu izango ez balitu kalpixkiak eta alde hartako herri galegoa. Topatuta geneukan Sant Iago ote ginen galderatsaso hartatik nabigatzeko modua. Ez bairik ez ezetzik ez ematean zegoen irtenbidea. Galde egiten zigutenean lurrera begiratu eta ezentzunarena egitean zetzan, eta amarru txiki honi esker, asko maite gintuzten.

Orain, hainbeste urtealdi joan direlarik eta gauza guztiak piramide baten tontorretik bezala ikusten direnean, ondo ulertzen dut zer gertatzen zen azteka teknotxkak, Tenotxitlan Handiko Kainaberadi eta Palmaditik baikentzen, Aztlan Zaharrekoiei bisita egitera joan ginenean. Haiek Sant Iago itxaroten zuten bezalaxe guk Ketzalkoatl. Gorago aipatutako Sant Iagok urtealdi asko atzerago alde egin eta itzuliko zela agindu zien eta gaizkiulertze hark asko lagundu zigun, batek daki zer. Eta, beraz, urte batzuk lehenago lurraldera Sant Iago sartu zen toki beretik lurraldera sartu ginelarik, ona eta handia izanda, uste izan zuten euren artekoak ginela. Horregatik artatu, gozarazi, mainatu, txera egiten ziguten Padrongo bertoko galegoek.

Gure Buruzagiek bide hura aukeratu bazuten Aztlan Zaharreko lurretara sartzeko, ez genuen jadanik behar: aski irekitzen ziguten eurek. Edozein moduz haiek esandako tokirantz mugitu behar genuen, hots aipatutako Sant Iago biderantz, lehenagotik irekia bera, beste askok eginga baitzen⁹⁸. Eta aipatutako bidea ez denez Muros-Xixonamitlandik pasatzen eta gu bai, ulertzen didazue zer esan nahi dudan. Lurra bakean zegoen baina ez dena. Liskar handiak zeuden euren artean, munduko lur guztietan gertatzen ohi denez, ematen baitu gizonok ezin garela sekula gelditi egon. Bertoko galego askorentzat, Aztlangook, olmekak maien lurraldean bezalakoak ginen, edo toltekak bezala, eta uste dut hobeto geratuko dela, toltekak baikinena, asko esatea izanagatik. Itxaroten zaituztela edo ez zaituztela espero, holako zerbait; gerra egiten dizute, eta ez dizute egiten. Kosta egin zait azaltzea, baina uste dut ondo esana geratzen dela. Orain, gauzak zuhaitz baten gailurrera igota bezala ikusten ditudalarik, askoz hobeto ulertzen dut eta gait sentitzen naiz azaltzen joateko. Padronen ere badaukate beren Etxe Handia eta han batzen dira kazikeak eta ez ditutze beste herrietakoak maite, eta beste herrietakoek ere ez besteak, ez denak batera haiek. Askotan hausnartu ditut buztin-gilearen hitzak, esan zidanean: “denantes fuimos ceibes como vos”, eta horrek, Fala Galegan esan nahi du lehen libre zirela gu bezala. Gauza triste da denantes ceibe, libre alegia, izan dena eta orain ez den norbait topatzea. Dona Ximenak azaldu zidanean, aski ulertzen zen. Etxe Handian norbaitek galdetu zigun ea Konpostelarantz ote gindoazen eta horrek ez gintuen asko aztoratu behar izango jabetu izan ez baginen Konpostelak Izarraren Landa esan nahi duela. Herri batean non izenek ezer esan nahi ez duten, lazgarria zen zerbait esan nahi zuen bat topatu eta hark Izarraren Landa esan nahi izatea. Zeren, argi dago, haiek

⁹⁷ Metafora bat da.

⁹⁸ Hemen nahasmendu bat sortzen da, Apostoluak Galizan sartzeko hartu zuen bidearen eta Erromesaldienaren artean. Oraingoz *aztekek* lehenengoari jarraitzen ari dira.

Izarraren Landa bazeukaten guk Izarraren Tontorra geneukan bezala, hura ez zen seinale bat baizik gauza egina. Argi asko zegoen Ketzalkoatl Aztlandik Izarren Tontorretik atera bazen Izarraren Landatik iritsi zela Aztlan Zaharrera. Gure Tlakatekak segituan erantzun zien baietz, tlakatekak talentu handikoak baitira eta zentzumen berezia daukate beste pertsonen aldean, eta horri esker berehala harrapatzen dituzte gauzak eta haien esanahia eta horregatik izendatzen dituzte tlakateka.

Nik pentsatzen nuen, handi egiten zarenean, Opoton, tlakatekek bezain azkar ulertuko dituzu gauzak, baina ez da horrela gertatu. Eta baietza eman orduko dena aldatu zen kolorez, gauzak kolore batekoak baitira, eta beste bat bihurtzen dira esana izan denaren arabera.

Bertoko galego asko ere hara zihoazelarik, gu laguntzeko prestatu ziren. Toki askotako jendea zihoan. Eta Sususa zahar batzuk kolore zuriko maxtlatla egiten hasi ziren eta lurreko oiloen lumak ateratzen zituzten, zeinak ez diren hain ikusgarriak, baina aski ondo zeuden galegoentzat baitziren, eta luma-gandorrak egin eta eskutuak hornitzen zituzten eta galegoetako asko gu bezala jantzi ziren eta, orduan, asko ginen Ketzalkoatlén bila gindoazenak. Gutako inork ez zituen kontuak atera, eta horrek Opotoni galarazten dio ginen jendearen kopuru zehatza ematea eta, beraz, ezin dut esan zenbat, soilik asko. Edo asko-asko, horrek egiaren kolore gehiago baitauka oraindik. Hori esan gabe, kuallanca in noiol⁹⁹, eta ez dut atsegin. Nik uste ostera ceibe izateko gogoa zeukatela eta gutaz fidatzen ziren. Pentsatuko zuten Aztlango indarretara gehitzen baziren ostera lortuko zutela eta dioguna da, gero eta handiagoa zuhaitza, hainbat hobeabaroa. Hori atsotitz bat da eta paperean ipinita geratzen da konparazio-figura balitz bezala.

Galeziako jaun guztiak kanpoan zeuden eta Altamira izeneko kalpixki zahar bat baino ez zuten utzi, eta bertan geratzen zen lagun bakarra zen. Beste guztiak Etxe Handira deituak izan ziren, baina denetan handiena, non haien Mintzo Den Hura zegoen Mintzo Den Anderearekin batera, eta haren izena Tantomontamontatanto zen, eta oso oker ez banago emaztearena ere bai.

Altamirak geratu behar izan zuen gantzan itota zebilelako; hain zen potoloa, ezin zen mugitu, ez gorputz-atalak erabili, bat ere ez, gizentasunak elbarri baitzeukan. Hori dela eta bakarrik utzi zuten Galezian, Ahotsarena egiten, eta konde esaten zioten, horrela deitzen baitituzte Ahotsa direnak. Ahotsari konde esaten diote eta Altamirako kondea zen bera, aski gogoratzen naiz horretaz, potolotxo baitzen, sekula ezagutu ez nuen arren, geroago esango denez. Baina entzun nuen ezen gutako kapitain batzuek, Alok eta Oiametlek, esaten zutela oso pertsona ona zela, eta tamala bertan gerarazi zuen gizentasunagatik.

Padrondik irtenda, Aztlango armadak bazuen armada-itxura, nahiz eta lehen egunetan ez zen erraza bertoko galegoak gure urrats eta ordenara egokitzea¹⁰⁰. Gure Esteban beti muturtuta zebilen, berak Padron, herri aberatsa izanik, erreskatatzea nahi baitzuen, baina ez genuen egin bakezko herria zelako eta hango jendea gure laguna. Estimatu handitan gintuen jendea zen, eta Sant lagoren aitzakiarekin Ketzalkoatl bilatzera laguntzen ziguten, baina Esteban izatez ergela zen eta nola edo hala erreskatatzea nahi zuen, nahiz eta bera nire esklabua baino ez zen. Galeziako lurra ondo populatuta dago, eta etxeak obrakoak eta ondo eginak dira. Siloak eraikitzeke estiloa kopia digute, baina eurek bertan bizitzeko egiten dituzte artoa gordetzeko egin beharrean, eta canastros esaten diete, euren hitz galegoa izanik. Eskailera batetik igotzen dira haietara, eta esango zenukete

⁹⁹ “Nire bihotza behartzen dut”.

¹⁰⁰ Ez dut uste galegoak ordena konpultsibo hartara egokitu zirenik. Haien presentzia azteken artean soilik halako irteera-espirituarekin ulertzen da.

artoz beteriko trasteak ustutzero doazela, baina, aldiz, bertan lo egitera doaz. Aurrerago, ordea, horreos esaten diete eta antzekoak dira, pixka bat handiagoak aukeran, eta desberdinena izena bera da.

Zuhaitz onak eta ur gezako ibai onak daude eta ondo bizi dira han, euren erara, jakina. Padrondik Konpostelara joateko bide ona daukate eta pixka bat gorago jarraitzen du, eta gureetakoa dirudi. Baina Padrondik Brigantumera, hots Coruña Galegara, doana harlauza handi eta leunez osatuta dago, eta harritzekoa zen zenbat denbora behar izango zuten hura egiteko. Baina ez zen euren obra baizik tolteka galego batzuen eta oso utzita zeukaten eta belar txarra lotune guztietan sortzen zen. Guk Tenplu Handiko patioan holako belarrak ateratzen utzi izan bagenu, ez dakit zer gerta zatekeen; agian denak akabatuko gintuzten. Hala ere ondo egoten ginen eta polita zen gure armada ikustea, bertoko galego askok luma-gandorra baitzeramaten horretarako eskubiderik izan gabe, baina gure artean ez borrokatzeko eraman zezaten uzten genien, gustukoa zutenez. Denak batuta Huitzilopotxtilerantzat loreak hartzera landara joateko aurpegia jartzen zuten¹⁰¹. Geroago are jende gehiago batzen zen, zeina ez gurekin, ez segizioarekin nahasten zen, gure alboan zihoan arren, baina denak ez ziren galegoak: kanpoko beste tribu askotatik iristen ziren eta hizkuntza ezberdinak zerabiltzaten, eta ez dakit nola demontre ulertzen zuten elkar. Leinu guztietako jendea zen, pobreak eta dirudunak, osasuntsuak eta gaixoak,itsuak eta mainguak, jaunak eta tlakotleak. Batzuk oinutsik eta beste batzuk ez. Batzuek kateak zeramatzen, hau da, haien soka oso sendoak, eta orain azalduko dizuet nola egiten dituzten, lotuta baitzeuzkaten eta Izarren Landara zeramatzen, hori baita kateak eramateko ohitura. Ulertu genuenez, ceibe ez zirenean lotu egiten zituzten. Batzuk oinez zihoazen eta beste batzuk zaldiz eta elkarri laguntzen zioten, nahiz eta beste tribu batekoak izan eta, egiaren ohoretan esana gera bedi, oso polita zen ikusteko, hala baita Galezian bai eta edonon.

Pozaren mendia deitzen duten batera iritsiak ginen ordurako eta paper hauetan idatzita geratu behar diren gauza batzuk gertatu ziren, baibaitaukate horretarako merezimendurik.

Bertoko galegoek ohitura daukate Pozaren mendiaren erpinera noiz lehenago iristeko lasterketa egiteko, poza esan nahi baitu, eta huraxe da Konpostelako dorreak lehenago ikusiko dituen. Opatonek ez daki ordura arte nork irabazten zuen lasterketa baina orduko hartan, tenoxkak joan ginenean, bertako galegoek abiatzeko ere ez ziguten balio izan, oso korrikalari onak baikara gu eta egun osoan ibiltzen gara lasterketan poz-pozik, eta azaldu dizuet nola garraiatzen genituen kanoak mendietan zehar eta nola txikitu genuen arrain-saltzaile hura. Orain esango dizuet zeintzuk ziren mendi, oihan eta haitz-lerroetan zehar garraiatu genituen sei kanoak.

“Orain” esan zutenean, amorru osoz eman genion korrikaldiari eta nik, orduan Opaton gaztea nintzelarik, beste guztiak baino amorru gehiagoz, garai hartan sekulako indar bortitza bainekuan hanketan, eta edonon eta sekula ez nuen arnasa galtzen. Gaur egun, aldiz, galegoek berberak irabaziko ninduten ahaleginik gabe, zeren lau urte hogeitaz bizitzearen zamak erdi abailduta bainauka eta azken egunotan ziztatxoak sentitzen ditut, bularrean batean eta kopetan bestean, eta begirarazi beharra daukat, nire edabeetako batek ere ez baitit kendu. Nik korrika dezente egin nuen, eta behin Pozaren mendira iritsita ez nuen inongo dorrerik bistaratzen eta ez nekien nora begiratu ez non aurkitu, hara joaten nintzen lehen aldia baitzen, eta nola jakingo nuen non zeuden, diot galdera modura. Iritsiak ziren gehiago, denak Aztlangoak, jakina, eta Opaton tanoka

¹⁰¹ Cf. aurreko oharrekin.

artean ikusi gabe, gutxi falta izan baitzen igoerako eta lasterketako ahalegin guztia alferrik galtzeko dorreak ez ikustearren.

Hartara, eta ahalegina alferrik ez galtzeko tranpa txiki bat egin nuen, eta dorreak, dorreak oihukatzen hasi nintzen, oihu bezala gera dadila, eta besoa ondo luzatuta zati handi bat seinalatzen nuen, zeudenean zeudela begiradan sartzeko. Noizpait ikusi nituen eta puntutxo zuri oso urrunak ziren, eta Aztlan Zaharreko Galeziako lehen bertoko galegoak iritsi zirelarik, ufaka zetoze, mundu guztiak zioen Kainaberadi eta Palmadiko Opoton izan zela dorreak ikusten lehena, eta oso polita izan zen dena orduan eta nire baitan jabetu nintzen zergatik esaten dioten Pozaren mendia. Hosto berde eta lorezko koroa bat ipini zidaten, baina loreak ez ziren berdeak, berdeak izan ezik kolore guztietakoak baitaude, eta Erromesaldiko Errege izendatu ninduten eta hori adierazten zuen euren paper bat neukan¹⁰². Luma-gandorra kendu zidaten egun berberean jaso nuen, baina hobe izango da geroago azaltzea, gauza tristea baita eta orain gauza alaiak esaten ari naiz. Beraz, ni, Kainaberadi eta Palmadiko Opoton, izan nintzen Aztlangoen artean Erromesaldiko Errege izandako lehena eta festa eta laudorioak egiten zizkidaten eta Opoton Opoton esaten zidaten, denen aurrean joanarazten zidaten, hango musikak jotzen zituzten, zeinak oso bitxiak diren, lehenago puztu egiten baitituzte. Tlakatekak berak zoriondu ninduen eta hura ikusi zuten testigantza asko neuzkan.

Dona Ximenak berak ere besarkatu ninduen, galegoen modura, eta bere ezpaineekin ukitu zidan masaila eta hotzikara eragin zidan hurrupadatxo bat eman zidan, galegoen artean elkarri egiten baitizkiote, eta asko izan ziren hura ere ikusi zutenak.

Eta nire tenotxkek barre-algarak egiten eta erruz olgatzen ziren, eta ni ere bai, dena oso polita izan baitzen, eta ez nintzen batere nekatu Pozaren, hau da pozaren, Tontorrera igoera aski gogorra izan arren, baina ez aldioro, aldika baizik. Gero Lavacolla, horrek ere ez du ezer esan nahi ibai-izen gisara, deritzoten ibai batera iritsi ginen, Konpostelaren bide erdian, eta ez du ezer esan nahi.

Ni Errege nintzen Erromesaldiko jende guztia Lavacolla ibaian bainatu zen. Mundu guztia txukundu eta orraztu zen. Soilik gu eta Aztlangoekin, gurekin alegia, zetozen bertoko galegoak biluztu ziren osorik eta nik ezin nuen igeri egin, koroa eroriko baitzitzaidan. Beste atzerritarrek beti daukate gorputzaren parterren bat hura erakusteak lotsa dakarkiena, hain gezurteroa baita arraza hura, eta emakumeek are gehiago, lotsa ematen baitie hanken zatitxo bat ere erakusteak, eta agian mixen artean alditxo bat bizi izan balira, jarrerea haiek galduko lituzkete, diot nik.

Luze egon ginen Lavacolla ibaian, bazkaldu ere bertan egin baikenuen. Jende guztia belar gainean eserita zegoen, talde batzuk hemen eta bestetzu han, taldeka ondo batuta, eta jatekoa eta bertako octlia, ardoa alegia, banatzen zizkiguten, eta aski adiskide eta nahikoa anaia ginen, esateko beste modu egokia baita. Beharbada lagunena Aztlangoak ginen, hots jatorrizko tenotxka azteka, ahal genuen guztia lausengatzen baikenuen elkar eta ni, Erromesaldiko Errege nintzelarik, Erromesaldia baita hari ematen dioten izena, lainerarik handiena hartzen nuena nintzen, pilliena.

¹⁰² Basileako Udal Bibliotekan XV. eta XVI. mende-bukaerako hamazortzi grabatu-sorta bat dago Georg Agricolaen obra, eta Santiago de Kompostelarako Erromesaldia egitearen ziurtagiriak dira. Nabarmentzekoa da bat, Opoho Toone zaldun normandoari (¿) emandakoa, zeina, daraman jantziak kontuan hartuta, erraz izan zitekeen gerlari tenotxka bat. Ez al zen izango Opotonen erretratu bat (bakarra, beraz)?

Oktlia edateko ikustea merezi duten palleiros deituriko saskiak dauzkate; oktlia ez da erortzen zuloxoetatik, eurek ardo deitzen dioten arren. Farrapos deituriko gurutzea eta Santuen zuhaitza ere gainditu genituen, eta aurrerago azalduko dut Xipe-Totek laguntza ematen badit. Errege nintzelarik eta hain mainatua Opotontzin banintz bezala sentitzen nintzen. Lurreko hainbat gauzako merkatariak igarotzen ziren gure artean eta tanguis¹⁰³ moduko bat sortu zen. Enpanada deituriko hura saltzen zuten, gure jakietako bat dirudi, soilik lodiagoa dela, arrainez eta lurreko abereen haragiz eta era guztietako gauzez beteta, minak izan ezik, euren artean ez baitute estimatzen, eta euren jaki guztiek zapore geza daukate. Batzuek arrain gazia saltzen zuten eta beste batzuek zuzia izeneko argizaria, eta azalduko dut zer den. Beste batzuek azabatxea, obsidiana dirudiena, baina ez gehiegi eta tanoka batzuek nahatsu egin zuten.

Eta orain azalduko dizut zer den saltzea Galezian, eurek ez baitute kakaoa erabiltzen eta ez dute trukea egiten. Aztlan Zaharreko ohiturak oso ezberdinak dira batik bat han bertan ikusita. Eurek larri edo burdin edo urrezko borobiltxo batzuk dauzkate, ez bainintzen asko fijatu, eta ematen dituzunean eurek jatekoa edo janztekoa jasotzen dute. Gauzak borobiltxo haien truke ematen dizkiete, eta horri saldu eta erosi esaten diote, eta borobiltxo haiek non erosten dituzten jakin gabe geratu nintzen. Gauza higuingarriak ere saltzen dituzte, adibidez suge beltz moduko batzuk, angilak deiturikoak, eta beste animalia itsusi eta hilak, izenez olagarroak, eta aise jaten dituzte. Gehien erabiltzen dutena da lurreko era guztietako abereen haragia eta, hobe esaten badut, asko jaten dute kontuan harturik guk oso gutxi jaten dugula. Eta sekula ez dute hiltzen duten abere baten odola ziprizzintzen, aldiz heste baten barruan sartu eta jan egiten dute geroago, gogortzen denean. Aitzitik esan ohi zidan lurralde hartan debozioa oktlia bezain ugaria izatekotan, ez dakit nola baina ondo joango zela. Ez nuen jabetzerik izan non erosten zituzten borobiltxoak zeinekin asko estimatzen zituzten gauzak erosten zituzten, adibidez, jakiak, janziak eta buztina. Opotonek irabazi zuen Pozarena deitzen duten mendian gora egiten duten lasterketa eta Erromesaldiaren Errege izendatu zuten, gauza oso duina zena bera, eta aurrerago azalduko dut Aztlan jende aztekak Galeziako lurretan egin zuten peripeziaren benetako kontakizunean jasota gera dadin. Lore-koroa bat neraman nik. Baina horretan gehiegi ez luzatzearen, zeregina handia eta denbora laburra baita hura burutzeko, esango dut ezen Lavacolla ibaiko elkarretaratzea oso ederra eta behar den bezalakoa izan zela, eta gu, Aztlangook, ondoegi tratatuak izan ginela azken finean.

Atxollik, Otompako nire iloba zenak eta Kainaberadi eta Palmadira nire buztingile ofizioa ikastera etorriak, zioen ezen berak nahi izatera erraz asko izango zela Erregea hankak nireak baino gazteago eta ausartagoak baitzituen, baina nahastu eta Pozaren mendira igo ordez eskuinera geneukan beste baterantz igo zen lehenago iriste aldera eta bidea desegin behar izan zuen, ez baitzen bidezidorra.

Egia beti bere tokian, mendira igotzen ari nintzelarik ez nuen inor inon ikusi, are gutxiago harrapatzen ninduen norbait, eta beti ulertu izan nuen denetan azkarren zebilena Tenotxtitlan Handiko Kainaberadi eta Palmadiko Opoton zela.

Abiatzeko agindua eman zutenean beherantz jo genuen, Lavacolla ibaia goranzko bidean baitago. Herri adiskide pila bat pasatu genuen eta bertoko galegoek esana ziguten moltissimos povos, infindos povos aurkituko genituela, eta egia osoa zen. Galdetzen genienean Ketzalkoatl edo Huitzilopotxtli edo guretako Jainkoetakoren bat ezagutzen ote zuten, zioten non albiscamos istas xentes, eta sekula ezin izan ziguten esan zeintzuk ziren istas persoas. Gerta zitekeenagatik, beti generaman

¹⁰³ Azoka.

gure aitzindaria aurre-aurrean, ezagutuko gintuen norbait aurkitu aldera. Mamoa bat topatu genuen, eta instant batean gure tenplu bihurtu genuen: denok ipini ginen harriak metatzen piramide antza eta itxura hartu zuen arte eta bertoko galegoek ongi asko laguntzen ziguten. Goiko alde lauan, harlauza bat zelarrik, Ketzalkoatlén estatua bat ezarri genuen eta koska batzuk ireki genituen. Gero, dagokion mazkehualiztliá egin genuen eta Galeziako atzerritarrek kuriositate osoz begiratzen gintuzten eta istas persoas errespetatu zituzten nahiz eta ez genien gurekin dantzatzen utzi, gogo bizia zeukaten arren.

Gero Izarraren Landara iritsi ginen, haiek Sant Iago de Compostela esaten diote, Izarraren Landa alegia. Sar eta Caldereria kaleetatik sartu ginen eta Sarela izeneko beste ibai bat gurutzatu genuen, harrizko zubi bat baitago, ondo egina eta sendoa, denak pasatu baikinaren handik arazorik gabe eta guk inoiz ez genuen halako harrizko zubirik ikusi eta ohartu ginen baliagarriak zirela. Beste rua batzuetatik igaro ginen, Nova eta Corredora de Castro izenekoak, eta hori idatzi ahal izan dut amatlezko paper-zati batean idatzi izanagatik, eta aurkitu berria dut, oraindik ezin baitut ulertu nolatan amaitu duen alfonbra azpian.

Orain taupada-moduko bat sentitzen dut eta urdaileko gaixotasuna da. Airearen hedatzen denean konortea galarazten dizu, urdailarekin batzean taupada sortzen baita. Behar bada infusio bat prestatuko dut, baina orain ez naiz gogoratzen zerezkoa. Corredora del Canastro-tik (?) harresietara igaro ginen, eta esanda daukadan guztia Konpostelako kaleak dira, edo zubiak, edo harresiak eta dena nire ugazaba galegoak emandako paper batean idatzita neraman. Eta esan zidan harresiak jadanik hondatuta zeudela zeren hogeitau urte lehenago, beraz soilik hogeitau urte, haien Ketzalkoatl-Totek-Tlamakazki batek hiria, herri handi bat esatea bezala alegia, setiatu zuelako tenpluaz jabetzeko, tribu gaizto batek harrapatuta baitzeukan, eta haien aurka gerra egin behar izan zuen. Aipatutako apaizak Fonseca zuen izena, alegia sorkaririk gabeko iturria, edo isurtzen ez duen iturria, Fonseca zuen izena, eta esango didazue bada, beraz, zer daukan iturritik, Sant Iagoren jende guztia gure zain baitzegoen, eta multzo handia zen. Esan beharra daukat hiri bezala Sant Iago oso handia dela eta Izarraren Landako etxeak gureak baino askoz handiagoak dira, eta zabaleran ez da gure Tenotxitlan bezain handia, baina altueran bai. Ez genuen uste Galezia izeneko Aztlan Zaharreko lurrian hura bezalako hiriak topa genitzakeenik, eta beldurra ematen zuen batere borroka egin gabe hartu genuela pentsatzeak. Beste erromesik ere bazen, zeinen guztien, ni, Opaton, Erregearen bainintzen, Mintzo Den Hura esango genuenez, baina barre pixka bat eginarazteko.

Erromes-andanak erantsi arren Errege izaten jarraitzen nuen; ezin zen hori izan zitekeen beste inor iritsi. Sant Iago de Compostelari buruz hitz egin nahi dut orain, hiri handia baita, Aztlan Zaharrean ikus genituenetan handiena. Leihotik deritzen zuloak haietakoak dauzkate etxe guztiek. Ez genuen esan Izarraren Landako Sant Iago zenik gure herriaren izen berria zeren, egia bere tokian dirdaitso, ez zuen gure herrietako bakar baten antzik. Oso handia da eta hango plazak ere bai. Eta Tenplua Tenotxitlan Handiko Plazako gure tenpluak baino handiagoa dirudi, baina barrutik hutsik dago, eta bideak ez dira errekarritzakoak edo lur zapalduzkoak, baizik harlauza lauak, gure Tenplu Handiko Patioa bezalakoak, baina eurek katedral deitzen diote. Kale askok sabaia daukate alderik alde eta ematen du etxe barruan zaudela, baina bazoaz kaletik eta horrela egin dute han beti euri-jasak daudelako. Orduan oso ederra izan zen, euren tenpluan sarrarazi baikintuzten denak, eta ez zen beste inor kabitzen, bertoko galegoa izan edo jatorriz azteka, eta Tlakatekak agindu zuen gutako batzuk kanpoan geratzea, ez haiei han barruko bultzadak ekiditeko baizik jagoteko ez ote zen iruzur galegoa, han barruan denok sartu eta bertan suntsitzeko.

Orduan botafumeiroa egin ziguten, alegia sabaitik zintzilik daukaten bola mardula, kopalliz beterik kulunkatzen dena, intzentsuz alegia, horrela deitzen baitiote euren intzentsu izeneko kopalliari. Euren intzentsua erre eta kearekin itotzen zaituzte, eta era horretara akabatzen dituzte zorriak, galegoek baibaitauzkate zorriak eta, era berean, gureak ere hiltzen dituzte. Zorriak hiltzeko abesti bat daukate, honela dioena:

—Ultreia, ultreia, ultreia¹⁰⁴.

Berehala ikasi genuen, latinez zegoen arren¹⁰⁵, euren nahuatlatollia baita latina, eta ultreia abesten genuen denok. Gero, kanpoaldean, Santuen zuhaitza daukate, handia dena baina ahuehuetl¹⁰⁶ bat baino txikiagoa, eta enborrean bost zulo dauzka eta batek esku bateko atzamarrak ipintzen ditu, bakoitza bere zuloan, eta apurtxo bat geratzen da han, ez oso luze, bultzadak baitaude eta edozer gauza esaten dute euren nahuatlatollin. Oso ohitura arraroak dauzkate eta idolatriaz lepo daude, eta holako kasuetan onena korronteari jarraitzea da. Euren tenpluaren sarrerako alde banatan beren jainkoen estatuak dauzkate, kanpoan eta barruan baitauzkate, eta bat oso bitxia daukate, o Santo dos Croques, oso erritu bitxiaz gurtzen dutena eta Opotonek azalduko duena: amek euren semeak hartu eta krokeen¹⁰⁷ buruan kolpatzen dituzte hiru aldiz eta era horretara estatuak egin zituen, Mestremateo deritzana, bezain buruargi bihurtzen da haurra, kolpeetatik bizirik irteten bada.

Gauza zuhurtzigabea iritzi nion nik zeren jakintsu nahi izatearen izateaz harriaren kontra txikitu ditzakete haurrak, eta horrela probetxu gutxikoa izango zaie jakintasuna, baina horrela nahi du bertoko galegoen erritu pagano hark.

Gu egon ginen aldi hartan oso pozik zeuden ospitaleko obrak amaituta baitzeuden, gaixoak ixten dituzten etxea baita ospitalea, eta erakutsi egin ziguten. Gaixo guztiak etxe bakar batean itxita edukitzea gauza tristea da, baina ona. Sendagileen bila joan beharrean bertan dauzkate denak, hantxe bizi baitira. Ondo burututako harrizko lana da, euren canastroen estilokoak baino hagitzez sendoagoa, haiek gure jakaleen antzekoak baitira, artoa gordetzeko kuexkomat! baten formakoa. Oso ondo landutako alde bat dauka beren idoloen estatuekin, izenez sanjeronimoak. Hiriko etxeak landakoak baino askoz hobeto eginda daude, nahiz eta xugadas de bois direlakoak kale guztietatik joan-etorrian dabiltzan eta inor ez da izutzen, kaleei rua esaten diete, hots kale.

Gero Gibredon¹⁰⁸ izeneko mendi batera joan ginen, non aspaldi luminariak ikusi zituzten koba bat dagoen, han topatu baitzuten Sant Iago, errautsetan ordea, eta ez dakit nola errekonozitu zuten. Gu han egon ginenean jadanik ez zegoen distirarik haien zuzi izeneko tortxenak izan ezik, argizariz egiten baitituzte, eta listari bat daukate erditik doana, eta erretzen duen heinean argia ematen du. Gutxika-gutxika erretzen da argizariz inguratuta baitago eta gauza inozo samarra da, zeina berehala egiten ikasi genuen. Galezian emakume eder asko dago eta untxi-bat izeneko urteak beti egin zaizkigu kaltegarri, izan ere Huehue Motekuzomaren garaian izozteak eta gosetea egon ziren eta beste gorabehera

¹⁰⁴ *Herru Sanctiagu/Got Sanctiagu/Eultreya, euseya./ Deus, adjuva nos.*

¹⁰⁵ Sic.

¹⁰⁶ *Taxodium mucronatum* erako koniferak. Euren adarretako albitz parasitoek gizonen bizarra gogorarazten dute.

¹⁰⁷ Mestre Mateo Aintzako Ataurrearen autorearen ustezko autoerretatu eskultorikoa (sinatuta dago). Ez dute kanonizatu, halarik ere inork ez daki segurutik ezer eskultoreari buruz, zeinari, hala ere, denek santu esaten dioten. Nabarmenezkoa Opotonen harridura galegoen praktika erritualen aurrean

¹⁰⁸ Libredon.

batzuk untxi-bat izeneko urteetan hain juxtu; neska hura untxi-bat zen. Baina, ordez, uste dut oso maiteminduta nengoela. Beratuta eduki ninduen asteak eta asteak eta azalduko dut aurrerago. Bertoko galegoek galdera anitz egiten zituzten eta gu Aztlangoak ginelako etortzen zitzaizkien. Eurek uste zuten agian itzulia zela Sant Iago, errautsetakoa, beraz berpizturik zegoela. Nik diot horixe bazen eurek pentsatzen zutena zergatik ez zuten guk bezala egin eta haren bila atera, Opotonek egindako galdera bezala gera bedi. Vilanovadalosa edo lauhtepek Berrian eta oro har Sususen Badian kanoa onak eta neurri onekoak dauzkate, eta beldurrik gabe egin zezaketen. Eta kazike potoloa ezin bazuten ontziratu haren gizentasunagatik, topatzea zeukaten baliozko beste bat, diot nik. Gauza guztiak konpon daitezke batek gogoa daukanean.

Batzuek zioten agian Sant Iago ez zela Galezian hil eta haren errautsak faltsuak¹⁰⁹ izango zirela eta, orduan, gu haien jendea ginela eta egia berregitera gentozela. Beste batzuek imajinatzen zuten gu Palestinatik etorri eta aipatutako Sant Iagoren errautsak eraman nahi genituela, zeina ezagutu ere ez genuen egiten, eta hori uste zutenak gure lagunik eskasena ziren. Hori dena esaten zuten gutaz, nahiz eta sarri azaldu genien Aztlandik gentozela eta soilik Ketzalkoatlén bila genbiltzala, eta hori zen ez sinesten tematzen zirena, askotan esana baitago jende ergela eta beren teman tematia zela, hots bertoko jende galegoa. Eta aski abeslari jartzen direnean, ultreia abesten dute, esana gera bedi figurazio gisara.

Haien Apaiz Nagusiak tenpluaren barruan elkartu gintuen denak, etxe modura aski handia dena bera, nahiz eta barrutik hutsik dagoen, bertoko ogia bezala hain juxtu, eta luze mintzatu zen gure Buruzagiekin, Ketzalkoatl-Totek-Tamakazkirekin, eta Dona Ximenarekin, huraxe baitzen hizkuntza. Galdetu zien:

—Agian Nor-Mandoak al zarete?

Eta Tlakatekak:

—Ez, ez gara. Eta inoiz ez gara Nor-Mandoak izan.

Orduan haien Apaizak galde egin zuen:

—Orduan zuetako nor da Sant Iago?

Antza denez aipatutako Sant Iago aski handia zen, gure kanoetako bat bezala hain zuzen. Eta Tlakatekak erantzun zion:

—Ez. Gutako inor ez da Sant Iago. Aztlango aztekak gara eta gure Jainko Ketzalkoatlén bila gabiltza, gure Sant Iago bezalakoa baita hura. Lurreko Jaunik Handienaren zerbitzari gara gu eta berak agindu digu gure Jainkoa aurki dezagula. Hitz haiek aski ulergarriak ez izatera Tlakatekak erantsi zuen Ketzalkoatl gauza guztien Hasiera eta Amaiera zela, Eguzkia eta Artizarra, eta Iluntzeko Izarra, eta Jainkoen Jainkoa, Aztlanen bizi eta gobernatu zuena eta gu, aztekak, haien debotoak ginela.

Hura dena oso ondo esana azaldu zion, hainbat aldiz errepikatu izan zion arren, bat aspertu egiten da beti gauza bera esaten, eta tenplu handiaren barruan, populazio pagano hark katedrala deitzen zuen hartan, debozioz entzuten zigan. Apaizak, lehen beste askok egin zuten bezala, esan zuen ezen no albiscava aipatzen genituen pertsonak eta bera espanhoes guztiak beste sinesmen batzuen jabe zirela eta os nosos deuses son bôs i xenerosos.

Hitz haiek esaten ari zelarik aurpegia argitu eta bihotza zuri ipini zitzaion, batek zuk ulertzen ez zenuen guztia ulertarazten dizun ideia bat daukan bakoitzean bezala. Esan zuen:

—Nik uste dut zuen Jainkoak da terra d'os bascos izango direla, puis acolá falan coma vos.

¹⁰⁹ Nik ez dut hori sekula entzun.

Alaitasun handiak hartu gintuen. Azken finean aurkitua geneukan norbait orientatzeko gai izan zitekeena eta pozarren jabetzen ginen apaiz bat zela, zeren ikusten denez Galezian, edonon bezalatsu, soilik jende jakintsua egiten baitute apaiz. Gure bularrak esperantzaz bete ziren. Eta Tlakatekak erabaki zuen geratzen zitzaigun bide bakarra terra d'os bascosena zela. Agindu zion Dona Ximenari galde egion ziezaion apaizari norantz geratzen zen herrialde hura, eta hark esan zuen berak bazekiela, baina Tlakatekak erantzun zion Sant Iago-Totek-Tlamakazkiren ahotik entzun nahi zuela eta, orduan hark Ekialderantz seinalatu zuen.

Hasieran buztingile, gero gerrari izan eta orain kronista den Opoton gai balitz azaltzeko nolakoa izan zen gure alaitasuna, esan nahi nuke ezen. Alaiatasunez eta fedez beteta geunden. Oraindik galde egin zion Tlakatekak ea ziur zegoen esandako hitzez, ziur ote zegoen bascos haiek Ketzalkoatlén jende zirela, eta Sant Iago-Totek-Tlamakazkik esan zuen.

—Non inquirimos cales deuses teñan.

Ezetzik esan nahi ez zuen erantzun jakintsua zen, haren jabe ez zela ordea, beraz ez baietz ez ezetz. Kea bota ziguten haien kapallitik, hots botafumeirotik, oraindik zorri bizidunik ote geneukan, eta pilota ziprztintzaileko ura ziprztindu zigun; hari isipu esaten zioten, kirtena eta pilota zulatua baitauzka.

Tenpluaren atarira lagundu zigun eta osteria seinalatu zigun Ekialdea, esanaz bascos, bascos, ez gintezen nahastu. Gure Ketzalkoatl-Totek-Tlamakazki Aztlango jendearen artean gutxien pozten zena zen. Zioen benetako lastima zela handik horrela joatea gure fedeari buruzko benetako sermoia egin gabe, eta penaturik zegoen tenplu barruan zeukaten traste bat, pulpituia, erabili ez izanagatik, toki egokia baitzen mintzatzeko. Esan zidan ezen Ketzalkoatl-Totek-Tlamakazkik esana zuela bera igo zitekeela, Dona Ximenarekin batera, eta bertoko populazio galego osoak ikusi, entzun eta ulertuko zituela gure fedeari buruzko gauzak, eta arima galdu asko irabazi ahalko genituela.

Baina Tlakatekak erabakita zeukan beste aukera baterako uztea, baita katedrala desegitea ere, baina horretarako egun asko beharko genituen.

HAMABIGARREN ATALA

Jarraian hiru doministiku egin eta gaizki pentsatu nuen, Opoton, norbait badago zutaz gaizki esaka dabilena, eta pixka bat umore txarrez jarri nintzen. Agian ni Aztlan Zaharrean bizia jokatzeko ari nintzen bitartean, bertan hiltzeko arrisku handiz, batzuk bazirelarik hil zirenak, norbait, behar bada Tenotxtitlan Handiko Kainaberadi eta Palmadian, marmarka zebilen Opoton onari buruz. Umore txarrak Izarraren Landatik irtetea erabili genuen denbora guztian iraun zidan eta auskalo zenbait iraungo zidan irteerako gauzekin entretenitu izan ez banintz. Muzinduta sentitzen naizenean nahiago dut pasa arte bakarrik geratu, eta batzuetan azkar joaten zait eta beste batzuetan denbora asko irauten dit.

Nire lagunetako batzuek susus erantzuten zidaten doministiku bakoitzean, horretarako ohitura baikeneukan Sususen kontu haren ondoren eta barregura ematen zuen, esatea gaizki badago ere. Izarraren Landatik irteera prestatzen ari ginen eta gauza astuna zen, hainbeste baikinen. Gure armadari galego pila bat gehitu zitzaion Padronen, eta ez ziren esklabu-klasekoak baizik bihotz zabalik zetozen, eta beste herrietan ere bai, baita Izarraren Landako Sant lagon ere.

Konpainia guztiak eta abiatzeko ordena ondo osatuta zegoen eta gu, Aztlangook, bagenituenez, gure esklabuak aldamenen genituela gindoazen, eta beste batzuk gabe zihoazen, oraindik ez baitzituzten hartu, baina bertoko galegoek gustura zerbitzatzen gintuzten, aski zitzaigun edozer gauza eskatzea eta, orduan, ia soberan geneuzkan esklabuak. Hamar edo hamabi aldiz hogeitaz xugades de bois geneuzkan ordurako buztanaren atzeko aldean estekatuta daramatzaten beren gurdiekin. Eta zorro guztiak goiko aldean garraiatzen genituen, eta ondorioz gerrariak arkua, gezi-ontzia, tximallia eta bertoko galego esklabua baizik ez generamatzen. Gurdiak atzeko aldean zihoazen, eta akanpaturik, armadaren erdi-erdian ipintzen genituen, sukaldeak ere bagenituen eta galego asko gure ogia egiten hasita zeuden eta behar den bezala prestatzen zuten amatatutako kare-ura, eta aski ongi egiten zuten, bihotza zuri-zuri, ez baikenien esan nahi izan zeregin hura emakumeei zegokiela. Eta gure ogia egiten ikustean barregura ematen bazigun, eta maiz gertatzen zen, disimuluz egiten genuen barre.

Gurdi askok ura eta jakiak baino ez zituzten garraiatzen, eta Tlakatekolotl onak itsutu nazala ez badut ahal beste zukutzen nire memoria paperean haien zerrenda osoa ipintzeko, Aztlan Zaharreko lurretako gure abenturaren, eta laster etorriko direnen benetako kronika idazten hasi naizenez gero.

Popoiotl Igerlea bisitatzera joan eta galdetu nionean ea nik bidaia luze bat egingo nuen, hogeitahamar gramo kakao hartu zizkidan, eta esan zidan guztia izan zen euria egingo zuela aste osoan Huexotzinko eta Txololanen artean eta Opotonek galde egiten du zer inporta zion aste osoan euria egitea ala ez eta dio, orain ez galdera bezala, hogeitahamar gramo kakao kobratu zidala, sei ontzi handien truke ordaintzen zidatena. Hobe Popoiotl ahaztu, auskalo non dabilen, eta nengoen tokira itzultzea.

Beraz armada Izarraren Landatik irten zen, Fala Galegan Konpostelatik, eta Ekialderako bidea hartu genuen, baina pixka bat munduaren eskualderantz begira, haientzat Iparrerantz, eta bi ibaien artean gindoazen, guk ikusi ez arren: eskuinera Ulla, hiltzen ikusita geneukana, eta ezkerrera Tamara, edo Tambre, ez izen batek ez besteak ezer esan nahi ez duen arren.

Amenal aldera igo ginen, tribu txikia da hura, eta Dous Casaserantz, are txikoagoa hura, eta izen berberak adierazten du bi etxe esan nahi baitu, zeinak, ondo

zenbatuta, ez pentsa askoz gehiago direnik. Izen bezala Dues Casesek barregura ematen du, egutegi-izena baita eta orduan aski esan nahi baitu. Dues Casesen adiskide asko dauzkat, eta beste asko hilda daudenak, eta denek erakutsi zuten zeinua ona eta fortunatua dela. Soilik ome-kallik eta ze-kozka-kuauhtlik salbatu gintuen, eta ni ze-kozkakuauhtli naiz eta horri esker bizi izan naiz hainbeste. Baina Aztlan Zaharreko Galezian ze-kalli Dues Cases besterik ez da, hots, herri txikia, eta denbora eman zigun fortunatua zen ala ez asmatzeak. Lurralde hura dena ona eta ongi landua da eta etxe ongi eraikiak dauzka, eta saltzen dituzte bat bai eta bestea ez, beraz pazo bat eta canastro bat, pazo bat eta canastro bat topatzen dituzu. Tamalez ia beti egiten zuen euria, baina galegoak ohituta daude eta ez dira haserretzen eta ez dira geratzen zeruari begira, ea desestaltzen den ala ez, eurek baibaitakite ez dela desestaltzen. Gure Aztlanen ere badaude holako herriak non beti egiten duen euria eta bertan direnak pozarren bizi dira ez baitira beste herri batera joaten eta gustukoa ez izatera ziur nago joango zirela. Kainaberadi eta Palmaditik sekula atera ez den jendeak uste izango du gauza hauek denak Opotonen jukutriak direla, baina munduan zehar ibili garenok badakigu egia berdaderoa dela.

Beraz Arsuara iritsiak ginen, lurralde galegoko beste herri txikerra dena bera, hain zuzen, eta Castañedon kanpatu genuen, izenak zuhaitz bat adierazten du, zeinak fruta onak dauzkan batek pazientzia badauka estaltzen dituzten bospasei geruzak kentzeko, sekula bukatuko ez den zeregina baitirudi. Lehena berdea eta arantzaduna da baina besteak ez, baizik ondo datoz, zeren gero eta geruza gehiago kentzen dituzun, bada gehiago. Eta xigortzen dituzunean zapore ona daukate, tabako-kainabera xigortuaren antzekoa. Batzuek aitortu zidaten hori, nik ez baitut erretzen eta ez neukan tabako-kainabera xigortuaren zaporea azaltzeko modurik. Eta lehorrak ere badituzte, ni orain naizen xaharra bezain ximurtuak, jadanik aski ximurtuta bainago eta hiltzen naizenean ez dute hankak bular gainean tolestu beharrik izango, hain leku gutxi behar izango baitut. Gaztain lehorrak ahoaren baitan hortz batek beste irauten du. Hortik dator Castañedo izena, herriak daraman berbera, herria baibaitago eta bertan egin genuen kanpaldia.

Norbaitek esan zigun ezen beherantz joanda, munduaren eskualderantz jota, gertu zegoela Itsasoa eta Ekialderantz joan zitekeela. Kontuan harturik Galeziak igoera handiak dauzkala eta gure armadaren ibilera zaildu eta astuntzen zela, oso pozik nago zeren nire lehengusu Xalkok esan dit gero eta hobeto idazten dudala, Tlakatekak pentsatuko zuen ez ote zen egokiagoa bidaia Itsasotik egitea, laua baita, lurretik joan ordez, aldapatsua izanik. Kontseilua egin zuen orduan hura osatzen zuten beste Kapitainekin, eta berarekin hiru ziren. Bertoko galegoek etsiarazi nahi zuten, eta esaten zuten Sant lagok bide hori egin bazuen¹¹⁰ zergatik ez genuen guk egin behar. Eta, gainera, Itsasoa kantauriar bihurtzen ariko zela, oso zakarra eta nabigazio gaitzekoa, baina argi zegoen bertoko jende galegoak ez zeukala ideia zipitzik jende aztekak egina geneukanaz Aztlan Zaharreranzko bidean. Esaten ziguten hura dena egiazkoa edo ez egiazkoa izan zitekeenez, amarru bat izan zitekeenez ala ez, gutako batzuk Castañedotik Itsasoraino joateko agindua eman zuen Tlakatekak, kanoak pasa zitezkeen ala ez begiratzeko, eta jakinarazte aldera bueltan etortzeko, bera eta beste batzuk Castañedon geratuko baitziren lurralde esploratzeko, han igoera latza baitzegoen eta ez zen ikusten Ekialdetik bukatzen zenik, alderantziz ordea: gero eta pikoago igotzen zen.

Kanoa bat osatzeko jendea aukeratu zuten eta Maiotl zaildua izan zen gure buru, Xotximilko izeneko kanoaren Kapitaina. Baina ez zen kanoa batean joan behar.

¹¹⁰ Aurreko ataleko 2. oharrean zioena: orain Erromesaldien bidean daude, ez Apostoluarenean.

Opotonek esan nahi duena da kanoa bat osatzeko beste gizon joan ginela, hots Aztlango lau aldiz hoge gizon.

Ez dakit Erromesaldiko Errege izanagatik edo agintzen zidatena beti egoki betetzen nuelako, kontua da ni izan nintzela aukeratua lurretik Itsasoa aurkitzera joateko, egin ohi den erabat alderantziz. Gure esklabu galego eta paketeria guztiarekin joan ginen, eta gure xotxiketzalpapalotlekin joan ginen Jainkoaren jendearekin edo Jainkoarekin berarekin topo egitekotan, nabari baitzegoen ez zegoela zoko-inguru haietatik oso urruti. Irteteko agindua eman zigun Moiotlek, eta dena oso ondo joan zitzaigun, geratu zirenek dena arazo larririk gabe pasa genezan opa baitziguten.

Sobradoko tontorra igo genuen, gehiegi dagoela esan nahi baitu, eta orduko hartan egia osoa zen, igoera oso gogorra baita, eta orduan jaisten hasi ginen Mero ibaiaren arroari jarraituz, han jaio delarik. Aipatutako Mero hura hasieran ez da atoiak bat baino handiagoa, baina gero ahaideak eta ahaideak iristen zaizkio eta handia egiten da hainbeste urarekin.

Briues izeneko herrira iritsita, lehendik eginda zeukaten zubi batetik gurutzatu genuen aipatutako Mero ibaia, eta handik aurrera beterrria da berriro. Briuesen Itsasoa dago, baina hain da toki itxia, lakua dirudi, inor ez mintzeko moduan esanda. Atseginez geratuko nintzatekeen bertan bizitzen, gure Kainaberadi eta Palmadiaren antza baitauka, eta nik pentsatzen nuen ezen inoiz ateratzekotan ez genituzkeela gure kanoak garraitu behar izango, aldiz gu garraiatuko gintuzketela, itsaso-itsaso baita, eta bertan eduki genitzakeen. Arrain gozoak daude eta Mero ibaia ur gezakoa da eta alboetan arto ona daukate ereinda, baina Moiotlek esan zidan ez ginela Aztlan Zaharreko lurra populatzera joanak, Ketzalkoatl bilatzera baizik. Nik ikusita neukan etxetxo bat, niretzat, aipatutako Estebandasilva eta Klotilderentzat ezin egokiagoa izango zena. Orduantxe itzuli zen, bere ahaideak Sobrado herrian ikusita, bueltan. Triste asko esan zidan lehengusina bat hil zitzaiola eta Galezian goibel jartzen dira ahaide bat hiltzen zaienean, ohiturak aski ezberdinak baitira, eta hura oso jende primitiboa da. Bost eguneko lizentzia eskatu zidan Sobradora itzuli eta han lur eman ahal izateko eta urrezko zerbait eskatu zidan, hura saldu, borobiltxoak erosi eta ehorzketa ordaintzeko. Ez nion deus ulertzen, otomiz mintzo balitzait bezala, eta zertxobait ulergarri jotzen nuena zen Opotonez trufatzen ari zela. Hasieran, ulergaitza egiten zitzaidan pentsatzea ehorzketa batek borobiltxoak balio zitzaiekeela; gero, zergatik ezin zuen zuzenean ordaindu nik emandako errearekin, baizik aipatutako borobiltxoekin trukatu behar zuen. Eta, hirugarrenik, zergatik aldatu behar zituen borobiltxoak berriro. Besoko batzuk eta bost eguneko lizentzia eman nizkion eta alde egin zuen, lehengusinaren heriotzagatik goibel eta niri ziria sartzeagatik pozik.

Dona Ximenak, gurekin zetorrelarik, esan zidan nire bertoko galegoak nire burua engainatzen utzi nuela, Galezian zazpi edo zortzi Sobrado daudelako eta agian Estebandasilva ez zela inongo Sobradokoa izango. Ni horretan negoen, niri ziria sartzen ari zitzaidala. Orduan, bera zen engainatua, sinetsita baitzegoen nik sinisten nuela. Horregatik ez nion deus esan eta ez zidan min handiegirik egin marroak.

Lurraldea oso beterrikoa zen eta Val de Barcia izeneko herri batetik igaro ginen, ibar tikia bera, eta gero Ençobras, aipatutako Carral eta Valdeveigara iritsi ginen, jenderik gabeko herriak eurak. Itxita zeuden etxeak, eta ez zen inor ikusten. Ançobren ere ez, gero topatu genuena bera, eta are gutxiago hurrengo herrian, Mensen alegia. Herri ttikia da Mens, baina bertan geratu ginen, oso lur gozoa baitago.

Askok esan nahi zuen herriak despokatuta egoteak, herri despokatutak gerra adierazten baitu. Eta Ençobras eta Ançobre aipatzen ditudalarik ez uste Opoton

nahastu denik. Bi herri ezberdin dira izenak gehiegi izan ez arren, eta bat bestearen alboan dago, eta horrela dira, Ençobras eta Ançobre, eta barregura ematen dute igarkizun batek nola. Menseko etxe guztiek ateak itxita zeuzkatenez, ireki behar izan genituen.

Orduan gure Kapitain Moiotlek oraintxe azalduko dizuedan asmo eder bat izan zuen. Menseko etxeetan bertoko galegoen jantziak zeudenez, esklabu ziren bertoko hiru galego hartu, gu bezala biluzik zebiltzanak, eta bertoko jende galegoaren erara jantzi zituen. Bertan geunden Aztlango guztiak, eta baita Aztlan Zaharreko Galeziako beste galegoak, barrez lehertzen geunden galego mozorrotuak ikustean, mexiken antzera jantzita ikusten ohituta baikeunden jada eta ostera galegoen erara jantzita ikusteak barreguraz leherrarazten gintuen.

Orduan Moiotlek lurra esploratzeko agindu zien, bertoko galegoak zirelakoan azalduz. Eta xagutxoak bezala alde egin zuten, galegoen erara jantzita, eta itzuli zirenean esan ziguten Coruña Galegako lurralde osoa gu Aztlango tenotxken aurka matxinatuta zegoela, eta gu itsasotik etortzea espero zuten armada handia bildu zutela Coruñaiko lurralde osoan, hots Itsasoko uhartea bezalakoa zena bera, batetik izan ezik alde guztietatik urez inguratuta, non ezkontzen den Galeziarekin. Xagu galegoek esan ziguten hogeinaka eta hogeinaka trumoi ikusi zituztela, jende harentzat kanoiak izenekoak, eta gerragizon-legioak prest, denak gure aurka altxatuak.

Pilaka kanoa zeuzkaten Itsasoa estutzen den toki haietako batean finkatuta, Galeziako lurraldea dena pitzatuta baitago, eta hainbat galera, zeinak gure galegoen iritziz gure kanoak bezalakoak baina Itsaso gainean abiadura handiagokoak ziren, hori anartean ikusi gabe baikeneukan, eta kanoiz ere lepo. Hura dena prest zeukaten gu iritsi zain, ez baitzekiten Izarraren Landako Sant lagora joanak ginela eta are gutxiago lurrez gentozela. Esaidazue lurra esploratzeko agintzea ez ote zen izan gure oroitzapen ona duen Moiotlen asmakizun egokia, eta hori dena ez ote zen gure Ketzalkoatlek gudanako zeukan babesaren frogia. Zeren, Ekialderantz nabigatu izan bagenu gure lehen asmoari jarraituz, Coruña Galegoaren aurretik pasatu eta gerra egingo ziguketen eta auskalo nola irtengo ginatekeen, diot nik.

Nik pentsatzen nuen ezen bertoko galegoen hitzak entzun ondoren, potxteka onak bezala portatu zirelarik nahiz eta barregura ematen zuten era hartara mozorrotuta, Castañedora itzuliko ginela. Baina gure Kapitain Moiotlek aipatutako galera edo itsasontzi galegoak gertutik ikusteko gogoia zeukan ordurako, eta erabaki zuen lur hartako galegoek gu aurreko aldetik itxaroten bagintuzten gutxi egiteko aukera izango zutela haiengana atzetik hurbiltzen baginen, hori gerrako legea baita, eta gure Moiotl gizon trebatua zen borroka-kontuetan.

Gerra-hotsez sartu ginen Coruña Galegoan eskuadra guztiak ondo eratuta eta armak erne. Ançobretik igaro ginen berriro eta gero Ferrio izeneko oso herri ttiki batetik, hark ere ez zuen ezer esan nahi eta holaxe dago gure mapetan, eta eskuin aldetik sartu ginen lur hartan. Muino altu batean geunden eta galegoak behean ikusten genituen, Itsasora jausten diren harkaitzetan beren trumoiekin. Lehen harkaitzetakoei susus esateko denborarik ere ez genien eman. Haien gainean erori eta borroka egin gabe eman zuten amore, ez animorik ez zeukatelako, baizik ezusteagatik¹¹¹. Orduan kostari jarraitu eta denek ematen zuten amore borroka

¹¹¹ Ez du esan nahi ni bertoko jende galegoaren aldekoa naizenik, baina, pasiorik gabe ikusita, *aztekek* albo batera eta labarrak eta itxasoa bestera, beren burua itsasora botatzea beste ezer gutxi zeukaten egiteko. Nire iritziz, amore-emate erraz hauek kronistaren ulermenetik haragoko ingurumari psikologiko zehatz

egin gabe, izuak gogoia kentzen baitzien, nik esango nuke, gutxienez bazutenei. Iluntzerako hogeinaka batzuk atxilo eginak genituen eta, herrialdea ezagutzen zuten bertoko galegoen iritziz, Errendizioetakoa deritzan Coruña Galegoko lurraren bueltaren erdian ere ez geunden. Gauean antolatu genuen kanpamendua eta zentinelak eta espiak eta korrikalariak ipini genituen, zuhur jokatu beharra baikeneukan eta ikusten dut hura dena hitz argiz azaltzen ari naizela, eta aski poza ematen dit¹¹². Ziur nengoen gaueko geldialdiak konkista desegingo zigula, izan ere galegoak, oharturik, lurrari begira jazarriko ziren eta ez Itsasoari begira. Eguna argitu orduko jarraitu genuen gure martxa, eta topatu genituen lehen bertoko galegoek bandera zuriarekin atera ziren, zeinak beti sakrifizioa esan nahi izan duen gerra-hizkeran. Etsaiak bandera zuria erakusten dizunean esan nahi du orain sakrifikatuko zaituztegu, eta ongi itxi genituen eskuadrak eta erasoa jotzeko geundelarik, gelditzeko adarra jo zuten. Dona Ximenak azaldua zion gure Kapitan Moiotli ezen Aztlan Zaharreko jende atzeritarren artean bandera zuria amore-ematea adierazten duela, edo beste era batera esanda amore ematen zutela. Gutxiatik ez zitzaion ohitura hura buruhaustea gertatu, orokorrean gerrakontuetan daukaten ezjakintasunagatik. Arratsalderako emana geneukan Coruña¹¹³ herrialdeko itzulia eta bertoko jende galego guztia atxilo geneukan. Ez genuen gezi bakar bat jaurti ez eta eurek kanoikadarik. Hiri handi bat dago han, Coruña izenekoa, hots aurreko Brigantum delakoa, eta erabat entregatu zen inork ez zuela defendatzen ikusirik. Denetatik zeukaten: bertoko galego atzeritarrak, beren armak, beren kapitainak, beren Sususak eta beren kanoiak. Beren galeretan ontziratu genituen, zeinak oraintxe azalduko dudana nolakoak diren, eta ez da gauza erraza izango, eta gure jendea eta gure galegoak arduratu ziren galerak gobernatu eta munduko ezkerreko aldera eramaten, Hegoaldera alegia, Vilanovadalosa edo lauhtepek Berrira, hantxe baikeneuzkan gure sei kanoak. Lau (sic) egun pasata itzultzen ez ginelarik, gure Tlakatekak Papalomitxin bidali zuen bi aldiz hogeitaz gerrariekin eta pozik geratu ziren ikustean hainbat jende etsaia birrindu genuela eta presoak ontziratzeke zereginean, Coruña Hiria berreskuratzen eta neskak aukeratzen lagundu ziguten, gurekin etorri nahi baitzuten denek, eta niri Klotilde egokitu zitzaidan, galeren kontu hau amaitu orduko azalduko dudana.

Denek etorri nahi zuten eta uste dut lortu zutela, zeren gerrari tenotxka guztiak hartu eta oraindik soberan zeuden gure Jainko Ketzalkoatlak bila gurekin etorri ziren bertoko galegoentzat. Eurek ordean nahiago zituzten aztekek Sususak baino, Sususak buruz ezagutzen baitzituzten, baina ez generaman neska aztekarik eta ez dut uste eramatekotan emango genituenik, suposizio bezala gera bedi. Nireak Klotilde zuen izena eta Tlazoteotl jainkosak nahas dezala.

Orduan bertoko galego gerrariak iritsi ziren Sisarga uhartean kokatuta zeuzkaten beren trumoiarekin, han bertan baitago, esku-eskura, baina ez genituen eskatu eta ez genekien han bazeudenik ere, eta beren kontura etorri eta errenditu egin ziren.

batzuetan bilatu behar da. Agian *aztekek* Sant Iagoren jendea zen inpresioaren mendean zeuden galegoak.

¹¹² Beti pentsatu izan dut pasarte hau Opatonen fantasia zela. Ez dirudi sekula gertatu denik, eta esango nuke hainbeste maite zuen Briuesen geratu zela, eta Coruña abentura osoa norbaitek kontatu ziola. Hartu duen estilo telegrafikoak salatzen du.

¹¹³ Oinezko *blitzkrieg* hark, Coruña kostaldeari jarraituz (hamabosgarren mendeko amaiera aldean benetako penintsula bat baitzen) atxilotuak jasotze hutserako bada ere, egun bat eta erdi hartuko zien, zeinetatik oraindik gaueko atsedena kendu beharko zen. Cf. aurreko bi oharrekin.

Klotilde, Tlazotetl jainkosaren ahizpetako bat izan zitekeen: Tiakapa, Teiku, Tlako edo Xokotzin, edo haren beste edozein izen, adibidez Tlaelkuani, diogun. Zeren oso biziotsua zen sorkuntzaren kontuetan eta sekulan ez zuen aski, eta dena zen jo eta jo, bakoitzean estilo ezberdinak asmatuz, hainbeste non Opoton gaixoa zorabiatu zegoen.

Beraz, galerak zeritzan itsasontziak gure kanoen imitazio modukoak dira baina borobilagoak kanpotik, haiek Aztlanen sekula ikusi gabeko egur kurbatua baitaukate. Eta guri zuzenagoak ateratzen zitzaizkigun, edo behintzat Kuauhtxitxiki hala atera zitzaizkion, zeina ofizioz zurgina zen eta bere burutik atera zituen, ez baitago harrotu beharrik besteen gandor lumadunarekin. Ez daukate arraunik eta, aldiz, haizeak mugitzen ditu, dagoenean. Manta handi eta lodiak daramatzate, bela deritzanak, eta haizeak puztu eta ibiliarazten ditu, gaita izeneko beren musikak bezala, baina galerari lotuta doazenez, haizearen atzetik doa galera. Jendeari arrauna eragin beharrik ez izatearen abantaila daukate, desabantaila da, soilik haizeak jotzen duen aldera mugi zaitezkeela, hots sekula ez zoazela zuk nahi duzun alderantz baizik Tlalokek nahi duenerantz. Aztlan Zaharrera gentozelarik maiz aurkitu genituen aurkako haizeak, eta beletan konfiantza jarri izan bagenu belearen mezulariak bezala egingo genukeen. Horregatik atzeritarrak ez ziren sekula Itsaso Handian ibiltzen; ez zuten jakingo nola itzuli. Froga da geroztik etorri diren guztiak bertan geratu direla. Eta norbait itzultzekotan, arraunean egiten duelako izango da.

Ez arraunlaririk ez arraunik ez daramatzatenez soberan daukate lekua eta kanoiekin eta lurreko pilotekin betetzen dute. Gurea bezalako lema ere badaukate eta, aldiz, lemazain esaten diote maneiitzen duenari. Galera batzuei karabela deitzen diete, eta horrek esan nahi du beste estiloko galera. Belen kontu hura laguntza handikoa izan zitzaigun itzulera-bidaian, eta huraxe izan zen Aztlan Zaharreko Galeziatik atera genuen gauza on gutxietako bat.

Gure galbidearen iturri izan zen gauza bati buruz mintzatuko da orain Opoton, eta ondo esana gera dadila nahi dut eta bulkada ona daukadan une honetan esango dut. Banatu ginenez batzuk Coruña Galegara eta beste batzuk Castañedon geratzeko, uste izan genuen Aztlango indarrak banatu zitezkeela eta horixe izan zen gure galbidearen iturria, bere garaian azalduko denez.

Galerak martxan jartzea arte bat da, eta haiek oso jende trebea daukate zeregin horretarako, zereginean oso prestatuak, haizeak eta belak nola erabili behar diren negozioan zailduak. Jende hark, gure gerrariek ondo jagonak, Vilanovadalosaraino eramane zuten eskua galegoa, beraz lauhtepec Berrira, atxilotu guztiekin eta trumoi batzuekin, gehiegi baikeneuzkan. Soilik Pedroperez lotu behar izan genuen, bertoko galegoen kapitaina zelarik, eta asko sentitu zuen preso hartua izana. Aldiz haren jendea poz-pez zetorren. Pedroperez ez zen Fala Galegan mintzatzen, baizik barreak jota hilarazten zuen beste hizkuntza batean, zeinean Dona Ximena ere mintzatzen zen. Bere porrotak lotsarazten zuen, eta zioen nahiago zuela guk akaba genezan, ezjakinik guk ez genituela atxilouak sakrifikatzen bidaia hartan. Sekula ez zuen entzun Sant Iago aipatzen, are gutxiago Ketzalkoatl, den-dena ezjakintasunaz lepo. Klotilde izaeraz biziotsua zen eta haragi-kontuetara oso atxikia, eta hainbeste nahasten ninduen, beldur nintzen Tezkatlipokak¹¹⁴ berak ez zidala barkatuko. Buruhauste handiak geneuzkan haren agintzeko maniagatik eta maiz esaten zidan fai o que che ordeo¹¹⁵. Egun osoan fai o que che ordeo, fai o

¹¹⁴ *Teskatl*, ispilua, *popoka*, kea: Kea Botatzen duen Ispilua. Penitenteen aitortza entzuten duen jainkoa da, eta haren kultuak pila bat inboluzio eskatologiko dauka.

¹¹⁵ Egin agintzen dizudana (It.oh)

que che ordeo. Malpikako lur-muturrean, Itsaso barrura sartzen den lurra bera, zerbait oso bitxia ikusi genuen eta irakurtzen nauzuen askok agian ez duzue sinistu nahi izango. Ea ondo jartzen dizuedan, egunez idatzi eta tximeletak ez dauzkadalarik. Hemendik aitortzen dut egiazko gauza dela eta min hartuko dudala ez baduzue sinisten, egiatan gertatu baitzen, eta nire begi hauek, lehen aski gazteak zirenek, ikusi egin zuten. Hango tribu galegoak baratzeak dauzka Itsasotik gertu, harkaitzen gainean, eta emakumeek bertara joan eta sardinak harrapatzen dituzte, lurreko arrainak baitira, edo haien Itsasokoak, diogun, eta Sususak landareen artean joan eta arrainak harrapatzeko makurtu eta aldean daramatzaten poltsa batzuetan gorde eta gero egosi egingo dituzte, diot nik. Aztlango azteka askok gure begiekin ikusi eta liluratuta geratu ginen. Bertoko jende galegoak gauzarik naturalentzat dauka.

Gerra egin nahi izan ziguten kalpixki galegoak Coruña Hiriko Etxe Handian batu eta Dona Ximenaren hizkuntzan esan zien Ketzalkoatlen bila joatea galaraziko zizkiguten probintziak konkistatu eta baketzeko etorria zela, eta Ahuitzotl Gure Jaun Handiaren, Mintzo Den Haren menpe jarri behar zirela, lurreko jaunik handiena zelako, eta eurek beraz haren menpeko bezala eskaini behar zituztela euren buruak, pasatzen utzi ez zigutenez eta huts handia egin zutela menpeko on eta leial bezala faborea ukatuz lur haietan, eta harengandik, Moiotlengandik alegia, eta Aztlango beste tenotxkengandik plazerrak jasoko zituztela, zaintza onean eta justizia osoan faboretuak eta mantenduak izango zirela. Eta ez egitekotan etoi eta matxinatutzat hartuko zituela, eta hartara, gerra egingo ziela. Coruñaiko kalpixki guztiak ados egon ziren eta menpekotza-zina egin eta Moiotl eta Papalomitxinen pean jarri ziren eta lurreko zati hura dena bakezko bilakatu zen, Aztlanen alde eta bakean. Fai o que che ordeo esan izan balie bezala, diogun. Sant Iagoren tenplu handian, arrazoi osoz katedral deitua bera, erromesen arropak gainean erretzen dituzten harri handi bat daukate, eta dirudienez ez daukate konfiantza handirik euren botafumeiroan. Eta beste jantziak ematen dizkiete. Gureak ez zituzten erre nahi izan eta arropa berririk gabe geratu ginen. Harri hartan josita burdinazko gurutze bat daukate, Farrapoen Gurutzea, Fala Galegan piltzarrei farrapo esaten baitiete.

Azteken armada handia bazen Castañedon, handiagoa izan zen Coruña izeneko tribuko galegoak gehitu zitzaizkioenan. Poz-mamitan zegoen Tlakateka, bihotza zabal-zabal, eta oso ondo zenbatu genuen dena. Goiz osoa eman genuen trumoiak nola erabiltzen diren ikasten, eta ez zen gauza zaila, entretenitua baizik. Zapartatuko duela dakizuenan ez dizu jadanik beldurrik ematen. Eskopeta izeneko trumoi txikiagoak ere badituzte, eta oso ondo doaz, eta lastima izan zen, irteerako orduan gertatu ziren bultzadekin, unea denean azalduko dizkizuedanak eurak, gutxienez bana ez eramatea, eta Aztlan Zaharrera etortzerik izan ez zutenei erakutsi ahalko genieke eta gauza liluragarria izango zen.

Ballesta deitzen diete haien arkuei eta baliozkoak dira eurak ere. Ez da gureekin bezain azkar jaurtitzen, baina geziak urrunago doaz eta oso bultzada handiarekin. Ezpatak, altzairu izeneko lurraren egosketarekin egiten dituzte eta orri luzea da, zeinak min handia egin ahalko dizun, nola harrapatzen zaituen. Ez genien batere irudirik utzi, une hartan ez baikenituen, eta Farrapoen gurutzea estu-estu sartuta zegoelarik ezin izan genuen atera eta haiek egiten zituen mutila Castañedon geratua zen. Orduan iritsi zen nire Esteban lurreko oktliz lepo eginda, begi, sudur eta ahotik irteten baitzitzaion, eta pudoreagatik ez dut beste zein tokitatik esaten. Baina ez nion errietarik egin ez bainuen nahi berak imajina zezan nire botereaz eta autoritateaz abusatzen nuela.

Castañedon egin zen elkarretaratze handi guztia. Zazpi-zortzi egun pasa genituen dena antolatzen, izan ere Castañedo Aztlan Zaharreko Galeziako mendi goi-goian

baitago eta belaze, oihan, arto, fruta eta gazta ederrak dauzka, zeinetara, usain fuertea eta guzti, ohituta geunden Aztlango jende azteka, tenotxka deituak. Gazta ona da lurraldeko ogi beltzarekin, batik bat lurraldeko oktli-tragoxka batekin laguntzen bada, ardo beltzarekin. Castañedon bertoko gerra-arma galegoak erabiltzen ikasi genuen eta benetan erraza da, esana gera bedi egiaren ohoretan. Gutxi samar erabiliko genituen, aldiz, aipatutako espedizioan egiteko geratzen zitzaigun denbora guztian. Itsusia baizatekeen bat-batean haiek bezala armatuak ikustea, eta eurek esango zuketzen nolatan zen posible Sant lagoko jendeak arma berberak eramatea. Castañedoko kanpamenduko aitzxahuitl¹¹⁶ egin ninduten eta bat baino gehiagori hagin-karraska sortu zitzaion inbidiaz, baina ez dut esango zeintzuk ziren. Jakale onak egin genituen han eta neronek gidatzen nuen eraikuntza, aski ongi geratu baitzen, eta denek zioten Castañedoko alde hark Kainaberadi eta Palmadiko zati bat zirudiela, eta nahuatla zen han gehien mintzo zen hizkuntza. Alo, gure Tlakateka, Panpalomitxin eta Moiotl Vilanovadalosara, ulertuentzat lauhtepek Berrira, joan ziren, hogeika batzuk soldadu, beraz Nakxiti, Oiametl, Ketzalkoatl-Totek-Tlamakazkirekin batera, eta ni Opoton, aitzxahuitlia bezala, Castañedon agintzen genuenak ginen. Bi egun oso daude Castañedotik Vilanovadalosaraino¹¹⁷, eskerrak beheranzko bidea dela. Aroa aldekoa izan ez arren, geziak fabrikatzen jarri genituen geziak fabrikatzen, baina berdin zen, azken finean eurak ere ez ziren odolusten eta, gainera, Aztlanen, Mixkoatlen adbokazioaz, egindako asko geneuzkan artean, borrokarako onak zirenak eta haien ontasuna Kitxollitik kanpo egiten zirenei kutsatuko zieten. Multzo osoaren azpian oso ona atera zen bat ipini genuen, katzopintli bat erail baitzuen eta Pizietlek kuriositatez atera zuen, eta hantxe geneukan handitzen zihoan multzoaren azpian. Oroitzen banaiz, gero Pizietlen kontu hura dena azaltzen jarraituko dut, argi gera dadin. Ketzalkoatl-Totek-Tlamakazkik jende galegoari egunero azaltzen zizkion gure fedearen gauzak, eta euren artean bazeuden batzuk oso azkarrak zirenak eta gai ziren Jainkoen gorespenak bihotzez eta estropezurik gabe kantatzeko. Tlatxitonia-Tlapitzkatzin izeneko Tlapitzkatzin¹¹⁸ on bat geneukan, zeinak aski ongi irakasten zituen abestiak, eta gure Kainaberadi eta Palmadiko Tenplu Handikoa zen. Bertoko galegoak zirkuluan eseri eta estrofak irakasten zizkien, eta denoi goxatzen zigun bihotza ikustean nola galego pagano haiek benetako fedearen bidetik zihoazen: Huitzilopotx, iaketlaia, iakonai, inohuihuihuiia amenikuik tozike mitla¹¹⁹. Orduan gure kapitainak iritsi ziren Coruñan atxilo egindako jendearekin eta oso polita izan zen, zeren Tlakatekak denak batu zituen eta atzerritarrei adierazi zien jadanik ez zirela atxilotuak bihotzez Ketzalkoatl Jainkoaren bila laguntzen baziguten, eta nahi ez izatera alde egin zezaketela gustukoa egiteko askeak baitziren.

Opotonek esango luke inoiz ez dugula hura bezain Tlakateka ona izan. Joaten uzten zien seguru zegoenean haietako inork ez zuela alde egin nahi izango eta gainera denek, emakumezkoek ere bai, geratzea erabaki zutenean, eta niri Klotilde izeneko bat egokitu zitzaidan, neska jatorra aginteko maniagatik eta beste bizio batzuengatik izan ez balitz, zeinak pinabistikari¹²⁰ esker ez ditudan paper honetan jarriko, izan ere behar bada norbaitek irakurri eta auskalo zer pentsatuko duen, diot nik. Ezin izan genituen konbentzitu Sant Iago eta Ketzalkoatl Pertsona

¹¹⁶ Alguazila.

¹¹⁷ Egia: ehun bat kilometro.

¹¹⁸ Musika-maixua. Dena aurreikusita zeukaten.

¹¹⁹ Abesti osoa dago, itzuli ezinezkoa da, eta barkamena eskatzen diot irakurleari. Ez horregatik.

¹²⁰ Lotsa-pudorea.

ezberdinak zirela eta temati esaten zuten Jainko berbera izan behar zutela, eta Azaoak igaro direlarik Opotonek pentsatzen du behar bada ez zebiltzala hain desbideratuak.

Egia baita jainko berberak izen ezberdinak dituela. Gure Ketzalkoatl maientzat Kukulkan da, eta Bera lasai asko egongo da edozein izanda ematen dioten izena. Eta uste dut baita ere behar bada horregatik gure Buruzagiak ez zirela teman haserretzen. Agian horrexegatik pasatzen ziren hain erraz batarengandik bestearengana. Guretzat, Aztlango jendearentzat, balio zuena zen galegoak adiskide izatea, gu hornitzea, igarotzen utzi eta laguntzea. Eta hori dena bageneukan, antza. Argi dago gure gerra-erritua erabat aldatuta zegoela Huitzilopotxtlik bertoko galegoak ez sakrifikatzeko emana zeukan aginduagatik, eta beste era bateko gerra egiten ari ginen, Aztlan Zaharreko Galeziako lurrari, Galezia deituari, hobeto egokitua. Sisarga uhartekoek ederki asko frogatzen zuten lurralde hartan gertatzen zena; guk agindu gabe, euren kabuz etorriak ziren guregana eta Altamirako kondeak esana izango zion Tlakatekari Vigon elkarretaratu zirenean.

Bere suposizioz, Opotonek dio ezen as Espanhas do Mais Ala¹²¹ tribu ezberdinez osatutako lurraldea dela, Tantomontamontatanto Jaun batek gobernatua, zeinak, bere Emaztearekin ados, denak ongi menperatuta zeuzkan. Eta sarri esaten zuten ostera ceibes izan nahi zutela. Eta horregatik zetozen hain alaitsu Aztlango jende azteka tenotxkarekin.

¹²¹ Haraindiko Espainiak (Itz.oh.)

HAMAHIRUGARREN ATALA

Castañedon, beraz, bi bide aukera genitzake Ekialderantz joateko, edo hiru Itsasoa kontuan hartuz. Castañedotik gorantz abiatu eta Boento, Mellid, Fureiro, Libureiro eta Carballal pasatzen badituzu Palas del Reira ailegatzen zara eta han, zubia gaindituta, mendian gora doan bidea har dezakezu eta aurrerago gora eta behera ibili ondoren, behera gora baino gehiago egitan, itsasora iristen zara eta lurretik jarraitzen baduzu Ekialderantz zoaz, hots, bascoen lurralderantz. Eskuineko beste bidea geratzen da, zeina hasieran dena jaitsiera ttikiak diren eta azkenean lauago bihurtzen den, itzuli handia egiten duen arren, hots esan nahi baita hura ere iristen dela, beranduago izan arren. Eta aipatzen nuen hirugarren bidea Itsasoa bera da eta haren bila lauhtepek Berrira atera behar da, hots Vilanovadalosa lurralde hartako bertoko galegoentzat, non gure kanoak geneuzkan, eta haien galerak, gureak ere bazirenak, aipatutako gerra-eskubideak zirela-eta.

Gizon baten bizitzan sortzen den gauzarik basatiena erabaki sendo bat hartu behar duenean gertatzen da, gero jarraituko duen guztia ereintza hartatik jasoko duzun artoa denean. Bi bideen artean aukeratu behar izatea erabakimen larria da, are gehiago hiru direnean, juxtu une hartan gertatzen ari zena, baina nik erdiko bidea aukeratuko nukeen, hiru zirelarik eta ez bi.

Nire iritziz Castañedon egon ginen egun-pila hartan, han bizi izan baikin, hausnartzen ibili zen gure Buruzagien Kontseilua, jalal eta sukalde asko eraiki baikenituen eta esklabuak eta emakumezkoak geneuzkan, nirea Klotilde deitzen zelarik, eta aurrerago azalduko dut behar den bezala. Eta, Jainkoen inspirazioarekin seguru asko, hainbat ginelarik Ketzalkoatl-en bila gindoazenak, erabaki zuten hiru espediziotan banatzea, hots bat hirutan zatituta, Opotonek esan nahi dizuenarekin hobeto egokitzen dena.

Eta hala egun batean Castañedo osoa burrunbaz bete zen gure huehuetleen hotsekin eta denak batzartzera deitu gintuzten. Baina ez galegoekin; soilik Aztlango jendea, galegoak berriegiak baitziren gure armadan eta ez ziren gure konfiantza osokoak, baizik elkar konpontzeko beste. Lurraldeko galegoen artean Sususa bat bakarrik zegoen gure batzarrean, Dona Ximena, gure hizkuntza eta oso emakume ona zena. Beste guztiak Aztlango tenotxkak ginen, Gure Jaun Handiaren, Mintzo den Haren menpekoak, eta denok borobil handi batean bildu ginenean, erdi-erdian Tlakateka gogoramen onekoa zegoelarik, mintzatu eta esan zigun:

—Erabaki garrantzitsu bat hartu dut, eta zuek denak jakinaren gainean egon behar duzue, Aztlango jende hori. Eseri zaitezte lurrean, o tenotxkak, luzerako baitoa kontua.

Alo, Moiotl, Papalomitxin, Nakxiti eta Oiametl Buruzagiak, gehi aipatutako Dona Ximena Hizkuntza Sususa ikpallietan jesarrita zeuden eta Dona Ximenaren eta Ketzalkoatl-Totek-Tlamakazkiren artean Tlakatekaren tokia zegoen, baina hura ez zegoen eserita aldiz itzuliak ematen zituen kuatzin¹²² kaiolatu bat bezala mintzo zen bitartean, esana gera bedi figura bezala berak ez baitzuen hildakoarena egiten jazartzen zutenean.

Ondo esan eta esanahiz betetako gauza asko esan zizkigun; Opotonek ondo gogoratzea falta da. Hasieratik has banaiteke, hurrengo berez etorriko da, azaldu ditudan hainbat gauza horrela etorri baitira. Badira egun batzuk oso-osorik hausnartzen ematen ditudanak eta gero, idazten hasten naizenean aski erraz

¹²² *Didelphis virginiana* martsupiala. Erdaratuta, *tlakuatxe* bihurtzen da.

ateratzen dira, baina ez hainbeste. Baina gaurkoa hausnartu izan ezin dudan egun horietakoa da, nire lagun bat etorri baitzait bisitan eta azaldu dit gure Kainaberadi eta Palmadiko lakua Mendebalde aldetik husten hasi diren langile-multzo handiak daudela, eta apenas geratzen da ezer gure Kainaberadi eta Palmaditik eta horrek gaixotu egiten nau beste ezertan pentsatzea eragotziz. Beraz, Tlakatekak esan zigun:

—O aztekak, neke handiak pasa izan ditugu, eta dirudienez, gure Jainkoarengana eramango gaituen bidean gaude azkenean.

Horixe esan zuen hasteko, baina hobeto esanda. Eta jarraitu zuen:

—Ikusten duzue, o Aztlango jendea, orain arte igaro dugun lur guztia baketuta eta gure alde daukagula. Ikusi duzue galego atzeritarrak gurekin batzen direla eta hara hor non dauden, denak guretzat lanean guretako geziak egiten. Gogoratu ezazue, aztekak, jende honek Sant Iago deitzen diotela gure Ketzalkoatl, segurua baita Jainko berberaz ari garela. Badakizue, o tenotxkak, Jainko batek nahi duen izena har dezakeela. Zuek denok dakizue nire jendeak Kukulkan esaten diola gure Ketzalkoatl, eta Jainkoak nahi dutena bihurtzen badira, Ketzalkoatl inurri bihurtu zen bezala, izen ezberdinak ere eduki ditzakete Pertsona bakarra izanik. Ikusi behar duzue, o tenotxkak, jende galego honek debozio handia daukala bere Sant Iagorekiko, zeinak Izarraren Landa gobernatu eta berarekiko fedez ondo atxikita utzi zituen. Gure zeregina, o aztekak, izango da haiei ikusaraztea aipatutako Sant Iago eta Ketzalkoatl Jainko berbera direla eta gu Jainko berberaren lurrera bidali gaituela.

Gero esan zuen gure Apaizek, Ketzalkoatl-Totek-Tlamakazki aurre-aurrean delarik, errebelazio handiak eduki zituztela, eta azkenean Ahuizotl Gure Jaun Handiarekin, Mintzo Den Harekin kontaktuan jarri ahal izan zirela, zeina oso pozik zegoen bere negozioen martxarekin Galezia izeneko Aztlan Zaharreko lurretan, eta kemena opa zigula hitz ederrekin etsipenik gabe jarrai genezan lurralde haren baketzean eta irabazpenean Benetako Fede Bakarraren faboretan.

Eta Tlakatekak esan zuen:

—Ezin izango dugu gure zeregina amaitutzat eman lur atzeritar honetan, o aztekak, gure Jainko Ketzalkoatl aurkitu arte. Eta bihotzak zuri eduki beharko dituzue orain baibaitakigu bide onetik goazela. Gizon ahulak gara eta zalantzak eduki ditugu gure bidaiari, eta baita jende galego batzuek jazarri gaituztenean modu txarrean gerra-hotsez. Baina Jainkoak garaipen handiz saritu gaitu, esanaz hau zela hari zerbitzatzeko benetako bidea, o aztekak.

Tlakatekaren hitzek, Opaton gajoarenak baino hitz jakintsuagoak eurak, askoz gauza gehiago adierazi zizkiguten oraindik. Ez ginela geratuko Ketzalkoatl aurkitu eta hari esan arte gurekin etorri behar zuela Aztlanera, non betiko nagusituko zen, eta asko eta asko ginela haren bilaketaren zereginean, eta gureetako kanoak eta haietako galerak geneuzkala, Berak fortuna ona eman nahi izan zigulako eta orain artean gehiago zirela onurak kalteak baino, konta ezinezko jakiak, leiharrak eta Sususak eta gurdiak eta idiak eta kanoiak genituela eta, beraz, Ketzalkoatl faborea oso handia izan zela.

Esan zigun, baita ere, gutako inork ezin zela Jainkoen xedeetan sartu eta une hartantxe ezkutatu bazen Bera, ziur egiten zuela topaketaren poza are handiagoa izan zedin.

Hori dena esan zigun Tlakatekak, eta beste hitz batzuk ere bai, azteka guztien artean osatzen genuen borobilaren barruan itzuliak emanez, erdiko parte osoa hutsik baitzegoen, Tlakatekek nahi beste itzuliak emateko.

Orduan azaldu zigun Jainkoen eta Gure Jaun Handiaren batzarrean hartutako erabakia, hau da hiru armada-gorputz handitan banatzea, lurra ondo arakatu eta ahalik eta zabalera handienera hedatu behar baikin. Esan zuen, ezen bera,

Tlakateka eta Moiotl Aztlango gerrarien heren batekin eta gurdien zein idien erdiarekin eta kanoien eta galegoen beste armen herenarekin geratuko zirela eta denok batera bascoen lurraldera joko genuela beheko bidetik.

Papalomitxin eta Oiatmel goiko bidetik joango ziren gerrari tenotxken herenarekin eta gurdi idi eta zaldien beste erdiarekin, kanoien herenarekin eta beste arma galegoekin gehi gureekin. Alo eta Nakxitzl lauhtepek Berrira itzuliko zirela gerrarien herenarekin, eta gure sei kanoa gehi bertoko galegoen zortzi-hamar galeren artean banatuta ontziratu zirela, bederatzi izan ziren aurrearago esango denez, eta kanoien eta lurraldeko armen herenarekin, eta Itsasoko bidetik joko genuela, hark ere bascoen lurraldera baitarama, non denak batuta Oyarzun izeneko Ketzalkoatlén Lur Bascoaren herri batean elkartuko ginen.

Gureetako hamar hilabeteren buruan elkartu beharko ginen, hamar aldiz hogeiei egunen buruan alegia, eta banatuko ginen egun berean hasiko zen zenbaketa. Alde bakoitzarentzat berrogeita hamar aldiz hogeiei Aztlango gerrari azteka geratzen ziren, haiek geratzen ziren, iragandako gerren ondorioz galera batzuk izan baikenituen, bertako galego matxinoen erruz.

Orduan Tlakatekak esan zigun Itsasokoan Ahotsa Alo izango zela, lehen Kuauhtintxan izeneko nire kanoaren kapitaina izan zena bera, baina orain xotxikeetzalpapalotl delakoa gobernatuko zuen, hots, Mac-Ta izeneko kanoa, kanoa kapitaina zena hain zuzen, eta Nakxitlek Kuauhnahuak izeneko bere kanoa gobernatuko zuela. Jadanik atxilo galegoak egin zituzten lau kapitain aukeratu zituen eta geratzen ziren kanoen agindua eman zien zeinak, beren ordena naturalaren arabera, haiek ziren: Xotximilko, Tzontlilrentzat; Koaixtlahuakan, Popoiauhrentzat; Kuetlaxtlan, Aahoatikentzat eta nire Kuauhtintxan, Atlauhlirentzat, alegia galegoak zaldietatik jaisten zirenean ez zutela deusetarako balio Murosen esaten zuen harentzat. Orduan Tlakatekak ni seinalatu eta denak entzun zituzten hitz hauek esan zizkidan:

—Zu, Opoton, gureetako hogeiei bat gerrarirekin galera galegoetako batean joan eta haren kapitaina izango zara eta galera galegoekin nabigatzeko artearen gauza guztiak ikasiko dituzu eta Jainkoak beti lagun izango dituzu, o Opoton zintzoa.

Haren hitzak haiek izan zirela egia borobila da eta Aztlango jende askok entzun zituen Galeziako Aztlan Zaharreko Castañedon batzartuta geunden egun hartan. Eta fidagarritzat zeuzkan beste lagun gerrari tenotxka batzuk aukeratu zituen batailetan kementsuak zirela erakutsi zutelako eta esan zien haietako bakoitzak, gureetako hogeiei bat gerrarirekin, beste galera galegoetan joango zirela. Hauxek izan ziren aukeratuak: Aitztlí, Tlamani, Azkatl, Opoton, Momana, Apatztlí, Xohuilli, Tlautxtli, Okuillin eta Metxpitxiolo. Gero eskudratan banatu zituen bertoko galegoak, esklabuak izan ezik, haiek beren nagusiekin baitzihoazen, adibidez aipatutako Estebendasilva Opotonekin, Zirino Aitztlirekin eta Donato Atxollirekin, delako Donato hura kaktzopintlía izan arren.

Aitztlí ere, ofizioz zilargile zen nire laguna zena, kapitain izendatu zuten eta hogeiei bat gerrari eman zizkieten eta beste galera galego baten arduradun geratzen zen, hau da kapitaina zela ni-neu bezala, beno hobeto kaporala ni-neu bezala eta Atxoli, berriz, Kuauhtintxan kanoako lemazain egin zuten. Gure kanoetako galegoei fusta esaten zitzairen, eta unetxo bat libre daukadanean azalduko dut zergatik.

Bakoitzak bere andrea zeraman eta nik, noski, Klotilde, sekula nabigatu gabea, eta beti zorabiatuta zebilen. Baina hola esanda ematen du aldian behin zorabiatuko zela, eta Opotonek esan nahi duena da denbora osoan iraun zion zorabio bakarra izan zuela. Estebendasilva ere sekula ontziratu gabea zen eta nik pentsatu nuen kanoa gainean itxita neukan bitartean ez zituela gaiztakeriak egingo, uneoro jagon eta lan egiteko agindu askoz estutuko bainuen. Baina ikusiko duzue bere orduan,

edo hobeto esanda paperean ipintzeko unean, Opoton gajoa erratuta zegoela eta asmo hura ez zuela inoiz erabat betetzerik izan.

Kanoetakoek kanoi galegoetako herena eta pilota-karga handi samarra, oraindik hotz datozenean, eta pizten den lurrezko zahagiak, batik bat busti behar ez zena bera, izango genituen. Mac-Ta irauli zitzaigunean garraiatzen zuen guztia busti zitzaigun eta aurrerantzean ezin izan genuen erabili. Azken orduan gurekin etortzeko animatu zen Pedroperez baina ezetz esan genion eta erabat kopetilun joan zen eta ematen zuen zannoiakaugh esaten zuela. Bi aldiz hogeï galego adiskide eman zizkidaten niri, azteken modura jantzita, baita kapitain edo kaporal izendatutako bakoitzari ere, galegoentzat kapitain baikinena eta Aztlango tenotxkentzat kaporal.

Ez nago espedizioa mozerrotzen nire burua nabarmentzeko: kapitain izendatu ninduten eta askotan esan dut maite nindutela eta nitaz fidatzen zirela gustura egiten nuelako agintzen zidatena. Hainbetse ginen maxtlatl brodatua eramaten, ketzalen lumak ziren eskas, lumazako gendorra ere baikeneraman. Soldaduen kargu geunden guztiei sudurrean tigrearen hezur bat ipintzea agindu ziguten, ohore handia baita, eta nirea zulatu zidaten, eta oraindik nabarmentzen zait pixka bat¹²³, jadanik ez dagoen arren eramateko ohiturarik. Baina inoiz, bakarrik nagoenean, ipini eta gazte nintzenekoaz oroitzen naiz, Aztlan Zaharrera joan nintzenekoaz. Zulutzen dizutenean min pixka bat egiten dizu, baina mina desegin egiten da zuri egin izanak ematen dizun pozean.

Ketzalkoatl-Totek-Tlamakazkik zulatu zigun eta gero zulatutako guztiak errespetuz beterik makurtu eta Jainkoak laudatu genituen, lehengo ohiturak oso politak baitziren. Gure festek, gure dantzek eta gure gerlek betetzen ziguten bizitza. Orain dena aldatu da eta esaten didate gure Kainaberadi eta Palmadiko lakua ia erabat hustu dutela, eta gure lehenalditik geratzen zitzaigun azkena zen. Eta Gure Jaun Handiaren, Mintzo Den Haren zigilua eman ziguten, eta kapitain guztiok gauza sakratutzat geneukan hura.

Aparte kanpatu genuen, eta nik neurea neukan. Esteban bigilatu beharra neukan, eta aurre egin, batzuetan Opoton bera baino kapitainago sentitzen baitzen eta aginduak eman nahi zituen, eta beste gauza batzuk. Gerrari galegoek ere aski kasu egiten zioten, behar bada berari gehiago niri baino, erabat ulertzen baitzioten eta uste zutenez nik ez niela ulertzen bada ez nien ulertzen. Bertoko galegoei gure armak erabiltzen irakatsi genien eta batzuk lehen egunetik egin ziren jaurtitzaile trebe. Denek gure nahuatl ikas zezaten nahi genuen eta erabat alderantziz gertatzen zitzaigun: gu ginen euren Fala Galega ikasten genuenak. Gauetan, kanpamenduko suaren aurrean, edo hobeto esanda inguruan aurrean baino gehiago, gure gerrarien kantua irakasten genien:

O ahqueman on tlamiz yaoxochitl: mano, ieehuaya,
atoyatemoan in ocuepontimanque,
oceloxochitl, in chimalxochitl i
a oyohualpan teuhtlamotecayan.¹²⁴

Hasieran asko nahasten ziren baina gero ikasi zuten eta gauetan, Cuandopenso galeraren gainean, oso bihotz-altxagarria zen bertoko galegoek, lurreko musika-

¹²³ Kartilagoa zulatzen zuten.

¹²⁴ “Sekula ez da gerra loretsua bukatuko: mantendu ibaiaren alboan; han ireki dira korolak, tigrearen loreak, eskutuaren loreak, zintzarrien toki berean”.

lagungarriekin nola abesten zuten entzutea, egin zituzten aldaketa guztiak barne. Baina oraindik ez gara Castañedotik irten eta Cuandopensoz mintzatzen ari naitaizue. Saiatuko naiz konpontzen.

Iritsi zen, beraz, banantzeko eguna. Dena ondo prestatuta zegoen eta Alok eta Nakxitlek formazioan ipini gintuzten denak, talde bakoitza ondo elkartuta, ondo eratuta eta ordenan. Hara bada ondo formatuta geundela eta barruko harra erabat artegatuta ikusirik beste taldeak ere prest zeudela eta, orduan, gutxi geratzen zen Castañedoko jakaleak desegin baikenituen, egitea hainbeste neke emanda. Bat bakarrik utzi genuen eta Ketzalkoatlen estatua handi bat egin genuen arto-irinarekin eta xugada bat sakrifikatu genuen odola zegokion bezala Lau Haizeetara zipriztindu genuen, eta gero Aztlangook mazehuatliztli on bat egin genuen eta dena oso debotoa eta erreberentziaz betea geratu zitzaigun. Gero arto-orea banatu genuen denon artean, jan eta hartara Ketzalkoatlekiko pentsamendu garbia eta idien indarra geneukan, handia baitzeukaten, ikusita baitago nola garraiatzen duten gurdia, nahi beste kargatzen duzularik. Aurreko gauean gure gerrarietako batek, Murosen katzopintli erako sei atxilotu egin zituenak, zeinek, euren burua galduta ikusi zutenean parlamentuak¹²⁵ ipini eta emakumezkoztat pasatu nahi zuten atakatik ateratzeko, hark Netxpitxiolo zuen izena eta ez zuen bere burua moztzerarekin engainatzen utzi, eta Netxpitxiolo hark, beraz, aurreko gauean tlakanexquimilli bat topatu zuen kanpamenduko itzulia egiten ari zelarik. Oso gerrari ona zen, kemetsuenen ezpalekoa, eta ez zen mamuarekin beldurtu, ez bururik ez buztanik ez daukaten arren eta une honetan ez dago konparazio modura esanda, aldiz egia da ez daukatela ez bururik ez buztanik. Tlakanexkimillirekin borrokatu zen haiek daramatzaten maguei-arantza batzuk eskuratzeko, fortuna onekoak baitira gerra hasten denerako, estu-estu hartu eta hamar emanarazi zizkion eta luze iraun zuen, mamua errekararitzen hasi baitzen, beti egin ohi dutenez. Aipatutako Netxpitxiolo hark, ni bezala kapitaina zenez, agabe-arantzak erakutsi zizkigun, ez baitzirudien egia izan zitekeela eta, aldiz, erabat egiazkoak ziren, eta bana eman zigun galera galegoen gobernuan egongo ginen kapitainetako bakoitzari, eta berak bat gorde zuen berarentzat, hamar galera baitziren, orain esango dudanez. Eta Netxpitxiolok eman zidan nire maguei-arantza, berak bertoko mamu galegoarengandik jaso, lepotik eseki nuen eta beti eman zidan Ketzalkoatl Jainko onaren pentsamenduaren garbitasuna eta idiaren indarra.

Eta zorte handia honekin frogatu ahal dudala, Aztlan Zaharreko abentura idazten ari naizelarik, beste askok ezin izan baitute idatzi, diogun. Estebanek ere eseki zuen arantza bat lepoan, baina ez mamuak emandako magueikoa. Niri huizatxekoa¹²⁶ iruditu zitzaidan eta oso gauza tanoka zen harekin gu imitatu nahi izatea, baina ez nion esan arantza hark ez zuela ezertarako balio eta sinets zezala utzi nion, ondo baitzihoan, kontuan harturik zoriontsua zela hain gauza eskasarekin.

Hori dena banandu eta irten aurretik gertatu zen. Urrezko gauza asko ere eman zizkiguten leiharra eskura genezan denbora librea izandakoan. Zetekptal ginen eta zorion-seinalea da, Huitzilopotxtli gerrako jainkoari baitagokio, eta Kamaxtliri, Jainkoaren erabat antzekoa baita. Beraz, garairik egokiena zen bidaiari ekiteko. Eta orduan banandu egin ginen eta mingots jartzen den kainaberaren zaporea zeukan, eta ulertuko didazue. Orain, milikeria-garaia denez, bat adibidez Aiotlara baizik ez doanean dena da malko eta besarkada, eta laster itzultzten da, eta ezer

¹²⁵ Muroseko andrazkoek zeramaten kapa-moduko bat.

¹²⁶ Leguminosa, *Acacia farnesiae*, zuhaiska arantzaduna.

gerta ez dakizun jagoten du eta gaixotzen bazara abisa iezaguzu berehala, beraz ezer ez: gerra-formazio ona, astindu teponaztleak eta huehuetleak, jo adarra eta goazen. Bidea buruz dakizue, izan ere Opotonek hainbat aldiz ipini baitu paperean: Dous Casas, Lavacolla, Izarraren Landako Sant Iago, Padron eta Vilanovadalosa, hots luauhtepek Berria jende adituarentzat.

Aipatutako Vilanovadalosan geneuzkan kanoak eta karabela izeneko galera galegoak, dena batera flota edo eskuadra, esateko bi moduak baitira aski onak. Bi galera galegoetako batek alde egin eta esana utzi zuen ez zuela gurekin etorri nahi eta munduko ezkerreko aldera joan zen haiek maneiatzen zituzten bertoko galego guztiekin eta Aztlango gure zentinelei esan zien itzuli bat ematera zihoazela mesana ondo zebilen frogatzeko, baina ez zeukan, bi mastakoa baitzen, eta horrekin frogatuta geratzen da jende haren borondate txarra, zeren nola nahi duzue gure zentinelek zer bait jakitea mesanei buruz, galdera bezala ipinita gera bedi. Eta jadanik euren etako bederatzi galera edo karabela eta gure etako sei geratzen ziren.

Alok erabaki zuen kapitainetako bat, aipatutako Netxpitxiolo, Mac-Tan gera zedila bere bigarren bezala eta haren gerrariak banatu zituzten eta soilik bederatzi kapitain geratu ginen bederatzi galeretarako, eta ezkerretik eskuinera hauxek izan ginen: Cuandopenson, ni, Kainaberadi eta Palmadiko Opoton, lehen buztिंगilea eta orain kapitaina; Pandeiradan, Aitztlí; Panxoliñan, Ocuillín; Oseran, Apaitxtli; Paradelon, Momana; Pallan, Tlankotxtli; Nemetamosen¹²⁷, Xohuilli; Patexeiran, Azkatl eta Neriosen, Tlamani. Horiexek ziren bederatzi galera galegoak, eta eraman zuena Negrasombra zeritzan, izen itsusia eta iragarpenez betea baita, eta gurekin etorri izan balitz eduki genuen baino zorte txarragoa ekarriko zigun, asko esatea baita.

Jakietarako gurdi asko eta uretako eta oktliko zahagiak eta xugada biziak generamatzan, eta kaktzopintle eskuadroi handiak zetozen eta zaldiak beheko partean kokatu genituen, aipatutako kalan, zaldiak ipintzeko egina baitiduri, asko sartzen baitira. Galera galegoak oso handiak dira eta nirea, Cuandoponso izenekoa, ez zen txikienetakoa. Jende galegoaren cuauhtxitxikek ez dituztenez galera guztiak neurri berberekoak egiten, aldiz handiak eta txikiak fantasia handikoak, eta batik bat, ertainak. Netxpitxiolo ez zen mindu karguan atzeratu izanagatik, izan ere Alorean bigarrena izatea ere gauza ona baitzen eta bihotz zabala zeukan eta niri iruditzen zait haren tokian egon izan banintz gaizki irudituko zitzaidala. Ezin ziur esan eta Tlatxitona-Tlapitzkatzin zen gure apaiza.

Bi egun eman genituen luauhtepek Berrian, ontziratzen. Padron eta haren inguru etako jendea etortzen zen maiz, lurraldea tribu ezberdinetako jende-andanaz oso populatua baitago, eta era guztietako opariak ematen zizkiguten, batik bat jateko eta edateko gauzak.

Haien emazteek, asko dauzkatelarik, ontziak kargatzen laguntzen ziguten eta dena zen joan-etorriko bidaiak egitea, gelditu gabe. Egun oso batean izan genuen Eguzkia eta poz handia eragin zigun hainbeste denbora eman ondoren hura ikusi gabe, eta gutako askok belarriak odoleztatu genituen esker onez. Seinale itzela baitzen Ketzalkoatlek hodeiak atzeratzea tarrapataka nola genbiltzan ikusteko.

Horixe zen orduan pentsatzen genuena, lehenago alegia, gero gauzak ezer asmatzen ez genuela esateko moduan gertatu baitziren. Aingurak jarri genituen gure ontzien aurrean, aurreko aldean alegia, eta gauza ona izan zen eta ezin esan zitekeen galegoengandik kopiatu genuenik, eurek berek eman baitzizkiguten aingura haiek. Burdina handi bat da, bi tigre-aletxa dauzkana, eta beheko partean

¹²⁷ Galerak Viana eskualdeko populazio zelten izena bazeraman, izen zuzena *Nemetanos* litzateke.

dagoen hondarra hozkatzen du eta kanoa ez zaizu aurrerantzean mugitzen, edota behintzat oso gutxi, eta beti ainguraren bueltan, eta sekula ez doa urruti kate batez lotuta baitago, eta alde egin nahi duzunean gorantz luzatzen duzu katea, luzatzeko gurpil bat daukatelarik, eta aingura goian dagoenean jo nahi duzunerantz, inork ez baitizu eragozten, diot nik. Aurrerago azalduko dut ondo azalduta ainguraren kontua.

Behin ilunabarra iritsita gau egiten dela kontuan harturik, kanoen gainean hartu genuen atsedea, eta nire bizitzan ohe batean lo egin nuen lehen aldia izan zen, zeina ondo azalduta geratuko den ainguraren istorioa prestatzen dudanean.

Nik ganbera kapitaina deituriko ganbera neukan eta Estebanek nola edo hala nirekin eta Klotilderekin lo egiten geratu nahi zuen, nire esklabua izanik hura omen zelako bere leku naturala. Alok berak bultzada handi batez agindu zion beherantz joan zedila, non beste esklabuak zeuden. Izan ere galego hauek uste dute esklabuak izanda euren kapitainak egiten duen guztia edo gogora datorkien edozer egin dezaketela. Eta nire Esteban oso desgustura zegoen eta nire Klotilderen ahotsa entzuten zuenean, esanaz fai o que che ordeno, are gehiago amorrazten zen, uste baitzuen 'nagusiak goian eta esklabuak behean' agindua berak asmatu izan balu bezala jokatzeko zuela Klotildek.

HAMALAU GARREN ATALA

Biharamunean, Eguzkia irten baino lehen, gauza guztiak ontziratzen amaitu genuen. Ziurtatu genuen ezer ez zela gelditzen galeretara igo gabe eta dena deskargatu eta ostera behar hainbat aldiz kargatu ahal genuen, egun hartan ez baitzen Eguzkirik atera.

Zirrikituak handituta zeuden trumoi galegoak, kanoikadak alegia, pasatzen uzteko, eta mundu guztia gerrarako jantzita zegoen, arraunlari bakoitza bere tokian, eta soilik irteera-oharra emana izan zedila falta zitzaigun. Alok deitu eta kapitain guztiak batu ginen eta hura izan zen Opotonek Kontseilu batean parte hartzen zuen lehen aldia, eta, orain, Azaoak pasata, ohartzen naiz ez nintzela gehiegi nabarmendu.

Vilanovadalsako, hots lauhtepek Berriko, etxe bat tekiauhkauhkalli bezala egokitu eraldatu bihurtu ipini zen, eta Alo Tlakateka zen eta Nakxtli Tlakotxkalka, eta gu ginen ontzi galegoen bederatzi kapitain berriak eta kanoa azteken lauak. Nire oroitzapenak gaizki ez baditut gobernatzen hamabost Buruzagi zeuden eta hamazazpi izango ziren Negrasombra karabela ihes ez egitera, zantzu txarreko izena bera eta oso ondo joan izana. Orduan Alok bere Kontseiluari azaldu zion nola zen gure itsas-martxaren ordena eta esan zigun Mac-Ta beti joango zela aurrean xotxiketzalapoltlarekin eta gero, bat bai eta bestea ez, galera galegoa eta kanoa mexika, eta gure kanoak lehenago amaitzen zirelarik, batera zetozen galera galego batzuk eta azkenean kanoa mexika bat, Cuauhnahuak delakoa, eta Tlakotxkalka Nakxitlek gidatzen zuen.

Orduan ikusi nuen gurea bezalako kanoa, bi arrabete luzerakoa, baina txikittoa, egiten zebilen Vilanovadalsako mutikoa, eta zurez eta oso ondo egina egiten zuen, oso ondo kopiatua baitzuen eta gorritz margozten ari zen, ez guk Aztlanen geneukan buztinezko gorritz, Galezian ez baitago, baina oso ondo imitatutako gorritz eta aski asko dezente ongi ematen zuen¹²⁸.

Ea emango zidan galdetu nion, pentsatu bainuen polita litzatekeela oroigarri bezala gordetzea baina mutikoak kasurik ez. Baietz esan zidan geroago, nik neramatzan urrezko besoko batzuk ematen banizkion, eta hari ematekotan nengoen, Klotildek belarrondoko bat eman zion ia-ia mutikoa eta kanoa txikituz. Niri beso batetik tiratu zidan eta nahitaez jarraitu behar izan nion jipoi bat ez jasotzearren, zeren mutikoa jo zuen bezala ni ere joko ninduen, ezagutzen bainuen aipatutako Klotilde. Eta zioen:

—Ondo geundeke putzezko ontzitxo baten truke besokoak emango bazenizkio. Zu ondo jagon beharra daukagu, Opoton.

Alok ganbera kapitaina zeukan Mac-Ta kanoan eta Filomena izeneko sususarekin konpartitzen zuen, bere bertoko emazte galegoa baitzen. Alorean Filomena eta nire Klotilde beste kapitainen emazteekin elkartuta zeuden ordurako eta euren artean gakorratzezko bufandak egiten hasi ziren Aztlango haur pobreentzat eta nik nire Sususa Klotilderi esan nion Aztlanen debekatuta zeudela haur pobreak, baina ez zuen etsi eta esan zidan, bada orduan bufandak gu kapitainontzat izango zirela,

¹²⁸ Londresko Itsas Museoan (Royal United Service) XVI. mende-bukaerako zurezko galera ustez arabiar baten maketa dago, baina argazkia eta katalogoak egiten duen deskripzio osoak (karratuegia, arraunekin, itsasokoa izateko antzik gabea, etab.) kanoa aztekek gogorarazten ditu batik bat. Museokoa ezin zen izan Vilanova d'Arosako mutikoa egiten ari zena.

gauak Kantaurin, ezer esan nahi ez zuen Itsasoaren izena baitzen, oso hotzak zirela eta haiek ederki babestuko gintuztela.

Klotildek egin zidan bufandak mutur batean seta doratuz brodatuta zeukan nire izena eta beste muturrean suge luma-gandorduna eta beste letra motz batzuk, viva Ketzalkoatl¹²⁹ ziotenak, hostoz eta lorez eta lorez inguratua dena, eta benetan itzela zen. Ez dago esan beharrik Opotonek ez zuela inoiz jantzi; nahiago izango zukeen lehenago hotzez hil. Eta aipatutako bufanda arrazoi-habi handia izan zen, bere garaian aipatuko ditudanak.

Itsasontzi guztiak, denak baitziren itsasontziak, batzuk galerak eta besteak kanoak izan arren, Alosako Ibaiburuan geneuzkan lerroz lerro, eta arriskuan erori gabe Opotonek esango du bere Cuandopenso galera politenetarikoa zela.

Orduan Mac-Tak bost kanoikada jaurti zituen eta abiatzeko seinalea zen, esana baitzegoen bost kanoikada jarraian aingurak igo eta abiatzeko ordua adierazten zuela. Mac-Ta indartsu abiatu zen eta gure beste bost kanoak berdin baina aipatutako galera galegoek zailagoa daukate abioa, endredo z beteta baitaude, adibidez, orain tira soka honetatik haruntz eta orain beste honetatik harantz, eta bela hau trabeska eta orain lasa dezagun beste bela hau, eta antzekoak, eta horrek guztiak gure martxaren edertasuna birrintzen zuen, ezin baitzen konparatu nire Kuauhtxitxik zurgin lagun handiak egindako bost kanoenarekin, zeinak oso dotore joan ohi baitziren itsasontzi galegoen enbarazurik gabe, aldiz besteak ez. Zeren bela-pila bat baitaramate eta oso arraun gutxi, eta ni bertoko arraunlari galegoak xaxatzen, baina alferrik, izan ere hainbeste kanoi, zaldi eta bertako galego esklabu oso astunak baitziren. Baina behin Salvora uhartea pasatuta haizetxoa zebilen eta orduan belak puzten hasi ziren eta orduan ez ziruditen atso-bularrak, baizik ondo atezatuak musika galegoaren antzera eta Alosako uhartea gaindituta, jadanik Itsaso zabala zelarik, haize handia zebilen eta mastak, hots arbolak, aterako zizkigula ematen zuen, Tlalokek broma egin nahi izan bazigun bezala mastak errotik ateraz. Eta Opotonek esan beharra dauka ezen itsasontzi galegoak belak zabalik zihoazenean, lan eskerga gure kanoena zela, haiek harrapatzeko, kontuan harturik egiak denen aurretik joan behar duela.

Egun erdia baino gehiago eman genuen itsasontzi galegoak eta aztekek doitzen, denak batera joateko, eta ez batzuk aurrerago eta beste batzuk atzerago, hori ez baita armadaren martxa txukuna, diot nik. Bela batzuk jaitsi eta gutxi batzuk utzi genituen eta orduan parekatuagoa bilakatu zen martxa.

Ez dut esan Iparralderantz, munduko eskubiko alderantz, gindoazela, eta zati on bat Mendebalderantz, horrela etxerantz gindoazela ematen baitzuen. Bertoko galego asko zorabiatuta zeuden, baina ofizioz marinel zirenak eta Aztlango jendea ondo zeuden, Itsasoko gauza eta mugimendura ohitutako jendea baitzen. Hamabost itsasontziak ceceniakahuaquiza¹³⁰ zihoazenean Muros-Xikonamitlango Badiatik pasa ginen eta Mac-Tak pixka bat eskubirantz biratu zuen eta gu atzetik, baina Murosekoak ez zeuden jadanik gerran eta hobeto eurentzat orduan txikitu egingo baikenituen oster. Baina ezin zuten bizitza guztia gerra egiten eman, diot nik. Eta buelta bat besterik ez genuen egin Murosetik hango jendeak gu ikus gintzan, ondo antolatuta. Nik ikusi nuen nire Cuandopensoko bertoko marinel galegoek belak maniobratzen zituztela, batzuetan nasaituz beste batzuetan eskoratz, beste batzuetan atezatuz eta horrela itsasontzi galerak agintzen ziotena burutzen zuen. Eta oso esanekoa zen, eta poza ematen zuen hura ikusteak. Luze egon nintzen lemazainaren alboan eta ohartu nintzen euren lema gurea baino hobeto asmatuta dagoela; ez dago bere zamari eutsi heharrik, lotuta

¹²⁹ Hitzez hitz.

¹³⁰ Lerroz lerro. Nahuatlezko hitza hain polita denez utzi egin dut.

baitago, eta soilik makila luze batekin biratzen duzularik ez du nekatzen gehiegi, beste itsasontzi galego karabelak giderrez betetako kirten batekin eskoratzen dira, asmakizun aski inozentea bera, diot nik. Ez ditut ipini kapitain galegoen izenak lurralde hartan denak Pedroperez baitira, era berean. Bat iristen denean kapitain izatera, Pedroperez esaten diote, eta betiko dauka. Nire Pedroperezi esan nion:

—Ni ere lemazaina naiz ofizioz. Utz iezadazu eta ikusiko duzu.

Bere tokia utzi zidan eta harrituta geratu zen eta bere begiradan antzeman nion, ematen baitzuen esaten zuela noiollo iiztaia. Baina Fala Galegoan esanda, jakina. Dena hondatzera etorri zen nire Klotilde. Honela zioen.

—Utz ezazu hori. Zer dakizu zuk gauza hauetaz, hondoratuko gara gero!

Xipe-Totekek barka zezala nahiko zukeen Opotonek, baina amorrua ematen zidan hain ergela izateak. Azaldu behar izan nion nik kanoa bat gidatu nuela Aztlandik Aztlan Zaharreraino eta ez zuen sinistu. Pixka bat gehiago zorabiatu zedila nahiko nukeen nik eta orduan ganbera kapitainean itxiko nukeen, eta hola soilik aldian behin ikusita dena hobeto joan zatekeen. Baina ez zen gehiago zorabiatu, ez eta Kantauri izeneko Itsasotik gindoazelarik ere, oso zakarra zen arren¹³¹. Esteban bai, Totxpanetik irten ginenean bezala. Kalaren sakonean geratzen zen eta ez zuen Itasoa munduko ezergatik ikusi, oka egiten okupatuta baitzegoen. Ni esklaburik gabe egotea bezala zen, baina egia esanda ez nuen asko sentitu.

Cuandopenso barruan, kontuan harturik Opoton kapitaina zela, asko losintxatzen ninduten eta, esateko, alde guztietatik aurkitzen nituen zerbitzariak. Opoton Jauna hemendik, Opoton Jauna handik. Gorantz eta ezkerrerantz nabigatu genuen eta batzuetan hain ezkerrerantz zen, itzultzen ari ginela ematen zuen, eta nik susmoa nuen marro galegoa ez ote zen Aztlan Zaharretik ateratzeko asmatua. Oiatmetli Ollamel esaten zioten eta orain kontatzen hasiko banintz gure izenak aldatzeko galegoen modua barre-sabelkada ederrak egingo genituen baina sekula ez nituzkeen aztekek Aztlan Zaharreko Galezian bizi izandako abenturak kontatzen amaituko. Beraz, hobe izango dut gure Tlakatekaren diskurtsoarekin jarraitzea.

Pentsatu nuen gu hornitzeko geratzen ginenean Alorekin eta Nakxtitlekin mintzatuko nintzela, azken horri jende galegoak Nachin esaten zioten, eta pote galegoko zahagi bat ireki ziguten eta cunca bat edan eta compangorako indarrik gabe geratzen nintzen. Opoton eta Alo ondo esaten zuten bakanenetako izenak ziren, eta jadanik Finisterrara iritsita geunden, zeinak esan nahi du, joaten zarenean, edo ondo esaten jarrita, zatozenean mundua bukatzen den tokia dela. Alosatik sartu ordezt Finisterratik sartu izan bagina lehenago iritsiko ginatekeen Aztlan Zaharreko (?) Galeziara, baina orduan ez genekien oraindik.

Finisterra da Galeziak Mendebalderantz gehien irten ahal duena, eta oso kala ona daukate non ainguratu eta herrira jaitsi ginen, hura ere Finisterra deitua, zeren izen bat gustukoa dutenean edonon jartzen baitute, eta oso herri ttikia da hain Mendebalderantz egon arren.

Tekiahkauhcalli izeneko Kontseilua izan genuen Finisterra Herriko etxe batean, zeina hutsik zegoen gu sartu baino lehen. Orain azalduko dut, han baikinena Kapitainak, Tlakateka eta Tlakotxkalka, baina ez Pedroperezak. Nik adierazi nien nire susmoa hain mendebalderantz joateagatik eta erantzun zidaten, ezen behin Finisterra gaindituta, Ekialderantz eskoratuko ginela. Ezin zen zuzenean joan Ekialderantz Finisterratik igaro gabe, Galeziako Itsasorako irteera bezala baitzen hura.

¹³¹ Kontraesana dauka kronistak: aurreko atalean esan du Klotilde bidaia *osoan* zorabiatuta egon zela.

Erabaki genuen baita ere galera galegoak gure kanoak baino hobeak zirela Itsasoan eta orduan Aaktxoatikek galdetu zuen:

—Esaidazue, o aztekak, zer gertatuko zitzaien belak ezarriko bagenizkie?

Nik erantzun nuen:

—Ez zieten eutsiko, gure kanoek ez baitute mastarik.

Zer esan ote nuen, Opoton gajoa. Denak gainera etorri zitzaizkidan, eta astoa eta guzti esaten zidaten. Ikusarazten saiatu nintzen barrea eragiteko esan nuela hura, baina inork ez zidan sinistu, eta ondo egin zuten, fede onez esan bainuen. Pedroperez garrantzitsuenak deitu zituzten haiek zer uste zuten jakiteko eta esan zuten baietz, agian baietz, soberan zeuzkatela belak eta aurrerago, Vaucerveiroko Ibaiburuan bi galera zeudela hondoratuta, zeinei kendu ahal zitzaizkien arbolak, ikusirik mastei arbol esaten zietela, eta gure Aztlango kanoak sei zirelarik, masta bana zegokiela.

Pedroperezak erretiratu ziren eta hasi ginen pentsatzen zein gauza ona izan zitekeen belaz nabigatzea eta Tlakateka-Alok, nire oso adiskidea zelarik eta eroamen handikoa Opotonek esaten zituen ergelkeriekin, esan zuen gau hartan atsedean hartu eta biharamunean saiatuko ginela kanoak atontzen, eta hobetzeko zetorkigun aukera hura, seguru, Ketzalkoatlek, Zeruan egon dadila bera, egiten zigun opari handi bat zela. Eta esaten genuen Gure Jaun Handia, Mintzo Den Hura pozik egongo zela kanoak era hartara hobetuak ikustean. Eta gure Tlakateka Handia ere berdin, eta Ketzalkoatl-Totek-Tlamakazki, eta bascoen lurraldera belaz nabigatzen iristen ikusiko gintuzten beste adiskide guztiak, nahiz eta ez zuten sekula ikusi, esana gera bedi egiaren ohoretan.

Orduan Apatztliri, hau da Oserako kapitainari, esan zitzaion agindu ziezaiela emakumeei jana prestatzeko guretzat, lehorrean egingo baitzen bazkaria, eta etortzeko agindu ahala. Eta itzuli zenean jarraitu egin zen Kontseilua, Tekiauhkauhkallia alegia, agindua beteta baitzegoen eta Tlakateka-Alok esan zuen itsasontzietan egingo gurela lo eta biharamunean ikusiko gurela gure kanoen transformazioa, Kuauhtxitxik zurgin nire oso lagunaren obra berak, eta beranduago Jaun izendatu zuten adiskidea eta aurrerantzean Kuauhtxitxiktzin izan zen, nahiz eta nik, haren adiskidea izanik, sekula ez nion horrela deitu. Esan zuen baita ere ezen, ikusirik Ketzalkoatlek berak bultzatzen gintuela, laster iritsiko ginela gure nekeen amaierara, Aztlanen probetxu eta aintzarako.

Pinahuiztliagatik ez ditut idazten Klotildek eta biok ganbera kapitainean itxita egiten genituen gauzak, ni gaztea bainintzen, esperientzia gutxikoa, eta sormena zeregin bezala baino ez nuen ezagutzen eta aldiz bera alfonbra bat bezain lau zegoen eta nabigazioko sekretu guztiak ezagutzen zituen, baliagarria izan dadila arazoa aditzera emateko modu zabarra.

Biharamunean dena zen mugimendu, bultzada eta gauzak egiteko gogoa eta ez naiz nitaz ari, denetaz baizik. Panxoliña galegoa aukeratu genuen, oso arina baitzen, Okuillinen agindupean zegoena, eta bera ere arina zen, Ameka aldeko herri batetik baitzeturren, Vaucerveiroko Ibaibururaino igotzeko, zuhaitzen bila joateko, eta Nakxiti bertoko galego popolotxek Nachin deitzen zutenarekin joan zen, eta gure jende galego askorekin eta Aztlangoekin, tenotxkekin, alegia.

Laster puztu ziren Panxoliñaren belak, karabela arina baitzen eta hegan egiten zuen Itsasoan bistatik galdu zen arte, eta gaizki esana geratzen da, ematen baitu ikusten ez genuenean ez zuela hegan egiten, baina ulertzen didazue. Baina aipatutako Panxoliña arinenetakoa zen.

Gure kanoen gainean zuloak egiten hasi ginen orduan eta Pedroperezek adierazten ziguten toki zehatza eta zuloen neurria, mastak pasatzeko. Beheko aldetik kanoen hondoa jo behar zuten, eta orain gutxiago nahasten naiz gauzak, nahasiak izan arren, azaldu behar ditudanean, eta zurak sartu genituen, mastak

kabitzeko karratu batzuk bezala osatuz, eta taketak ixteko, eta neurri ezberdineko ziriak egiten hasi ziren, ziriak eta taketak gauza beraren osagarri baitira. Masta zuzen batzuk ere jarri genituen eta, gainean, beste masta batzuk etzanda, hormatik baitzetozen, hormatik irten balira bezala, aingurak jaitsiarazi ahal izateko, eta aipatutako Pedroperezek aholkatzen ziguten lana ikusirik, esan ahal da kanoak hobetzekotan egin ahal zen guztia zuloz betetzea zela.

Euren artean nautikoak zeritzan gauzak ziren haiek denak, diogun, adibidez era galegoan osatutako lemak, makiladunak alegia, gurea baino baligarriagoa zena hain juxtu.

Finisterra-Herrian bi masta handi zeuzkaten, lehenago beste itsasontzi bateko arbola izan zirenak hain juxtu, eta zura ez zegoen ustelduta, zuzen eta berdindurik baizik. Mac-Tari ipini genion bat, gure kanoa kapitaina baitzen, eta pare bat egun behar izan genituen ondo janzteko, eta orduan iritsi zen Panxoliña, aurkitu zituzten masta guztiak garraiatzen zituelarik Itsaso gainean, sei baino gehiago seguritik, eta pila bat gauza, adibidez burdinak, sokak eta aingurak, korriola erakoak, eta lemak. Eta sokazko eskalak, zeinak orain azalduko dudan zertarako balio zuten. Eta hiru gusia, gure Kainaberadi eta Palmadiko kanoak diruditenak, nahiz eta beste era batera apainduta datozen. Gusi horiek galeraren goiko partean daude eta hondartza batean jaitsi nahi dutenean beheratu egiten dituzte eta gusiarekin alde egin, galerak hondoa jo ez dezan. Bertoko jende galegoak nabigazioko artea auskalo noraino laguntzen duten pila bat gauza asmatuta dauzka.

Gogotik saiatu ginen lanean eta Mac-Ta prest geratu zenean lastima ematen zuen hain desitxuratuta ikusteak eta Itsasora atera ginen probatzera, belen maniobran lagun zuten Pedroperezekin. Eta Finisterrako Badiatik atera orduko, Itsaso gainean zeraman martxa eder harekin, eskubi aldera biratu eta lasterka bizian zihoan eta bat-batean albo batera eskoratu eta irauli egin zen osorik. Berehala hurbildu ginen Aztlango kanoa guztiekin eta jendea jaso genuen, inor ez baitzen ito, galegoek gure erarekin zerikusirik ez duen moduan igeri egiten duten arren, zeinak barrea eragiten zigun baina baliogarria izan zen haientzat, esana geratu baita haietako inor ez zela ito.

Arrastaka eramán genuen Mac-Ta, itsusi ematen baitzuen era hartara iraulita eta ilunabarrean ondo estekatuta geneukan eta biharamunean gogotik lan egin genuen zuzen jartzeko sokekin estekatuta eta denek haietatik tiraka. Baina Pedroperez izeneko Pedroperez hark esan zigun ez zuela merezi soketatik tiratzen jarraitzea altxatzeko, gurekin, Kapitainokin, hitz egin eta aurkitu zuen zerbait azaldu behar baitzigula.

Kapitain orok kezka dia sufritu genuen eta Pedroperezek esan zigun ezen, batere gustatu ez arren, Mac-Ta ez zuzendu ez ezik beste bost kanoak irauli behar genituela.

Tekiauhkauhkallia egin genuen Pedroperezekin eta olio zko lanparak geneuzkan, gauza inozoa baina ondo aurkitua baita, aurrerago azalduko dudana, eta Pedroperezek esan zigun:

—Zuen karabela buruz behera ikusi dudalarik konturatu naiz ez diozuela gilarik ipini. Beheko aldetik chalana bat bezain lau daukazue, o Aztlango aztekak. Eta gilarik gabe galera bat ezin da Itsasoan ibili, o tenotxkak. Zuen sei kanoak denak berdinak direlarik seiak, esan nahi du beste bostek ere ez daukatela gilarik. Eta berehala ipini beharko diegu Itsasoan belaz nabigatu nahi baduzue.

Desolaturik geratu ginen tenotxka guztiak gure kanoek gilarik ez zeukatela ohartzean eta, batik bat, aipatutako gila zer ote zen ez jakinik. Desatsegina zen guretzat Pedroperezek gure kanoei akatsak ateratzea, baina ikusten zenez arrazoia zeukan orduan, eta gau hura dena erne igaro genuen, Aztlango inork ezin

baitzuen lorik egin gila-faltagatik, eta bertoko Pedroperez galegoak esan zigun hurrengo egunean azalduko zigula gila zer zen.

Biharamunean ondo asko esan zigun eta aipatutako gila zen kanoaren azpitik zintzilik, baina alderik alde engantxatuta, doan egur sendo bat, eta astuna eta trinkoa da eta zuzen doa kanoa azpian eta kontrapisua egiten du belak puzten dituen haizeak irauli ez dezan. Oso ongi azaldu zigun Pedroperezek eta esan zigun guk egiteko oso ondo eginak zeudela kanoak baina marineragoak nahi izanez gero, bela-estiloko itsasontziak alegia, uretatik atera eta albo batera etzanda ipini behar genituela hondarretan eta gila ezarri, eta bera arduratuko zela hori bazen Aztlango jende tenotxkaren borondatea.

Denak irauli eta zazpi-zortzi egun gehiago lan egin genuen eta gu denok arin asko saiatzen ginen hura ahalik eta lasterren burutzen, beldur baikinenez bascoen lurraldera desorduan iritsiko ote ginen, lurralde bascoko aipatutako Oyarzun herrira.

Gilak ipini eta goiko kanoa euren kuprezko plantxa batzuekin sendotuta geratu zen, burdinaz alegia, kanoak nabigatzean beheko kanoa izan zitezen, eta dena primeran geratu zen aipatutako Pedroperezen eta ikusi zuten beste bertako Pedroperez galegoen iritziz. Denek esan zuten aurrerantzean kanoek jakinaren gainean nabigatuko zutela. Eta orduan bai ikusi zezakeen inork ez zituela ezagutuko hain itsasoko bihurtuta zeudelarik, eta pentsatzen genuen Kuauhtxitxikek inoiz iusten bazituen, aldatu dituzue esango zuela, o aztekak, ez baitute ematen nik egindako kanoak, esana gera bedi ezuste gisara.

Bi bidaiak egin zituzten Neirosek eta Pandeiradak, bat gorantz eta beste bat Padron aldera, oraindik gauza asko falta baitzitzaigun gure kanoak karabela-karabela izan zitezen goitik behera. Eta orain Kainaberadi eta Palmadiko Opatonek haiek osatu zirenean zeukaten antolaketa azalduko dizue. Kapitainaren etxearen atzean, zeina aurreko aldean zegoen, arbola zeritzan masta bat zihoan, zeinak ontzigaina zulatu eta, beheko partean finkaturik, lekua kentzen zien arraunlarietara, baina hor konpon, izan ere jadanik ez baitziren beharrezkoak arraunlariak. Arbolaren gainean bela lodi bat zegoen esekita, behean zabalagoa goian baino, eta mantentzen zen goiko aldean berga izeneko masta bat zegoelako zeharka, non hura lotuta zihoan. Gainera soka eta txirrika pila bat zegoen, zeinekin bela goititu edo behekitu egiten zen, beti ere bertoko Pedroperezen aginduetara. Are atzerago, alegia hornikuntzen etxearen aldera, beste masta txikiago bat generaman, bere belarekin eta bergarekin hura ere, zeinak hiru alde zeuzkan eta behetik maneiatzen zen. Eta nahikoa bela, masta eta berga badugu, bidaiak azaltzera etorri bainaiz eta ez bertoko Pedroperezen hainbeste gauza nautiko.

Masten gainean gabia zeritzana zegoen, nondik Atxollik lurra ikusi ahal zuen hain zuzen.

Orduan puntuan ipini genituen eta bost egun gehiagoren buruan nabigatzeko prest zeuden. Probatzera atera ginen Ketzalkoatl, Tlalok, arraun eta belen laguntzarekin, eta galera galegoek baino abiadura handiagoa zeramaten eta bira egiten zutenean alde batera eskoratu eta ez ziren erortzen, gilak bere zeregina betetzen baitzuen gure Jainkoen probetxurako. Orduan, itzulera, bandera eta loreekin apaindu genituen eta Mac-Taren xotxiketza papalotl delakoa birmargotu genuen eta benetan politak geratu ziren eta poza ematen zuen hain eskudra ederra ikusteak eta belak euren baino begi zabalagoekin kontenplatu genituen, esana gera bedi barkamenez.

Arratsaldean mazelualtzia egin genuen eta prest geneuzkan hamabost galerak, denak antzekoak baitziren euren artean, ainguratuta eta abiatzeko adi, nahiz eta abiatzeko aingurak altxatu behar genizkien.

Nik pentsatzen nuen ezen egunen batean hamabost galerak Totxpanera iristen baginen, gure Ketzalkoatl Jainkoarekin Mac-Ta gainean, ezuste ikaragarria hartuko zuela Gure Jaun Handiak, Mintzo Den Hark, ikustean bere gerrariek dena lortu zutela, berak agindu baino gehiago gainera. Baina, egia esana eta errespetatua izan dadin, sekula ez ginen iritsi. Soilik itsasontzi bat, Kuauhtintxan delakoa, iritsiko zen Totxpanera, nahiz eta oraindik ez den kontatzeko unea heldu, eta esango dugu aurrerago, bere tokian.

Irteera eman ziguten beraz, ostera Mac-Taren bost trumoiekin, eta Opotonek esana duen ordenan abiatu ginen, baina galera karabela deituriko kanoa galegoen izenek ez zuten ezer esan nahi, soilik izenak baitziren.

Laster igaro ginen Finisterratik, zeinak esan nahi duen lurra hasi edo amaitu egiten dela, zoazen edo zatozen, eta Ekialderantz biratu genuen ordua iritsia baitzen eta lehenago aipatu dugun Vaudecerverirotik igaro ginen, hura Ibaiburu zabal eta polita baita eta bi galera hondoratu daude, zeinez jada ezin den ezer baliatu eta Camariñasen geratu ginen, non badia ona eta herri ona daukaten.

Camariñaseko jendea izaera on eta bihozkorrekoa da eta maite zuen Aztlango jendea eta oturuntza ederra prestatu zigun, guk ezer jarri beharrik gabe, jateko gogoia izan ezik. Han lagun zuten neskato bat oso polita eta beltzarana zen, ez ordea lurralde haietan hain ugariak diren antzeko zuria ez eta gureak bezain beltzarana, baizik Opoton ona liluratu zuen tarteko gisakoa. Camariñaseko Sususa hura Dominga zen, zeinak esan nahi duen jai-eguna, eta halakoxea zen. Berehala gustatu zitzaidan eta gustatu nintzaion eta eztiki esaten zidan KapitainjaunOpoton, eta Klotilde berehala jeloskortu zen eta ez gintuen inoiz bakarrik uzten. Baina emazte kapitainak bufandak egiteko bilkura zeukatenez, Kuauhtintxanera eraman nuen Dominga, barrutik nolakoa zen erakustearren, kanoa alegia. Goardia egiten zuen Aztlango gerrarien taldeak era maliziotsuan begiratu zien Opoton eta Domingari eta Opotonek, oharturik, irribarretxoa itzuli zien. Atlauhtliren ganbera kapitainean palleiro bat zegoen eta Domingari esan nion gustukoak nituela, bihotza harrapatuta neukala haiekin eta atsegin handiz edukiko nuela bat, eta orduan berak esan zidan berak bazituela bere etxean eta gustu handiz oparituko zidala bat.

Emazte-kapitainen bilkuraren ingurutik pasa ginenean Klotildek oihu egin zidan neskata harekin non ote nenbilen galdezka, eta nik erantzun nion Tlakatekak eskatutako kolore moreko palleiro baten bila, eta, beraz, Tlakatekaren agindu bat zela oharturik ezin esan izan zuen ezer gehiago, hortzen artean marmarka geratzea izan ezik.

Domingaren etxera joan ginen, diogun, eta guraso zahar baina on batzuk zeuzkan eta palleiro bat eman zidan, zeinak, beranduago, auskalo non amaitu zuen eta ikusi hal izan nuen ezen, haren zuloak, barruko aldetik estalita geratzen zirela zuhaitzen-izerdi zeritzan erretxin moduko zerbaitekin, eta erretxin hari esker ez zen erortzen oktli. Egoki izango da esatea Opoton berehala jarri zela pentsatzen ea Aztlanen ez ote zegoen erretxin hura bezalakorik, gauza ona izango bailitzateke gure txikihuete bat prestatzen hastea eta mundu guztiarekin bromaka aritzea, urez edo beste zer edo zer bustiz betez, eta denek pentsatuko zuten isuri egingo zela eta ni erotuta nengoela, eta gero ikusiko genuke ezetz, ez zela erortzen, eta barrez akabatzeko modua izango zen.

Aipatutako Domingak bere oilategia erakutsi zidan gero eta etxearen atzeko aldera joan ginen non lastategia daukaten, hau da lasto-mukurua, eta han etzan eta luze hitz egiten egon ginen inork molestatu gabe, eta Dominga hura oso neska ona zen. Nik esan nion atsegin handikoa nuela eta gorritu egin zen erabat eta are politago zirudien. Ordurako nik baneukan ia Fala Galega osoa eta aski mintzatzen nintzen eta eskerrak, zeren, bestela, Dona Ximenari deitu behar izan banio gure

hizkuntza izan zedin ea zer demontre egingo genuen hirurok Domingaren lastategian, diot nik. Nabaria zen ni ere haren gustukoa nintzela. Galdetu nion gurekin etorriko ote zen Ketzalkoatlén bila, eta esan zidan oso gustura joango zela bere gurasoak bakarrik utzi behar izango ez balitu, aski xaharrak zirelarik biak, eta bere gauzak, medailak eta estanpatxo batzuk erakutsi zizkidan, eta dena nire eskuen artean eduki nuen eta oso hurbiletik begiratzen nuen dena, eta benetan gustagarri zitzaidan, eta berari ere asko gustatu zitzaion nire gauzak ikustea eta asko maitatu genuen elkar.

Zin eginarazi zidan mezuak bidaliko nizkiola nire berri emanez eta zioen ezen Kusalkuas aurkitzekotan, itzuleran Camariñasen geratu ahal nuela bizitzen berarekin, ezkondu eta haurrak izan ahal genituela sudurreko hezurra kentzen banuen, asko izutzen baitzuen. Ez dakit zer pentsatzen zuen Domingak haurrak egiteko moduz, Opatonek eta berak behar den beste algara egin baitzuten, eta iruditut zitzaidan ezin zela gehiago egin afera hartan.

Klotilderi esan nion eman niola palleiroa Tlakatekari eta egiatan kolore moreko palleiro bat zela, gure Jainkoen zerbitzurako berak nahi zuen haietakoa, eta aipatutako Klotildek dena sinistu zuen eta aurrerantzean ez nintzen kezkatu Domingaren aferarekin, zeina Camariñasen bizi zen oso neska politta baitzen.

HAMABOSGARREN ATALA

Egun hartan hamabost itsasontziak atera ginen, ondo lerrokatuta eta arranditsu. Oso pozik geunden gure formazioaz, ederra zelako eta eder izendatu zen, baina Aztlango gizonak artega geunden espedizioaren beste bi parteen berririk ez geneukalako, eta aski minbera sentitzen ginen. Asko sentitzen genuen banandu izana, baina egin beharra zegoen, bestela, lotsagarri izango zen tenotxken giltzurrun eta bihotzerako, izan ere tenotxka esaten ziguten Tenotxtitlan Handiko Kainaberadi eta Palmadi aldetik gentozelako, Aztlango herririk handienetik alegia, eta ikusten zenez mundu osoko hiririk handienekoa zen. Opotonek ez zuen gustuko Dominga utzi beharra, gauza batzuk bihotzak, begiek eta azazkalek eskatzen baitzizkizute, eta ezin duzu ekidin. Baina nahi baduzu indarrez utzi behar izan nuen eta lastima izan zen Klotilde ordeztu Dominga niri egokitu ez izana, baina esana geratu da hura ez zela Coruñan bizi Camariñasen baizik, eta Camariñasera iritsi ginenean egina zegoen Sususen banaketa, nahiz eta herri bat eta bestea ez dauden elkarren artean oso urrun, beraz Opotonek esan ahal du gutxi falta izan zela. Izan ere irabazi handia zatekeen Dominga edukitzea, hura ere emakume ondo egina baitzen, pixka bat gehiago gure erakoa, eta ez zen hain haragi-gose, aldiz lasaiagoa eta soseguz egitekoa, ez baitakit hobeto azaltzen eta ez da beharrezkoa, ondo ulertu didazuela iruditzen baitzait.

Irabazpen handia izan zen Aztlango gure kanoetan egindako aldaketa hemendik gutxira azalduko dudana gertatu ez zen bitartean, ikusiko baituzue nola joan ziren kontuak. Arraunlariak arraun egin gabe pasatzen zuten denborarik gehiena, Tlalok Jainko onak bultzatzen baiktuen eta Hark munduko arraunlari guztiak batera baino indar handiagoa baitzeukan. Ahal beste denbora zeukaten beren Sususekin jotzen aritzeko, ez baitzegoen beste zereginik eta belen eta soken ardura bertoko galegoek baitzeukaten, aski aditu baitira gauza horietan, eta haien lana egun osokoa izaten baitzen, baina txandak antolatu zituzten, txandakatu eta dena primeran baitzihoan. Hain ondo zeukaten dena lotuta, gustua ematen zuen hura ikusteak.

Opotonek egun osoa ematen zuen bere ganbera kapitainean itxita, gauzak hausnartuz, eta pentsatzen zuen egunen batean gure balentrien istorioa idazten hasiko nintzela eta, aukera izan orduko, irakurtzen eta idazten ikasi beharra neukala, zirikatuta bainengoen Dona Ximenak eta bertoko beste galegoek bazekitelako. Eta nire bufandako letrei erreparatu eta galde egiten nion nire buruari nola izan zitekeen posible zirrimarra haiek nire izena eta beste gauza ergel hura esatea. Eta Klotilde niri begira egoten zen nik, bufanda eskuetan, nire pentsamenduak oso urrun neuzkan bitartean, eta hark interpretatzen zuen hura nire samurtasunaren seinale zela bufanda nire eskuetan hartuz txotxolotu izana, eta hain eztitsu jartzen zitzaidan, nahiago dut ahalkez isilik egotea. Gaixo Klotilde, ez zuela espero gertatu zitzaiona, berehala esanda geratuko baita hemen bertan. Orduan nik ez nuen imajinatzen Aztlanera iritsi orduko berehala ikasiko nuenik, izan ere behin Fala Castilla ikasita irakurri eta idaztea gauza errazak baitira. Esan nahi dut ordurakao fraideak zeudela, eta horrekin ulertu didazue. Sekula ez nuen gure nahuatla idaztea probatu eta orain badakit horretara jartzean dagoela koxka. Hainbeste beldur ematen zidana hasieran eta hain gutxi kezkatzen nauena orain. Gauza zail gehienak azalduta dauzkat eta Xalkoko nire lehengusuak dio egunetik egunera gero eta hobeto egiten dudala. Haien fraideek, esan nahi dut apaiz atzerritar zintzoek, gauza pila bat galdetzen ziguten gure nahuatli buruz eta

oraindik egun asko ez dira, nik esango nuke agian astebete, amatleko paperean orri hauek denak idazten hasi nintzela, Tlatelolokora deitu eta Aztlango gerrarien abestia kantarazi zidatela, eta batzuek hitzak idazten zituzten bitartean beste batzuek musika. Beharrik, alajaina, diot nik. Dena erabat birrindu dutenean konpondu nahi dute. Eta urte batzuk atzerago dena osorik zegoen eta orain datoz eskatzera azal diezaiegun nola egiten genuen bataio bat eta zer esaten genion Koatlikueri uzta ona eskatzen genionean. Eta kosta egiten da ulertzea orain jakin nahi izatea Koatlikue guztien buruak moztu dituztenean. Orduak eta orduak ematen dituzte koplariak zer esaten zuten arakatzen eta haiek idatzi eta idatzi: in teuquiquitxti mitoa iuhquima tlallatxotxi, uncan tlatoca calaquiam ithualco moquetsaia¹³². Ulertzen gehien kostatzen zaidana da musika idaztea, gure kantuen doinua, diogun. Ondo ulertzen dut abesti baten letra idatzi ahal izatea, baina doinua ere idaztea ez dut hain argi ikusten. Inoiz ez dut aurkitu inor aski ongi azaldu didana. Zeren frai Konstantinok azaldu zidan guzti hartatik, deus ez, hitz erdirik ez. Kontuan harturik hainbeste eroapen duela, agian egunen batean berriro galdetuko diot, baina hilda egongo da xahar samarra baitzen aipatu frai Konstantino. Egunen batean deituko didate nolatan Jainkoak Eguzki eta Ilargi bihurtu ziren galdezka, eta hori baliatuko dut. Fabore batek beste bat balio du, diogun. Askiz lotsa pasatu nuen abesten jarri nindutenean: xaharra naiz eta ahotsa kraskatu eta desafinatu egiten dut, nahiz eta esaten dudana beti horrela izan den. Eta nik diot ahotsa kraskatzen zaidala gauza gehiegi ikusi ditudalako kraskatzen, eta ez da geratzen konparaziozko figura gisara, alde guztietan gertatu baitira txikizikoak.

Aldiz nabigazioa aski ona izan zen. Hego-mendebaldeko haize onak geneuzkan, eta orain Opatonek azaldu behar du haizeak zeharka etorri arren itsasontzia ere aurrera doala, belaz nabigatzeko artea haize guztiak baliatzean baitatza, edonondik jotzen dutelarik, eta bertoko jende galegoa oso trebea zen horretan. Eta galera nola eskoratu zekiten, eskuinera zein ezkerrera, ababorrera zein istriborrera, horiek ere gauza bera esateko bi modu baitira, bihurriagoak inondik ere, sekula ez baitakizu zuzen zein den zein eta nahastu egiten zara, eta denetan onena da pentsatzen duzunaren kontrakoa esatea eta sarriago asmatzen duzu, bertoko jende galego itsasotarrak egiten duen bezala.

Pedroperezengandik ikasi genuen hura guztia balio handikoa bilakatu zitzaigun itzulerako bidaian eta zortea izan genuen ni belen eta soken aferari so egin izana, eta bere orduan dena azalduko dugu.

Sisargako uharte pasata, eskatu gabe gurekin etorri ziren bertako soldadu galegoak zeuden hura zelarik, badia on bat dago eta bertan ainguratu genuen uraren premian baikeunden. Aztlan Zaharrean ez zegoen dentistarik; soilik barberoek ateratzen zituzten haginak bizarrak txukuntzeko lanik ez zeukatenean. Galeziakoek ez zekiten zer zen haginak minik eman gabe ateratzea, konpondu eta berriro ipintzea eta are gutxiago aurreko hagineta marrazkiak grabatzea. Diot ezen herri hura Calademalpica baita, zeinak esan nahi duen gaizki pikatzen duela, baina ez dio zeinek pikatzen duen gaizki. Herria ere Malpica da, ikusita baitago izen bat gustuko dutenean alde guztietan ipintzen dutela. Adibidez, zazpi-zortzi Sobrado aurkitu genituen.

Malpica tribuko jende propioak jaramonik ez zion egin gure espedizioari. Lanpetuta zeuden denak beren herriko plazan egurra pilatzen eta, beste zereginik ez geneukanez, haiei laguntzen hasi ginen tribu adiskidea zela ematen baitzuen.

¹³² Itzulpena ipintzen dut adituenei begira: “jainkoak jauziarazi eta koplariari gauza bera esaten ziona hura, Jaunaren Etxean sartu eta patioan geratzen zen”. Edertasun ukaezina dauka.

Bertan iltzatutako haga batzuen inguruan pilatzen zuten egurra eta mundu guztiak pozik betetzen zuen zeregin hura. Hura zer zen galdetu genuen eta soilik apostasia esan ziguten, eta pentsatu genuen jai nagusia izango zela, suak, mazelualiztliia eta guzti. Baina gero konturatu ginen apostasia gaixotasun bat zela, apostatak kondenatuak balira bezala errukitzen zituztelako. Geroago euren apaizak atera ziren eta jende-multzoa zaelez jantzita, egiten duten arropa zatarraren izena bera, eta hogeit eta erdi gizon eta emakume apostata kaputxatu ziren, eta lastima ematen zuten hain apostata izanik.

Bakoitza bere hagan lotu zuten eta apaizak esan eta esan beren nahuatlatollinez, aipatutako latinez, gero egurrari su eman eta apostasia kaputxatu guztia erre zuten eta Jainkoekiko sakrifizioa bezalakoa zen baina sakrifikatuak ez zeuden pozik.

Bertako kalpixki galego bati galdetu nion, zeina erreketarekin, erreketaren errekatagatik oso pozik agertzen baitzen, eta eurek ere Jainkoei sakrifikatzen zieten. Baina aipatutako kalpixkiak ez zidan ulertu. Jendea erretzeari santo oficio esaten diote, eta oso ondo ekarrita dago izena.

Une hartan ura eskatu genienez, oso desagokia izan zen, agian sua amatatu nahi geniela pentsatu baitzuten. Eta hizkunztarik ez geneukanez, ezin genuen gaizki-ulertua desegin, eta dena pozoitzen joan zen. Kapitainok, Tlakateka-Alok eta Tlakotxkalkatl-Nakxtlik osatzen genuen taldera hurbildu zen haietako apaiz bat, dena sua bezain aztoratuta, eta esan zigun:

—A vosotros también os veré morir en la hoguera, follones. No sois gente de Sant lago sino mierda¹³³.

Opotonek ere ezin izan ditu ezabatu hitz haiek bere gogotik, luze baitzihoan batere profeziarik ez genuela, eta hura bat izan zen. Eta aski zehatza izan zen, esan bedi Ate eta Leihorik Gabeko Etxean herrari dabiltzanen barkamenarekin. Orain Tlakateka-Nagusuari eta Inkisizio Santuari buruzko gauza bat azaltzera nihoan, baina paperean ipini izan banu errelazio guztia apurtuko zitzaidakeen, eta aurrerago egingo dut, unea iristen denean.

Gogo txarrez eman ziguten ura eta Klotildek, ondo ezagutzen gintuenez, esaten zidan, axeitategi, goazen hemendik, tihui, tihuiyan, tihui, Opoton, esaiozu Alori hobe dugula hemendik alde egitea. Eta kontuan harturik ez genuela haiekiko inongo borondategi txarrik, ez genuen ulertzen zergatik alde egin behar genuen azkar eta zergatik jarri ziren hain muturtuta gurekin.

Agian ondo zegokeen haiek Gure Jaun Handiaren, Mintzo Den Haren menpean jartzea, baina ez genuen egin, eta nik pentsatu nuen ezen agian gure Tlakateka-Alok ez zeukala baimenik hura Tlakateka-Nagusia aurrean eduki gabe egiteko. Eta guk aurrera egin genuen eta Malpicako bertoko galegoek ez ziguten oktli-tantarik eman, jende desatsegina baitzen aipatutako Malpica-Gorotzakoa, eta izen horrekin finkatuta geratu zen gure paperetan.

Nik nahiko nukeen, gutxienez, hogeit bat kanoikada jaurtitzea gogorarazteko, baina hori ere ez zen egin nahi izan. Ekialderantz eta munduaren ezker aldera jarraitu genuen, dena batera. Beti kostaren ondoan nabigatzen genuen, zeina, egiatan, oso apurtuta daukaten, benetan lotsa-emangarri. Itsasoa estutu egiten zen, Coruña Galegako kostarantz hertsaturik jaisten baitzen, eta gure galera galegoak atondu genituen tokia izan zen, eta bertan sartu ginen kontuan harturik Pedroperezek esaten zigutela, arazorik eduki ezean, eta asko eduki genituen, nabigazioko beste sei-zazpi egunetan bascoen lurraldera iritsiko ginela eta ez genuela jakingo zer egin hain azkar ailegatuta. Esan genien gero eta azkarrago

¹³³ Gaztelaniaz jatorriko testuan. “Zuek ere sutan erretzen ikusiko zaituztet, koldar horiek. Ez zarete Sant lagoren jendea, gorotza baizik.

iritsi, orduan eta denbora gehiago edukiko genuela Ketzalkoatl bilatzeko eta hainbat hobeto gure jendearekin elkartzerakoan jadanik hura aurkituta edukitzea. Bi hilabete tenotxka geratzen ziren Aztlango guztiak aipatutako Oyarzunen elkar aurkitzeko, bascoen lurrean alegia, eta pozez zoratzen ginen denoi nola joan ote zitzaigun jakin nahirik.

Coruña Galegaren aurrean ainguratu genituen hamabost galerak, elkarrengandik albo-alboan, eta gaua iritsia zelarik, ez ginen lurrera jaitsi. Soilik gusiak askatu genituen bakoitzean hainbat gerrari sartuta, eta gau osoan arraunean eman zuten eskuadrari birak emanaz, txandatan, orain azaldu ezin dudana bezala gau hartan ere azaldu ezin genuen zerbait arraro somatzen baitzen. Ez ikusi ez ukitu ezin zen gauza arraro horietako bat zen, aldiz airetik joan eta oso arinak direnetakoa. Kapitainek komentatzen zuten, Tekiauhkauhkallia egin baitzen Mac-Ta gainean, xotxiketzalpapalotlen kanoa baitzen hura. Tlatxiltonia-Tlapitzkazinek esan zigun Aztlango gerrariz osatutako komando on bat prestatu eta lurretik bidali beharko zela Papalomitxin eta Oiatmelen taldearekin kontaktua egiteko. Esaten genuen komandoa itzuli eta lurretik pixka bat aurea hartu gintzakeela, kontuan harturik guk denbora eginez bezala genbiltzala, eta gu iritsiko ginen kostako toki berberean itxaron eta hiru su piztu ahal zigutela, era horretara guk Itsasotik ikusiko genituelarik, egunez zein gauez, eta haiek zirela ohartu. Nik esan nuen agian ona zitekeela gure gerrariak galegoz mozorrotzea, eta orduan esan zidaten ezetz, berehala nabarmenduko zela Tenotxtitlan Handiko tenotxkak zirela. Eta hobe zela komandoa bertoko galegoz armatzea, gutako norbait buru zelarik.

Netxpitxiolo aukeratu genuen, kementsua zelako eta galego bezala janztean onartuko zuelako, haietakoekin nahastuz, kontuan harturik askoren artean bat ez zela hainbeste nabarmenduko, eta Tekiauhkauhkallera deitu genuen eta, ohartarazi zenez, barre asko egin zuen galegoztu beharragatik eta gure nahuatla mintzatzen hasi zen bertako galegoen antzera, eta barrez lehertarazten gintuen.

Luze mintzatu ginen oraindik armatuak edo armatu gabe joan behar ote ziren eta nik esan nuen ezen, edozein moduz, gure arkuak eta txinalliak baino hobeak zirela arma galegoak, eta esan zidaten, ergel horrek, nola nahi duzu galego armatuak gure armekin joatea, argi dago, eta galdera bezala ipintzen zuten. Beraz, Opotonez trufa egin arren, esaten zuten nik proposatutakoa egingo zela, beste inor baino lehenago jabetu bainintzen ni. Tlamanik, Nerios galerako Kapitaina zenak, esan zuen behar bada ona zitekeela Konpainiaz janztean eta era horretara lurralde hartako eskopetez eta ballestez armaturik joatea zeukaketela. Atztlik, Pandeiradako Kaipitaina zenak, uste zuen askoz hobe zela armarik gabe joatea, nekazari galegoz mozorrotuta ordean, haien misioa ez baitzen gerla-arlokoa baizik potxteka. Nire lagunak esandakoa zuhurtziaz beteriko gauza zen, eta denak egon ziren ados. Orduan Tlanokotxkik eta Xohuillik gure emazte galegoak deitu zituzten eta Netxpitxiolo mozorrotzen jarri zituen, eta barre handia eginarazi zigun, Netxpitxiolori berari izan ezik, zeinari soilik berak egindako bromak gustatzen zitzaizkion. Emakumezkoek Nepitxon esaten zioten eta adatsak moztu zizkioten, batere gustatu ez zitzaiona, baina beharrezkoa zen kapela galegoaren azpitik ateratzen baitzitzaizkion. Tigrearen hezurra kendu zioten sudurretik eta are okerragoa izan zen eta berak zioen arraro sentitzen zela, beso bat atera izan bazioten lez, eta Opotonek beranduago esperientziaz jakin zuen bere adiskide Kapitainak arrazoi zuela. Alok esan zion gerrako anputazioak baziren bezala hartu behar zituela, eta lasaiago geratu zen.

Orduan Mac-Ta kanoara deitu zituzten Pedroperez guztiak eta bakoitzari gerrari galegoen talde bat eskatu genion, bertoko galego adiktoen talde on bat, eta onak aukeratu zituzten. Netxpitxiolok ondo ezagutzen zituenez ia denak, pozik geratu zen aukeraketarekin. Gutxi geratzen zen egun argitzeko, Tekiauhkauhkallia olioeko

lanparekin egin zen, hau da zuzizko metxa bezala denarekin, eta argizari artean erre ordeztu olio artean erretzen da, eta ikusi gauza ergela ez ote zen, eta Alok kontu handiz arakatu zuen galegoz moztutako komando galegoa eta pozik geratu zen oniritzia emanez, eta agindu zien bizpahiru gusietan igo eta lehorrerantz abiatzeko, zaratarik egin gabe, eta ahalik eta lasterren itzultzeko eta denetan obeditzeko Netxpitxiolori hura baitzen komandoaren Ahotsa. Tianguis pixka bat egin genuen Mac-Ta kapitainaren barruan moneta deituriko borobiltxokopuru on bat eman behar baitzitzaien, zeren, bestela, zer jango zuten, eta Sususen artean lepoko eta besoetakoak erosten hasi ginen eta multzo ederrak batu eta zorte on opa genien, aski beharko baitzuten, eta isilik abiatu ziren lurreko tigreak balira bezala.

Gau hura laster egun bihurtuko zelarik oso lo gutxi egin genuen eta egun argitu orduko aingurak jaso eta Coruña Galegakoei ez genien egun onik eman, ez eurek guri, eta itzuliak ziren gusiak euren arraunlariekin Netxpitxiolo eta haren jendea lurrera ekarriz, eta aingurak jaso genituen eta Coruña Galegakoei ez genien egun onik eman, ez eurek guri.

Itsasoan barrena gindoazelarik, aldi berean Iparrerantz eta Ekialderantz hainbat bertoko galego ikusi genituen lehorrean, zeinek besoak astindu, agurtu eta Sant Iago, Sant Iago ohiukatzen ziguten, han aztekak ikusi ahala egiten duten gisara.

Aski ongi nabigatu genuen, hotza eta euria gora behera, beti gorantz Cabortegalera iritsi arte, lurralde galegoaren irtenean iparrekoena dena bera, Finisterra Mendebaldeko zati den bezala, eta dena ondo marraztuta geratu zen gure mapetan, bertoko jende galego eta guzti.

Baina Ekialderantzko bidea hartu ahala Itsasoa zakartu egin zen eta martxa oztopatzen zigun itsasoan, galera batzuk honantz ete beste batzuk harantz bultzatzen baitzituen, dena deseginez. Mac-Ta itsasontzi kapitainak eskualderantz biratu zuen eta guk jarraitu egin genion, kanoa hura Ahotsa baitzen, eta Riaudomirandan sartu ginen, zeina lurrean finkatutako Itsas-adarra baita, eta gu haren atzean, lege aztekak agindu bezala. Eta han geratu ginen, Tlalok onak bere ekaitza desegin nahi arte.

HAMASEIGARREN ATALA

Riaeudomirandan pare bat egun pasatu nahi zen, ohiz esaten denez, eta inguruan dauden bizpahiru herri etorri zitzaizkigun gu ikustera, kuriositatez beteta baina deus esan gabe. Alok aditzera eman zuen jakiak behar genituela eta ziur nago jadanik bukatuta zeudelako esan zuela. Orduan tianguis eder bat egin genuen plazan, gureak bezalakoak, diferentzia handi batekin baina, bertako galegoak zirela guri saltzera etortzen zirenak eta gu, Aztlango aztekak, erosleak ginen.

Lurralde hartako abere asko eta beste hainbat jaki eramane genituen, eta aipatutako borobiltxoekin erosten genituen, zeren Sususa Kapitainek borobiltxoak, hots, ezagutzen zutenen artean monetak deituak, erosteko negozio bat ipini baitzuten Patexeiran. Aztekak bertara joan eta koilaretxoak, besokoak eta beste trukutzen genizkien eta eurek monetak ematen zizkiguten urdaiazpikoak edo beste abere hilak erosteko.

Estebandesilva nire galego esklabuak lan-zati bat zeukan nonbait Sususen negozioan, beti bertan baitzegoen eta ordenak ematen zituen eta aditzera ematen zuen zenbat borobiltxo eman ahal zizkiguten guk aldatzera ematen genituen gauzen truke.

Baina gure Tlakateka-Alok urdaiazpikoa jateko gogoak zeukan eta Patexeirara hurbildu zen negozioa nola zihoan ikusteko eta ez zitzaion gustatu tenotxka guztiak leiharrez beteta joan eta gure bitxiak amaitzea, eta haserretu egin zen eta Opotonek ondo ezagutzen zuen zeren Tlakatekak itsas-adar bat jotzea agindu zuen eta kapitain guztiak eta Pedroperez guztiak batu zituen eta esan zien amaitu zela azoka. Sususek potez hustutako pote galegoko zahagi batean gordeta zeuzkaten moneta guztiak errekiatu zituen braustadaz, eta ezkutatu genituen bitxi guztiak jaso genitzan agindu zigun, eta akabo tratularitza, esan zuen.

Estebandasilva zigortzea agindu zuen eta ondo etorri zitzaion eta niri, bijilatzen ez nuen esklabu baten nagusi nintzenez errieta gogorra egin eta agindu zidan moneten zahagia bere ganberara eramatea. Orduan jadanik joan nahi zuten sei Sususa galego atera eta norbaitek paketeak eramaten laguntzeko eskatu zuen, baibaizihoazen, eta Tlakatekak pakete haiek hartu eta emazte galegoak Xotximilkoko ganbera handian itxiarazi zituen eta haiei ere ondo etorri zitzairen, nahiz eta iruditzen zait handik ez zirela sekula atera.

Gero gurekin, Kapitainekin, eta izenak gogoan ez ditudan beste gerrari tenotxka guztiekin, lehorreratu eta tianguis guztia errekiatu genien, eta borobiltxotan nahi zuten guztia ordainduz ordea, eta bertako galegoei ere ondo etorri zitzairen¹³⁴.

Bi egun pasata eguraldi hobia egiten zuenez gure itsas-nabigazioaren trafikoa jarraitu genuen Jainko Ketzalkoatl aurkitzen genuen ikusteko, azken finean hura baitzen gure zeregina. Itsasoak, zati hartan guztian oso kauntauritarra denak, ez gintuen gehiegi maite eta uhin handiak eta aurkako haizeak bidaltzen zizkigun eta, argi dago, gure artean galdetu baino ez genuen egiten zer ote zegoen Tlaloken eta aipatutako Kantauritarraren artean. Gero haizeak gelditu eta baretasun desesperagarria zetorren, eta ez dakit zer zen txarragoa edo are txarragoa, esan ahal bada. Holako zerbait gertatzen zenean, aurkako haizeak ala baretasuna,

¹³⁴ Ekonomian aditua ez naizelarik ez naiz gai merkatu arraro horren sotiltasunak ulertzeko. Ondorioztatzen dut Estebandasilva eta andrazkoak negozio zikinean ari zirela eta buruzagiak antzeman egin zuela.

arraunak eragin eta kostaldera hurbiltzen ginen eta arriskutsua zen, esana baitago kosta oso txikituta zegoela, eta harkaitzak uretara jausita daude eta dena zikintzen dute. Babestokiren bat aurkitzen genuenean hurbiltzen ziren bertoko galegoekin mintzatzen ginen baina esan beharra dago jadanik ez zirela galegoak, bertako astureak baizik, zeinak, beste modu batera esanda, bertoko asturiarrak ziren Galezia amaituta baitzegoen. Eta astur haiek Fala Bablea zeukaten eta Fala Galega han ez duzu baliagarri, beste era bateko tribu bat baita, eta galegoek diote bableak popolokak direla eta, aldiz, oso populatuta daukate lurra, ez balitz oso zati txikitari hainbeste tribu daudela, esan ahal daiteke Aztlango lurraren antza zeukala.

Baina oraindik Fala Castella gelditzen da, eta Fala Portugaldarra, Fala Galegaren ahaide, Fala Arabea, eta Fala Catalana, eta Fala Basca eta Fala Judua, horiek baitira lur hura populatzen duten tribuen izenak, eta are beste gehiago daude baina ezin ditut azaldu gezurra edo gehigekeriak esateko arriskurik gabe, ez baintuen denak ezagutu. Aztlan Zaharra, den-dena, mintzaira ezberdinen nahastoki bat da, eta galdetzen badidate, galdera bezala, nolatan elkar ulertzen duten, Opatonek esango dizue ez dutela batere ulertzen. Gainera, denak izan dira ceibes inoiz edo behin eta orain jadanik ez dira, zere haien Mintzo Den Hark, izenez Tantomontamontatanto, ongi menpean dauzkalako eta Fala Bablea da Fala Galegoa Fala Castellarekin ezkondu zenekoa. Ez genuen ondo ikasi zaila delako eta ez genuen astirik izan, Dona Ximena ez baitzetorren gurekin, baizik Tlakateka Nagusiarekin. Jadanik bascoen lurraldean ote geunden galdetu genien, eta galego astur haietako batek esan zigun:

—Esta ye la tierra de los astures, non podéis equivocaros¹³⁵.

Aztlango tenotxkek galdetu genien ez ote zeukaten kalpixkirik, eta eurek erantzun:

—Que idioma faláis? Cómo se llama vuestro capitán? Está muy lejos la tierra vuestra?¹³⁶

Aztlan Zaharreko Asturieseko jende astur harentzat dena amaitzen da u batean eta puertu eta vidriu eta suelu eta silenciu diote, eta barregura handia ematen du lehen egunetan. Nahiago nukeen nire Klotlidek hizkuntzen negozioa Ximenak bezala ulertzea, baina hark soilik Fala Galega zekien eta Fala Castellako zertxobait, Castellanoa alegia, eta barrearazi egiten zion xilgueiru esaten zutenean eta berak Donu Clotildu esaten zion bere buruari eta Sususak barrez lehertzen. Zortzi egun jarraian geratu ginen Artedon, lur asturiarrean, gure Tlakateka-Alok sukarra harrapatu baitzuen eta denbora hura dena behar izan zuen sendatzeko, eta gure sendagaileak gogotik saiatu ziren baina ezin zizkioten gaitz guztiak kendu.

Egun batean, beraz, itsasontzietan itsasten den zikin guztia ateratzen ari ginela, eta Pedroperezek diote osotxarra dela, aski izorratuta geneukan nabigazioa hondatzen duelako, ohartu ginen, kostatik harago, diogun, hiru su zeudela pizturik. Nerios karabela aterarazi genuen, itsasontzi arina baita eta Tlamanik gidatua, bera ere arina hain juxtu, sute haiek zer ziren ikustera joan zedin, izan ere Netxpitxiolo izan baitzitekeen edo haren suak.

Eta arratsean itzuli ziren aipatutako Netxpitxiolo eta bertoko galego-talde gutxi batzuekin, erabat txikitu baitzituzten. Nola Netxpitxiolo hala bertoko galegoak zaurituta zetozen eta berak, Kapitainak, Aloren bigarrenak alegia, dena azaldu zigun eta Alo sukarrez libratu zen, azaltzen zuena zaurigarri ala sendagarri baitzen. Esan zigun Papalomitxin eta Oiatmetlen armada guztia deseginda geratu zela eta galegoak sakabanatu eta erailak. Gure kapitainak atxilotuak ziren, eta ez

¹³⁵ “Hau asturen lurra da, ezin zarete nahastu”.

¹³⁶ “Zein hizkuntzatan mintzo zarete? Nola du izena zuen kapitainak? Oso urrun al dago zuen lurra?”

zegoen argi noiz sakrifikatuko zituzten. Denak Leon, lehoi alegia, zeritzan herri handi batean atxilotuta zeuzkaten, eta izena aski ongi zetorkion herri hari kontuan hartuz haien basakeria. Salbatu ziren tenotxkak bakarka zebiltzan mendietatik baina Netxpitxiolok ezin izan zituen aurkitu, izan ere galegoak edo asturiarrak ikusi ahala ohianean ezkutatzen baitziren eta kontuan harturik gureak bertoko galegoz mozorrotuta zihoazela, beraz ezkutatu egingo ziren hurbiletik pasatuz gero.

Beraz, Netxpitxiolok porrot hura ikusi zuenean, Iparrerantz bideratu zituen galegoak, Itsasora azkar iritsi, gu aurkitu eta azaltzeko. Tineo izeneko herri batetik pasa ziren, eta izen hark ez du ezer esan nahi, eta nekazari batzuei galdetu zien ea Sant Iago ikusi zuten eta eurek esan zieten ezetz eta, gauean, bertan zegoen ohian batean atseden hartzen ari zirelarik, Konpainia oso bat oldartu zitzairen eta galdetu zien zergatik eurak, bertoko galegoak izanik, Sant Iagoren jendearen bila zebiltzan. Aipatutako galegoak izutu egin ziren, gogoratuko baituzue ez zeramatela inolako armarik, eta modu nahasian erantzun zuten, eta esan zuten beren buruzagia Netxpitxiolo zela eta orduan Konpainia galderak egiten hasi zitzaion eta azkar asko aurkitu zuten Aztlango tenotxka zela, eta lotu eta Leonerantz eraman nahi zituzten, zeina herri handia den, eta gureak matxinatu eta kolpeka hasi ziren eta uste zutenean Konpainia menderatu zutela beste bat iritsi zen eta desegin egin zituen, asko atxilotuz, eta soilik gutxi batzuk eta zauriz beterik salbatu ziren, bataila gordina izan baitzen eta Konpainiak eskopeta eta ballesta askorekin oldartu baitzitzairen. Netxpitxiolorekin batu ziren bizirik eta zauriz beteta geratu ziren lau taldeak, eta hala Itsasoraino iritsi ahal izan ziren, eta suak piztu zituzten gu pasatzeko zain, behar bada paseak ote ginen beldurrez ordea. Ikusita zeukaten Neiros itsasontzia, baina ez zeuden oso ziur gure galera ote zen, kanpotik galera ematen baitzuen baina bakarrik zihoan eta gureak hamabost ziren. Baina benetan zen gure Neirosa, eta gusi bat jaitsi eta Tlamani bera joan zen haien bila.

Eta hantxe zeuden gurekin, etsipenezko uhin baten antzera. Zan tlaocolxochitl tlaocolcuicatl on mania Artedo, in yece ye oncan on neixmachoyan¹³⁷. Suminduta geratu ginen. Denak lehorreratu, inguratu eta osteria onartu ahal genituen, baina huts bat izango zen Ahotsak, Ahots Nagusiak, agindu zigunarekiko. Esana geratu zen elkarretaratzea bascoen lurraldeko Oyarzunen izango zela eta ezin genuen hara joan besterik egin. Gure Jainko Ketzalkoatl onak ezagutu behar zuen porrota eta hark abisatuko zien Ketzalkoatl-Totek-Tlamakazkiri eta Tlakatekari. Guk ezin genuen martxaren ordena aldatu; gu ez ginen inor hura aldatzeko. Huts egin genuen Netxpitxiolo eta bertoko galegoak bidaliz eta ezbehar handiak geneuzkan zain gure hutsagatik. Zigorrean onbera izatea eskatu genion gure Jainkoari, nahiz eta ez genekien zer-nolako hutsa egin zuten Papalomitxinek eta Oiametlek era hartara zigortuak izateko. Jainkoen asmoak asmaezinak baitira eta gizonok ezin ditugu epaitu, haiei aurpegira begiratzea bezala bailitzateke. Egia hauek guztiak, gure sinisteak eta gure izaera zirenak, itzaliak izan ziren eta horregatik doa Aztlan doan bezala. Oso triste dago Opaton hau dena idazteagatik eta Aztlan Zaharrerako bidaia idazten hasi zenez geroztik beldurra bazeukan une hau irits zedin, orain esaten ari den guztia eta jarraian datozen gauzak kontatezko ordua, eta bihotza

¹³⁷ *Nahuatlez* utzi dut esaera hori, izan ere handitasun homerikoa aurkitzen baitut hartan eta ez zait justua iruditzen irakurleari poza ebastea. *Iliadaz* pentsarazten dit, Troiako erorketa deskribatzen duenean, eta etsipenezko garrasi tragikoki nagusia aurkitzen dut, kronistak urte batzuk geroago berbizten duenean. Nire itzulpena, soilik hurbilekoa, hauxe da: “*Jadanik tristeziatzko kantuak eta loreak jaso daitezke hemen, Artedon, kemena dagoen herri bakarra baita bera*”.

sendotu nahirik zebilen baina, aldiz, azaltzeko ordua iritsita hankek huts egiteko beldurra zeukan eta hemen naukazue, negarrez eta deseginda, Azaoen joana ez baita alferrik izan eta, beraz, hau dena. Orain Opotonek azalduko dizue Gure Jaun Handiari, Mintzo Den Hari, idatzita utzi zuena, nahiz eta hark sekula ez zuen irakurri, jadanik ez baitzegoen han. Opotonek esango dizue garra amatatu zitzaigula, eta soilik berpizten zitzaigun txingarra uste izanda agian Tlakateka eta Moiotl, beheko bidetik zihoazenak, eskubiko bidetik alegia, bascoen lurretik gertu ibiliko zirela eta auskalo gure Jainkoa aurkitu ote zuten.

Orain badakigu ez genuela aurkitu eta esaten dizuet jakin dezazuen zein zaila den historia azaltzea dakizunean ez genuela aurkitu, eta oraindik ezin dut esan eta badirudi beharbada aurkitu genuela.

Mac-Ta gainean egin genuen Tekiauhkauhkallia tristeki kolpagarria da. Gutako batzuek esperantza guztiak galduta zeuzkaten eta ez ziren ezkututzen esateko. Negarra zegoen Artedoko kanpamenduan. Gustatuko zitzaigun bertoko galegoek gertatu zenaren berririk ez izatea, baina taldeetatik biziraun zutenek azalduka edukiko zuten ordurako: euren artean mintzatzen ziren eta gu ikustean, Aztlango alde tenotxkakook, aipatutako azteka-tenotxkek, isildu edo berriketa aldatzen zuten eguraldia aipatzen hasiz, berriketa aldatzeko modu galegoa baita hura, nahiz eta Aztlan Zaharreko Galezian eguraldia ez den ia inoiz aldatzen. Ikusten genuen bazekitela lurra gure aurka oldartu zela eta beldur ginen ez ote zuten gure aurka etorri nahi beren bertako jende galegoarekin, gurekiko fedea galduta, ikusita baitzegoen gu ez ginela Sant Iago.

Eta gure Tlakateka-Alok, harrapatutako sukarretatik nekez altxatuta, bazekien bide bakarra geneukala eta zen hasieratik seinalaturikoa, alegia helbide bat edo helbide batera zeramana, Fala Bascako Oyarzun izeneko bascoen herri edo lurrera zeramana. Nola edo hala iritsi beharra geneukan bascoen lurraldera, zeren haien, atzerritarren, Gure Jaun Handiak abiatuta baitzeukan guretake hamazazpi mendez herrialdeko behe-partean agintzen zuten tribu atzerritarren aurkako gerra eta gure aurka gerra egin nahi bazuen soberan zeuzkan kaktzopintleak eta bestelakoak Aztlango jende tenotxken kontra oldartzeko. Nahiz eta ez zeukan inolako motiborik gure aurka gerra egiteko, egin eta egiten zuten, eurek deklaratu gabe egiten baitute eta hainbat aldiz esana geratu da ohitura popolokaz beteriko jendea dela.

Eta galdera bezala jarrita gera bedi, alegia, gerra ez baziguten egiten zer dela-eta suntsitu zituzten Papalomitxin eta Oiametl, diot nik. Eta galdera bezala ipintzen dut beste hau, zer dela eta desegin zituzten Netxipitxiolo eta bere taldeak. Eta gu, Aztlango aztekak, nola edo hala iritsi behar genuen bascoen lurraldera, izan ere acolá falan coma (sic) vos, gure Jainkoen lurraldea baitzen, eta gero itzuliko ginen Harekin gure Aztlanera eta gero ziurtasunez ibiliko ginateke. Horixe zen bide bakarra eta jarraitu beharra zegoen, gure animoak hain desanimaturik egon arren. Tristeziatzko kantuak, tristeziatzko loreak. Jadanik ez geneukan galtzeko denborarik eta gure Tekiauhkauhkallik erabaki zuen berahala abiatu beharra zegoela, ez baikenuen denbora askorik. Eta irteera atondu zen eta adostu genuen ez ginela gauez geldituko, baizik gure martxa egunez eta gauez egingo genuela eta Pedroperez haiek egingo ote genuen mesfidati zeuden, eta esan genuen Aztlandik etorri ginenean ez ginela egun bakar batean ere gelditu, eta orduan bertoko galegoek esan ziguten hura ere bazela euren egiteko modua, baina Kantauriko kostaldea, batere esanahirik ez duen Itsasoaren izena bera, bertara sartu eta atsedean hartzeko tentazio hutsa diren babestokiz beteta dagoela.

Esan genien jada ez geneukala galtzeko denborarik eta, kontuan harturik eurek ez zutela gure egutegia ezagutzen, eta jakin ere ez zekitela bageneukanik, ez zekiten noiz egongo ginen bascoen lurraldeko Oyarzunen, eta Gure Jaun Handiari, Mintzo

Den Hari menpekotasun-zina egina ziotenez eta gure Jainkoen fedearen bidetik eramán genituenez, oso ondo bete zuten euren zina.

Une hartan ura lortu behar izan genuen, gutxi baitzegoen, eta Aztlan Zaharrera egindako gure espedizioan zehar gutxien egon zena zen. Eta soilik lur hartako oktliá edan izan bagenu, sekula ez genuen egarririk izango, soberan baitzegoen. Asko batu genuen eta itsasontzi guztiek bete zituzten beren zahagiak, barkatzen bazait nire esateko modu zakarra.

Sobera geneukan bolbora eta geziak eta munizio deituriko pilota-taupadak eta jakiak deitu hornikuntzak. Joan nahi izan zuten Sususek beren petateak egin zituzten euren arrokekin eta gure bufandekin, baina itxita geneuzkan Xotximilkoko etxe handiaren barruan. Iritsia zen beraz aingurak jasotzeko ordua, bagindoazela eta Itsasorantz jo genuela esateko modu polita baita, eta halaxe egin genuen.

Eta eguraldi bikaina egiten zuen berriro, zeru garbia eta hodeirik gabea geneukan, eta Ekialderantz bultzatzen zigun haize ona, Levante izenekoa, eta aipatutako haize horrek Aztlango hamabost itsasontzien belak puztu zituen, beste asko puztuko zituen bezalaxe, eta Artedotik irten ginen, zeina herri tristeá baitzen, non tenotxkak soilik albiste tristeak jasotzen genituen. Eta hura dena ez zen ezer, gelditzen zitzaigunaren aldean.

HAMAZAZPIGARREN ATALA

Iritsi naiz batere azaldu nahi ez nituzkeen narrazioko zati haiek guztiak azaltzera. Kontua da momentu honen etorreraren beldur nintzela idazten jarri nintzenetik, eta orain banago. Aitzitik egun osoan eta bestearen zati batean iraun zuen eguraldi onak eta puska ederra aurreratu genuen, dena Ekialderantz zuzen-zuzen. Oso egun argia zen eta eskuinetara geneukan Bableen lurraldeko kostak, jende ona baina zakarra gurekin. Eta ezkerretara inoiz amaitzen ez den Itsasoa, jakin baibagenekien nondik amaitzen zen mendebalderantz, baina ez alderantziz Hegoalderantz.

Adostutako formazioa mantentzen genuen eta Mac-Tak, eskudraren aurrean, bidea eta makalalditan ez erortzen erakusten zigun. Emakumeek jatekoa prestatzen zuten itsasontzietako sukaldeetan eta nire Cuandopenso barruan Sususen eskuen astinduak entzuten ziren, zeinek, esku-ahurrekin arto-irina leundu eta forma ematen zieten gure tlaxkalliei¹³⁸, eta itsasontzi osoan komal gaineko plantxan egositako arto-irinaren usaina zabaltzen zen. Lehenago, Opaton gaztea zelarik eta afaltzeko ordua iritsi zela ikusi eta jatekoaren usain gozoa sentitzen zuenean, listuz betetzen zitzaion ahoa eta jateko gogoaren eta gustura jango zen seinalea zen hura. Baina askoz lehenagoko garaiei buruz ari naiz.

Orduan Itsasotik lehorrera zetorren karabela bat ikusi genuen eta ematen zuen gure itsasontzi batzuen tartetik igaroko zela, hain zetorren zuzen eta tinko, eta hala ere pentsatzen genuen agian ez gintuela ikusi eta kalte egingo geniola elkarri. Baina alderantziz zen: ikusi eta gure bila zetozen eta gure albora iritsita zeharka jarri zen, hainbeste non Ketzalkoatlén bila Ekialderantz joango zela ematen baitzuen.

Gure Pedroperezek eta beste bertoko galegoek oihu egin zuten:

—Gerra-ontzia da! Gerra-ontzia!

Eta pentsatzen genuelarik nolatan konturatu ziren hain azkar, trumoiak aho guztiak ireki eta trumoi guztiak aipatutako pilota-kanoikadak jaurtitzeko hasi ziren. Zarata handia burrunbatsua itxaron gabea izan zen eta eraso injustu eta ikaragarria, ez baikenuen espero. Eta trumoi bat jaurtitzeko bukatu eta hurrengo kanoikada botatzeko prestatzen zen eta uraren parean botatzen zizkigun pilotak, nik uste gure itsasontziak hondoratzeko gogoz. Eurak bota eta bota eta gu ez, zeren hara nork itxaron zezakeen holako eraso bat eta ea nork prestatuko zituen gure trumoiak, eta gure geziak ez ziren aipatutako gerra-ontzira iristen, eta gaitz gutxi egin ahal genion, eta ez genuen probatu ere egin. Eman ziguten sorpresarekin gure jende guztia durduzatu zutenez, inork ez zekien norantz jo eta zer egin.

Gu azteken artean ideia bat izan zuen bakarra Nakxiti izan zen, zeinak ezkerretarantz jo zuen bere Kuahnahuakekin, bere kanoa baitzen denek atzean zihoana, eta gerra-ontziaren bestaldera gelditu zenean aipatutako gerra-ontziaren aurka bere trumoiak jaurtitzeko hasi zen, sei edo zazpi baitziren, baina eraso egiten zigun itsasontziak asko zeuzkan baita beste aldean ere, eta Kuahnahuaken aurka pilotak jaurtitzeko hasi zen, bestaldetik ordea, han ere kanoiak

¹³⁸ Tortilla deitzen dena da. Espainiarrek hola deitu zioten ogi mexikarrari eta tortilla adiera ezabatuta geratu zen. Orain, jatorrian, tortilla jan nahi denean *omelette* erako tortilla eskatzen da.

baitzeramatzan. Eta sekulako zuloa ireki zion uraren lerroan eta gure itsasontzia instant batean hondoratu zitzaigun, une labur gisara esana gera bedi.

Eta gerrako karabela hartako jende guztia beren gezi, eskopeta eta ballestak igeri egiten zetozen gureen aurka jaurtitzen hasi zen, azteka nahiz galegoa izan, eta orduan pixka bat berreginda, gure trumoiak bideratzen genituen haien aurka baina ez genion batere kalterik sortu, gurekin nola jolasten zekielako eta inoiz ez zelako geldi egoten, soilik sua jaurti eta pixka bat urrutiago joaten baitzen, urrutiagotik ostera jaurtitzeko.

Oso jende gutxi salbatu ahal izan genuen, Sususek ez baitakite igeri egiten eta igeri egiten zekiten bakarrak hondora joaten ziren, gezi bat sartuta edonor baitoa hondora. Gure Nakxiti ez genuen aurrerantzean ikusi, beraz ez geneukan Tlakatekarik, hil egin zutelako nonbait, zeren ez bazuten hil, iritsiko zen bai guregana, kementsua ez ezik inork gutxi baino hobeto egiten baitzuen igeri. Aztlango gerrari gutxi jaso genituen eta are gutxiago bertoko galegorik, ohartu baikenen jende galegoa azkarrago hondoratzen dela. Baina ez zuten soilik Kuauhnahuak kaltetu: itsasontzi guztiak zeuden ukituta eta Oserak masta handia galdu zuen eta bela txiki bakar batekin, hiru aldekoarekin alegia, zebilen, eta arraunekin, gutxi laguntzen zutenak eurak. Eta itsasontzi barruan ere jende hila eta zaurita geneukan, eta hildakoak Itsasora bota genituen, jadanik ez baitziren probetxuzkoak, eta ea nola sendatzen genituen zaurituak. Gerrako karabela Itsasoan barneratu zen eta orduan Mac-Tak eskubirantz bideratu zuen bere itsas-zeregina eta denok haren atzetik nabigatzen genuen lur Bablearen kostaldetik gertu, nik esango nuke berriro gure joana oztopatu eta ostera eraso egiten baitziguten lehorrerantz abiatzeko asmotan geundelarik, non defentsa handiagoa geneukan, kontuan harturik gure itsasontziak ez zirela gerrakoak baizik Ketzalkoatlén bila joatekoak, Kuauhtxitik izeneko Kainaberadi eta Palmadiko zurgin baten obra. Jende gutxi geratzen ginen itsasontzietan, kontuan harturik hainbeste hildako eta zauritutakoekin ez zitzaigula ia inor bizirik gelditzen.

Hala ere, geratzen ginen gutxi haiek serio-demonio saiatu ginen lanean trumoiak prestatuta edukitzeko, erretzen den lurra, bolbora izenekoa, eskura izateko, eta prest geratu ginen, orduantxe gertatu zitzaigun porrot laidogarri haren ondoren egon daitekeen bezainbat, gerrariak gabien gainea, ikustekoa baitzen gerra-ontzia ez ote zen itzuliko, behar bada soilik pilota gehiagoren bila joana zelarik.

Orduan Paradeloa lerroetatik atera zen masta handiaren gainera igoarazi zuen eta bertoko galegoen artean sakrifizioa ez baizik amore-ematea esan nahi duen bandera zuriarekin, eta Itsasoan barneratu zen, gerrako karabelaren bila joango balitz bezala. Esaten dizuedan bandera zuriagatik ez balitz karabela harrapatu eta hondoratu nahi zuela pentsatuko genuen. Baina jende galegoak, euren artean ondo ezagunak, esaten zuten Paradeloak amore eman eta entregatzera zihoala, Sisarga irlako soldadu haiek egin zuten bezala. Edozein moduz nik pentsatu nuen agian bandera zuria gerrako zuhurtziaz hurbiltzeko jarri zuela, diogun, eta nahierara hondoratzeko, eta ondo merezita leukakete. Eta Pedroperezi nire pentsamenduaren berri eman nionean hark esan zidan ezetz, ezinezkoa zela, jende galegoen artean gerrako zuhurtzia-mota haiek denak ez zeudela baimenduta.

Baina igeri zetorren gerrari tenotxka bat jaso genuen, tenotxka deitua Tenotxtitlan Handitik Aztlan Zaharrera etorria zelako, eta harengandik jakin genuen egia:

—Bertoko galegoak matxinatu egin dira Paradelo itsasontzian, o tenotxkak, eta haien Pedroperez izan da matxinadaren burua. Denak ados jarri eta eraso egin diete gure gerrariei eta Momana hil dute lehenik. Hilgintza handia egin dute gure

artean, o aztekak, eta gizon eta emazte oldartu zaizkigu batera, eta zioten ezen aztekak hiltzeak esan nahi zuela ez ginela Sant lagoren jendea.

Horiexek izan ziren Paradelo barruan gertatutako porrotetik salbatu zen lomitl gerrari tenotxka baten hitzak. Orduan bandera zuria ezarri eta Itsasoan barneratu ziren. Eta aipatutako lomitlek, sarraskia ikusirik, uretara bota zuen bere burua hilda gertatu baino lehen, eta igeri etorri zen Cuandopenso itsasontziraino, Opoton buru zuenaren izena bera, eta jaso egin genuen.

Beraz, gertatu zenaz gure Tlakateka-Alo ohartarazteko unea iritsia zela pentsatu nuen nik eta nire Pedroperezi kanoikada bat jaurtitzeko agindua eman nion, nik sumatzen bainuen arrisku handia zegoela Aztlango jendearentzat eta gure trumoi ipini eta galeratan zihoan Aztlango jendea eta galego guztiak aztoratu egin ziren, uste izan baitzuten itzulia zela gerra-ontzia bere trumoi injustuen zalapartarekin, eta gelditu egin ziren kanoa guztiak eta kapitain guztiak Mac-Tara pasatu ginen, aipatutako itsasontzi kapitainera alegia, eta Opotonek berak eskatu zuen Tekiauhkauhkallia egitea, gertatu berri zen zerbait larriren albiste eman behar bainien. Eta esan nien Paradeloa matxinatu egin zela eta Momana hil eta Paradeloa etsaiarengana ihes eginda zegoela. Denak lur jota geratu ziren Opotonen hitzekin, zeinak Tekiauhkauhkallira, leluko gisa, lotmil gerraria eman zuen, eta gure adiskideak Cuandopenso itsasontziko Opoton kapitain zenaren berbaldia baietsi zuen.

Alo, burua sendo eta argi zeukana eta horregatik egin zutena Tlakateka, gaixo asko zegoen harrapatu zituen sukarren erruz, eta hala ere, esan zuen:

—O aztekak, bascoen lurraldera joan beste erremediorik ez daukagu. Kosta ala kosta lur bascoko Oyarzunera iritsi eta gure Jainko Ketzalkoatl behingoz aurkitu beharra daukagu. Iritsi beharra daukagu, o tenotxkak, geratzen zaizkigun itsasontziekin edo itsasontzirik gabe, igerian ala lurretik edo lurretik eta lau hankatan, behar izanez gero. Baina gu guztiak, ala gu jende tenotxkaren artetik gelditzen direnak, lurralde bascoko Oyarzunera iritsi eta behingoz Gure Jaun Handiak, Mintzo Den Hark egin zigun mandatua betetzerik daukagun ikusi behar dugu, eta markatuta egon den tartean iritsi behar gara. Esan nahi dut, o aztekak, hemendik aurrera ez dela beste agindurik egongo eta ezerk ez duela Jainkoen eta Gure Jaun Handiaren borondateak markatzen diguna aldatuko. Bascoen lurraldea zapaldu behar dugu, haiek gu bezala mintzatzen baitira, eta uler gaitzaketen bakarrik dira Aztlan Zahar honetan. Nik, Ahotsa naizelarik, agindu bakarra ematen dizuet, oso erraza: lurralde bascoko Oyarzun. Gure kanoa guztiak hondora ditzakete, dena hondora diezagukete, o tenotxkak, eta birrindu dezakete gure armada. Baina bakar batek bizirauten duen bitartean, aipatutako Oyarzunera joan eta gure Jainkoari esan beharko dio: Jauna, gure eskura zegoen guztia egin dugu eta ez zegoena ere bai. Gure Jaun Handi Ahuizotl zure Zerbitzariaren agindua bete izan nahi dugu, eta hemen gauzkazu, Zure babesera, guk nahi genuen bezala eta Gure Jaunak agindu zigun bezala, modu ordenatuan iristea oztopatu digun jende popolokaren burugogorkeriaren erruz birrinduta.

Eta gero Tlakatekak esan zuen:

—Eta geratzen direnek, bizirik iraungo lukeen bakarrik ere bai, gure Jainkoaren baimena eta babesera eskatu eta Aztlanera itzuliko da xotxiketzalpapalotlekin, Jaun Handiaren oinetan utzi eta Beraren eta Jainkoen zerbitzura jasandako neke guztiak azalduko dizkio.

Soilik hamahiru itsasontzi ginen orduan eta galegoek zioten hamahiruk zorte txarra zekarrela. Baina guk, aztekak, bagenekien hamazazpik ekarri zigula zorte txarra eta ez genion beldurrik hamahiruri. Eta, bestalde, orain hamahiru itsasontzi izango ginen eta orain azaldu beharra daukat, iritsi baita ordua. Izan ere lur Bableko herri baten aurrean geunden, Luarcán, zeinaren izenak ez duen deus esan

nahi, eta Ibaiburuak sarrera on bat egiten duenez bertan sartzea erabaki zen, denak batzeko ordua baitzen, eta behar izanez gero, soilik Aztango kanoetara igo eta galegoak uztekoa, zeinek, ikusitagoagatik, beste bertoko galegoen erra ekartzen baitzuten. Gainera, gure aurrean, nahiz eta aski urrun, karabela-andana ikusi genuen formazioan eta ez genekien etsaiak ziren edo alderantziz.

Orduan Luarcen sartu ginen modu ordenatuan eta orain azalduko dizuet han gertatu zen guztia.

Fala Bableko Luarca herri handia da, ez gehiegi, baina aski neurri onekoa haiena izateko, eta Luarcako etxe asko kolore zuriz margotuta daude, eta Itsasotik oso polit ematen du, eta dirudi bihotz garbiarekin hartuko zaituztela. Aipatutako Luarcaren eskubi aldera mendixka bat dago eta sartzen zarelarik eskopeta batzuekin botatzen dizute bertako bableek, baina ez dizute minik ematen, distantzia handia baita eta txarra punteria. Kanoak konpontzeko jadanik badaukaten toki on bat aurkitu genuen eta arazorik gabe lehorreratu ginen eta mendixka hartatik jaurtitzen zutenak nekatu egin ziren alferrikakoa zela kontuan hartuz, eta zuhurtziaz beterik bertan behera utzi zuten zeregina.

Baina erabat lehorreratuta geundelarik, kalpixki nagusiak, beltzez jantzita baitzeuden, gerturatu ziren eta haietan zaharrenak, besteek zioten errespetuagatik antzeman zitekeena bera, esan zigun:

—Fuera de Luarca, oh forasteros. No os queremos en nuestro pueblo¹³⁹.

Ez genituen haiei ondo ulertzeko hitzak ulertzen, baina argi zegoen zer esan nahi zuten, sututa hitz egiten baitziguten, Itsasoa seinalatuz. Pedroperezetako batek esan zuen:

—Son gente de bien de Sant Iago. Son dioses y no os harán daño¹⁴⁰.

Orduan Tlakateka-Alok, zeinak, sukarrak zirela-eta oso ahulduta baitzegoen, honela esan zion gutako Pedroperez bati:

—Esaiezu euren hizkuntzan, Pedroperez on horrek, soilik elkarretaratu nahi dugula eta denbora gutxi emango dugula Luarcen. Ez daitezela gugatik aztoratu, ez baitiegu kalterik egingo.

Eta orduan bertoko galegoak esan zien:

—Dice el capitán que sólo vienen a cargar agua y que os quedéis contentos y en buena armonía¹⁴¹.

Orduan kalpixki nagusiak ezpata hartu eta esan zuen:

—Aquí no hay agua para demonios¹⁴².

Eta Tlaateka-Aloren aurka oldartzera zihoalarik, zeina sukarrak oso ahulduta zeukan, alde guztietatik atera ginen mexikak, gure ezpatekin kolpeak banatzen hasi ginen, eta ertzez jotzen badizuete min handia ematen dute, eta ikusi zuten galtzen ari zirela, guk asko baikinen eta eurak gutxi eta beren ezpatak jaurtiz esan zuten:

—Nos rendimos¹⁴³.

Eta eskopetadunak menditik jaitsi zirenean, jada ezin izan zuten jaurti, min hartuko baitzuten, eurak, bableak bableen aurka, oso urduri baitzeuden tenotxkekin. Gure Tlakatekak, gure oroitzapen ederra daukan gizonak, izenez Alo,

¹³⁹ Jatorrizko testuan gaztelaniaz: “Kanpora Luarcatik, atzerritar horiek! Ez zaituztegu gure herrian nahi”. (Itz.oh.)

¹⁴⁰ Jatorrizko testuan gaztelaniaz. “Sant Iagoren jende onbera da. Ez dizute minik egingo”. (Itz.oh.)

¹⁴¹ Jatorrizko testuan gaztelaniaz. “Soilik ura hartzera datozela dio kapitainak, eta gera zaitezela pozik eta armonia onean”. (Itz.oh.)

¹⁴² Jatorrizko testuan gatelaniaz. “Hemen ez dago urik deabruentzat”. (Itz.oh.)

¹⁴³ Jatorrizko testuan gaztelaniaz. “Amore ematen dugu”. (Itz.oh.)

esan zien Gure Jaun Handiaren, Mintzo Den Haren presotzat hartzeko, eta geratzen zitzaizkien ezpatak hartu genizkien eta labanak eta ballestak eta eskopetak eta herrian gora eraman genituen, eurak aurrean eta atzean aztekak, etxe handirantz bultzaka, juntatzen diren etxea deiturikoa bera.

Ikusita zegoen aipatutako lomitlek egun txarra zeukala, bertoko bableak zauritu zuten bakarra baitzen berori, zeina Luarcan utzi behar izan baikenuen bableak gure fedetik aldendu ez zitezen jagoten jarrai zezan. Izan ere gure fedea euren etxe handian predikatu zitzaien oso hitz onekin, eta gure Tlakatekak, aski deseginda sukar gaiztoen erruz, aski indar bildu zuen haiei azaltzeko Ketzalkoatlenganako fedea Egiatzko Bakarra zela, eta Gure Jaun Handiaren, Mintzo Den Haren izenean agindu zien idolatriako bekaturik ez egiteko aurrerantzean, eta haiek menpektoasun-hitza eman zioten Ahuizotli eta esan zuten idolatria-kultua utziko zutela aurrerago, eta aldaketa handia zenez euren artean pentsatu beharra zeukatela.

Euren etxe handian itxi eta gureetako gerrariak ezarri genituen atean, Luarcako plaza nagusian idolo beteta zeukaten tenplua desegiten genien bitartean, zeina oso erraza ez zen izan, Luarcak ez baitu ezer esan nahi eta harriz ondo egindako obra baitzen, baina gu guztiok gogotik saiatu ginenez hura birrintzen arrats erdialdera amaitu genuen dena. Eta tenotxkak nekatuta zeuden arren, harri guztiak metatu eta gau osoa eta hurrengo egunaren zati handi bat eman genuen lanean piramide handi bat osatu arte, ez oso garaia, bi pisuraino ez baitzen iristen, eta gain-gaiean Ketzalkoatlaren irudi on bat ezarri genuen, guk dena lurreratzen genuen bitartean han bertan egina, eta hain nekaturiko tenotxkak mazehualichlia egiten hasi ziren, Luarcako jende populoka ohartu zedin nola omentzen genuen gure Jainko Bideratzailea. Eta presondegitik aterata ikapllietan eserrarazi genituen, eta haiek eta Luarca bertako jende guztiak gure dantzak ikusi ahal izan zituzten eta ez genien utzi lerroak dantzariz betetzen, oraindik ez baitzeuden Ketzalkoatlaren kultuan ohituta, eta profanazioa izango zen hara sartzen uztea, eurak gogoz hiltzen ari baziren arren.

Tlakatekak Fala Bableko kalpixkiak batu zituen piramidearen oinean eta sermoi ederra egin zien, eztiz betea, haiek aurreko egunean egin ziguten harrera basatia egin arren batere arrangurarik gabea, gure Jainko Bakar eta Egiatzkoaren onberatasunak azalduz, eta eurek ulertzen zuten planta egiten zuten, eta Tlakatekak lomitlen osasuna zaintzeko agindu zien, eurekin geratuko baitzen gure nahuatla irakasteko, hizkuntza ederra baita bera, izan ere, itzulera, oster a Luarcatik pasatuko baikinena nolako jokabidea izan zuten eta dena ordenean zegoenez ikusteko, eta haren esana bete eta errespetatu behar zutela, Ahotsa baitzen.

Gure adiskidea besarkatu genuen, oso pozik zegoelarik Ahotsa izateagatik, eta baketuta eta ordenan utzi genuen aipatutako bertako jendea Luarcako herrian, zeina jarrera onean eta gure Jainkoaren zein Gure Jaun Handiaren, Mintzo Den Haren, zerbitzuan geratu baitzen.

Eta jarraian bi gauetan batere lorik egin gabe, ez asko ez gutxi, oster a Itsasoratu ginen, eta Luarcakoek ikusi zuten ez zela egia uraren bila joanak ginela.

Gure itsas nabigazioan abiatuak ginen eta bableen lurraldeko herri handi baten aurrean geundelarik, Gixonen alegia, hainbat galera armatuk bidea itxi ziguten, eta Opotonek hainbat esaten duenean sei zirela esan nahi du. Nik eta beste azteka guztiek uste izan genuen agian aurreko egunetako berberak zirela, eta gelditu ginen nondik pasatu nahiko zuten ikusteko baina beti aurrean jartzen zitzaizkigun eta lehorrerantz abiatu nahi bagenuen orduan ere bidea oztopatzen ziguten, edo Itsaso barnera, edo noranahira, beraz. Itzulera-biderik ere ez geneukan, eta hori gauza ona zen, oso itxusia baitzatekeen etsai baten aurrean bizkarra ematea,

etsaia izatekotan. Azken finean galera armatuak ere bagenituen eta tranpa batean erori baikin, tenotxkek azeria ehizatzeke egiten genituen antzekoan, aldiro itxiagotuta baikeneuzkan gero eta txikiago bihurtzen zen zatitxo batean. Gure itsasontziak ziren azeriak. Bat-batean infernuko aho guztiak sua botatzen hasi ziren, eta ez dut azaltzen jakingo eta nahiago dut ez egin, gogorapenak berak min ematen baitit. Edozein modutan ke asko zegoen eta Opotonek badio ez zela deus ikusten ez du gezurrik esaten.

Gure Jaun Handiak, Mintzo Den Hark hartu gintuenean, hain nengoen totelduta, ezin nuen esaterik izan pentsatuta neukan guztia. Sorbaldan esku bat ezarririk, edonori egiten ez zitzaion ohorea izanik, esan zidan:

—Eta hik, Opoton on horrek, zer diok?

Eta nik, tanoka halakoak, hain nahastuta geratu nintzen, honako hau besterik ez nion esan:

—O Jauna, Jaun Handia, Jaun Gorena...

Eta ondoren esan nion guztitik ez zidan hitz bakar bat ulertuko, aldiz pentsatuko zuen Opoton hark ez zekiela gure nahuatla mintzatzen, atzerriko lurralde haietan galduta. Oro har pentsatu nuen amatlezko paper batean idatzita utziko niola eta denbora pixka bat hartu zidalarik idazten eta irakurtzen ikasteak, ikasi nuenerako, Bera, Gure Jaun Handia, Zeruan zegoen. Edozein modutara kontakizun osoa idatzi nion, izan ere Huei Tlatoani batek ez du zertan lurrean egon, gure artean, han gertatzen diren gauzak jakin nahi baditu edo esan nahi zaizkion gauzez jabetu nahi badu. Bestela, eta galdera bezala ipintzen dut, zertarako balioko luke otoitzak, Harandikoak jabetuko ez balira esaten diegunaz.

Itsasontziekin gertatu zenetik urruntzen ari nintzela konturatu naiz orain eta uste dut nahita egiten nuela. Baina ez dut kontatu gabe utziko. Otlotlahueliltic san titolinia timacehualtin: que so huei tehuantzin otiquittaque in timacehualta¹⁴⁴. Orain esango ditudan itsasontzi guztiak hondoratu zituzten, formazio-ordenaren arabera: Xochimilco, Coaxtlahuacan, gureak zirenak, eta baita gureak ziren galera galego hauek, alegia, Pandeirada, Nemetamos eta Patexeira. Xotximilkoa erabat erre zen trumoi batek bolboraren zahagietan ukitu baitzuen, guk esaten genuen pizten den lurra bera, eta jakina piztu zela, eta aipatutako Xotximilkoa aireratu egin zen, ezpal eginda eta hango jendea birrinduta, hainbeste ezen Kuahutxitxikek ikusi izan balu ez zukeen sinistuko bere kanoak zopiloteen¹⁴⁵ moduan hegan egiten zuenik, nahiz eta, hobeki esanda, zopiloteek Harandiko Espainietakoak ziruditen, saltoka eta jauzika baitzebiltzan gu denok noiz hiltzen ginen ikusten.

Gure mapetan Borroka Injustuko Gixon bezala markatu genuen Gixon herria, eta ipini zioten izena aldatuta edukiko du dagoeneko, lotsagatik, eta orain osteria soilik Gixon izango da.

Guretako zazpi¹⁴⁶ itsasontzi baino ez ziren geratzen aipatutako Borroka Injustuaren ondoren eta gerraz armaturiko karabelak joan eta segidan soilik hauek geratzen ziren: Mac-Ta, osorik; Kuauhtintxana, osorik; Kueetlaxtlana, oso kaltetuta; Optonek gidatutako Cuandopensoa, kaltetuta; Panxoliña, kaltetuta; Palla, oso kaltetuta eta Neriosa, osorik zerbait esateko. Orduan gure artean batu eta Ekialderantz jarraitu genuen, karabelak joan eta Itsasoa bare baitzegoen. Iluntzen ari zelarik gau osoan ibili ginen. Herrietako argiak ikusten genituen Itsasotik eta pentsatzen genuen lasai zeudela orain baina agian biharamunean bertan gerra

¹⁴⁴ Nahuatlakeek ez zidaten barkatuko haien esaera polita ezkutatzek. Honela dio, gutxi gorabehera: “Gizonok sufritu egiten dugu, miserableok, lehen kemena zegoen tokian mina edonon erretzen ikusi baitugu”.

¹⁴⁵ *Catharista atratus*, hondakinez elikatzen den hegazti tropikala.

¹⁴⁶ Zortzi. Jarraian kontatu ahal dira.

egingo zigutela, argi baitzegoen lurralde osoa Aztlango jende zintzoaren aurka matxinatuta zegoela. Bakoitza bere itsasontziaren gainean joan eta beste inorekin ezin hitz egitea gauza mingarria zen eta inoiz ezin izan genuen gure itsasontzien bolbora-usaina ezabatu. Konepatl¹⁴⁷ batek uzker egin izan balu bezalatsu zen hura. Kuauhtintxanetik ere ezin izan genuen ezabatu, biziraun zuen Aztlango kanoa bakarra izanik. Aztlanera iritsi eta Totxpanen ainguratuta ere oraindik egiten baitzuen bolborak hatsa sunda. Asko lagundu zigun haizeak eta aipatutako Kuauhtintxan oso itsastarra atera zitzaion Kuauhtixiki, bestela ez baitzukeen itzulera-bidaia jasango, hura dena hagitz luzea eta errorez betea. Joaneko bidaian ez zeuden uharte arraro batzuetatik igaro ginen eta azkenean, ostera lurralde tenotxkan geundelarik, soilik bertako hamabost azteka baino ez ziren, jadanik hustua zen bertako emazte galego bat eta hark izan zuen haurra.

Lehenago, ordea, Sanvicentedelabarquera izeneko herri batean geundela eguerdian gertatu zen beste Borroka Injustu bat azaldu behar du Opotonek. Inork ez zekien zer esan nahi zuen izen hark, zerbait esan nahi bazuen, jakina. Gerrako karabelak gure atzetik hasi ziren jaurtitzen eta Neriosa eta nire Cuandopensoa lehen kanoikadekin hondoratu ziren. Orduz geroztik inoiz ez dut Klotilde ikusi, ezer esan nahi ez zuen Klotildecollantes izenez ezaguna.

Dena birrinduta eta barreiatuta aireratu zen: jendea eta zaldia, idi-pareak eta jakiak, trumoiak eta Cuandopenso galera. Bat-batean Opotonek era guztietako trasteen artean igeri bidea egiten ikusi zuen bere burua, norantz zihoan jakin gabe. Eta nik uste izan nuen zuzenean nindoala ballesta-kolpe bat edo eskopetakada on bat emango zidaten lekurantz, eta luze egin nuen igeri eta karranpak sentitu nituen eskubiko hankan eta nire agabezko puntarekin indarrez zulatu nuen eta aipatutako karranpak alde eginda igeri egiten jarraitu nuen eta trumoi bat etorri edo eskopetakada jaurtitzen zidatela sentitzen nuenean azpitik egiten nuen igeri, lehenago oso ondo egiten bainuen eta luze iraun nezakeen ur azpian arrain baten gisara eta jadanik badira urte asko ez dudala probatzen eta soilik aldian behin airea hartzeko igotzen nintzen eta berriro urpekatuz ahal nuen beste igeri egiten nuen eta arrain bat ematen nuen eta pentsatzen nuen hobe zela neure kabuz hondoratzea ballesta-tiro batez hondoratua izatea baino, pentsatzen nuen nik.

Kuetlaxtlan itsasontzia ikusi nuen orduan eta haiek ni eta bertara igotzen lagundu zidaten nik-neuk bakarrik ezin izango bainuen, ikusten denez oso nekatuta bainengoen. Gerrako karabelak kanpoan zeuden eta soilik sei itsasontzi geratzen zitzaizkigun, nirea hondora joana baitzen. Aipatutako Cabodelatan, Santander pasata alegia, bertan dagoen kala batean sartu ginen, eta kala haren barruan beste txikiago bat dagoela ematen du, eta aise kabitzen ziren sei kanoak. Toki ezkutua zen eta lehorreratu egin ginen eta Batzar luzea egin genuen gure Tlakateka-Aloreakin, nahiz eta ostera sukarrak zeuzkan eta sukarrek hil zuten, geroago ordea, kapitainak eta gelditzen zen jende galego guztia.

Pallako Pedroperezek esan zuen:

—Barka iezadazue, O Aztlango tenotxkak, baina nik alde egin nahi dut. Castañedon geundelarik Tlakateka Nagusiak esan zigun ezen Gure Jaun Handiaren, Mintzo Den Haren izenean, galegoak libreak ginela eta nahi izatera alde egin genezakeela. Ni pentsatzen egon naiz egunotan guztiean, o aztekak, eta gauzak nola ipintzen ari diren ikusita Coruña Galegarantz abiatu eta lehengo negozioan jarraitu nahi nuke, hots, oktlia Fala Portugesatik Fala Francara garraiatzen. Pentsa ezazue, o

¹⁴⁷ *Spilogale angustifrons*, mofeta mexikarra. Gogoratu ugaztun hark berak eman ziola Optonoen izena (Sunda) haren familiari.

tenotxkak, Palla nirea dela eta daukadan guztia dela, eta zuekin jarraitzen badut probetxurik gabe galduko dut, gure Kesalkuas ikusi gabe geldituko bainaiz.

Alok, modu galegoan besarkatu eta esan zion:

—Joan zaitez, horixe bada zure gogoan, o Pedroperez estimatua, asko baita Jainkoen eta Gure Jaun Handiaren, Mintzo Den Haren, zerbitzuan egin duzuna. Eta haren izenean eskerrak eman eta bedeinkatzen zaitut.

Orduan Tlakateka-Alok, jadanik sukar gaiztoek janda, bertako galegoei galdetu zien zeintzuk ziren aipatutako Pedroperez Pallako nagusiarekin joan nahi zutenak. Eta soilik sei ziren, eta Pedroperezek esan zuen aski zuela haiekin, bere Palla maniobra errazekoa baitzen eta gure gauza guztiak eta gainean zeuzkan kanoa guztiak jaitsi zituen, zeinak inoiz ez zitzaizkigun aurreantzean baliagarri izango bere garaian ikusten joango zaretenagatik, eta aski eskasa zen egin zigun zerbitzua, eta galdetu zigun ea Noblea¹⁴⁸ oparitzen genion, estimu handia hartu baitzion, eta guk eman eta hark berrontziratu egin zuen. Bandera zuria ezarri zuen arbola deritzan masta handian, zin egin zigun sekula ez zuela esango aztekak kala hartan elkarreratu ginela eta aldeko haizearekin joan zen, egun hartan ez baitzuen euririk egiten.

Bost itsasontzi haiek ziren nabigatzeko moduan geratzen zitzaizkigun guztiak; Totxpanetik, Aztlango lur berotik, atera ginenean baino bat gutxiago. Eta Aztlangoetatik soilik hiru geldizten ziren, honako hauek: Mac-Ta, Kuauhtintxana, eta Kuetlaxtlana oso kaltetuta. Eta beste biak, nahiz eta galegoak izan, gureak ziren eta ezkerretik eskuinera Panxoliña eta Osera ziren. Batzar hura itzela izan zen eta gure Tlakateka-Alok, Tlakateka Nagusiaren anaia bera, esan zuen orduz geroztik debekatuta zeudela kexa guztiak eta pasatako gauza guztien gomutak. Hura dena atzean geratzen zen, prest, eta bera zen Ketzalkoatlen eta Gure Jaun Handiaren, Mintzo Den Haren aurrean, egingo zen guztiaren erantzulea.

—Gutako inork, o aztekak, ezin izango du hondoratutako itsasontzi baten izena esan, ez eroritako lagun batena, ez itotako Sususa batena. Soilik bizirauten dutenek aipatu ahal izango dituzte Gure Jaun Handiari gure bidaiaren kontakizuna azaltzeko ordua iristen denean. Zuetako norbaitek, elkarrizketa bat ulergarri egiteko, aipatutako izenen bat esan beharra badauka, baimena eskatu beharko dit aurretik.

Tlakateka oso argi mintzatzen zen, nahiz eta sukarrak dardarti eduki eta geroago hil egingo zuen, baina oraindik ez da iritsi hori azaltzeko unea, dena iritsiko baita, begiratu bestela hasi naizenetik azalduta daukadan gauza-pila eta sekula ez dut izan oraingoa bezain bulkada ona.

Esan zuen berak eta Tlatxitona-Tlapitzkatzinek ondo hitz eginda zeukatela eta hurrengoa esan behar zigula:

—Ikusita eta frogatuta geratu da Galeziako jendearen gerrako karabelen nagusitasuna itsasoan, gureak eta lagun ditugun bertako galegoen kanoak bakezkoak baitira eta ez gerrakoak. Gureak gaizki bihurtu dira gerrako itsasontzi, eta denek dakizue, o tenotxkak, ez zirela gerrakoak. Ikusi duzue lauhtepek Berritik irten ahala nola herrialdea oldartu den gure aurka, eta ikusita dago ezen Muroseko espiritua, gerra injustuko espiritua, Galezia osoan hedatu dela. Baina gu, o Aztlango jendea, bascoen lurraldeko Oyarzunera iritsi behar gara, Gure Jaun Handiaren agindu sakratua baita, eta inork ez dauka guri hori oztopatzeke eskubiderik. Borrokatu behar badugu, beraz, dagokion prezioan egingo dugu. Esan dizuedan guztiagatik, o tenotxkak, ulertuta edukiko duzue aurrerantzean ez dugula nabigatuko, baizik lurretik joango garela eta teotxitximeken¹⁴⁹ erara

¹⁴⁸ Zaldi bat izango da. Kronistak ez zuen inoiz lehenago aipatu.

¹⁴⁹ Gerrilla, beraz.

borrokatuko gara, ondo doan modu bakarra baita gutxik askoren aurka borrokatzen direnean. Hemendik aurrera ez diogu aurpegia emango etsaiari eta gauez egingo ditugu gure ekintzak eta ahal dugun beste kaltetuko ditugu, baina lurreko jendearen lagun onak izaten saiatuko gara eta ez dizkiegu etxeak erreko, ez ezer lapurtuko, ez Sususak harrapatuko, ez inolako gaitzik egingo. Laguntza eta egunez ezkutaraztea eskatuko diegu, hemendik aurrera soilik gauez ehizatzen duen tigrearen bezalakoak izango baikara. Bertako galegoen antzera jantziko gara denok, Netxpitxiolo janzten zen erara, janzkera galegoa defentsa ona bilakatuko baitzaigu. Konkistatuko dugun lurralde osoa baketuta eta gure alde utziko dugu eta gutxika-gutxika haiei Ketzalkoatlekiko fedea irakasten joango gara, Luarcako jendearekin egin dugun bezala, haien izaera idolatra bilau eta popoloka kentzen diegun ikusteko. Mendeku-sentimendua ez da oso noblea, o jendea, baina kasua justua baldin bada berez nobletzen da eta orduan denak balio du. Pentsa ezazue, o aztekak, aipatutako mendeku-sentimendua bultzatu zuela Nezahualcoyotl bere aitaren tronua Tezozomoc¹⁵⁰ gaiztoak usurpatua, berreskuratzeko, haren izena gorabehera ahal zuen tokitik ateratzen zuen hark indarra jende aholkuaren aurrean mantentzeko.

Behin gure Tlakatekak bere hitzaldia amaituta, Opotonek zabarkari emana geratu dena, gure itsasontziak estekatu eta galegoak hutsik utzi genituen, jenderik eta ezer gabe badia handienaren erdian ainguratuta. Era hartara bableek uste izango zuten abandonatu egin genituela eta, agian, itsasontzi galegoak aurkiturik, Aztlan Mexikoko gure tenotxkak bilatzea ahaztuko zitzaizkien.

Aipatutako gure itsasontziak ahal bezain ongi ezkutatu genituen oihan barruan, eta ez zen lehen aldia oihanean ikusten genituela, uste baitut badakizuela zertan ari naizen, eta albo batera etzanda utzi genituen, jende bableak edo bertako galegoak aurkituz gero hilda zeuden itxura eman zezaten, eta lan handiagoa eman zitezaien haiek eskuratu nahi izanez gero.

¹⁵⁰ "Itomenez sufritzen duena"

HAMAZORTZIGARREN ATALA

Denak batera gutxi batzuk ginen, hogeiko ehunda berrogoeita hamar bat, denak zenbatuta. Tenotxitlan Handiko Kainaberadi eta Palmadiko azteketatik soilik hogeiko hogeita erdi bat geratzen ginen, ez asko beraz, eta hortik aurrera denak ziren bertako galegoak eta Pedroperezak, marinako kaktzopintleak bezala direnak, alegia. Agur eginda geneuzkan emakume guztiak nahiz eta askok ez zuketan alde egin nahi izango, aski maite gintuztelako. Azken finean ulertarazi genien agindu bat zela eta guk, aztekak, ez geundela gure teotxitximeka erako gerra emakumeen oztopo eta guztiarekin aurrera ateratzeko prest. Eta eskatu genien ea gai ziren ahoa ixteko eta inori ez esateko non geunden ez nora gindoazen eta zin egin zuten, baina gauza jakina da ezin dela gehiegi fidatu emakumeen zinez eta pentsatu genuen haietakoren bat tzanate bihurtuz gero zer gerta ote zitzaigukeen eta negarretan eta besarkada artean alde egin zuten, hainbeste non ematen zuen sekula ez gintuztela utziko, eta aztekak gerrarako armaturik geundelarik berdin zitzaigun hitz egiten bazuten zein ez.

Alok esan zigun ezen konkista bascoen lurralderaino eramaten bagenuen, itzuleran aipatutako Leoneraino iritsiko ginela, Papalomitxin eta Oiametl erreskatatzera, ordurako sakrifikatu ez bazituzten, eta behar izanez gero hiria setiatuko geniela, nahi beste handia zelarik, eta harriz harri desegingo geniela temoso jartzen baziren, gorago esan zenez Luarcako tenplua desegin genuen bezala.

Esan zigun baita ere orduraz geroztik bakoitza bere burua zaintzera behartuta zegoela, eta maiz gure kasa ibiliko ginela, hots, aurrerantzean inork ez zuela beste inoren ardura hartuko aldiz norberak berarena, izan ere atzerriratu izateak ardura hartara behartzen baikintuen eta, nola edo hala, gutako bakoitza norberaren Ahotsa izango zela, beti ez baitzuen eskura izango aginduak emango zizkion Buruzagi bat.

Gerrari bakoitzak bere armak zeramatzan, eta petate bat menestrarekin eta, ikusirik guztiok bertoko galegoen antzera jantzita gindoazela, denok geneuzkan patrikak, zeinak, lasai aztertuta, aski erabilgarriak baitira. Gauza ttikiak eramanez ahal dira, adibidez moneta izeneko borobiltxoak, Alok Mc Tan generaman zahagi hartan zeuden guztiak partekatu baitzituen, aurrerantzean inoiz ikusiko ez nuen itsasontzi kapitainean alegia, aurrerago esango denez, eta nondik, zorte onez xotxiketzaipapalot delakoa hartu genuen. Denbora bat aurrerago Kuauhtxitxiki azaldu nionean nola amaitu zuten bere kanoek Pedroperezek gilak jarri zizkietenez geroztik, ezin zen konformatu. Gu denok bolbora-zakuto bat eta eskopeta generaman, arma berria bera, aurrekoa espingarda bat baitzen, lehenago zegoena alegia. Ballestak ere bageneramatzan, baina ez dute gure arkuek bezain azkar jaurtitzen, hala ere gezia urrunago doa eta gehiago probesten da, hilgarriagoa baita. Auskalo non zeuden zerbatanak eta makahuitl¹⁵¹ haiek, jadanik ez baitziren ezertarako baliagarriak, erabat ezgauza bihurturik.

Alok agindu zigun oihanean arratsalde osoan lo egiteko, ilundu ahala abiatuko ginelako, eta zentinela- eta espia-txandak antolatu ziren eta ni kapitain izaten jarraitzen nuen, inguruan zeuden landak arakatzen zituzten haiek eta ikusten

¹⁵¹ Egur-puska bat zeinaren eskutokia ez den beste muturrean obsidianazko zati zorrotzak sartuta zeuzkan (*obsidianum virum*), eta ezpata gisara erabili ohi zen. *Maitl*, eskua, eta *kuahuitl*, enborra, egur-zatia.

zuten guztiaz informatzen gintuzten. Tlakateka-Alok esan zuen ez zela justua izango Itsasoan kapitain izan zirenak lurrian ez izatea eta arrazoi horregatik kapitain izaten jarraitu nuen nik. Eta oraindik banaiz une honetan, nahiz eta balio gutxikoa izan, baina izan naiz inork ez bainau kargugabetu. Opaton kapitaina deituko didan inor ez dago bizirik, baina Aztlan Zaharrean ederki asko esaten zidaten denek.

Eta Miera izeneko ibaiaren ibilbideari jarraituko geniola erabaki zuten, haren izenak ez du ezer esan nahi, ezpada Malpicako apaiz-aztiak guri buruz esan zuenaren antza duela. Aipatutako Miera ibaia gu sartu ginen badian hiltzen da, eta ttikian kanoak geneuzkan, eta mendietatik asko igo ondoren, sekula ez baikenuen hainbat mendi-pila igo eta jaitsi, egunez hartzen genuen atsedena. Lurralde hura dena Castilla Vella da eta han Castilla Vella mintzo da, gaur egun ia Aztlan osoan mintzo den hizkuntza, eta kontuan harturik haietako askok ulertzen zutela gure nahuatla eta guk ere bai Fala Galega eta Fala Bablea eta Fala Castilla, denok elkar ulertzen genuen. Barregura sortzen zuen gure hitz egiteko manierak eta guztionak, beti hasten baiken zerbaite besteen, Aztlango atzerritarren, hizkuntzan esaten, eta ahal bezala amaitzen genuen gure hizkuntzarekin eta eurek gauza bera egiten zuten, baina alderantziz, eta aski ondo ulertzen genuen elkar. Ez gintuzten konprenitzen, gauza bat baita ulertzea eta bestea elkar konprenitzea. Askok lo egin zuten eta beste askok ezin izan zuten lo egin. Gu tenotxkentzat gauza astuna zen jantzita lo egitea, galegoek bezala, eta pixa egin nahi duzunean lanaldi osoa gertatzen da eta ez dut esan beharrik orain ordena naturalean jarraitzen dena, soberan ulertzen baitidazue. Eta kaskoa ere bageneukan, burdinazkoa eta luma-gandor tenotxka baino hagitzez pisu astunagoa duena, eta azpialdean kapela eramane ohi da kaskoak gainean iraun dezan. Kaskoa egokia da haien ezpaten aurka baldin eta kolpea buruan ematen badizute. Baina beherago emanez gero ez du jadanik balio eta orduan korazak defenditzen zaitu, traba handia egiten baitu eta astuna da, baina eraginkorra kolpeak burutik haragokoak badira. Ea oro har ulertzen den, diot nik.

Alori esan nion ona litzatekeela pinole egitea, artirin xigortua eta azukrea alegia, elikagai ona baita bidea egiten denean eta ez du tokirik hartzen, eta pinolea egin eta denon patriken artean banatu genuen, denok hartu baikenuen eskukadaren bat. Bertoko galegoek lehen aldiz jan zutenean, ito-edo egiten ziren eta esaten genien tenotxka azteka onek beren izaera erakusten zutela pinolea irentsi eta aldi berean txistu eginez, eta egiten saiatu eta ito-edo egiten ziren, zeren txistu egin eta pinole jatea barre egiteko esaten baitzen, baina eurek sinistu egiten zuten bertoko galegoak fede onekoak eta leialak baitira, Opatonek azaltzen duenarekin ikusten joango zaretenez. Izan ere nik bizitza osoan nagusi bakarra izan dut eta hura lehenago nire esklabua izandako bertoko galego bat izan zen. Gixongo itsas batailan bistatik galdu nuen eta nik uste nuen ito edo hilda zegoela, eta hogeita erdi urte geroago ikusi nuen Tenotxtitlan Handitik geratzen zen hartan, hain juxtu bertan finkatzera etorri eta buztingile negozioa ezarri baitzuen eta lana eman zidan ni lehenengo ofizioara itzulia bainintzen ordurako eta berak zioen hobe zela zoro ezaguna ezagutu gabeko jakintsua baino, horixe zioen hark. Eta aipatutako Estebandasilvarekin Fala Galega ikasten amaitu nuen eta zoriz aurkitu nuen osteria Estebandasilva, zeinak soilik izena zeukan aldatuta, hala ere pixka bat gizenago zegoen. Garai hartan Don Esteban zen eta lehen bezain maltzur iruzurti gezurtero bazternahastaile eta amarrutsua zen, eta Opatonek eginda zeuzkan eltzeak ordaintzeko orduan nahasten ninduen, beti esaten baitzuen benetan baino gutxiago zirela. Tratamenduan ere aldatuta zegoen, izan ere Aztlan Zaharrean nik hika egiten nion eta berak voscapiatanka eta hemen nik Don Esteban eta berak hi, Opaton, garraiatu eltze hauek guztiak atzeko patiorantz eta bakarren bat hausten

badidak, ordaindu. Baina aurrerago, ordua denean, kasuari dagozkion xehetasun guztiekin azalduko dut.

Asturiasko lehen herria, lurretik baldin bazoaz, Entrambasaguas da, hau da bi ibaien artean, eta eguna argiturik iritsi ginen. Eta gurekin batera hiru Konpainia iritsi ziren, baina haiek beheko aldetik zetozen eta gu goiko aldetik.

Esan dut ezen Solares eta Santander inguru hura dena oihanez beteta dagoela eta zuhaitzak garai eta trinkoak dira eta lurra den-dena berdea eta oso eskasa goroldiorik gabeko harkaitzen multzoa. Dena da berdea, diogun. Eta gu ohian barruan gelditu ginen eta beheko aldean Konpainien mugimendu guztia ikusten genuen. Haiek zama guztia jaitsi zuten gurdietatik eta beren kanpamendua egiten hasi ziren eta txukun geratu zitzairen, esana gera bedi egiaren ohoretan, Santanderreko lurralde hura artoz ereinda baitago eta ondo hazten da, eta zuri samurra eta gorri-beltz heldua topatu genuen, eta gu, Aztlango jende tenotxka, bizitza osoa bizi ahalko ginen soilik artoarekin. Zeren hainbeste haragi eta urdaiazpiko, beste okela-mota bat nolabait, jan-behar hura dena bertako galegoen erakoa eta sasikoa baitzen guretzat, Aztlango aztekontzat.

Konpainia batzuek Entrambasaguaseko etxeetan hartu zuten ostatu, eta kapitainak izango ziren, soldaduak kanpoan geratu baitziren, piztu zituzten hainbat suren inguruan. Gaua etorri eta haiek lotan egon arte itxaron genuen baina zentinelak utzi genituen eta haiek ere bai, eta gurek ikusten zuten nola haiek egiten zuten goardia. Orduan jabetu ginen merezi zutela guk kapitainen etxea erretzea, zeinera hurbil gintezkeen zentinelan atentzioa beste alde batera eramaten bagenuen, gerrako maniobra zuhurra baita hori, dagokion bezala, eta atentzioa erakartzea denak esnatzea bezala izango litzateke, eta etxea barruan kapitainik gabe geratuz gero, jada ez zuen merezi erretzea.

Poliki-poliki bertara hurbiltzea pentsatu genuen orduan, zaratarik egin gabe, eta hobe litzatekeela gure galegoak oihanean geratzea, zeuden tokian, izatez zaratatsuak baitira, eta haien etxe kapitaina eta armak gorde zituzten horreoa erretzea, eta horixe egin genuen. Isilka abiatu ginen eta ukitzerraino iritsi ginenean tortxa bat ixiotu genuen ardagai eta suzko harriarekin, izan ere bi egur igurtzen hasi izan bagina sekula ez genukeen amaituko eta horregatik kopiatu genuen, ez baita zotzak igurtzea edo gau eta egun sua piztuta mantentzea bezain entretenitua. Eta suzko harriaren hotsa entzunda zentinelek alto, *quién vive*¹⁵² oihukatu zuten eta geldi geratu ginen eta ez gintuzten ikusten, eurek beste aldetik bilatzen baitzuten eta aipatutako etxeak ezkututzen gintuen. Orduan pentsatu genuen ezen gutako batzuk haruntzago zarata egitera joanez gero zentinelek bertara joko zutela zer gertatzen zen ikustera eta guk probestu genezakeela, eta damutu ginen galego zaratatsuak ekarri ez izanagatik. Orduan gutako bi haruntzago joan eta zuhaitz batera igota adar bat hautsi zuten eta haiek, zentinelataleak, *quien anda por ahí*¹⁵³ galdezka joan ziren, eta orduan tortxak bota genituen kapitainen etxearen leihoetatik eta armen horreo barruan ere bai, eta bat-batean erre eta eztanda-pila bat egin zuten, entzuteko atseginak eurak, nabari baitzen erretzen den lurra, guretzat bolbora, gordeta zeukatela.

Zuhaitz hartan igotako gureetako bat eskopetakadaz hil zuten, baina besteak salto egin ahal izan zuen eta errenka iritsi zen gure ezkutalekura, orkatila bat bihurritu baitzitzaion eta min handia ematen du niri ere inoiz deslekutu baitzaizkit eta esperientziaz mintzo naiz. Uste dut kapitainak ez zirela erre, korrika alde egin baitzuten denek. Eta soldaduak eroen pare zebiltzan kanpamenduko alde batetik

¹⁵² Jatorrizko testuan gaztelaniaz. Alertako oihu militarra. Hitzez hitz esanda: “Alto, zein bizi da?”

¹⁵³ Jatorrizko testuan gaztelaniaz. “Nor dabil hortik?”

bestera, inurri-errenkada bat desegiten duzunean bezala jadanik geratzen ez den bihurrikeria horietako batean, eta ez zegoen bat bera bazekiena nora joan eta non zeukan zeregina. Konpainiakoak elkarri bultzaka hasi ziren eta ez zuten ezer baliagarriarik egiten, aldiz hain handia zen nahasmendua, aztekek erraz eduki zuten alde egitea, euren hanken artean pasatuz ere bai, esana gera bedi irudi bezala, eta iskin eginda, lagunekin batera ohianeko argigune batera joan ginen, nondik Konpainiak ikusten genituen, zeinak aski txarto geratu ziren.

Ehizaldia jo zuten ohianean baina ez zekiten zertan ari ziren eta, beraz, ez gintuzten ikusi ere egin. Egunsenti aldera joan egin ziren beren gurdiekin, eta segur nago pentsatzen zutela gertatu zitzaiena deabruen gauza izan zela eta gustura jakingo nuke zer esan ote zieten Konpainietako Jaun Gorenei, azalduko baitzieten jasandako porrota eta ez gintuztela aurkitu.

Eta Entrambasaguaseko auzoek ere ez zuten gertatu zenaz ezer ulertzen eta orduan ongi lo egin ahal izan genuen eta arratsean herrira jaitsi ginen eta jendea, ikusten gintuenean, hara eta ona joan ohi zen eta ezin izan genituen ez baketu, ez Ketzalkoatlaren federa bideratu. Joan egin baitziren, eta gaizki bideratuko duzu bertan ez dagoena, diogun. Baina bertan zeukaten tenplu txiki bat desegin genien, handiak lan handia emango baitzuen, eta harriak piramide txiki batean metatu genituen non arto-ogiz egindako Ketzalkoatlaren estatua txikia ezarri genuen, erritualezko paperean hornituta, baina ullizko borobiltxorik gabe, ez baikeneuzkan. Eta lan luzea eta astuna izan zen eta gau osoa behar izan genuen. Eta aurrerago genuezkanez espiak lasterka iritsi zirenez, esanaz beste Konpainia batzuk hurbiltzen ari zirela, dena bertan behera utzi eta oihanean gora alde egin genuen, gure gauza guztiak hartuta, eta toki on bat aurkitu genuen, aipatutako Miera ibaitik gertu harkaitzen artean ondo ezkutatuta eta bertan bainatu eta lo egin genuen, Konpainiakoek aurkituko ote gintuzten zentinelek bijilatzen zuten bitartean.

Hurrengo arratsean bueltatxo bat egitera joan ginen Entrambasaguasetik ez pasatzearren eta Lacavadaraino iritsi ginen, beste herri handi bat bera, baina ez oso handia, purepetxen lurraldeko Parangarikutiro bezalakotsua adibidez, zeinak Opotonek ez duen ezagutzen baina esan egin zioten. Eta ez izen batek ez besteak ez du ezer esan nahi, ez Castellakoak ez purepetxak. Lacavadako tribuetakoak landatik itzuliak ziren eta plazan batu genituen eta eurak izututa zeuden eta Pedroperez bat Castellan mintzatu zitzaien eta gure Tlapitzkatzinek eta Alok gure nahuatlez esaten zutena esaten zien. Eta egiaren ohoretan esan behar dut nire iritziz inork ez zuela ezer ulertu, aipatutako Pedroperezengandik hasita. Eta Alok, sukarren erruz kiribildurik, uzteko esan zigun, kontuan harturik hizkuntzarik gabe ezin zutela deus esan.

Edozein moduz esan zitzaien euren idoloak faltsuak zirela eta benetako Jainko bakarra Ketzalkoatl zela eta Tohuahuitlik lurrera bota zuen irudietako bat, eta batik bat emakumezkoak oldartu zitzaizkion eta gutxigatik ez zuten txiki-txiki egin denen artean, eta irudia bera baino birrinduagoa geratuko zen, zeina, irudia, pixka bat maspilduta geratu baitzen erorikoagatik. Ez zirudien beraz lurralde hartako jende hura onean sartu ahal izango zenik gure fedean, eta Toiahuitlen ekintzak, noblea eta intentzio onez eginga bera, Lacavadako jendearen aurka jarri gintuen edo Lacavadako jendea gure aurka, egiara doituagoa nire ustez, eta lastima izan zen toki egokia baitzirudien bertan gau lasaia emateko. Beste behin, beraz, mendian gora ihes egin behar izan genuen, gero eta trinkoagoak egiten ziren ohianetan, eta beste herri txiki batean ateratu ginen, Arredondo izenekoan, baina ezkutaleku on batean geratu ginen, bi ballesta-tirora alegia, bertan sartu baino lehen, bertan lo egin eta han mutiko tenotxka batek, izenez Atxin, aurkitu gintuen, tenotxkaz jantzita eta Oiametl eta Papalomitxin atxilo hartu zutenetik ihesean

zebilena. Gu ezkutatu ginen ohian berean ezkutatu zen eta oihuak entzun zituenean belarriak tentetu eta gure nahuatla entzunda pozez bete eta jauzika etorri zen, horrela egiten baita noiz. Alo, sukarrak harrapatuta, geneukan estalpe batera eraman genuen, eta Atxin belaunikatu eta lurra eskuinez ukitu eta ahora eraman zuen. Ez zion ezer azaldu nahi eta zioen aurrerago egingo zuela, Tlakateka sendatuta, baina Alok hitz egitera azkartu zuen. Orduan erdialdeko armadaren desagiteari buruz zekien guztia azaldu zion Tlakateka-Alori eta nola desegin, hil eta atxilotu zituzten Aztlango azteka tenotxkak. Kontatu zuen ezen, desagitearen ondoren, berak pentsatu zuena lurraldez goran alde egitea izan zela, Itsasoa eta ontziratuta zegoen Aztlango jendea aurkitzeko asmoz. Eta gauzez ibili eta egunez ezkutatu egiten zela, gu-geu eta azeriak bezala, denok netsahualkoiotle bihurtuak baikin. Soilik Fala Castellako zakur batek egin zion hozka, eta hortik at ondo zegoela.

Tlakatekak eskuin eskua jarri zion buru gainean eta esan zion:

—Mutiko adoretsua, ez zaitez aurrerantzean gugandik banandu.

Eta orduan Tlakateka izan zen gugandik banandu zena, hil egin baitzitzaigun une hartantxe sukarrak akabatuta. Eta atsekabe handia izan genuen, sufrikarioz beteta, eta zegokion egur-meta osatu genuen, toki haietan nahi beste baitago, eta Alo erre genuen, Tlakateka on eta kementsua izan zena, sukarrak eta Gure Jaun Handiak, Mintzo den Hark egindako mandatua berehala bete ezinaren malenkoniak akabatuta, eta hark asko maite ninduen eta nik hura. Gure erara piztu genuen sua, zeren egoera hartan, beste era batera egitea profanazio hutsa izango baitzen. Eta arropa-poltsa batean gorde genituen bere errautsak eta nire arduraz hartu nituen eta sekula ez nintzen haietatik urrundu Aztlanera iritsi arte eta han, Totxpanen, mendietan eta Pantepek ibaian erein genituen, eta segur ginen Alo Ate eta Leihorik Gabeko Etxetik ikusi eta pozten zela.

Nire gerrikoari estuki atxikita eraman nituen beti, haiek sakabanatzeko egunera arte, eta lehenago hilko ninduten ni errautsak baino. Nik uste, Alorean errautsak aldean eramateak kementsuago egin eta, hainbeste porrotaren ondoren, berriro gure Aztlan maitatura iristeko behar den adorea eman zidan, nondik hobe inoiz atera izan ez bagina eta haiei bidea erakutsi. Eta horixe izan zen Gure Jaun Handiari, Mintzo Den Hari esan niona, aurrerago adieraziko dudanez.

Arredondo izeneko Fala Castellako herri batean hil zen Tlakateka-Alo, Aztlan Zaharrean, eta izen hark dena borobilduta dagoela esan nahi du, eta Opotonek pentsatzen zuen ezen izena ipini bazioten gure desagitea adierazteko, egia esan, oso ondo aukeratutako izena zela.

Tlapitzkatzin bihurtu zen Tlakateka eta orduz geroztik Tlakateka-Tlapitzkatzin izan zen, baina gau hartan ez geunen ezer egin ez Arredondoren aurka ez beste inoren aurka, oso etsita baikeunden. Atxinek Oiametl eta Papalomitxinen desagitea bukaeraraino kontatu nahi zigun baina gure Tlakateka-Tlapitzkatzinek esan zion debekatuta zegoela atsekabez mintzatzea, hura izan zela Alorean borondatea, eta haren oroitzapen ederra gorde nahi izanez gero iraganari buruz ez mintzazteari buruzko gure ituna bete behar genuela, eta denok batera Alorean errautsen eta Gaueko Bederatzi Bidaideen izenean zin egin genuen.

Oraindik gauaren parte handi bat geratzen zitzaigunez Huitzilopotxtli Jainkoaren estatua bat egin genuen, gerran baikeunden, harkaitz baten gainean ezarri eta dantza egin genuen buila handirik atera gabe, Alo poz-pez egon zedin. Eta berak parte hartu zuen gure mazehualiztlin, nire gerrikotik zintzilik etorri baitzen. Nire gomuta oraindik osoa bada, uste dut gero egun osoan lo egin eta hurrengo egunaren arratsaldean esnatu ginela, eta Ramesdelavictoria izeneko herri handi batera jaitsi ginen, bertara nahi beste gerturaturik, bertoko galegoen antzera jantzita baikeunden, baina Alo erre genuenean Tlakatekaz jantzi genuen bere luma

eta bitxi guztiekin, eta galegoen erara jantzita zegoen ordurako Atxin, horrela egitea erabaki baitzen.

Badakit ez dela gauza atsegingarria Buruzagien jarduera gaitzestea baina orain, hainbat Azao gainditurik, ez diot inori min egiten zerbait esaten badut. Eta esan nahi dudana da ezen Alo, gaixorik eta guzti, Tlapitzkatzin osasuntsua baino Tlakateka hobea zela. Beldurtia zen eta laster Aztlanera iristeko gogoa zeukan, eta Ahotsari edo Ahotsak agindu zigunari jarraitzea beste erremediorik ez zeukalako bidaltzen gintuen bascoen lurraldera, baina berak laster bukatu eta Aztlanera itzultzea nahi zuen, esana gera bedi Jainkoaren egiaren ohoretan.

Eta ez zen inoiz itzuli. Aurrerago behar den bezala azalduko dudana gertakari batean izutu egin zitzaigun eta ballesta-burdina batek alderik alde zeharkatu zuen, bizi-bizirik zetorren burdina batek alegia, Losarcos eta Lizarraren artean geundelarik, eta Aztlanera errautsetan ere ez zen itzuli, kontuan harturik ezin izan ginela gerturatu, bere unean esango denez.

Ramalesdelavictoria delakoan, hura bide-gurutze bat izanik, behar bada sei Konpainia zeuzkaten bilduta. Gu, jende azteka, haiek nola desegin pentsatzen egon ginen gau osoa gure ezkutalekuan. Saiatu arren ez genuen erdiko biderik aurkitzen, esaten den moduan. Herri handia baita eta izenean bertan garaipenez mintzo denez, nolabait, beldurra sentiarazten zigun, horrela gertatzen baita: irabaziko zaitut irabaziko zaitut esaten dizutenean erdia galduta daukazu edo agian gehiago ere bai. Bihurrikeria batzuk baizik ezin genien egin, bata bestetik tartekatuta, eta horretan pentsatzen hasi ginen.

Lehen gauean sei bat talde osatu genituen tigre modura, eta gurdiak eta bolbora piztu genien, baina hasteko zubiak bota genizkien, sugarrekin alde egiten zuten ikusteko. Baina harriz ondo egindako bi zubi ziren, aipatutako tribu gaztelauak ondo eraikitzen baitaki, eta soilik gurdiak erre genizkien, kontuan harturik ez dituztela su-garrak luzaroan erresistitzen eta ezer geratu gabe erretzen dira, eta diozu, non daude bada gurdiak, e?, galdera bezala ipinita gera bedi.

Konpainiakoak, infernuak bere abaroan gorde ditzala, konturatu zirenean, oihanean ezkutatuta geunden osteratuta. Eta eurek, alderik alde arakatu eta tenotxka aztekar eta bertoko galegoz osatutako bi talde topatu zituzten, zeinak, benetako aizkolariak balira bezala, euren aizkorarekin zuhaitzak moztzen hasi baitziren, eurek aizkora izenez ezagututako aizkorak baitauzkate, gauza ona eta kopiatzea merezi dutenak baitira, baina ez zuten sinistu nahi izan aizkolariak zirela, atxilo hartu eta ez genituen aurrearantzen inoiz ikusi.

Eta lastima izan zen gero eta jende gutxiago baikinena Ketzalkoatlén bila joateko, jende populok haren ulermen eskasa kontuan harturik, zeinak erabakita baitzeukan gu alde egiten ez uztea. Asko sentitzen genuen gu gutxika-gutxika akabatzen gintuztela ikustea, ez atsekaberik ez ohorerik gabe, edo ohorea baino atsekabe handiagoarekin, eta gure sakrifiziotik batere probetxurik ez ateratzea, ez Gure Jaun Handiarentzat ez gure Jainkoarentzat, ikusirik bi-biek ezer gutxi agintzen zutela lurralde haietan, eta orain arte bezala Jainkoen errukiak lagundu eta barka iezaudala hain zakarki esateagatik.

HEMERETZIGARREN ATALA

Opotonek Ahuizotl Gure Huei Tlatoaniri emandako mezua jasotzen duena, inoiz beste aldiz Ketzalkoatl Jainkoaren edo beste Jainko batzuen bila joateko bidaiaren bat prestatuko balitz, gaur-gaurkoz probabilitate guxtikoa izan arren, lagungarri suertatu ahal diren azalpen egokiekin.

Jauna, Jaun Gorena, Jaun Handia, Anaia, Aita eta Aitona nirea: zure aurrean txorimalo baten antzera lurrean josita ikusi ninduzun eta ezin izan nizun esan hainbat eta hainbat aldiz zuri esatea pentsatuta naukana, eta ez zitzaidan hausnartutako hitzik atera. Nahi gabe, zuk-zeuk txiki bihurtu ninduzun zure borondate oneko keinu haren bidez, zure eskua nire bizkar gainean ipini eta galdera modura galdera egin zenidanean, alegia:

—Eta hik Opoton, zer diok?

Nire Jaun hori, erabat aztoratu nintzen, jakin arren zuk ezagutzen ninduzula eta nitaz hitz egin zizutela eta Opoton nire izena ikasi zenuela, zure menpeko fidelenarena bezala. Baina lehen aldia zen nire bizitzan Huei Tlatoani bat hezur eta mami ikusten nuela eta Huei Tlatoani batek hitz egiten zidala. Orduan, galdera gisara diot, nola nahi zenuen ni ez durduzatzea. Pentsatuko zenuen zure meneko umilena txoratu egin zela eta ergel gaixo bat zela, eta galdetuko zenion zure buruari nolatan babalore hura iritsi zen zure kapitain izatera, diot nik. Agian pentsatuko zenuen Aztlan Zaharrerako bidaiak eta igarotako neke guztiek bidea galtzera eraman nindutela, diot nik. Baina Nire Aita Beneratua, zure zerbitzari Opotonek pila bat gauza zeuzkan zuri esateko, eta ez naiz izaeraz txorimalo bat, alderantziz baizik.

Orain, ikusi Nire Aita eta Aitona Beneratua, irakurtzen eta idazten ikasi dut, zeren hainbat zoritxar eta egoera gaiztoen artean zerbait onik ere eman baitigute, eta paperean ipintzen dut zu jadanik ez zaudenean, baina badakit ez duzula gizonen artean egon beharrik esan nahi dizutena entzun nahi duzunean. Baina nola dena dagoen hain hankaz gora eta buruz behera eta aldatuta eta lur jota eta deseginda, pentsatzen dut hobe dela esatea, izan ere esperientzia soilik zahartzaroaren lorategian jaso daitekeen landarea baita eta, esaten ari banatzaizu, agian inoiz norbaitzuren probetxurako izanen da. Ez dakit nola azaldu eta ikusiko duzu ezen orain kosta egiten bazait bakar-bakarrik nagoenean nire paper, tinta eta lurraldeko oiloen lumen aurrean, zeinek idazteko ere balio duten, gutxiago ahal nuen zure aurrean nengoenean. Diote, Nire Aita Beneratua, esperientzia gure porroten zerrenda dela; hori da diotena. Orduan, Nire Anaia Beneratua, beharrezkoa da porrotak dauzkagun guztiek argitara ditzagun eta horrela lortuko dugu ezen bide berbera egiten dutenek guk estropezu egin genuen harri berberetan estropezu egin ez dezaten.

Orain gure Huei Tlatoani ustez umetan ezagutu nuen kapitain atzerritar bat da, eta erori dira gure hiru Tlatoaniak,¹⁵⁴ eta guk, zure aztekek, erabateko suntsipenetik soilik zerbaitxo salbatzea nahi dugu, ttikia izan arren. Zuk ikusi gintuzun, nire Anaia, Aitona eta Aita, nola irten ginen Tenotxitlan Handiko Kainaberadi eta Palmaditik, zeina gaur egun ez zenuen ezagutu ere egingo, Ketzalkoatl en bila abiatzeko agindu zenigunean. Agindu zenigun guztia egin genuen eta gugandik sortuta zure zerbitzurako egiten genituen beste gauza batzuk

¹⁵⁴ Motekusoma, Kuitlahuak eta Kuauhtemok.

ere bai. Gure eskura zegoen guztia eta hain eskura ez zegoena egin genuen; eta oso urruti zeuden beste gauza batzuk, eta dena gutxi iruditzen zitzaigun zure eta gure Jainkoen onerako baitzen. Baina jakin beharra daukazu, Jauna, Jaun Gorena, Jaun Handia, ezin izan genuela Ketzalkoatlek berak nahi ez zuena baino gehiago aurreratu. Ez esateko moduko nekeak pasatu eta asko sufritu genuen bi arrazoiengatik: zure agindua betetzea lortzen ez genuelako eta gure jende tenotxkaren arteko onenak lur popoloka eta mendekati hartan geratzen ari zirelako. Orain Opotonek azaldu ahal dizu merituak lortu nahi dituen edo ordainen bat jaso nahi duen itxurarik eman gabe. Jadanik ez dago niri ordain diezadakeen inor eta merituak ondo eginak eta berreginak dauzkat, onartzen badizkidate zein ez. Eta ordainak ere jaso ditut. Ez dut aipatuko gandorrean luma gehiago eramatea, orain debekatuta baitaude, eta horrek esan nahi du ezin direla eraman, ez maxtlatl brodatua eramatea, kendu egin baitizkigute, eta gutxika-gutxika haien erara moztarotatu baikaituzte, izan ere ikusiko bakintuzu ia hiltzerainoko barregura ematen baitugu. Beste erabateko ordainak dira, eta denetan garrantzitsuena zure zerbitzuan egon izana da, Aita, Aitona eta Anaia Beneratua. Gero, beste ordain bat izan da beti nire eskura egon den guztia eta hainbeste egon ez dena egin izana. Eta baita munduan zehar ibili izana, zeina handia, ondo populatua eta borobila den beti esana izan denez, eta egia da ezen beheko aldean bizi direnak ez direla erortzen Jainkoek xurgatzen dituztelako, eta dena doa zuzen, hainbeste non inork ez baitaki buruz behera dagoenik. Nire gaztaroko une guztiak beterik egon dira eta urtetan elikatu naute gogorapenek.

Gure itsasontzien azkenarekin, hogeita bederatzi iritsi ginen. Baina Totxpanen, Aztlango Lur Beroan, hamazazpi tenotxka eta Dona Ximena baino ez ginen, aurrerago azalduko dizudana. Batzuk Itsasoan hil ziren, geneukan lana handia eta jatekoa eskasa zelako, eta gutako askok, sinetsiezadazu, nahiago zuten gogo barik zeuden itxura eman Opoton kapitainak eta Dona Ximenak beharrik ez izatearren, zure anaia gure oroitzapen ederreko Tlakatekaren seme bat edoskitzen ari baitzen, eta haren gomutak negarra eragiten dit azaltzen zaidan bakoitzean, eta horregatik hainbatetan negar egiten dut, ez dakit nola ez zaizkidan oraindik begiak agortu. Zuk ikusita edukiko dituzu Ate eta Leihorik Gabeko Etxean, eta inoiz aurkitzen bazaitut ondo kontatuta kontatuko dizut gure bidaiaren historia eta jadanik ziur nago ez nauela lotsatuko zure presentzia Beneratuak. Beste azteka batzuk hainbat popoloken eskutan erailak izan ziren, Itsasoko Uharteetan bizi den jende arraroen eskutan hain juxtu, eta Opotonek zin egiten dizu, guk haiei ez genien inolako gaitzik egin. Esango dizut batzuetan ura eskatzen genielako hiltzen gintuztela, eta horrela jabetuko zara aitzakia urriak behar zituztela beren ekintza popoloka egiteko.

Hutsik egin gabe bete genuen zuk agindutako guztia baina jakingo duzu zorte txarra izan eta neke anitz jasan behar izan genituela. Dena azaldu nahi dizudanez, Aita eta Aitona Beneratua, pazientzia handia hartu beharko duzu, luzerako baitoa. Pentsa ezazu oso xahar naizela dagoeneko eta gauzak alde egiten dizkidate burutik. Pentsatu eta egitearen artean dena desegiten zait. Eta horrexegatik oso gutxika ibili beharra daukat. Jende askok, eta batik bat gaztetxoek, zoro esaten didate eta xaxatu egiten didate etxetik ateratzera ausartzen naizen gutxietan, gauza guztiak hankaz gora baitaude eta orain ez baitago zaharrekiko errespetu zipitiz. Aztlan Zaharreko peripeziak idazle-edo bihurtu naute, lehenago Opoton soilik buztingile baitzen, eta inoiz ez zitzaidan kaskotik pasako egun batean idazten hasiko nintzela, eta are gutxiago eskutitz bat idatziko nizula zuri, Nire Aita Beneratua. Ez eta esku bat ezarriko zenidanik ere nire bizkarrean eta Opoton kapitaina esango zenidanik. Kuauhtxitxikek egin zitzaion agindu zenituen sei kanoatan Kainaberadi eta Palmaditik irteten ikusi gintuzun, eta hura Jaun izendatu

zenuen gero, baina geroago eskuadra askoz handiagoa bihurtu zen eta poza emango zizukeen hura ikusteak. Urte batzuk geroago gure lurretara bidaliko zituzten karabela haiek bezalako asko geneuzkan eta harritu egin zituzten ikusi zituztenak, eta niretzat ez zen ezer berririk nik-neuk gidatu bainuen bat, Cuandopenso izenekoa, Fala Galegako izenez deitua bera, zeinak, izatez bertoko galegoa izan arren, zure zerbitzuan ipinita baitzegoen. Bertoko beste jende galego askoz gehiago generaman eta esango zenuke gustura zetozeela gurekin eta Ketzalkoatlén benetako fedean begiak ireki genizkiela eta barrutik ikusten zutela haren Argia. Aldiz, esan beharra daukat ezen aipatutako bascoen lurralde hura Ketzalkoatlén ote zen jakin gabe geratu ginela, nahiz eta, osteria hemen geundelarik jakin izan ditudan hainbat gauzen arabera, bascoen lurraldeko zatitxo batera iritsiak ginen, konturatu gabe, baina ez zen Ketzalkoatlén lurraldea.

Dona Ximenari laguntzen zioten zazpi gerrari tenotxka aurkitu genituen bezala, oraintxe azalduko dudana, agian oraindik badaude beste batzuk azeri gosetuarena egiten dabilzanak, gure gogorapen ederreko adiskide burujabe akolhua bezala, zeina jada besarkatua izango duzun hura ere, Aterik eta Leihorik Gabeko Etxean.

Beste espedizio bat, oso handia eta ondo armatua, egin dezazula proposatu nahi nizun nik, itzuli eta denei eskarmentu ematearren. Baina berandu egin zaigu nire Aita, Anaia eta Aitona Beneratua. Guk bidea erakutsi genien eta hementxe dauzkagu, eta sekula ezin izango ditugu bota, esperientziaz baitakit zein burugogorra den Arraza Castilla eta nola ez duen nahitara joaten uzten harraptu dutena. Eta orain azaldu nahi dizut denboraldi honetan hausnartu dudana guztia, eta hasteko esango dizut Ekialdea beti harago dagoela. Gero eta Ekialdeagora joan inoiz ez zara hurbiltzen, bera ere harago baitoa zu zoazen heinean. Eta berdin urrun dago harantz joan zein tokitik mugitu gabe, lurra borobila baita eta Ekik itzulia ematen baitu, nondik ondorioztatzen den hemen bertan ere badagoela, zuk hain maisuki gobernatzen zenuen Aztlan berebanean. Opatonek esan nahi dizuna da Ekialdea ez dela toki bat sinbolo bat baizik, Aita, Aitona eta Anaia Beneratua.

Gertatu zitzaigun guztiaren egia esan nahi dizut baita nik argi ikusi ez ditudan gauzak edota behintzat ulertu ditudala pentsatzen ditudanak. Nik uste Jainko Handi eta Benetako bakarra dago, baina denek ez diote Ketzalkoatlén esaten. Beste lurralde batzuetan beste izen bat ematen diote eta dirudienek luzea da izen-zerrenda. Eta nik galdera bezala ipintzen dizut nola izan zitekeen mundua eta gizonak, Itsasoa eta zuhaitzak egiteko lana hartuko zuten jainko ezberdinak egotea. Nik diot ezin dela izan Jainko askok zeregin berbera euren artean banatu izana. Eta beste lurraldeetako jendeak, zeren pentsa ezazu mundua, baita Itsasoko Uhartek ere, oso populatuta dagoela, bakoitzak bere erara pentsatzen duela nola gurtu eta zerbitzatu behar den eta beti uste dute berek hartutako erritua ona justuena eta Jainkoari gehien gustatzen zaiona dela. Eta pentsamendu horrek hain urrun daramatza, hainbat Jainko daudela uste izatera iristen dira eta soilik euren egiazko bakarra eta ona dela, eta inoiz ez dute pentsatzen beste lurraldeetako berbera baina izen ezeberdinekoa dela.

Gizona izatez egoista da, Nire Aita Beneratua, eta uste du euren Jainko-errepresentazioa dela on bakarra eta besteenei idolo deritze, besteek egindako Jainkoen irudiei buruz hitz egiteko asmatu duten modu inbidotsu eta destainezkoa baita. Eta gu gure fedeari dagozkion gauzei buruz apasionatuak garen bezalaxe, eurak berenei buruz. Eta orduan uste dute guk gure Jainkoa gurtzeko modua barbaroa dela eta paganoak garela geure kultuan, zeina beste hitz itsusia den, paganoa. Ikusi duzu ez zutela gustukoa gure Jainkoa odolez elikatzea, Jakinduriak agindu bezala, eta sakrifizioak gaitzetsi zituzten ohitura popoloka balira bezala. Baina ez ziren, nire Aita, Aitona eta Anaia Beneratua. Aldiz, eurek euren zitalkeriak ematen zien bulkada handiarekin gure jendea txikitu eta laurogei bat

egunetan txikizio-uhinaldi handia hedatu zuten, zeinetik oraindik ez garen berregin. Euren intentzioa krudela baitzen, ikusi izango duzunez. Zeren izaera baketsukoa izan balitz, guk Aztlan Zaharra generitzon lurralde hartan izan genuen bezalakoa hain juxtu, ez zuketzen hainbeste suntsipen egin behar izango. Gu Aztlan Zaharrera iritsi ginenean atzerritar deritzon tribu batzuen aurka gerran zeuden, nahiz eta baziren gutako hamazazpi mende bertan zeudela. Gerra bakar hartan¹⁵⁵ hil zuten jendearen hamarrenik ere ez zen sekula hil Aztlan osoko gerra guztietan. Ikusi zenituen nola oldartzen ziren gure Jainkoen gainera, eurenak direla jakin gabe, eta denak suntsitu dizkigute. Guk han egin nahi izan genuen, Aztlan Zaharreko lurretan, eta hauxe izan da gure zigorra. Orain esan behar dizut gu jende populoka ginen konbentzituta etorri zirela hona. Aztlan Zaharrean behin baino gehiagotan galdetu zioten euren buruari ea gu, zure jendea, gizonak ala abereak ote ginen. Eurek ez baizuten gure jakinduria ezagutzen eta ezin zuten ulertu ere egin, euren iritzia gauza sinpleetan oinarrituta eraikitzen baitute. Eurek bezala idatzi eta irakurtzen ez guela oharturik, eta kontuan hartu gauza erraza eta inozoa dela, pentsatu zuten ez genekiela gure Azaoen kontaketa eta gure azteka tenotxken historiaren erregistroa finkatzen. Eurek ez zuten ulertu nola gure paperetan dena esaten zen eta jendea bizirik erretzen duten bezala erre zuten, ulertu baitzuten hura zela gure historia bizia, eta ez dakait ulertzen den. Orain fraideek galdetzen digute zer esaten genuen Koatlikueri otoitz egiten genionean, zeren orain dena txikitu dutenean berriro konpondu nahiko bailukete. Gure Kainaberadi eta Palmadiko lakua dena lehortzen dutenean berriro urez bete nahiko lukete, hain baitira aldakor eta bolubleak. Baina guk, zure jende tenotxkak ere, hutsegite larri asko egin genituen, Aita, Aitona eta Anaia Beneratua. Atzerritarren eta gure arteko alderik handiena da bizitza ulertzeko modu ezberdinak. Hori esaten entzun nuen behin eta orain zaila daukat nola izan zen gogoratzea. Eurek diote askatasuna ona ala gaitza egiteko balio duela, bakoitzak nahi duenaren arabera, eta horretarako dela aipatutako askatasuna. Guk ordea diogu askatasuna soilik era batekoa dela, eta apaizek beti esan ohi dute diziplinak soilik diziplinarik ez dutenei min egiten diela. Eurek sekula ez zuten ulertu guk eskolak eta maisuak eta medikuak eta astronomoak eta jakintsuak eta dentistak eta historiagileak eta era guztietako ofizioak geneuzkala eta animalien eta landareen eta harrien izenak jakitea eta haien ezaugarriak ezaguztea. Gu baino askoz aurreratugoak zeuden tresnei dagokienez, buztina egiteko tornua baitzeukaten eta zura mozteko aizkora eta iltzeak josteko mailua, zeinak ordea ondo asmatuta zeuden, baina eurek ez zekiten ezen tresnen bidetik harik eta aurrerago joan orduan eta gehiago urrutiratzen zirela Jainkoengandik. Eta haiek, Nire Aita Beneratua, pentsatzen dute poliziak indarra esan nahi duela, ez arautzea, Antoniodeasua fraideak esaten zidan lez, zeina aurrerago hobeto azalduko dizudan. Esan behar dizut asko estimatzen dituztela euren Jainkoak baina hain modu lazgarrian egiten dute birao, Aztlango edozein azteka tenotxka lotsagorritzen dute, eta beren Jaun Handiari buruz mespretxu handiz mintzaten dira eta beti barre egiten dute autoritate ororen kontura. Eta kontuan hartuz gu ez garela horrelakoak bizitza ulertzeko modu asko daudelako, eurek zioten gu ez ginela askeak, eta zuk tiranizatzen gintuzula, eta hori euren berba itsusia da. Eta ez zuten ulertzen jakin ere guk bascoen lurraldera igaro nahi guela, gure Jainko Ketzalkoatlen bila joateko hain juxtu, eta zuk ez zenituela gerrako legioak bidali baizik bakezkoak, eta hasierako ongietorria gerra injustu bihurtu zuten

¹⁵⁵ Ez dago baiespen hau jasotzen duen benetako estatistikarik. Bestalde, laurogei egunetan 500.000 hildakoen aurreko zifra oso exajeratua da. Frogatuta dago 300.000 izan zirela.

zeinari, noski, aurre egin genion. Hiru mila eta seiehun ginen gu, denen artean, eta uste izan zuten arriskua ginela eta ez ziren gelditu gu deseginda birrinditua txikituta garaituta ikusi arte. Zeren gutako norbait konkistaz mintzatu zen, eta ez da Opotonek inori kargu hartzen diola, gaur gaurkoz inori ez bailioke mesederik egingo, eta hori gure akats bat izan zen, ezein herrik ez baitauka beste bat konkistatzeko eskubiderik, baizik bakokitzak bere bizitza egin dezala utzi behar da, eta eurek, konkistatuak izaterik nahi ez zutenek, ikusi dute zer egin duten Aztlanen, diot nik.

Hainbeste ikaskizun jaso ondoren jadanik ezin dugu hartaz baliatu, iturri guztiak lehorturik baitaude eta hitz egiteko moduan esanda dago, Nire Aita, Anaia eta Aitona Beneratua. Horixe dena da Opotonek esan nahi zizuna, hainbeste urtetan hausnartzen ibili naizelarik, eta ikusten da ez dudala ondo begiratu, zeren orain zuri esaten hasi naizenan konturatzen naiz ez zaidala nik nahi bezala atera. Eta min ematen dit, ondo hausnartuta neukala uste bainuen. Pentsa ezazu guk urrea ematen geniela lehiarren truke, eta ulertu beharrean horrek esan nahi zuena barre egiten ziguten sudurren azpitik, konbentziturik ergelkeria handia zela gure aldetik. Eta esan dizudanarekin, Nire Aita Beneratua, ulertuko duzu zergatik gizonak edo abereak ote ginen zalantza zeukaten.

Baina utzi iezadazu Veguillasi buruz esaten nizuna azaltzen, Aita, Aitona eta Anaia Beneratua, orain ez badut egiten nahastu egingo baikara, eta atsekabe handia izango da. Diot nik.

HOGEGARREN ATALA

Veguillan, beraz, herri ttiki bat mendien artean kokatua, ohian ederrak eta ibaiak, artoz, babarrunez landutako lur-sailak eta behiak dituena bera, ostera gerra gure erara egitea erabaki genuen, den-dena jokatz, lehenik eta behin bertoko galegoen jantziak kenduz, astuna eta estuegia baita hura, eta Aztlango azteka tenotxka erara jantziz, ordu malapartatuan utzia baikenuen¹⁵⁶. Beraz, erantzi eta maxtlatla ipini genuen berriro, eta tilmatlin korapilo eginda gure armak hartu genituen. Berriro ikusi ziren Aztlan Zaharrean gure luma-gandor hegalaria koloretsuak eta ostera generamatzan tigre-hezurak gure sudurretan, eta belarrietan belarritakoak eta bizarrean bizarretakoak, eta berriro ikusten genituen gure aurpegian gerrako marraz pintatuta eta Veguillako jendeak beren etxe handira sartzen utzi gintuen, oso handia izan ez arren horrela deitzen baitute, eta han barruan egin genuen aldaketa eta, handik irtetea, herriko jende guztia durduzatu egin zen eta era guztietako txilioak eta txistuak egin zituzten. Ibaiko Sususak zirela esango zenukete, baina aipatutako Veguillan denak ari ziren txilioka, gizonak eta emakumeak, eta herri guztia lasterketaz bete zen, gora eta behera, inora ez daramatzaten haietakoak eurak, toki batean metatzen baitziren zentzurik gabe eroen pare elkarri bultzaka. Euren artean bazegoen beste hizkuntza atzerritarra mintzo zen jende asko, lehenago entzun genituenen antzik ez zeukaten. Ez zen gure nahuatla, argi dago, eta ez zuen antzik, ez asko ez gutxi. Eta orain Opaton mintza ahal badizue hizkuntza hartaz, tranpa bidez da. Orduan, entzuten genuenean, ez genuen zipitzik ulertzen eta, beraz, gaizki gogoratu ahalko genituen hitz haiek, eta era hartara esaten zizkiguten gauza asko alboratu genuen, baina ulertu izan bagenu argi pixka bat egingo ziguketen gure pentsamenduetan. Nola pentsa genezakeen Au da Euzko-erria esaten zutenean, hura eusko lurra zela esan nahi zigutela, hainbeste bilatzen genuen bascoen lurraldea, diot nik. Galdetzen genienean ea Ketzalkoatl ezagutzen zuten, gurekin, Aztlango jende tenotxkarekin, batik bat haserretu egiten ziren¹⁵⁷. Horregatik sekula ez genuen pentsatu bascoen lurraldera iritsi ginenik. Eta esan dizuedan iruzurra geroago gertatu da, izan ere Tlatelolkon fraide basco bat dago, Antoniodeasua izenekoa, Frai, eta paper batean idatzi dizkit Veguillako jendeak guk galderak egitea eman ahal zizkiguten erantzunak eta, Frai Antoniok ematen zizkidanean, gauza ezagunaren, jadanik entzundakoaren, doinua zekarkidan. Gainera Frai Antoniok, oso pertsona zintzoa beste une batean azalduko dena bera, esan zidan aipatutako Veguilla Fala Basca handiko herria zela, Jaun-Goiko bat al da? esateak Jainkoaz ari ote zen galdetzea bezala zen, eta esaten zutenean ez gendum (sic) iñoiz entzun gizon onetzaz (sic) esan nahi zuten sekula ez zutela hartaz hitz egiten entzun. Erratuta zagozela uste dot, Veguillakoek hainbatetan

¹⁵⁶ Fatalitateak eta ezin asmatuzkoak jasaten zituzten eta haien erreakzio psikologikoa normala da, ahultasunetik indarra ateratzea alegia. XV. mendeko soldadu espainiarraren erara jantzita ez ziren oso eroso egongo.

¹⁵⁷ Baliteke bascoek *etsai-koan* ulertzea, eta hori *etsai* erroagatik (etsaiarena, etsaitasunarena) eta *koan*-gatik (-ren atzizkiari dagokiona) aztoratu egingo ziren. Euskaraz Ketzalkoatl (Suge Luma-gandorduna) *Suge egatseaztatua* (sic) esango zen, eta ez dago jainkoari buruzko *nahuatlezo* hitzarekin lotzerik, ez eta urrik emanda ere.

esaten zigutena hain zuzen, esan nahi zuen sekula ez zirela Aztlanen egon¹⁵⁸. Ostera tenotxka azteka sentitzeak sekulako indarra sentiarazi zigun, alegia porrot-pila haren ondoren eduki genezakeen indar guztia, zeinetatik txarrena, ene ustez, gure Tlakateka-Alo galtzea izan baitzen, zeina orduan errauts bihurtu eta nire gerrikoan esekita zegoen. Veguillan, hau da vega txikia baina vegarik ez zegoen¹⁵⁹, ez handia ez ttikia, ez genekien nola lasaitu herriko jendea. Apaiza aipatu tribuko jendea bezain asaldatuta zegoen, eta ikusi zuenean tenplura sartu nahi genuela atearen markoari eutsi eta ez zigun pasatzen uzten.

Bultzada bakar batekin bere infernura bidal genezakeen. Deabrutu batek bezala egiten zuen oihu.

—¡Sois el demonio! ¡Sois gente del demonio, os habéis convertido en demonios!¹⁶⁰.

Dardarka oihukatzen zigun hura dena eta guk geure burua seinالاتu eta esaten Sant Iago, Sant Iago, Sant Iagoren jendea gara, eta hainbat aldiz errepikatu ondoren piska bat lasaitu genuela zirudien. Nahiko kemen izan zuen Veguillako jendea kontrolatzeko, hau da vaca (sic) ttikia esan nahi du izen horrek, eta herri-izen gisara ez dauka ez bururik ez buztanik, ordena pixka bat egin eta elkar ulertzen genuen ikusteko. Baina ez genuen elkar ulertzen. Esan dugun bezala, oso modu ezberdinean mintzatzen ziren, eta zaharrek, batik bat, makila lodi bat darabilte eskuetan, eta hola hobeto hitz egiten dute, eta begiak txinpartaz beterik dauzkate txapela azpian eta aurrerago azalduko dut Frai Antoniori dagokiona aipatzen dudanean. Gustukoa dute ikusaraztea euren makila dela eztabaidatzeko modurik kuttunena.

Galegoetako batek lurraldeko hizkuntza onean esan zien, eta horretaz asko harritu ziren, gure bidaiaren motibo guztiak bascoen lurraldera heldu eta hura Ketzalkoatlen herria ote zen jakitea zela, eta orduan eduki genituen lehen aipatutako elkarrizketak, baina ez zuten inora eramaten. Ea gurekin etorri nahi zuten esan genien, eta soilik haurtxo bat, izenez Fernandocortes¹⁶¹, ados eta prest zegoen, baina ez genuen onartu ttikiegia zelako. Eta asko tematu zelako eta emakumeak Fernandocortes hemendik eta Fernandocortes handik hari tiraka ari zirelarik, haren izena ikasten amaitu genuen. Veguillako Sususak lasaia zeuden eta kastellanoak ere bai eta ohartu zirenean bagindoazela eta ez geniela inolako gaitzik egin, ogia eta lukainka, estebetea alegia, eman ziguten, eta hango ardoa, oktila alegia, eta politena botilak ziren, lehiarrez eginak, eta denak hartu genituen, ordurako ez baikinena asko taldean.

Gero Ason ibaia, ason esan nahi baitu, gurutzatu, eta uretan plisti-plasta ibili ginen eta, freskatuago, Ason ibaitik jarraitu eta Monteros izeneko herri batean, hiruzpalau etxez osatua bera, atera ginen, baina Otero eta Berberano artean, gero

¹⁵⁸ Fraileak idatzi zizkion hitzak nahastuko zituen Opotonek. Honela esaten zuen esaldia, hitzez hitz: *uste dugu oker zabiltzatela*. Ez al da egia hotzikara piska bat ematen duela bi hizkuntzen soinuen antzak.

¹⁵⁹ Ez zuen denborarik izango hitzaren esanahia ikasteko.

¹⁶⁰ “Deabrua zarete, deabruaren jendea zarete, deabru bihurtu zarete”. Hau ia atal elebiduna da. Erraz ulertzen diren gaztelaniazko hitzak itzuli gabe utziko ditut. Diot nik.

¹⁶¹ Kointzidentzia bat izango da zeren Hernán Cortésekin Valladoliden eman baitzuen bere haurtzaro guztia. Ez bazen bolada batez Veguillasera eramane zutela (pluralean zuzenagoa ematen du izenak), non familia urruneko bat bizi baitzen, Leonora del Val anderea alegia. Bost urteko haur baten abentura-espíritu bat dator konkistatzailearen figurarekin eta agian aztekekin izandako lehen kontaktuak begiak irekiaraziko zizkion. Aukera aski azarotsua da.

aurkitu genituenak eurak, ikusi ere egin gabe geneukan Konpainia bat aurkitu eta nahierara birrindu gintuen. Ez ikusi ez inork esan zigun han zegoela, esana gera bedi egiaren ohoretan. Gure jende asko hil zuten eta Aitztlí, nire adiskide zilargilea, erorietan lehenengoetarikoa izan zen, eta Opotonek atsekabe handia hartu zuen, izan ere aiptatuako Aitztlí oso zilargile laguna bainuen, oso adiskidea umetatik, eta pena ematen zuen ikusteak nola eskopeta-tiro batek burua txikitu zion, zeina granada bat bezala irekita geratu zen eta barruan zeukana ikusi ahal zitzaion. Aitztlí, Aztlan Zaharrerako bidaiari zegozkion gauzetan arduratu eta buztingile ofizioa uzten bultzatu ninduen adiskide on zilargilea zen. Ni-neu eta Atxolli preso hartu gintuen aipatutako Konpainiako kapitainak, eta hogeiko hogei eta erdira iristen ez ginen beste hainbeste. Otero eta Berberano artean gertatu zen hura eta ez zidan esan nire seme beneratua, zatar popoloka baitzen hura, eta zaplaltada batez luma-gandorra kendu eta barbaján vestido de demonio esan zidan.

Ni ez nintzela deabrua esan nion orduan, baizik Sant Iagoko Erromesaldiko Erregea, eta hori adierazten zuen papera erakutsi nion, Opotonen argazki on batekin, eta eskuetatik kendu eta poltsikoan gorde zuen, arropetan esekita daukaten poltsa moduko bat baita bera, esanez:

—El rey. Yo te enseñaré quién es el rey, ya verás¹⁶².

Konpainiakoen artera eraman gintuzten orduan, armatuak baitzeuden, eta gu haien artean eta armarik gabe, ondo arduratu baitziren guri kentzeaz. Aski galduta geundela esan nion Atxolliri, eta hura gure azken eguna zela, ni sinistutua bainengoen, eta berak esan zidan:

—Bai, osaba Opoton, hauxe da gure azkena.

Eta osaba esan zidan, horixe bainintzen, eta bera nire iloba zen eta, beraz, normala zen niri osaba esatea. Kapitainak esan zidan:

—No os quiero ni oír hablar esta jerga endiablada.

Eta gero nik neraman poltsaz ohartu zen non Tlakatekaren errautsak neuzkan, eta galdera modura esan zidan

—¿Qué traes en este saco?

Errautsak, esan nion nik, eta berak:

—Muéstramelas.

Eta nik poltsa ireki eta berak eskuetan ipini zuen, Tlakateka-Aloren errautsak ikusi eta ezer ulertzen ez zuelarik, esan zuen:

—¿Es para comer?

Orduan Opotonek esa zion ezetz, eta berak niri poltsa kentzen saiatu eta nik, jabetuz, ez nion hartzen utzi eta agindu zidan:

—Tira eso.

Orduan haren oinetara belaunikatu eta berak gerrikoan zintzilik zeraman labana seinalatu eta esan nion:

—Hil nazazu hemen bertan, nahi izanez gero, baina ez nazazu nire Tlakatekaren errautsetatik aldendu, o kalpixki.

Erdizka baino ez zuen ulertu eta bizkarrari eraginez, esan zuen:

—Si son polvos de brujería te haré pedazos; ahora vámonos, demonios de mierda.

Eta hura Aztlan Zaharreko apaiz eta kapitainen hitz egiteko modu naturala da. Luzaroan ibili ginen eta ibai aski handira iritsi ginen, Ebrora, eta igeriz gurutzatu beharra zegoen, Fala Castellakoek ez baitaukate zubirik eginda han. Nik Atxolliri esan nion gure nahuatlez:

—Orain da gure aukera, o nire iloba. Ikusaraz diezaiegun eurekin batera gurutzatuko dugula ibaia, ikusten baituzu denak direla katzopintleak, ibaiak zaldiz

¹⁶² Hemen hasten den esaldi-segida gaztelaniaz dator jatorrizko testuan. (Itz.oh.)

igarotzen diren horietakoak, baina ibaiaren erdian uretan ezkutatuko gara, eta azkar asko igeri egingo dugu azpitik, korrontearen kontra, eurek pentsatuko baitute korrontearen alde joanak garela eta, o nire iloba, esaiezu beste tetxnokei: Kapitainak esan zuen:

—¿Otra vez habláis en vuestro asqueroso dialecto?

Eta nik esan nion guk, tenotxkak, otoitz egiten genuela beti igeri egin baino lehen eta soilik gure nahuatlez genekiela otoitz egiten, urak beldur handia ematen baitzigun, zeren bat egoera konprometituan dagoenean adimena alde guztietatik irteten baitzaizu, eta hark ederki ulertu zuen bai, eta ez zidan deus besterik esan.

Ebrok korronte indartsua dauka eta kapitainak galdetu zigun igeri egiten ba ote genekien eta nik esan nion, poco, izan ere hizkuntzatik ikasi nuen hitz bakanetako bat baitzen, poctlia¹⁶³ gogoratzen duelako, eta orduan aipatutako kapitainak esan zuen:

—Mejor; a ver si os ahogáis todos de una vez.

Orduan, jadanik esanda dagoenez, ibaiaren erdi-erdian murgildu eta indar osoz gorantz igeri egiten hasi ginen, gure ahalegin guztiz, eta soilik indarrak akiturik arnasa hartzera ateratzen ginen, eta orduan, ahalik eta lasterren. Hasiera batean, Fala Castellako jendeak pentsatuko zuen itotzen ari ginela eta jabetu zirenean gerrako zuhurtzia tenotxka zela euren armak, alegia eskopetak, gure aurka jaurtitzen hasi ziren, baina ibaian behera, eta gu ibaian gora eta ederki asko entzuten genituen, lehenago espingardak baitziren, eta ez ziguten kalterik ekarri. Baina gero, Xalxokotl arnasa hartzera atera eta zuzen jarri zenean ibaiak sakontasun gutxi zeukalako, uretan burua txikituta erortzen ikusi nuen, eta harrapatzen saiatu nintzenean bigun-bigun bihurtu zen hura dena eta Ebron behera joan zen, bere odolez gorriz tindatuz, eta ulertu nuen erail egin zutela, Xalxokotl gizajoa. Askoz ere aurrerago, ibaiak egiten zuen bihurgune batera iritsirik, igeri egiteagatik oso nekatuta geunden, eta sastraka artean gelditu ginen Castellako jendeak armaturik jarraitu ote gintuen ikusteko, baina ez zegoen haiek ikusterik, ez eurak ez euren zaldiak, eta harrien gainean geratu ginen, zenbaketa egin genuen, eta laster burutu zen, soilik hogeiko bat tenotxka azteka baikin, eta orain aipatuko dizkizuet, ikus dezazuen Opotonek ez duela inoiz gezurrik esaten.

Atxolli, Otampako nire iloba zena; Opoton, benetako erreseina hau idazten dabilen Kapitaina dena, Tenotxtitlan Handiko Kainaberadi eta Palmadian jaio eta hila, ez baitut hemendik inoiz irteteko asmorik; Ikauhiak; Ikotl; Olotl; Miztekatetl, Okuillin-Ollin, Xitx; Kualokatl; Kwatlaxtli; Oztok; Pahtli; Tepozan; Tetlamin; Yamolli; beste lamolli; Popolokatl; Mizkitl, Mexihuhitl et Kuekuetxki. Horiexek ziren geratzen ziren hogeiak. Bilera egin genuen orduan eta ez daukat bihotzik hura Tekiauhkauhkallia izan zela esateko, geratzen zen kapitain bakarra Opoton baitzen, Tenoktitlan Handiko Kainaberadi eta Palmadikoa, lehen ofizioz buztingilea eta orain kapitaina, eta hogeiren kapitaina izatea, bat kenduta, norbera, barre egiteko zerbait da. Eta oraindik Kapitaina naiz, luma-gandorrik gabe, ximallirik gabe, gerraririk gabe, ezer gabe. Egun eta gau askoan Nezahualcoyotl izan ginen, sekula ez baikin oihanetik irteten eta aurkitzen genuena baino ez genuen jaten, baita sustraiak jan ere, eta jai handia zen artoa zegoenean eta inolaz ere ez genukeen nahi izango Konpainiakoek gu aurkitzea, benetan mina egiten baitute.

Jadanik ez ginen herrietara sartzen eta Kuartango eta Zigoitia eta Zuia saihestu genituen eta jadanik ez genekien non zegoen bascoen lurraldea eta geure buruei galdetzen genien zertara ote gindoazen hara, aurkituz gero, hogeia bat gerrari tenotxka.

¹⁶³ Kea, lurruna.

Orduan beste lamillik ideia on bat izan zuen eta ondo azalduta azaldu zigun, eta nik ikusi nuen arrazoi osoa zeukala. Oihanean geunden denok, kukubilko borobilean eta esan zigun:

—Ahotsik gabe geratu gara; ez daukagu Ahotsik, o tenotxkak, eta geratzen zaigun Ahots apurra Opoton da. Egin dezagun otoitz, o aztekak, eta eska diezaiogun Ketzalkoatl gu laguntzera etor dadila, bere jende ahuldua baikara. Egin dezagun mazelualiztli eta sakrifika gaitzen, eta baldin badator bide onean gaudela esan nahi du, eta ez badator oker gaudela, eta beraz itzul gaitzen:

Nik erantzun nion:

—Gauza batzuetan arrazoi duzu, o lamolli, baina beste batzuetan ez. Zeren Jainkoa probatzea gauza itsusia baita, lamolli:

Eta berak:

—Beraz nik uste dut, o tenotxkak, pixka bat proba dezakegula kontuan harturik Berak hainbat proba handi jarri dizkigula. Eta ez da kezkarik izan behar, Bera Jainkoa baita, eta gauzak gizonok ez bezain zikoitz ikusten baititu.

Kuekuetxkik esan zuen ados zegoela beste lamollirekin, eta orduan denok esan genuen eta ni eta ni eta ni. Beldur nintzen ez ote zuten delako lamolli hura Ahots izendatuko, baina errespetutsuak izan ziren gerrako legearekin eta Ahotsa izaten jarraitu zuen Opotonek. Orduan nekeak akitu arte dantzatu genuen eta denak odoleztatu genituen belarriak, besoak eta zakila hango arantzekin, eta Ekialderantz zipriztindu genuen gure odola eta Ketzalkoatl eta Huitzilopotxtliaren izenak inbokatu genituen. Eseri eta atsedena hartu genuen eta behar genuen miraria gertatzea itxaroten genuen, baina ilunabarra zen eta ezer ez zen gertatzen eta gau hartan zuhaitzetan igota lo egin genuen.

Biharamunean, beraz, Santanderrera itzultzea erabaki genuen eta hogeia iritsi behar ginela zin egin, eta ez guela onartuko gutako beste inor hiltzerik. Negozio edo berriketa horretan geundelarik, esateko bi moduak aski onak baitira, buila handia entzun genuen. Berehala itzuli ginen zuhaitzen gainera eta orduan jende multzoa ikusi genuen ohianean gora zetorrena, abantaila pixka bat zemaiei gizon baten atzetik, hots, haien aurretik zihoala. Lapurra'ri lapurra'ri¹⁶⁴ egiten zuten oihu eta makilak astindu. Lapurra'ri hark ez zuen bere burua harrapatzen uzten eta eraillea'ri eraillea'ri ere esaten zioten¹⁶⁵, eta orduan aldean zeraman eta aski azkar joaten uzten ez zion zaku bat jaurti zuen eta jendea hura jaso eta barruan zer zeraman ikustera geratu zen, eta orduan hura barrurago sartu zen oihanean eta, azkenean, zuhaitz baten gainera igo zen. Asko atzeratu ziren zakua begiratzen eta berriro jazartzea erabaki zutenean ez zuten aurkitu. Ez lapurra'ri ez gu, gutxigatik ez baikenen haren erruz kaltetua atera, eta alde egin zuten.

Orduan gu gure zuhaitzetatik jaitsi eta lapurra'riren arbola inguratu eta jaitsiarazi egin genuen, jaisten ez bazen harrikatuko genuen mehatxu egin baikenion, eta izutu egin zen, eta ziur nago orain edo orduko hartan nahiago zukeela herrikoek harrapatzea tenotxkek baino. Preso hartu eta Kuekuetxkik esan zuen lapurra'ri hura Jainkoen oparia zela eta Ketzalkoatlek bidali zigula gure otoitzen erantzunez, eta sakrifikatu egin behar guela.

Denok geunden ados eta texkatl modura balioko zigun harkaitz baten bila atera ziren batzuk, baina nik esan nien ezin guela sakrifikatu, eta zegoen debekua gogorarazi nien, eta batzuk aurka egon ziren aldi batean eta zioten hura Jainkoekiko mespretxua izango zela eta ukatzen baginen agian itzulerako bidaia galduko guela. Baina Kapitaina ni nintzenez niri obeditzen amaitu zuten. Eta

¹⁶⁴ Jatorrizko testuan, euskaraz. (Itz. oh.)

¹⁶⁵ Jatorrizko testuan, euskaraz. (Itz. oh.)

lapurra'ri-erailea'ri askatu genuen, zeinak, hari laidoztatzeko asmorik gabe esana gera bedi, gertatu zenetik ez zuen ezer ulertu ez zein hurbil egon zen heriotzatik. Santanderreko bideari jarraitu genion eta nik xotxiketza papalotla, gure Jaun Handiaren, Mintzo den Haren buztinezko zigilua, zeinari aurrerago azalduko dudan mezu bat bidali nion, eta Tlakateka-Aloren errautsak neramatzan. Beraz, hiru gauza sakratu neramatzan.

Eta hainbeste denboraren ostean lehen aldiz berriro Mendebalderantz abiatu ginen, azken hilabeteetan Ekialderantz baikindoazen alferrik. Adostu genuen inoiz ez ginela bide kastellanoetatik ibiliko ez inongo herritan sartuko eta, ostera Aztlanera iristeko zoria izatekotan dena azalduko geniola Gure Jaun Handiari, Mintzo Den Hari, hogeita hamar kanoaz eta gerrari askoz osatutako eskua bat antolatu eta Itsasotik zuzenean bascoen lurralderaino joan gintzen, gutako edonork erakutsi ahal baikenien bidea. Nik pentsatzen nuen agian Tlakateka izendatuko nindutela, kontuan harturik nik Espanhas do Mais Alako Aztlan ezagutzen nuela, guk Aztlan Zaharra deitua bera, eta orduan konturatu nintzen inoiz nire bizitzan, sekula, ez nuela preso bat hartu, eta horrek meritua kentzen zidan. Atzera begiratu eta lapurra'ri harrapatu eta nire preso bezala hartzea bururatu zitzaidan, baina jadanik ez nuen inon aurkitu.

Haien hizkuntza asko ezagutzen nituen gainera, hogeiko multzo pila bat baitziren, eta nire barruan esaten nuen Opotontzin Opotontzin eta doinu polita zeukan. Baina sekula ez zuen gainditu nire irudimena, aurrerago eta bere garaian ondo azalduko denez.

Zuhaitzez beteriko ohian batetik gindoazen eta pila bat jende lotan ikusi genuen, eta poliki-poliki hara hurbilduz Aztlango jendea zela jabetu ginen, ez lotan baizik hilak eta lurreko abereek erdi janda zirela. Soilik Atxoken ezagutu genuen, Oitametlen eta Papalomitxinen taldekoa zena bera, eta asko tristetu gintuen hark, eta zin egin genuen sekula ez genuela utziko lurreko abereek jan gintzen.

Zuhaitz-enborrak bilatu eta haien muturrak pixka bat kixkali genituen, gogortzeko, eta orduan lurra zulatu genuen luzaroan, gau iluna egin arte, eta hamaseiak lurperatu genituen lur hartako abereek akabatu ez zitzaaten. Haien hilobien gainean egin genuen lo, hain lurralde popoloka eta etsaian hain bakarrik senti ez zitezen.

Mendebalderantz eta munduko eskubi aldera jarraitu genuen gure bidea, gauza biak batera egin baitaitezke, eta zinez egiten genuen. Beti erne genbiltzan, eta ez genuen armarik, soilik gosea. Eta beti ezkutuan genbiltzan, hogeit bat untxi iduri, hogeit gerrari azteka izan beharrean. Mendia altua izan arren gu igo egiten ginen, ez baitzen onuragarria aurreko bide beretik pasatzea, jakin baganekielerik nola zegoen Konpainiaren erako osinez eta arrabioz beteta. Eta ez ginen inorekin mintzatzen, ez eta landetako jende zintzoarekin ere, eta bakarren bat aurkitzen genuenean lurra inguratzen genuen, harekin topo ez egiteko. Geratzen ginen hogeioi inoiz baino adiskideago bihurtu ginen, gauza jakina baita ezbeharrek jendea lotzen duela. Atxolli soilik ez, denak ziren nire ilobak, eta nire ustez elkar hainbeste maitatzearena laguntza handia izan zen delako Santanderrera iristeko eta aurrerago ere bai. Lehenago, ordea, Dona Ximena aurkitu genuen, eta kanpora noa aire pixka bat hartzera, eta berehala azalduko dizuet.

HOGITA BATGARREN ATALA

Hala bada, horrela gertatu zen, Opotonek gogoratzen duenez: ohianez betetako mendi baten gainean geunden, bazkaltzen. Artoa aurkitzen genuenean zoriontsu ginen; bestela, sustraiak marruskatzen genituen, Aztlan Zaharreko lurretan askotarikoak baitaude eta haietako batzuk oso onak. Untxi bat ehizatzen genuelarik festa handia egiten genuen eta ohituta geunden haiek jaten eta bagenekien ez zela Jainkoei huts egitea, izan ere Ketzalkoatl-Totek-Tlamakazkik jabearazi baikintuen horretaz. Eta nik esaten nien noiz zen eguerdia, baina zuhaitzen gerizek, han oso zabalak eurak, oso argi ikustea eragozten zigutenean eta jada gezirik ez genuelarik adar zuzen-zuzen bat bilatzen genuen, kainabera-zati bat ere bai aukeran, lurrean zuzen-zuzen josten genuen, eta eguardia denean geriza, geziaren muturra edo gezirik ez dagoenean kainaberarenak zulatutako borobiltxo edo moneta bat bezalakoa da, eta orduan jakina da eguerdia dela. Azao asko joan direlarik Opotonek uste du inozokeria galanta zela eguerdian edo gauerdian geunden jakin nahi izatea, izan ere zeregin osoa egina baikenuen eta berdin zitzaigun gauza bat zein bestea, diot nik.

Dena delarik, orduan denak sakabanatu ginen adar oso zuzen bat edo kainabera-zati bat nork aurkitzen ote zuen saiatzeko, eta ergelkeria hura izan zen gure zortea. Izan ere Atxolli, Otompako nire iloba bat nik buztingile ofizioa irakats niezaion Kainaberadi eta Palmaditik etorria zena bera, adar gabe baina albiste on batekin etorri zen: gu geunden mendiaren oinean jendea zegoen eta Aztlango gure jendea zirudien. Beste inoiz ere esana dago aipatutako Atxollik, Otompakoak, oso urrutitik ikusten zituela gauzak, nola aurkitu zuen lurra, bera izan baitzen Itsasoan barrena gentozelarik hura ikusten lehen tenotxka, eta denak korrika hasi ginen berak oso urrunetik ikusten baitzituen gauzak, eta argi ikusten zituen.

Denok joan ginen korrika eta oso azkar jaisten ginen gorago aipatutako mendi-magaletik, haren izena burutik joan zait ordea, eta dena izan zen hemen jausten eta han altxatzen naiz, esana gera bedi modu figuratuan eta inor laidoztatzeko asmorik gabe, hots, zinbulu-zanbuluka. Eta hurbil geundela, haiek ezagutu eta oihuka hasi ginen

—Oiahua! Oiahua!

Eta eurek ere ikusi gintuzten eta ahots tenotxkak entzun eta alaitu egin ziren eta denak batera, hau da batzuek eta besteak, pozez bete ginen. Oso estu besarkatu genuen elkar baina ezin zen Dona Ximena estutu, haurdunaldian aurrera baitzegoen, eta zazpi gerrari tenotxka eta aipatutako Dona Ximena ziren eta orain esango ditudan zazpi gerrari: Akakueiatl, Kakakillin, Azihtli, Malaakotl, Akatxilotik, Kakatxpon, Huauhtli, eta Huauhtli horrekin zazpiko zerrenda ixten da, eta beste inor ez. Pozez negar egiten genuen denok, eta Dona Ximena ezin zen estuegi besarkatu bere haurdunaldia oso aurreratua zegoenez haurra kaltetu baitzitekeen. Oso sabel handia zeukan, aldiz aurpegia argal, eta begizuloak begi azpian. Sususa bezala jantzita zegoen, beltzez, eta beti izan zen bezain polita zegoen, edo agian gehiago, aipatutako haurdunaldiak dioten modu hartan eta Opotonek azaltzen ez dakien eran edertzen baitzuen.

Orduan, hura ikustean nola maite nuen ulertu nuen eta nola maite zuten denek, eta berak gu, ikusi nuen, neska jatorra baitzen, eta Aztlandik Aztlan Zaharrera Ketzalkoatl-en bila joan ginen tenotxka aztekiko oso leiala eta beltzez jantzita zihoan, nahiz eta hura ez genuen sekula aurkitu.

Lasaiago zegoelarik azalpenak ematen hasi zitzaiguun eta berehala etortzen zitzaion ezinegona, nola txikitu zuten Tlakatekaren eta Moiotlen armada bascoen lurraldera ia iritsita zeudelarik, eta negar asko egiten zuen guri hura azalduz, tristezia handiz. Eta guk, beste tenotxkak, aski negar egiten genuen hura entzunez, zeren hogeika eta hogeika gehiagoko gerrari kaktzopintlez osatutako Konpainiak inguratu eta Tlakateka eta Moiotl birrindu baitzituzten, eta Aztlango beste gerrari batzuk ere bai, eta bertoko jende galegoaren zati on bat, gurekin azken odol-tanta isurtzeko hitz emana zuena, horrela hitz ematen baita, eta Sant lago, Sant lago oihukatzen zuten hura baitzen haien gerra-oihua, eta galegoek zioten Kesalkuas, Kesalkuas, hau da zu niretzat eta ni zuretzat balitz bezala. Hartu zuten Tlakateka, Moiotl aski zauritua, eta artean hil gabeko beste gerrariak eta han bertan zeuden zuhaitz batzuetatik zintzilikatu zituzten, lurralde hura dena beteta baitago.

Hura dena aipatutako Losarcos eta Lizarra artean gertatu zen, juxtu bascoen lurraldean sartzeko zeudela. Oso gutxi falta zitzairen sartzeko, beraz. Eta Dona Ximena eta orain aipatuko ditudan zazpi kideak salbatu ziren, zeren, txikizioa baino pixka bat lehenago, Pradosko mendira bidali zituen Tlakatekak, aurrerantzean beti haiekin etorriko zen emagin bat bilatzeko, kontuan harturik haurra erditzeko gutxi falta zela zirudielarik, eta Tlakatekak nahi zuen Dona Ximena ondo zainduta egotea eta emagina beti eskura eduki zezan, eta Pradosen bazegoen, emagina zeukan herria baitzen. Hauek dira zazpi gerrarien izenak: Akatxilotik, Azihtli, Akakuieatl, Kakatxpon, Malaakotli, Huauhtli, Kakazillin eta Doña Ximena. Kosta ahala kosta emagin bat ekartzeko agindu zien Tlakatekak. Hilik ala bizirik, esateko moduan, baina ulertuko duzue hitz egiteko modu figuratua dela eta horrexegatik orain esango ditudan esaten ari naizen zazpi gerrarik lagundu zioten Dona Ximenari, zeinak, beraz, Losarcos eta Lizarra inguruko gerratik salbatu ziren. Muino baten gainetik ikusi zuten txikizioa eta jadanik ezin izan zuten emaginaren bila joan.

Gerrari guztiek lagundu behar izan zioten Dona Ximenari bere Tlakateka zintzilikatu egin zutela ikusirik konortea galdu zuenean. Suntsipenaren ondoren berak eta zazpi gerrari tenotxkek bascoen lurralderantz joateko erabakia hartu zuten Ketzalkoatlen beste bilatzaile guztiak aurkitzen ote zituzten. Nik itsas borroka guztiak azaldu nizkien eta nola desegin gintuzten, eta desertatu edo hil ziren guztiak, Dona Ximena izan ezik gure artean ez baitzegoen beste bertoko galegorik geratzen, eta hura ere ez zen bertoko galegoa baizik Fala Castellako beste lurralde batekoa eta Dona Blanca baino mexikagoa zen¹⁶⁶.

Papalomitxinen eta Oiametlen armada nola birrindu zuten ere jabearazi nuen, zeinak Leonen preso zeuden, eta bera izutu egin zen, ezagutzen baitzuen aipatutako hiria eta ez zuen ezer onik espero. Esan genionean Leon, lehoia esan nahi baitu, setiatzea ere pentsatu genuela, esan zuen ez barre eginarazteko, Leon oso hiri handia zela, hainbeste ezen azteka guztiak geundenean ere ezin izango genuela setiatu ahal izango.

Bera, Dona Ximena, hunkitu egin zen gure joan-etorriekin eta esan zigun min egiten ziola hain herri gaiztoan jaio izateak eta aurrerantzean ez zuela bertoko Sususa izan nahiko, baizik Sususa tenotxka azteka, eta pozez zotinka jarri gintuen, azken garai haietan entzundako ahots adiskide bakarra baitzen berea.

Orduan Santanderrera joatea erabaki zen eta gure kanoak berraurkitzen saiatu eta, bat bakarra harturik, osoago egongo zena, Aztlanera itzuliko ginela. Huauhtlik esan zuen agian hobe zela Galeziako bat hartzea, karabela alegia, eta azaldu

¹⁶⁶ Itzulezinezko hitz-joko bat dago sumendiaren izenaren eta Doña Ximena aipatzeko modu maitakor baten artean.

genion jadanik ez zeudela eta oraindik hobe zela, urrik emanda ere ez baitziren gureak bezain itsastarrak eta, are gehiago, eragin ahal zen efektu txarra geratzen zen. Izan ere zer esango zukeen Gure Jaunak gureetako kanoetako bat bakarra berreskuratu ez genuela ikustean. Eta bestalde gure kanoek jadanik belak eta aingurak bazituztenez, lehen baino askoz hobeto nabigatu ahalko genuen, eta gainera jadanik ez zen hainbeste jende egongo arraunean. Gauza horietaz guztietaz mintzatzen gindoazen eta Kakazillinek esan zuen agian deseginda egongo zirela gure kanoak eta lamollik, eta kontuan hartu lamollik esaten dudala eta ez beste lamollik, lamollik berak esan zuen ezen ez bagenituen aurkizten bat eraikiko genuela denon artean, baina xotxiketzalpapalotla eta Aloren errautsak Aztlanera iritsiko zirela bai ala bai. Baita bertoko galego guztien aurka, Espanhas Do Mais Alaren eta Tantomontamontatanto beraren aurka borroka egin behar izanda ere. Eta dena Gure Jaun Handiaren, Mintzo den Haren, Ahuizotl deituaren oinetara ipini behar genuela, haserrez sumindu eta Espanhas do Mais Alaren mendeku har zezan. Horixe esaten genuen baina erabat alderantziz gertatu zen, bere garaian esango denez Koatlíkuek indarra ematen badit, eta txapelarena aipatuko dizuedanean izango da.

Hori erabaki zuten geratzen ziren tenotxkek eta Dona Ximenak, zeina gutxi bezain emakume adoretsua izan baitzen eta gizon jaio izan balitz lurra dardaratuko zukeen, zuhurra eta jokabide jakintsukoa baitzen.

Eta bidea egiten hasi ginen baina ez zuen asko iraun. Zeren hura minez bete baitzen eta erditzeko bere zereginean hasi baitzen, eta soilik hari begira geunden ez baikenekinen nola lagundu, hura beti emakumeen zeregina izan eta izango baita, eta gizonok ez genuen inoiz egiten ikusi, oso itsusia baita, esana gera bedi Jainkoaren egia onaren ohoretan. Baina emakume indartsua zen bera eta kontuan harturik gerrari tenotxka bat zekarrela, adorez beteta zegoen, Zihuakoatl-Kilaztli Jainkosa bezala lehen gizonaz erditu zenean. Bere maxtlatla indarrez hozkatzen zuen, gure Tlakatekaren maxtlatla berekin baitzeukan, izan ere zintzilikatu zuten gauean Malakotlek hura ekartzeko agindu eta Dona Ximenari ekarri zion, oso indartsu hozkatzen ari zena, horrek erditzen lagundu zion. Mutiko bat jaio zen eta, beranduago, dena ordenan eta bera berreginda zegoenean, emakume bezala primeran ezagutzen baitzuen bere ofizioa eta nola lagundu ahal genion esaten zihoan, esan zuen umearen izena Tlakateka-Ketzalkoatl-Tenotxka izango zela eta esan genion ez zegoela ondo¹⁶⁷, baina berak esan zuen bere haurraren berak agintzen zuela eta era hartara deituko zela eta berdin zitzaiola esan genezakeen guztia zeren, azken finean, berak Tlaka deituko ziola. Aski eztabaidatu genuen eta bere ongizateagatik aholkatzen genion kokonetla Tlapilli izatea, eta ez zuen gehiago entzun nahi izan, esaten baitzuen pillik pilloren antza zeukala, Fala Castellan hitz itsusia bera, eta berak irabazi zuen, aipatutako Dona Ximenak, izan ere bera baitzen jaioberriaren ama.

Orain asko daude, baina Tlapilli hura Aztlanen eta Aztlan Zaharraren artean jaiotako lehena izan zen eta aurrerago, ondo begiratzerik zeneukanean, gure Tlakateka bezalakoxea zela ikusi genuen, Ketzalkoatlek Bere abaroan gordetzea nahi dezala luzaroan. Ondo egin eta mamitutako tenotxka bat zen, Aztlango odolez ondo betea. Eta nahiz eta Dona Ximena gau askotan atera zen aipatutako Tlapillik bere barruan zama egiten zuenean, gauean ibili eta egunez atseden hartzen baitzuen gu guztiok bezala, kokonetla ez zen oso negartia atera. Guk, aztekak, denok negar egin genuen, baina esker oneko otoitzez. Lukainkazko

¹⁶⁷ Nahuatl hizkuntzaren senaren arabera izena, *Ketzaltenotx-titlakatekapilli* izango zen. Hortik dator Dona Ximenaren nahi gabeko barbarismoarekiko puristen desakordioa.

tamallia egin genuen eta Dona Ximenak bat jaten zuen, baina aurretik Tlakari bat eman zion dastatzera, sekula ez zezan eduki zotin astintzailea.

Hurrengo biharamunean Dona Ximenaren eta gure Tlakatekaren semea bataiatu genuen. Berak nahi izan zuen bataioa modu aztekan egitea eta aurreko gauean arku ttiki bat osatu genuen, lau gezi ttiki eta ximalli ttiki bat eta oso ondo geratu zitzaigun dena, esaten baitugu ondoen geratzen diren lapikoak ilusioz egindakoak direla. Kotoizko arropa baten zatiarekin maxtlatl bat eta tilmatl ttikiak egin genituen eta borobilean eseri ginen, kokoriko, eta ni aukeratu ninduten aitabitxitzat, ni bainintzen Kapitaina.

Nik haurra bi eskuekin hartu eta Mendebalderantz altxatu nuen esanaz:

—O nire arranoa, o nire tigrea! O gizon adoretua, nire biloba! Mundu honetan zaude jadanik, nora zure aita Tlakatekak eta zure ama Donak ekarri zaituzten, eta Aztlango kanoa baten gainean gauzatua izan zinen, Aztlango lurlean balitz bezala alegia, eta, beraz, Aztlanen jaioa zara. Orain dela hogeiko berrehun eta hiru egun gauzatua izan zinen, hots hamahiru aldiz hogeia, eta zenbaki sakratuak dira hauek. Han zeuden gure Jainkoak, ikusi zuten eta nahi izan zuten. Eta gure Jainko Ketzalkoatlek, edonon dagoenak, babesez bete zaitu. Joan zaitetz orain zure amarengana, Uraren Jainkosa Txaltxiuhtlikuegana.

Opotonek bi atzamar uretan ipini eta kokonetlaren ahora eraman zituen, hari esanaz:

—Har ezazu ur santu honetatik, eta lurlean biziaraziko dizu, o nire tigrea, eta hazi eta birsortarazi.

Orduan nire atzamarretako urarekin zakila ukitu nion, eta gero bularra, eta aitaponteak esan zuen:

—Senti ezazu hemen zeruko ura, bihotza garbituko dizuna.

Orduan buruan ipini eta esan nuen.

—O nire semea, nire biloba! Tori, hartu lurreko Jaunaren ura; sartu eta jabetu dadila zure gorputzaz, desegin dezala zure barruan dagoen eta munduan ibili aurretik eman zitzaizun gaitz guztia.

Zerurantz altxatu eta esan nuen:

—Hara hemen, Jauna, zure haurra, min, atsekabe eta penitzentziatzko toki honetara etorritzeko nahi izan duzuna. Emaiozu zure inspirazioa.

Orduan hiru aldiz gehiago Zerurantz jaso eta Zitlatonak eta beste Jainkoei gomendatu nien, eta azkenean Eguzkiari. Orduan nire ahotsak esan zuen:

—Jainko Eguzki eta Tlatekutli, Ama eta Aita gurea: hemen dakusazu haur hau, luma fineko txorinoa. Zurea da eta eskaini egiten dizut, gure Eguzki, Tonametl, Txipilli, Kuauktli, Ozelotl. Har ezazu zure ardurapean, zure gerraria eta borrokalaria izango baita.

Orduan arkua, geziak eta ximallia hartu eta esan nuen:

—Hauek dira erabiliko dituzun miliziako tresnak. Emaizkiezu zure soldaduei ematen dizkiezun dohainak borroka-tokian adoretu hil dadin, bere aita hil den bezala, eta betierean goraiatzaren zaituzten legiora elkar dadin.

Maiz hausten zitzaidan ahotsa aitaxiarena egiten nuen lehen aldia baitzen niretzat eta ia denek egiten zuten negar. Orduan Kakatxponek gerrako tresnak haren eskuetan ipini eta esan zion:

—Tori, Tlakateka-Ketzal-Tenotxka, zure eskutua, zure arkua eta zure geziak. Poztu zaitetz, Aita Eguzkiaren pozaldia ere baibaitira.

Eta orduan maxtlatla eta tilmallia ipini genizkion eta mutiko tenotxka bataiatua zen eta Tlakateka-Ketzal-Tenotxka zuen izena, baina Tlaka esaten genion, efektu hobea egiten baitu eta ez genion Tlapakilli esaten Aztlan Zaharrean hitz itsusia ematen duelako.

Eta bidean jarraitu genuen, kontuan harturik hogeita bederatzi ginela. Hogeitazortzi azteka eta baten ama, txikienarena, iristen azkenarena, eta hura Doña Blanca baino mexikagoa zen¹⁶⁸

Izatez Doña Ximena goxatzen bagenuen orain inoiz baino kuttunago geneukan. Ahozabalik geratzen ginen, matrailezurra sabel gainean erorita, Tlakari bularra ematen zionean. Aski polita zen hain kokonetl beltzarana hain bular zurien artean ikustea, eta denok nahiko genukeen haurraren tokian egon, eta Dona Ximenari esaten genion eta irribarre egiten zuen, baina Tlakatekaren memoriarekiko errespetu pixka bat gehiago eskatzen zigun, eta guk esaten genion ez zela errespetu-falta, barrea eragiteko broma bezala esaten baitzen.

Aipatutako Santandarreko badiara iritsi ginen orduan eta kanoak erreta aurkitu genituen eta osoen zegoena Kuauktintxan zeritzana zen. Eta bihotza uzurtzen zuen ikusteak zenbat kalamidade pasatu behar izan genituen soilik Gure Jaun Handiak, Mintzo Den Hark, Ahuizotlek alegia, agindutakoa betetzearen, Ketzalkoatlén bila joatea hain zuzen. Baina, kontuan harturik kexatzeak ez zuela ezertarako balio, denok saiatu ginen aurkitu genituen era guztietako egurrekin Kuauhtintxan konpontzen, haietako batzuk gure kanoetatikoak, erraza baitzen ezagutzea Aztlandik ateratakoak baitziren, eta eginkizuna denok gustura egiten genuenez, ondo konponduta utzi genuen kanoa lau bat egun lanean eman ondoren, jende galegoa edo bablea edo dena delakoa igarotzen ikusten genuenean beti ezkutatu.

¹⁶⁸ Gustoko izan du aurreko hitz-jokoa eta ostera egiten du.

HOGEITABIGARREN ATALA

Soilik norbait hurbiltzen zenean gelditzen genuen Kuauhtintxana konpontzeko lana. Lan- eta atsedena-txanda egokiak antolatu genituen, eta atsedena hartzen zutenek zentinela-eginkizuna zeukaten eta berehala ohartarazten gintuzten norbait zetorreanean, eta korrika ezkutatzaren ginen denok, bakoitzak baibatzeukan bere ezkutalekua eta barre-algara ederrak egiten genituen ezkutatzaren ginenean baina batzuetan angustia handia geneukan, gauzak zihoazen moduan baitzihoazen. Behin kanoa barruan ezkutatzeko beharra izan nuen Fala Galegako soldadu-talde bat igaro baitzen eta oharkabea harrapatu ninduen eta kanoa barruan ezkutatu behar izan nuen. Nola esaten zuten entzun nuen:

—Oíd, compañeros: esto no estaba así¹⁶⁹

Argi zegoen zelatan zebiltzala alde guztietatik eta batek esan zuen:

—¿No andarán por ahí otra vez los demonios?¹⁷⁰

Eta galdera modura egin zuen. Nik pentsatzen nuen aurkituko gintuztela nire bihotzaren taupadak oso indartsuak baitziren eta zaratatsu entzuten ziren. Orduan beste batek:

—Esto no me gusta nada. Vamos a dar parte al capitán¹⁷¹.

Jende guztia batu eta luze itxaron behar izan genuen, aski urrun egon ziren arte. Beste guztiei dei egin genien eta inoiz baino atsegin handiagoz lanean jarri ginen. Denon artean zuzen jarri genuen kanoa, eta oso azkar ontziratu genuen batu ahal izan genuen guztia, gauza handirik izan ez arren, eta Azihtli eta Akatxilatik joanak ziren ur geza eraman ahal izateko txarro handien bila eta itzultzen ez zirelarik, oso kezkatuta geunden gu guztiok, angustiaz beteta geundela esateko beste modu bat. Baina azken buru iritsi eta ez zekartzaten txarroak baizik zahagiak eta oso beteta, oso astunak izango baitziren, zamak ondo okertuta zetoze la ikusirik.

Nekazari batzuen etxean lortu zituzten eta patioan inor ez izan arte itxaron behar izan zuten, eta txakurrak zaunka asko egin zien eta bazirudien dena pikutara joango zela baina ur gezako ibaira iritsi ziren arazorik gabe eta haiek bete eta garraiatu egin zituzten, eta ez dut ulertzen nola egin ahal izan zuten, esanda baitago oso astunak zirela.

Orduan denok batera uretara bota genuen kanoa eta aski ondo abiatu zen, lan handia egin baikenuen hura atontzeko, eta bertara igo ginen eta Aztlango gerrari-talde bat geratu zen soldadu-multzoa aipatutako kapitainarekin itzultzen ote zen zelatan, eta erabakita geneukan itzultzen baziren denak akabatuko genituela nola edo hala, eta beste guztiak jo eta ke aritu ziren falta ziren gauzak kanoara igotzen. Nik esaten nuen ezen taldea Fala Galegako kapitainarekin etorri zirenean zur eta lur geratuko zirela jadanik kanoa tenotxka, izenez Kuauhtintxan, bertan ez zegoela oharturik, eta orduan inoiz baino gehiago uste izango zuten Aztlango jende azteka deabruak zirela, nioen nik.

Gaueko ordu txikitik Itsasoratu ginen, Itsaso Handian, gure Aztlanera ematen duena beste aldera iristean. Ez zegoen batere ilargirik eta horrek alde batetik lagungarri genuen eta beste aldetik ez, azalduko denez, zailago bihurtzen baitzuen gure nabigazioa, ez baikenuen kosta hura ezagutu eta lagundu ahalko zigukeen inolako Pedroperezirik. Aldiz, laster atera ginen Itsasora eta arraunean iritsiak

¹⁶⁹ “Entzun, adiskideak: hau ez zegoen horrela”.

¹⁷⁰ “Ez dira ba ibiliko berriro deabruak?”.

¹⁷¹ “Hau ez dut batere gustukoa. Goazen kapitaina ohartaraztera”.

ginen bertara, Kakatxponek eta Malakoltek egindako arraun on batzuekin, oso trebeak baitziren zurgintzari zegokionez. Itsasoa belak zabaldu genituen eta itsas martxa isilagoa bilakatu zen, azeriaren urratsen parekoa, eta poz handia ematen zigun guztioi bela- eta soka-kontuetan trebe bihurtzeak inolako Pedroperezik gabe. Eta bihotzak hondar-ale bezain ttiki bihurtu zitaizkigun eta nik, Kapitaina nintzelarik, zegokidan aurreko etxea Dona Ximenari eta Tlakari utzi nien, zeinak oso pozik geratu baitziren.

Eta barre egiten genuen soldadu-taldekoek ipiniko zuten aurpegian pentsatuz.

Nik esan nien beti Mendebalderantz joango ginela baina hasieran, nahiz eta itzulia ematea zen, munduko eskuin aldera abiatuko ginela, hots, iparralderantz, alegia ezer esan nahi ez zuen izena, eta horregatik munduko eskuin aldea esaten genuen aldiro, guretzat aztekontzat gauza ulergarria zena. Egitekotan, azkarrago urrunduko ginen Aztlan Zaharreko kostatik, oso atzean uzteko gogo bizia baikeneukan, inolako gaitzik egitera etorri ez ziren tenotxka onei pasatzen uzten ez zien lur madarikatua baitzen. Batik bat karabelekin topo ez egitea behar zen, ekintza txarreko itsasontziak baitira. Eta haizea aldekoa geneukan eta uhinen mugimendua indartsua zen baina aipatutako Kuauhtintxanek osteria nabigatzen zuen eta oso gauza alaia zen, diot nik. Esango zenuten etxerantz itzultzen ari ginela asmatu zuela. Ikauhiakiek iparrorratz izeneko orratz artega haietako bat gordeta zeukan oroigarri gisa, eta eman egin zidan nik, Kapitaina izanik, gaueko itsas nabigazio on bat eman niezaien. Luze arakatu nuen tortxa baten argipean eta soilik orratzaren mugimendua ikusten zen eta ulertu ahal izan nuen guztia izan zen aipatutako Pedroperezek asko zekitela Itsasoko gauza hauetaz.

Opotonek Ikauhiakiri itzuli zion iparrorratza eta orduz geroztik lepotik zintzilik eramane zuen eta inork ez zuen begiratzen non geunden jakin ahal izateko. Uharte Gaiztokeek hartu zuten baina oraindik ez da iritsi hartaz mintzatzeko unea. Eta historia honetan bertan egoteko aski duinak diren beste gauza batzuk ipiniko ditut, izan ere egun argitzea baitzen gu aurkituak izateko beldur gehien geneukan unea, baina zorionez Aztlan Zaharreko kosta oso urruti ikusten zen eta oraindik nabigazio pila bat egin genuen gorantza babes gehiago izatearren, eta Itsasoa oso urdina zen eta uhinek ez ziguten martxa galarazten.

Kuauhtintxanen gindoazen guztiok elkar begiratzen genuenean irribarre egiten genuen, ezinezkoa iruditzen baitzitzaigun lur madarikatutik irten izana. Kanoaren aurreko etxean orain esango dudana hiru pertsona zihoazen. Ezkerretik eskubira: Opoton Kapitaina, Tenotxtitlan Handiko Kainaberadi eta Palmadikoa, aldika bertan sartzen zena; Dona Ximena, lehenago Sususa izana eta orain jadanik ez, eta Tlakapilli, aipatutako Sususaren eta Tlakateka Gure Jaun Handiaren, Mintzo Den Haren anaiaren semea.

Haizeak ondo puzten zituen gure kanoaren belak eta Kakatxponek lema zaintzen zuen eta aski ongi gainera, justizia eta egia dagokien tokian.

Bat-batean aztoratu egin ginen karabela bat baitzetorren trabeska, eta nahiz eta Opotonek sena galdu ez zuen arren, gure kanoaren barruan, izenez Kuauhtintxan, desordena pixka bat sortu zen. Atxolli karabela aztertzen saiatzen zen, bakezkoa edo gerrazkoa ote zen, baina alferrik. Eta oso gertu geneukanean Dona Ximenak esan zigun:

—Fala Francakoa da, Fala Francakoa.

Eta Fala Franca ez zelarik gure etsaia, orduan tenotxka azteka guztiak azkar qui¹⁷².

¹⁷² Hemen amaitzen da eskuizkribuaren azken orria. *Qui*- nahuatlezko hitz askoren aurrizkia da eta beti adierazten du irteera-ideia. Ez dago modurik asmatzeko, ez esaldiaren amaiera ez eta hitzarena ere.